

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARGENTINAKO DIASPORAKO EUSKAL PRENTSAREN AZTERKETA

Laurak Bat (1878-1891)

La Baskonia (1893-1943)

Irrintzi (1903-1923)



Kepa Zelaia Bolinaga

Zuzendariak: Ainara Larrondo Ureta eta Irati Agirreazkuenaga Onaindia

ZAZPIAK-BAT

Zazpi aizparen gai dan oyala
Ebakirikan erditik,
Alde batera iru soñeko
Utzirikan lau bestetik,
Goraiziakiñ berezi arren
Bakoitza bere aldetik,
Ezagutzen da jautzi dirala
Zazpiak oyal batetik.


Oyaltzat artu zagun Euskara,
Goraizitzat Bidasoa,
Ibai koskor bat besterik ez da,
Utsa balitz itsasoa:
Elkarren urbill-daude Zazpiak
Muga deritza *Pausoa*,
¿Zergatik izan biar ez degu
Famili bakar osoa?

Arbola baten zaiñetatikan
Sortzen diran landariak
Bezela gera, Bidasoaren
Bi aldetako jendiak:
Berdiñak dira gure jatorri,
Oiturak eta legiak,
Ama Euskarak magal berian
Azitako senidiak.

¡Ama Euskara! ¡Bere semiak
Gu Ameriketán zenbat
Arkitzen geran! ta urrutitik
Maitiako degu anbat:
Emen ez dago *Bidasoarik*
Ta beste trabik au ainbat;
Ama maitia indartu dediñ
Bizi bedi «Zazpiak-Bat».

PELLO MARI OTAÑO

Pehuajó, 1900



Portadan datorren den irudia, *Irrintzi* aldizkariaren 89. zenbakian (1910/10/15) azaltzen den irudi baten gainean Xabier Mendizabalek egindako marrazkia da.

“Zazpiak-Bat” poemaren ostean datorren irudia *La Baskonia* aldizkariaren 234. zenbakitik (1900/03/30) dago hartuta.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak diruz lagundutako ikerketa. 2019-2023 urte bitarterako jasotako "Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko" kontratua eta hiru hilabetetako egonaldia egiteko diru-laguntza Renoko-ko Unibertsitatean, Xabier Irujo irakaslearen babespean.

This research has been funded by the department of Education of the Basque Government, with a pre-doctoral training grant for years 2019-2023. The Basque Government also funded a three months research stay at the University of Reno under the auspices of Professor Xabier Irujo.

Esker onez

Eskerrak eman nahi dizkizuet azken urte hauetan bidean lagundu didazuen guztioi. Bakarka luzaroan aritzeko lana izan da eta norbaiten gertutasuna sentitzeak beti egiten du mesede.

Nire buruan ez zegoen tesi bat egiteko asmoa, eta ideia hori bueltaka hasi zitzaidanean, beharrezkoak izan nituen etxeko babes eta unibertsitateko animoak proiektuari ekiteko. Ordurako Ameriketara joan eta etorria eginda eduki arren, ez nuen uste gai honetan horrela murgilduko nintzenik.

Lehen pausuak emateko beharrezkoak izan nituen Josebarekin bilerak, bere proposamen eta ideiak, egin nahi nuen zerbait horri forma eta zentzua eman ziotenak. Baita Unaien prestutasuna, zuzenketa finak eta gomendio lagungarriak. Herrian ere, Jotxo saiatu zen bere gomendioekin bide ona jarraitu nezan.

Horrela elkartu ginen Ainara, Irati eta hirurok eta hasi ginen hemen datorrenean lanean. Hasiera guztietan bezala zalantzak egon ziren, ea nola bideratu egin beharrekoa. Askok eskertzen diet nire asmoetara moldatzeko esfortzua. Orduetik bidelagun aritu gara, batzuetan elkar ederki ulertuz eta beste batzuetan ez horrenbeste. Uste dut lan duina egin dugula eta esperientzia ederra izan da zuekin elkarlanean lana aurrera eramatea.

Ezin dut Oscar eskertu gabe utzi, lanaren hasieratik, distantziatik bada ere, etengabe aldamenean egon da eta asko zor diot. Tesiaren prozesu osoan presente egon da, proposamenak bidaliz, zalantzak argituz eta behar izan dudana guztietan laguntza eskainiz.

Tesia hasterakoan unibertsitateko Ikertum gelan hartu nuen lurra. Talde polita genuen lana giro onean egiteko, baita egunero kafea hartu eta bazkaltzeko. Pena pandemia bat etorri zitzaigula eta oso ondo zer egin ez genekiela geratu ginela. Orduetik kide ezberdinak ibili dira joan-etorrian gelan eta jende ugari ezagutu dut nire txokotik. Bazkaritan lagun berriekin ere batu naiz, eta benetan eskertzen da konpainia ona, hitz

egin baino gehiago eztabaidatu egiten dugun talde horretan. Tartean gerra bat sortzeak ere ez digu lagundu.

Leioatik kanpo, Renora joandakoan ere oso ondo hartu ninduten bertakoek. Egonaldi ederra izan zen; unibertsitate eta ikerketa zentro interesgarria ezagutzeko aukera; irakasle, ikertzaile eta kide eskuzabalekin hizketaldietan ikasi; paisaia ederretan bidaiatu; bertako euskal komunitatera gerturatu, etab.

Euskal Diasporan graduondoko espezializazioa ere bertan hasi nuen, online klase goiztiarrekin. Gero, aurrez aurre ere ezagutu gara batzuk Gasteizko klaseetan, eta talde kurioso bezain aberasgarria osatu dugu klaseko kideok. Josuri ere eskerrak eman nahi dizkiot amaierako lana zuzentzen izandako prestutasunagatik, tesian ere baliagarria izan zaidana.

Bilbon astea egin eta asteburuan Oñatira buelta eginez, momentuz ez dut aspertzeko denborarik. Ordenagailutik burua jasotzeko lagunenez mezua baino askoz gehiago ez dut behar. Hor dabilta lagunak, eta baita ni ere, askotan beraien zoritxarrerako. Saiatu naiz azaltzen zertan ibili naizen urteotan, baina askoren ustez oraindik ikasten nabil. Lagunekin ibiltzea gauza ederra da eta agian tesi baterako eman dezake gaiak.

Etxekoek ere ez dute meritu gutxi ni ulertzen saiatzeagatik. Bazkal ordutan zenbat azalpen eman ote ditut tesiko lanen inguruan, ezer ulertzen ez didatenaren sentsazioarekin. Beti haserretzeko gutxi faltan eta beti maitasuna jasotzeko esperoan. Uste dut tesi honetan meritu handiena zuek duzuela.

Eskerrik asko guztioi bihotzez.

AURKIBIDEA

Summary.....	9
Laburpena.....	16
1. Sarrera.....	23
1.1. Gaiaren interesa.....	23
1.2. Ikerketaren aurrekariak.....	27
2. Diseinu metodologikoa.....	41
2.1. Helburuak.....	41
2.2. Hipotesiak.....	42
2.3. Ikerketaren unibertsoa.....	44
2.3.1. Urazandi Digitala.....	44
2.3.2. Jon Bilbao Basque Library-n.....	45
2.3.3. Unibertsoa aldizkari motaka Ameriketara.....	48
2.3.4. Unibertso osoa Argentinan.....	57
2.4. Aukeratutako lagina.....	60
2.5. Metodoa.....	63
2.5.1. Eduki-analisia.....	63
2.5.1.1. Analisirako fitxa.....	69
2.5.2. Azterketa biografikoa.....	71
3. Marko teorikoa.....	74
3.1. Ameriketako euskal diaspora 1877-1936 eta kazetaritza ekimenak.....	74
3.1.1. Euskal emigrazioak XIX. mendean.....	74
3.1.2. Euskal diasporaren asoziazionismoaren hasiera eta lehen prentsa argitalpenak.....	84
3.1.3. Euskal abertzaletasunaren iritsiera Ameriketara eta aldizkari abertzaleak.....	93

3.2. Euskal kazetaritzaren historia.....	102
3.2.1. Euskal kazetaritzaren historiari buruzko ikerketak.....	102
3.2.2. Euskal diaspora eta komunikabideen bilakaera Argentinan.....	106
3.2.2.1. Euskal prentsaren lehen ekimenak 1878an hasita.....	106
3.2.2.2. 1936ko Espainiako Gerra Zibila eta erbesteko argitalpenak.....	111
3.2.2.3. Satelite bidezko komunikazioa eta Canal Vasco.....	116
3.2.2.4. Internet eta sare sozialak euskal diasporan.....	119
3.3. Diaspora, emigrazioa eta komunikabideak.....	123
4. Emaitzak.....	126
4.1. <i>Laurak Bat</i> (1878-1891).....	126
4.2. <i>La Baskonia</i> (1893-1943).....	161
4.3. <i>Irrintzi</i> (1903-1923).....	215
5. Conclusions.....	246
Ondorioak.....	259
6. Bibliografia.....	272
Eranskinak.....	291

SUMMARY

In this piece of research we examine the creation and development of the Basque press in the Argentinian diaspora, from its beginnings at the end of 19th century until the Spanish Civil War period (1877-1936). To date, the Basque press in the Argentinian diaspora has received little coverage in the literature on the subject. To help fill this gap, this thesis examines three magazines by means of content analysis: *Laurak Bat* (1878-1891), *La Baskonia* (1893-1943) and *Irrintzi* (1903-1923). We analysed the journalistic style and editorial line followed by different types of magazines (institutional, cultural and intellectual, and political), put them in the context in which they were published, and also explained the needs they addressed of the Basque community in the diaspora. In total, 281 issues of *Laurak Bat*, 1,671 issues of *La Baskonia*, and 133 issues of *Irrintzi* were examined.

Research into the activities of Basque emigrants on the other side of the Atlantic has undergone interesting changes over recent years. As well as new research being carried out – both in the Basque Country and in the countries that received Basque emigrants – the areas and topics that these pieces of research cover have undergone progressive development and diversification. The concept of "diaspora" has emerged when interpreting the phenomenon of migration.

Basque emigration to the Americas became significant in terms of numbers at the end of the 19th century, and the emigrants set up communication systems in order to consolidate their community. With the development of associationism, the social structure which the emigrants had set up served to maintain their original identity and to forge new identities. The press was a medium for social mass communication and influence. This means that today they are a significant source of information about the emigrants' activities in their new countries.

Likewise, as the field of diaspora research has expanded and diversified, the press has begun to be taken into account as an object of research. These publications are multidimensional cultural objects which offer the opportunity to develop a range of research questions. With regard to the Basque press, it should be taken into account that

Basque historiography on communication and journalism is scarce and was a late arrival. The same shortcomings that until recently affected the history of Basque journalism in general also affected that of the Basque press in the diaspora. Although there are some articles and pieces of research, few attempts have been made to explain the subject in its entirety.

Several authors have used the Basque press in the diaspora as a source for researching historical topics. These studies have addressed issues such as the institutions created around the Basque community, political movements, family relations and the construction of Basque identity. Examples of this include William Douglass and Jon Bilbao (1975), Gloria Totoricagüena (2005), Oscar Alvarez Gila (2019b) and Koldo San Sebastian (2014). However, press publications as a journalistic subject have not been widely studied.

Several references to the Basque press in the diaspora are to be found – for instance, Andoni de Astigarraga (1981), Jose Ramon Zabala (1994), Javier Diaz-Noci (2001), Alberto Irigoyen (2008) and Angeles de Dios Altuna de Martina (2012) – but no specific work has been carried out to examine the subject in its entirety.

In the theoretical framework, the historical context for understanding what took place in the Basque diaspora in the Americas between 1877 and 1936 has been explained, and, in that context, the way in which various journalistic initiatives were set up is detailed. Firstly, we look at the origins of the Basque emigrants who left for the Americas in the 19th century, their reasons for going there, reactions to that phenomenon in Basque society, and their types of work in the new country. Then we examine the Basque collective's first steps in forming associations, the importance of the Basque language and Basque hotels, the setting up of the first Basque Centres and press initiatives, the press in Basque, and *La Baskonia* magazine. Finally, we look at the arrival of Basque patriotism in the Americas and the publication of the first patriotic magazines; we examine in depth the use of the anthem and the first Basque flags, the discussion of whether Basque patriotism had previously existed, and the impact of Sabino Arana's ideas on the collective and on the press on the other side of the Atlantic.

We analyse the development of research into the history of Basque journalism within the theoretical framework, explaining the first pieces of work carried out at universities, the works of note, and the current situation of the research subject. We also make use of the end-of-course project for the Basque Diaspora University Specialization qualification, by drawing up a review of the historical development of the media in connection with the Basque diaspora in Argentina. To do so, we briefly explain the long journey from the first press initiatives at the end of the 19th century to the digital environment of recent decades. We set the types of journalism from different periods in their historical context, and provide a bibliographical review of everything that has been written about this subject. With regard to the first period under study ("The first Basque press initiatives starting in 1878"), although the PhD thesis examines it in depth, to enable this section to be completed (point 2.2.2), it was decided to leave it as it is given that certain ideas are dealt with more than once.

To conclude this section, drawing on different theoretical analyses about the diaspora, we explain some ideas that may be of interest and useful for work on the relationship between the diaspora, emigration and the media.

Regarding methodology, it should be mentioned first of all that 183 publications and about 200,000 pages published since the 19th century on the Basque diaspora have been digitized and are available on the Basque Government's Urazandi Digitala website. This invaluable work was carried out by Uruguayan technicians Alberto Irigoyen and Adriana Patrón. A total of 128 Basque publications from the diaspora in the Americas have been digitized for Urazandi. They come from the following countries: Argentina, 38; Venezuela, 29; Mexico, 23; the United States, 14; Cuba, 7; Uruguay, 7; Chile, 6; Colombia, 2; Guatemala, 1; Panama, 1. With regard to the type of publication, there are 37 magazines linked to institutions or associations, 34 cultural and intellectual magazines, and, finally, 57 periodicals focusing on political issues.

We have drawn up tables to classify these magazines. One table shows each type of magazine (institutional, cultural and intellectual, political) throughout the Americas by country and in chronological order. Another table lists all the publications in Argentina.

In addition to the magazines digitized on the Urazandi Digital website, the site has published works about the history of the Basque communities in various countries. To date, 31 studies have been published. In some of them there is information about the press, with specific chapters on this subject.

Work on this PhD thesis included a three-month stay at the William A. Douglass Center for Basque Studies at the University of Nevada (Reno, USA). This made it possible to examine the Jon Bilbao Basque Library archives. We were able to compare the archive inventory of Basque periodicals in the diaspora with Urazandi Digitala digitized periodicals. We analysed the gaps found there individually and were able to confirm that some of the issues in the archive have not been digitized on the website. We explained the work done to Alberto Irigoyen, who has worked on the digitization of Urazandi Digitala, in order to help complete the collection in the future.

We selected a sample of the Basque press in the Americas in order to carry out an in-depth analysis. For sample analysis Argentina was chosen, considering it to be the most suitable country to examine in order to understand the phenomenon of the Basque press in the diaspora.

The countries on the Rio de la Plata – Argentina and Uruguay – were the main destination for Basque migrants during the 19th century mass emigration period. Argentina is the country with the highest number of Basque magazines in the diaspora, and it provides good examples of the three types of magazines used in the classification. Furthermore, publication continued uninterrupted in Argentina from the first Basque magazines in the diaspora up until post-war journalism initiatives. So it is possible to analyse the phenomenon of the Basque press in the diaspora with sufficient chronological continuity.

One magazine was selected for each type of publication: *Laurak Bat*, *La Baskonia* and *Irrintzi*. To complete our in-depth analysis, all issues of these journals will be analysed using content analysis methods. A biographical study will be carried out in order to complement this analysis and study the lives of the stakeholders in the magazines.

The *Laurak Bat* magazine is an example of the institutional press published by the first Basque Centres founded at Rio de la Plata. In 1877 the first Basque diaspora publication was set up in Montevideo, and in 1878 the second one was published in Buenos Aires, both under the name of *Laurak Bat*. Its first period of activity lasted from January, 1878 to December, 1891, with a total of 230 issues published.

La Baskonia magazine was a private business initiative aiming to promote Basque culture through its content. It was the most successful and emblematic magazine among the Basque diaspora publications, and its editorial quality was exceptional. Jose Rufo Uriarte and Francisco Grandmontagne ran the magazine during the first decade, with Grandmontagne leaving in 1901 due to ideological differences. Uriarte died in 1932, but the magazine was published for several more years with the support of an association with many members. A total of 1,671 issues were published between 1893 and 1943.

Irintzi magazine was the first patriotic Basque magazine published in the Americas. It was founded by Nemesio Olariaga in 1903, and he made the publication of this political magazine possible by financing all the issues himself. Being a passionate follower of Sabino Arana, Olariaga promoted several initiatives in favour of Basque patriotic ideas. He published 237 issues over twenty years, of which 133 have been preserved.

In order to analyse the content of each issue of the magazines, we used Google Forms to design our data collection form. So when carrying out the content analysis we filled out a sheet for each issue of the magazine in order to collect data and information.

Then we wrote the sections about each publication based on the information gathered through content analysis and supplemented using secondary sources. We interpreted the history of the magazines and discussed the writings of other authors, by looking at the following points of interest and categories in connection with the publications: name (development), general social situation, founding of publications, business organization, identities of directors and journalists, content structuring, ideological discourse, Basque

language and culture, function and communicative use, and changes undergone by the magazines.

During this analysis of the Basque press in the Argentinian diaspora we drew the conclusion that the press publications founded there played an important role in the development of the Basque community at the end of the 19th century. The large number of publications and their different characteristics show that there was a critical mass in the Basque collective, and that the publications were geared towards their interests.

The magazines were set up because there were strong Basque communities, and the press was an effective resource in the communication systems of the various communities, both internally and externally. Being in contact with other ethnic communities in the diaspora, the magazines offered the Basques raw materials to strengthen their Basque identity and recreate it by combining it with characteristics from the diaspora.

Laurak Bat magazine was set up in coordination with the first Basque Centres, and it provided information about them. It also encouraged association members to get involved and take part in discussions with the aim of influencing the collective. Taking into account *La Baskonia*'s longevity, the editorial quality it achieved and its acceptance and distribution among readers, it was clearly a milestone for Basque journalism in the Americas. Its basis was the promotion of Basque culture, and to that end it covered the history, geography, literature and other aspects of the Basque people, with the aim of completing an album to be consulted. *Irrintzi* was an effective resource when Basque patriotism first emerged in Argentina and throughout the Americas. The magazine sought to stimulate the Basque collective and promote Basque patriotism as widely as possible. For the future these three magazines are an excellent testimony to the social and political atmosphere among the Basques in Argentina at that time.

This enabled us to reflect on the areas of interest and categories examined using content analysis based on knowledge of the context of the period. Alongside explaining the most representative characteristics observed in each point of interest, we compared

the three magazines. Reflections on the historical development of the Basque media in Argentina have also been published.

The history of Basque journalism is still to be completed, and carrying out research into the Basque press in the diaspora of the Americas fills one particular gap. The written press is not a mere source of information: it is crucial to the Basque community's communication system.

LABURPENA

Ikerketa honek Argentinako diasporako euskal prentsaren sorrera eta garapena aztertzen ditu, XIX. mende bukaeran hasi eta Espainiako Gerra Zibila arteko garaian sakonduz. Izan ere, gaiari buruzko literaturan Argentinako diasporako euskal prentsa gutxi aztertu da gaur arte. Gabezia hori betetzen laguntzeko, tesiak hiru aldizkari aztertzen ditu eduki-analisiaren bidez: *Laurak Bat* (1878-1891), *La Baskonia* (1893-1943) eta *Irrintzi* (1903-1923). Aldizkari mota ezberdinek (instituzionala, kultural-intelektuala eta politikoa) landu zituzten kazetaritza-estiloa eta diskurtsoa aztertu da, eta era berean, aldizkari horiek argitaratu ziren testuinguruan kokatu dira eta diasporako euskal komunitatearen zein beharri erantzuten zioten azaldu da. Guztira, *Laurak Bat*-en 281 zenbaki, *La Baskonia*-ren 1.671 zenbaki eta *Irrintzi*-ren 133 zenbaki aztertu dira.

Euskal emigranteen itsasoz bestaldeko jarduna aztertzen duten ikerketek eboluzio interesgarria eduki dute azken urteetan. Ikerketa berriak burutzearekin batera, bai Euskal Herrian eta baita euskaldunak jaso zituzten herrialdeetan, ikerketa horiek jorratzen dituzten arlo eta gaien dibertsifikazio eta garapen progresibo bat eman da. Egun “diaspora” kontzeptua nagusitu da prozesu migratzaileen fenomenoaren interpretatzerako orduan.

Euskal emigrazioa Ameriketara nabarmena bihurtu zen kopuru aldetik XIX. mende bukaeran eta euskal komunitatea trinkotzeko komunikazio sistemak sortu zituzten. Asoziazionismoaren garapenarekin emigranteek eraturako egitura sozialak beraien jatorrizko identitatea mantendu eta identitate berriak eraikitze balio zuen. Prentsa masa sozialaren harreman eta eraginerako bitartekoa izan zen. Horrela, gaur egun informazio iturri garrantzitsuak dira emigranteek herrialde berrian egindako jarduna ezagutzeko.

Era berean, diasporaren ikerketa esparrua zabaldu eta dibertsifikatu den heinean, prentsa argitalpenak ikerketa objektutzat kontsideratuak izaten hasi dira. Ikerketa galdera ezberdinak garatzeko aukera luzatzen duten objektu kultural multidimentsionalak dira argitalpenok. Euskal prentsari dagokionez, kontuan hartu behar da komunikazio eta kazetaritzari buruzko euskal historiografia urria eta

berantiarra izan dela. Euskal kazetaritzaren historia orokorrak orain gutxira arte zuen gabezia bera antzeman daiteke diasporako euskal prentsaren inguruan. Artikulu eta lan solteak egon arren, gaia bere osotasunean azaltzen saiatu diren lanak urriak dira.

Diasporako euskal prentsa gai historikoak ikertzeko iturri gisa erabili dute hainbat autorek. Ikerketa horiek euskal komunitatearen inguruan sortutako instituzioak, mugimendu politikoak, familia erlazioak edo euskal identitatearen eraikuntza bezalako gaiak jorratu dituzte. Horren adibide ditugu William Douglass eta Jon Bilbao (1975), Gloria Totoricagüena (2005), Oscar Alvarez Gila (2019b) edo Koldo San Sebastian (2014) beste askoren artean. Hala ere, prentsa argitalpenak kazetaritzako subjektu bezala ez dira askorik aztertu.

Diasporako euskal prentsari buruzko zenbait erreferentzia aurkitu daitezke, bestek beste Andoni de Astigarraga (1981), Jose Ramon Zabala (1994), Javier Diaz Noci (2001), Alberto Irigoyen (2008) edo Angeles de Dios Altuna de Martina (2012), baina ez da gaia bere osotasunean aztertu duen taxuzko lanik egin.

Marko teorikoan, Ameriketako euskal diasporan 1877-1936 urteen artean gertatutakoa ulertzeko testuinguru historikoa azaldu da, eta testuinguru horretan, kazetaritza ekimen ezberdinak nola sortu ziren zehazten da. Lehenbizi, euskal emigranteek Ameriketara XIX. mendean izan zituzten hastapenak, bertarako joateko arrazoiak, euskal gizartean jazo ziren erreakzioak eta herrialde berrian izandako lanak azaltzen dira. Ondoren, euskal diasporaren asoziazionismoaren hasieran kolektibitatearen lehen urratsak, euskarak eta hotelek izandako presentzia, lehen euskal etxeen eta lehen prentsa ekimenen sorrera, euskarazko prentsaren eta *La Baskonia* aldizkariaren agerpenak landu dira. Azkenik, euskal abertzaletasunaren iritsiera Ameriketara eta lehen aldizkari abertzaleen sorrera azaldu da; himnoa eta lehen “ikurrina” sinboloen erabileran, aurretiazko euskal abertzaletasuna egon ote zenaren eztabaidan eta Sabino Aranaren ideiek itsasoz bestaldeko kolektibitatean eta prentsan izan zuten eraginean sakonduz.

Marko teorikoarekin jarraituz, euskal kazetaritzaren historiari buruzko ikerketek izan duten garapena aztertu da, unibertsitatean emandako lehen urratsak, egindako lan

nabarmenak eta ikergaiaren egoera azalduz. Era berean, Euskal Diaspora Unibertsitate Espezializazioan titulua eskuratzeko egindako amaierako lana baliatuz, Argentinako euskal diasporari lotutako komunikabideek izandako ibilbide historikoaren errebaso bat egin da. Horretarako, XIX. mende amaieran sortutako lehen prentsa ekimenetatik hasi eta azken hamarkadetako ingurumen digitaleraino egindako bide luzea modu laburrean azaltzen da. Aldi ezberdinetako kazetaritza motak bere testuinguru historikoan jartzen dira eta errebisio bibliografikoa burutzen da gaiari buruz idatzi dena osotasun batean kokatzeko. Aztertzen den lehen aldiari buruz (“Euskal prentsaren lehen ekimenak 1878an hasita”) doktoretza lanean sakontzen den arren, zenbait ideia errepikatzen direlarik, bere horretan uztea erabaki da, pasarte honi (2.2.2.puntua) osotasuna emateko helburuarekin.

Atal honekin bukatzeko, diasporaren inguruan idatzitako teorizazio ezberdinei tiratuz, diaspora, emigrazioa eta komunikabideen arteko erlazioan lanerako interesgarriak eta baliagarriak izan daitezkeen zenbait ideia garatzen dira.

Diseinu metodologikoari dagokionez, lehenbizi aipatu behar da Eusko Jaurlaritzaren Urazandi Digitala webgunean, Alberto Irigoyen eta Adriana Patrón teknikari uruguaitarren lan eskergari esker, euskal diasporan XIX. mendetik aurrera argitaratutako 183 argitalpen eta 200.000 orrialde inguru daudela digitalizatuta. Guztira Ameriketako diasporako 128 euskal argitalpen daude digitalizatuta Urazandin. Honela banatzen dira herrialdeka: Argentinan 38, Venezuelan 29, Mexikon 23, Estatu Batuetan 14, Kuban 7, Uruguain 7, Txilen 6, Kolonbian 2, Guatemalan 1 eta Panaman 1. Agerkarien nolakotasunari dagokionez, instituzio edo elkarteei lotutako 37 aldizkari daude, 34 aldizkari kultural-intelektual, eta azkenik, gai politikoak ardatz dituzten 57 aldizkari.

Aldizkarien sailkapen hori osatzeko taulak burutu dira. Batetik, Ameriketako unibertso osoa kontuan hartuta, aldizkari mota bakoitzeko (instituzionalak, kultural-intelektualak eta politikoak) taula bat egin da herrialdeka eta kronologikoki ordenatuz. Bestetik, Argentinako unibertso osoari dagokion taula osatu da.

Urazandi Digital webgunean digitalizatuta dauden aldizkariez gain, Urazandi Bilduman herrialde ezberdinetako euskal komunitateen historia kontatzen duten lanak argitaratu dituzte. Gaurdaino, 31 dira argitara eman diren lanak. Horietako zenbaitetan prentsari buruzko informazioa aurkitu daiteke, prentsaren gaiari kapitulu jakinak eskaintzen zaizkiolarik.

Doktoretza tesi hau burutzerakoan University of Nevada-ko (Reno, AEB) William A. Douglass Center for Basque Studies ikerketa zentroan hiru hilabeteko egonaldia egin zen. Bertan, Jon Bilbao Basque Library / Renoko Euskal Liburutegiko artxiboan lan egitea posible izan zen. Bertan, artxiboan dituzten diasporako euskal aldizkarien inbentarioaren eta Urazandi Digitala webgunean digitalizatuta dauden aldizkarien arteko alderaketa egin zen. Aurkitu ziren hutsuneak banaka aztertu ziren modu fisikoan eta frogatu ahal izan zen artxiboan dituzten zenbait zenbaki ez daudela webgunean digitalizatuta. Urazandi Digitalean digitalizatze lanetan aritutako Alberto Irigoyen Artetxeri egindako lana azaldu zitzaion, etorkizunean bilduma osatzeko lagungarri izate aldera.

Ameriketako euskal prentsaren unibertso horretatik lagin bat aukeratu da sakoneko azterketa burutzeko. Laginaren azterketa egiteko Argentinako kasua aukeratu da, diasporako euskal prentsaren fenomeno behatu eta ulertzeko herrialde egokiena dela iritzita.

Rio de la Platako herrialdeak, hots, Argentina eta Uruguai, izan ziren XIX. mendean emigratio masiboaren garaian euskaldunen portu nagusiak. Argentina da diasporako euskal aldizkariak dituzten herrialdeetatik agerkari gehien dituen eta unibertsoa sailkatzeko erabili diren hiru aldizkari moten adibide garbiak daude. Horrez gain, diasporako lehen euskal aldizkariak agertu zirenetik gerra osteko kazetaritza ekimenetaraino etengabe argitaratu dira aldizkariak Argentinan. Beraz, posible da diasporako euskal prentsaren fenomeno kronologiaren jarraikortasun egokiarekin aztertzea.

Aldizkari mota bakoitzeko aldizkari bat aukeratu da: *Laurak Bat*, *La Baskonia* eta *Irrintzi*. Azterketa sakona burutzeko aldizkari horien zenbaki guztiak aztertuko dira

eduki-analisiaren metodoa erabiliz. Azterketa biografikoa burutuko da analisiaren osagarri bezala, aldizkarien inguruko aktoreen bizitzak berreskuratzeko.

Laurak Bat aldizkaria Rio de la Platan sortutako lehen euskal etxeek argitaratutako prentsa instituzionalaren erakusgarri da. 1877an sortu zen diasporako lehen euskal agerkaria Montevideon eta 1878an Buenos Airesen argitaratu zen bigarrena, biak *Laurak Bat* izenarekin. Lehenbiziko etapa, 1878ko urtarrilean argitaratutako lehen aletik 1891ko abendura artekoa izan zen eta guztira 230 zenbaki eman ziren argitara.

La Baskonia aldizkaria ekimen enpresarial pribatuko aldizkaria izan zen, edukiei dagokienez euskal kultura sustatzea izan zuena xedetzat. Diasporako euskal agerkarien artetik aldizkari arrakastatsu eta enblematikoa izan zen, bere kalitate editorialagatik nabarmendu zena. Jose Rufo Uriartek eta Francisco Grandmontagnek gidatu zuten aldizkaria lehen hamarkadan, ezberdintasun ideologikoen eraginez Grandmontagnek 1901ean aldizkaria utzi zuen arte. Uriarte 1932an hil zen, baina aldizkariak beste zenbait urtez jarraitu zuen hainbat kidez osatutako sozietate batek bultzatuta. 1893-1943 urteen artean 1.671 zenbaki argitaratu ziren guztira.

Irrintzi aldizkaria Ameriketako lehen aldizkari abertzalea izan zen. Nemesio Olariagak sortu zuen 1903an eta berak eraman zuen aurrera aldizkari politiko hau zenbaki guztiak finantzatuz. Sabino Aranaren jarraitzaile sutsua izanik, Olariagak hainbat ekimen bultzatu zituen ideia abertzaleen alde. 237 zenbaki argitaratu zituen hogeitertan, baina horietatik 133 berreskuratu ahal izan dira.

Aldizkarien azterketa burutzean, hau da, aldizkarietako zenbaki bakoitzaren eduki-analisia egitean, datuak biltzeko fitxa bat diseinatu da Google Forms formularioak egiteko baliabidea erabiliz. Horrela, eduki-analisia egitean aldizkarien zenbaki bakoitzeko fitxa bat bete da datuak eta informazioa biltzeko.

Ondoren, aldizkari bakoitzari buruzko kapituluak idatzi dira, eduki-analisiaren bidez bildutako informazioa oinarritzat hartuta eta bigarren mailako iturriekin osatuta. Aldizkarien jardunaren interpretazioa egin da eta beste autoreek idatzitakoa eztabaidan jarri da, agerkarien inguruan honako interesgune edo kategoriak garatuz: izena

(bilakaera), egoera sozial orokorra, argitalpenen sorrera, enpresa antolaketa, zuzendari eta kazetarien nortasuna, edukiaren egituraketa, diskurtso ideologikoa, euskara eta euskal kultura, funtzioa eta erabilera komunikatiboa eta aldizkariaren bilakaera.

Argentinako diasporako euskal prentsaren azterketa honetan ondorioztatu da, XIX. mende bukaeran herrialde horretan sortu ziren prentsa argitalpenek funtzio garrantzitsua izan zutela euskal kolektibitatearen garapenean. Argitalpen kopuru handiak eta tipologia ezberdinek erakusten dute bazegoela masa kritiko bat euskal kolektibitatean, eta argitalpenak beraien interes ezberdinak asetzera bideratu zirela.

Euskal komunitateak trinkoak zirelako sortu ziren aldizkariak eta prentsa baliabide eraginkorra izan zen komunitateen komunikazio sisteman, barnera zein kanpora begira. Diasporako beste komunitate etniko batzuekin kontaktuan egonik, euskal identitatea sendotu eta diasporako elementuekin uztartuz berau birsortzeko lehengaiak eskaini zizkien aldizkariak euskaldunei.

Laurak Bat aldizkaria lehen euskal etxeei lotuta sortu zen eta instituzioaren bizitzaren berri emango zuen. Aldi berean, elkarteko kideen inplikazioa eta eztabaida bultzatuko zituen, kolektibitatean eragina izateko asmoz. *La Baskonia* aldizkariak denboran izan zuen iraupena, erdietsi zuen kalitate editoriala eta irakurleen artean lortu zuen onarpena eta zabalkundea kontuan hartuta, Ameriketako euskal kazetaritzan mugarrria izan zela baieztatu daiteke. Euskal kultura sustatzea zuen oinarrian, eta horretarako, aldizkariaren bilduma euskaldunen historia, geografia, literatura, etab. jasoko zituen kontsulta liburua bihurtu nahi izan zuen. *Irrintzi* baliabide eraginkorra izan zen euskal abertzaletasunak Argentinan eta Ameriketara lehen urratsak ematerako orduan. Aldizkariak euskal kolektibitatea astintzea bilatu zuen eta euskal abertzaletasuna lau haizeetara zabaltzeko helburua jarraitu zuen. Hiru aldizkariak Argentinako euskaldunen artean bizi zen giro sozial eta politikoaren testigantza ezin hobe utzi zuten etorkizunerako.

Horrela, aztertutako garaiaren testuinguruaren ezagutzan oinarrituz, eduki-analisiaren bidez landutako interesgune edo kategorien inguruko hausnarketak burutu dira. Interesgune bakoitzean behatutako aspektu adierazgarrienak azaltzearekin batera,

hiru aldizkarien arteko konparaketak egin dira. Era berean, Argentinako euskal komunikabideen ibilbide historikoari buruzko gogoetak ere plazaratu dira.

Euskal kazetaritzaren historia osatzeko dago oraindik eta Ameriketako diasporako euskal prentsari buruzko ikerketak burutzea hutsune bat betetzea da. Prentsa idatzia ez da informazio iturri soila, euskal komunitatearen komunikazio sisteman duen garrantzia funtsezkoa da.

1. SARRERA

1.1. Gaiaren interesa

Prozesu migratzaileen ikerlana euskal historiaren *kanon tematikotik* kanpo egon da orain arte. Historialariak karlismoaz, industrializazioaz, langile mugimenduz edo abertzaletasunaz arduratu dira batik bat eta diaspora alde batera geratu da gehienetan. Horregatik, euskal emigranteen inguruko zenbait aspektu guztiz ezezagunak zaizkigu oraindik (Alvarez Gila, 2004: 320).

William Douglass eta Jon Bilbaok *Amerikanuak. Basques in the New World* (1975) liburu ezagunean zenbait arrazoi zehazten zituzten jada gabezia hori azaltzeko. Autoreen ustez, euskaldunak Ameriketako fabrika sozial anitzean gutxien aztertutako subjektuak ziren, Mundu Berrira iristen lehenengotariko europarrak izan arren. Euskal Herriko ikertzaileek interesa eduki arren, lehen eskuko informazio faltak nabarmen mugatzen ziela zioten. Latinoamerikan zeuden ikertzaileak kolonia garaiko kontuez arduratzen ziren, XIX. eta XX. mendeko immigrazioa aurrekoaren aldean gutxi landuz. Ipar Amerikan egindako lanek, berriz, euskaldunak XIX. mendean iritsi zirela aditzera ematen zuten, kasu indibidualak aztertuz eta euskaldunak talde etniko oso baten gisa kontsideratu gabe. Horrez gain, kontuan hartu behar da euskaldunak arraza kaukasoarra edukirik, arraza diskriminazioaz libratzeaz gain, beste zenbait komunitate baino gutxiago nabarmendu zirela gizarte amerikarrean. Horri lotuta, euskaldunek, bizitzeko eta lanerako euskara erabili arren, ez zuten interes berezirik erakutsi beraien nortasuna publikoan azaltzerako orduan XIX. mende bukaera arte (Douglass eta Bilbao, 1975: 1-4).

Oscar Alvarez Gilaren (2014) iritziz, euskal emigranteen presentzia eta proiektzioa aztertzen duten ikerketek eboluzio interesgarria eduki dute eta egoera positiboa da, etorkizunerako ere aukera ugari eskaintzen dituelarik gaiak. Ikerketa berriak burutzearekin batera, bai Euskal Herrian eta baita euskaldunak jaso zituzten herrialdeetan, ikerketa horiek jorratzen dituzten arlo eta gaien garapen progresibo bat ere eman da. Horrela, duela urte batzuk arte gaiari buruzko lan guztiak migrazioaren kausak, zifrak edo euskal gizartearen edukiriko erreakzioen inguruan aritu arren, azken

urteetan benetako dibertsifikazio epistemologikoa, metodologikoa, kronologikoa eta tematikoa jazo da. Hainbat ikertzaile sartu dira historia sozialetik, ekonomikotik, politikotik edo kulturaletik eta baita soziologia, antropologia edo filologia bezalako zientzietatik. Azterketa horietan “diaspora” kontzeptua nagusitu da prozesu migratzaileen fenomenoaren interpretatzerako orduan. Azken bi hamarkadetan eginiko lanetan, Alvarez Gilaren ustez aipatzekoa Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Urazandi programak emandako bultzada.

Bestalde, Jose Manuel Azcona Pastor (2011) historialari nafarraren ustetan euskal-amerikanismoaren eta Ameriketako euskal diasporaren inguruan egiten diren lanen ekoizpena ona, plurala, poliedrikoa eta hainbat kasutan kalitate bikainekoa da, kantitatea ere dezente altua delarik. Era berean, herrialde ezberdinei dagokien produkzioa asko aldatzen dela aitortzen du. Migrazio kontuak ikertzen dituztenen oinarritzko arazoa marko teoriko bakar eta orokor baten falta da, nazioarteko migrazioen gai konplexua lantzeko metodologia zehatz baten beharra dago. Gainera, Azconaren ustez euskal gizartearen aniztasun soziopolitikoa ez da islatu diaspora amerikarrarekin Eusko Jaurlaritzak azken hamarkadetan eraiki dituen erlazioetan eta lan historiografikoetan ere gabezia hori antzematen du:

Y de paso, a ver si esta diversidad empieza a llegar a la producción historiográfica, más allá de los designios de la escuela nacionalista hasta ahora imperante. Para que el enfoque metodológico se ajuste a los cánones académicos habituales, y al pluralismo intelectual, más que nada (Azcona Pastor, 2011: 231).

Xose Manuel Nuñez Seixas (2014) historialari galziarrak dio, berriz, Latinoamerikako euskaldun eta katalan emigrante kolektibitateen gehiengoaren ideia abertzaleekin identifikatuta sentitzen dela. Horrela, 1990ko hamarkadan Argentinako euskal komunitatearen %90ak Euskal Herriaren independentzia defendatuko zukeen, eta gainera, FEVA (Federación de Entidades Vasco Argentinas) elkarteak ez zuen inongo lotura instituzionalik mantentzen Espainiako autoritate diplomatiko eta kontsularrekin. Abertzaletasunak diasporako komunitateetan izandako lekua aztertzean honakoa aitortzen du:

Pero las disputas ideológicas en el liderazgo étnico de las asociaciones no siempre eran una traducción real de las preocupaciones y los problemas de la masa social afiliada a esas entidades. (...) la ambigüedad existente entre la extrema politización de los cuadros dirigentes y la tendencia mayoritaria, de cariz apolítico y comunitario de sus miembros no desapareció durante el periodo posterior a 1939 (Nuñez Seixas, 2014: 172).

Nuñez Seixasen ustez, emigrante komunitateetako identitate nazionalen eraikuntzan garrantzitsuak izango ziren eliteko politikoen arteko indar banaketak, mobilizazio errekurtsuak eta estatus soziala bezalako faktoreak. Egoera horretan, lidergoak eta ideien hedapenak berebiziko garrantzia izango zuten.

Rio de la Plataran nekazari, arrantzale eta jornalarietaz gain, Francisco Grandmontage, *La Baskonia* aldizkariaren sustatzaile nagusietako batek, “bachillerrak” bezala izendatuko zituenak ere iristen ziren. Klase ertaineko gazte horiek itsasoa zeharkatzen zuten gomendiozko gutun batekin besapean eta kazetaritzan, politikan edo zirkulu profesionaletan beraientzat toki bat aurkitzen saiatzen ziren gizarte berrian. Kazetari horiek eginkizun garrantzitsua izan zuten proiektu identitario ezberdinak garatzerakoan. Jatorrizko aberriaren irudia eraiki zuten distantziatik, eta aldi berean, herrialde hartzaileko emigrante komunitatearen imajinarioa sortu zuten. Nuñez Seixas-ek Jose R. Lence (1874-1951) eta Fortunato Cruces (1870-1961) “bachillerren” lana eta lidergoa aztertzen ditu eta ondorio honetara iristen da:

Tanto Lence como Cruces mantuvieron solo lazos débiles con el poder económico argentino y de la comunidad inmigrante; pero, profesionales formados y autodidactas, aspiraban a dirigir la articulación organizativa de la comunidad inmigrante, dotándola de una voz y una imagen propia y defendiendo su autonomía organizativa dentro del conjunto de la colectividad española (Nuñez Seixas, 2014: 450).

Horrela, immigranteek sortutako argitalpenak garrantzi handikoak izan ziren beraien komunitateetan. Funtzio sozial, kultural, politiko eta ekonomiko nabarmena izan zuten.

Asoziazionismoaren inguruko ikerketek mugimendu migratzaileek herrialde hartzailean garatutako ekinbide eta harreman sozialak aztertu izan dituzte, izan emigranteek beraien artean edo gizarte berriko kideekin. Emigranteek eratutako egitura sozialak beraien jatorrizko identitatea mantentzeaz gain, identitate berriak eraikitzeko

ere balio zuen. Prentsa masa sozialaren harreman eta eraginerako bitartekoa izan zen. Gainera, gaur egun informazio iturri garrantzitsuak dira emigranteek herrialde berrian egindako jarduna ezagutzeko:

Estas publicaciones –y otras internas de las asociaciones- constituyen una fuente de gran interés para reconstruir la historia de los inmigrantes españoles en América, así como la reelaboración de sus culturas de origen en contacto con un nuevo contexto sociocultural (Blanco Rodríguez, 2008: 14).

Hala ere, Garabedianen (2017) iritiziz, diasporaren ikerketa esparrua zabaldu eta dibertsifikatu den heinean prentsa argitalpenak ikerketa objektutzat kontsideratuak izaten hasi dira. Ikerketa galdera ezberdinak garatzeko aukera luzatzen duten objektu kultural multidimentsionalak dira argitalpenok. Prentsaren “balorazio” berri honek erakusten du agerkariek asoziazioen edo esfortzu diplomatikoen hein berdinean lagundu zutela immigranteak herrialde berrian lekukotu eta saretu zitezten. Halaber, azpimarratu behar da prentsaren azterketa probetxugarria izango dela gizarteko beste aktoreekin (beste aldizkari batzuk, asoziazioak, korporazioak, botere politikoak, etab.) erlazioan burutzen denean:

Para ello, el estudio del periódico como un objeto de estudio, que es complejo y multidimensional, presenta una serie de desafíos que cruzan y obligan a dialogar a diversas disciplinas. Si se asume al periódico como un documento histórico y a la vez como un cronista fundamental de la vida cotidiana de las sociedades, entonces podremos avanzar hacia el estudio de ella asumiendo la problemática misma de entender a la prensa como un “actor político y social” que persigue, como afirma Borrat, sus propios intereses (Garabedian, 2017: 31).

Diasporako euskal prentsari dagokionez kontuan hartu behar da komunikazio eta kazetaritzari buruzko euskal historiografia urria eta berantiarra izan dela. Hainbat ekarpen baliotsu egon arren beste toki batzuetan eginikoaren alderatuz gero, esaterako Katalunia, hausnarketa akademikoen falta nabari daiteke komunikazioaren historiografiaren arloan (Diaz Noci, 2012: 11-12). Euskal kazetaritzaren historia orokorrak orain gutxira arte zuen gabezia bera antzeman daiteke diasporako euskal prentsaren inguruan. Artikulu eta lan solteak egon arren gaia bere osotasunean azaltzen saiatu diren lanak urriak dira.

Diasporako euskal prentsaren azterketaren emaitzak interesgarriak izan daitezke, baita gaur egongo ikuspegia aberasteko ere. Joseba Agirreazkuenagak (1986) lehen Gerra Karlistaren osteko zenbait agerkari aztertzean esandakoak ikerketa honetarako ere erabilgarriak izan daitezke, agerkarien agerpena eta ikerketaren arteko denbora tartea oraingoan ere 150 urtekoa delarik:

Zer esan eta zer erakutsi asko daukate, gure Euskal Herri honen historian ez ezik, gaurko egoera sozio politikorako ere bai, duela 150 urte idatzitakoak izan arren. Kinka larriko garai hartako fantasmak eta trajediak komedia, farsa eta trajedi itxuraz eta isladaz berpizten ari dira oraindik orain zoritxarrez, ez bait dira txantxetakoak gure ahuleziak, gabeziak, miseriak eta zapalkuntzak. Historiak erakusten digunez, aurrekonde teknikoak, azken batez, gizaki indibidualaren eta herri honen eskubideak ez baititu soluziobideak ezartzeko ahalmenik eduki. Inoiz baino premiatsuagoa dugu, azterketa eta gogoeta soziala, politikoa, antropologikoa eta lagungarri gertatuko delakoan dago, aipatu ditudan aldizkarien ezaguera (Agirreazkuenaga, 1986: 493).

1.2. Ikerketaren aurrekariak

Diasporako euskal prentsa gai historikoak ikertzeko iturri gisa erabili dute hainbat autorek. Ikerketa horiek euskal komunitatearen inguruan sortutako instituzioak, mugimendu politikoak, familia erlazioak edo euskal identitatearen eraikuntza bezalako gaiak jorratu dituzte. Horren adibide ditugu William Douglass eta Jon Bilbao (1975), Gloria Totoricagüena (2005), Oscar Alvarez Gila (2019b) edo Koldo San Sebastian (2014) beste askoren artean. Hala ere, prentsa argitalpenak kazetaritzako subjektu bezala ez dira askorik aztertu. Diasporako euskal prentsari buruzko zenbait erreferentzia aurkitu ditzakegu, baina ez da gaia bere osotasunean aztertu duen taxuzko lanik egin.

Prentsa ikerketa objektu gisa gutxi aztertu izanaren arrazoia “momentu historiografikoan” egon daiteke, hau da, prozesu migratzaileen ikerketa gehienak beste galdera batzuetan zuten arreta jarrita (Garabedian, 2017:12). Garabedianek bi lan aipatzen ditu emigranteen prentsaren ikerketan aitzindari gisa.

Horietan lehena, Robert E. Park izan zen lehenengotarikoa prentsa bere horretan aztertzen. 1922an Estatu Batutan hizkuntza atzerritarrean idatzitako emigranteen argitalpenak aztertu zituen *The immigrant press and its control* liburuan. Ikerketa soziologiko honetan Parkek asimilazio eta egokitzapen prozesuak aztertu zituen

nazionalismo europarren urteetan, aldizkariak gizarte eta lan esparruetan eta identitate nazionalaren eraikuntzan bitartekari eta igorle funtzioak betetzen zituztela ondorioztatuz.

Bigarrena, Samuel Bailyk *International Migration Review*-en (1978) argitaratutako artikuluak. Bertan, Buenos Airesen eta Sao Paulon immigrante italiarrek argitaratutako bi aldizkari garrantzitsuenak aztertzen ditu, agerkariak herrialde berrian asimilazio kulturalerako mesedegarriak ala mugatzaileak izan ziren galdetuz. Bailyk ondorioztatu zuen aldizkariak bizikidetzak baketsua bultzatzen zutela beti ere jatorrizko herrialdeari eraso edo kritikarik egiten ez zen bitartean.

1981ean diasporako euskal prentsaren inguruan egindako lehen lantzat hartu daitekeen artikulu labur bat argitaratu zuen Andoni de Astigarragak *Euzkadi* aldizkarian: “Prensa vasca en América”. Erbesteko hainbat ekimen eta aldizkaritan parte hartutako autoreak lehen eskutik idazten zituen hainbat kontu. Artikuluan herrialdez herrialdeko errepasso bat egiten da, bakoitzean argitaratutako agerkariak aipatuz eta laburrean azalpen argigarriak eskainiz.

1988an Iñaki Anasagasti eta Koldo San Sebastianek “Relación de prensa nacionalista y del Gobierno Vasco en América (1903-1978)” argitaratu zuten *Boletín Bibliográfico de Estudios Vascos*-en. Jaurlaritzaren eta prentsa abertzalearen katalogo honetan aldizkari bakoitzaren zenbait item edo interesgune zehazten dira, gehienetan ale gutxi batzuk kontsultatzeko aukera eduki arren.

Hurrengo urtean, Koldo San Sebastian bi artikulu eman zituen argitara *Muga* aldizkarian: “Prensa Vasca en América (1): Venezuela” eta “Prensa Vasca en América (2): México”. Bertan, bi herrialdeko euskal prentsaren errepassoa egiten du argitalpen mota ezberdinak (komunitarioa, abertzalea, erbesteratuena, Jaurlaritzarena, EAJ-rena, Euzko Gaztedi-rena, ETA-rena, euskarazkoa edo kiroletakoak) deskribatuz. Venezuelaren kasuan irratigintzako ekimenak ere aipatzen dira.

Euskal diasporari, eta zehatzago esanda erbesteari, buruzko ikerketen inguruan aipagarria da Hamaika Bide Euskal Erbesteen Kulturak Ikertzeko Elkarteak. Espainiako

Gerra Zibilaren ondorioz jazotako erbestearen alderdi eta bide anitzak aztertu eta ezagutarazteko asmoz sortu zen elkarte 2000. urtean. Oraindik izen hori gabe, 1999. urtean “60 urte eta gero” batzarra antolatu zuten Donostian, Irunen eta Gernikan. Ordutik hainbat kongresua antolatu dituzte eta bertan aurkeztutako aktekin osatutako hainbat liburu argitaratu dituzte, erbesteari buruzko bestelako argitalpen batzuk ere egin dituztelarik.

Hala ere, Hamaika Bide elkarte bere horretan sortu aurretik bi bolumenek osatutako *La cultura del exilio vasco* lana argitaratu zuten 1994an, bertako kide diren Jose Angel Ascunce eta Maria Luisa San Miguelek koordinatuta. Ikerketa honetarako zinez interesgarriak diren bi kapitulu daude *La cultura del exilio vasco II. Prensa-periodismo, hemerografía, editoriales, traducción, educación-universidad* bigarren liburukian. Batetik, Ana Hermoso eta Pilar Rodriguezek idatzitako “El periodismo del exilio vasco” kapituluan erbesteko euskal prentsaren panoramika labur bat egiten da eta ondoren zenbait herrialdetan egondako euskal intelektualek aldizkari ezberdinetan (euskaldunetan, ikuspegi espainiarrago bat izan zutenetan edo herrialde hartzailekoetan) egindako ekarpena azaltzen da: Eugenio Imaz edo Juan Larrea Mexikon; Jesus de Galindez Dominikar Errepublikan; Martin Ugalde edo Miguel Pelay Orozco Venezuelan; eta Juan David Garcia Bacca edo Vicente Amezaga Ekuadorren. Bestetik, Jose Ramon Zabalaren “Aproximación a la hemerografía del exilio vasco 1936-1960” kapituluan Gerra Zibilaren urteetan Hego eta Ipar Euskal Herriko testuingurua eta prentsa egitasmoen sorrera azaltzen da; ondoren herrialdez herrialde euskal diaspora europarrean eta amerikarrean prentsari lotutako gertakizun, ekinbide eta pertsona aipagarrienen kontakizun landu bat egiten da; erbesteko aldizkariaren fenomenoaren eta tipologiaren inguruko balorazio edo hausnarketa bat ere burutzen da; eta bukatzeko, aldizkariaren zerrenda eskaintzen da datu orokorrekin.

Hamaika Bideren batzarretako aktak osatutako lehen liburuan, *Setenta años después. Euskal erbestearen kultura* (2000) (bi liburukik osatua), erbesteko kazetaritzari lotutako zenbait lan aurkitu daitezke. Nabarmenenak aipatzearren, lehen liburukian, Elias Amezagak burututako “Diáspora del 36. Nómina de prensa y periodistas vascos en ultramar” artikuluan aldizkariak deskribapen labur batekin eta kazetariak biografia motz batekin lagunduta zerrendatzen dira. Bigarren liburukian, Arantzazu Amezaga

Iribarrenek idatzitako “Andrés Irujo Olo. El documentalista vasco del exilio” eta “Pello Mari Irujo Olo. El periodista vasco del exilio” artikulua daude. Bertan, Argentinan erbesteratutako bi anai nafarren eta bere familiaren bizitza kontatzen da, beste lan askoren artean *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* eta *Tierra Vasca* aldizkarietan egindako lana azaltzen delarik. Besteren artean, akta hauetan Isidoro de Fagoaga (*Gernika* aldizkariaren zuzendaria izandakoa) edo Martin Ugalderi buruzko artikulua ere aipatu daitezke.

2004an argitaratutako akten liburuan, *Los hijos del exilio vasco: arraigo o desarraigo* titulu pean, prentsari lotutako beste bi pertsonaiaren inguruko artikulua aurkitu daitezke. Alde batetik, Jose Ramon Zabalaren “Los hermanos Estornes Lasa: cimientos para una nueva cultura vasca” kapituluan, Bernardo eta Mariano anaiak Txilen egindako jarduna kontatzen da, tartean *Batasuna* eta *Euzkadi* aldizkariak sustatzen eginiko lana. Auñamendi Entziklopediaren sortzaile izen zirenen ondorengo Idoia Estornes Zubizarretari (Bernardoren alaba) elkarrizketa bat ere badakar. Bestetik, Edurne Muñozek “Tellagorri vs. Olivares Larrondo” kapituluan *Tierra Vasca* aldizkariaren zuzendari izandako Jose Olivares Larrondo *Tellagorri* kazetari algortarraren inguruan idazten du.

El exilio; debate para la historia y la cultura (2008) liburuan, beste artikulua interesgarri eta erabilgarri bat aurkitu daiteke Alberto Irigoyen Artetxek, Urazandi Digitalean aldizkariaren digitalizazioa burutu zuena Adriana Patronekin batera, idatzitakoa: “Exilio y hemerografía vasca anterior a la Guerra Civil”. Atal honetan, gerra aurreko aldizkari guztien deskripzioa egiten da kronologikoki, informazio landua eskainiz, diasporako euskal prentsa ezin hobeto ezagutzen duen aditu baten perspektibatik egina.

Aurrerago, Ana Gonzalez Neira galiziarrek ere erbesteko euskal prentsari buruzko bi lan egin ditu Hamaika Bideren kongresuetan, Txileko eta Mexikoko prentsa aztertuz: “La identidad vasca en las publicaciones del exilio en Chile: *Batasuna, Euzkadi y Euzko Etxea*” (2014) eta “La prensa del exilio vasco en México: Una heterodoxa voz en la diáspora” (2016). Bestalde, aipatu behar da Gonzalez Neirak erbesteko prentsari

buruzko liburu interesgarri bat ere argitaratu zuela urte batzuk lehenago: *Prensa del exilio republicano 1936-1977* (2010).

2015ean elkarteak ospatutako batzarrean, “1936ko erbesteratuen heterodoxiak. Oroimen historikoaren ifrentzua” tituluarekin, Josu Chueca historialariak “Erbesteko Euskal Kazetaritzari buruzko hainbat gogoeta” hitzaldia eskaini zuen. Hamaika Bidek ospatutako azken kongresuan, berriz, 2019an “Erbestea eta Humanitatea. Kulturaren bideak. 80 urte beranduago” izenpean, Paulo Iztuetak “Euskal erbesteko aldizkariak frankismoan (1936-1975)” hitzaldia eskaini zuen. Iztuetak berriki doktoretza lan honen ikerketa gaiari bete-betean dagokion liburu bat plazaratu du eta ekarpen baliotsua da diasporako euskal prentsari buruzko historia berreskuratzeko: *Publicaciones periódicas del exilio vasco durante el franquismo (1936-1975)*.

Bestalde, 2016an Hamaika Bide elkarteko lehendakaria urte askoz izandako Jose Angel Ascunceren omenezko liburua argitaratu zen: *El exilio vasco. Estudios en homenaje al profesor José Angel Ascunce Arrieta*. Bertan, Jose Ramon Zabalaren artikulu bat aurkitu daiteke diasporako euskarazko zenbait aldizkariaren inguruan: “Contra el silencio impuesto: las publicaciones en lengua vasca del exilio de 1936”.

Hamaika Bide elkartearen inguruan argitara eman diren lanak errepasatu ondoren Eusko Jaurlaritzaren Urazandi proiektuaren inguruko lanak aipatuko dira. Urazandi Digital webgunean digitalizatuta dauden aldizkarietz gain, Urazandi Bilduman herrialde ezberdinetako euskal komunitateen historia kontatzen duten lanak argitaratu dituzte. Gaurdaino, 31 dira argitara eman diren lanak. Horietako zenbaitetan prentsari buruzko informazioa aurkitu daiteke, prentsaren gaiari kapitulu jakinak eskaintzen zaizkiolarik.

Urazandiko 11. liburukian Uruguaiako prentsari buruzko informazioa dago. *Centro Euskaro de Montevideo o la dialéctica del ser* izeneko lanean, *Euskaro Español* aldizkaria aztertzen da “Un tímido intento editorial” kapituluan. Agerkariaren lehen urratsak nola izan ziren azaltzen da eta artikuluaren gaiak zeintzuk ziren zehazten da: pilota partiduen gorabeherak, elkarteak ospatutako jaien kronikak, batzarretan hartutako erabakien inguruko informazioa, etab. Kutsu politikoko artikuluak ere ez ziren falta eta horiek *Euskal Erria* aldizkariaren beste muturrean jartzen zuten *Euskaro Español*.

Zatiketa hori Euskal Herrian bizi zen egoera politikoaren erakusgarri zen, aldi berean, euskal komunitate uruguitarrean ere ematen zena: “España, apenada por el fantasma de un separatismo que llena de horror y vergüenza a los buenos ciudadanos (...) (Irigoyen Artetxe, 2003: 81)”.

Kapitularen azken orrietan aldizkariaren Zuzendaritza-Batzordeko kideen artean jazotako tirabirak ezagutzera ematen dira. Horretarako, kideek aldizkarian argitaratutako hainbat gutunen aipuak erabiltzen dira bakoitzaren ikuspuntua hobeto azaltzeko. Horrela, aldizkariari amaiera emango zitzaion modu txarrean eta diru-kontuek giroa nahasita.

Bildumako 17. liburukian, *La sociedad de confraternidad vasca “Euskal Erria” de Montevideo (Uruguay)* (2007) lanean, aipatutako *Euskal Erria* aldizkariari eskaintzen zaio “La difusión de las ideas. El periódico social” kapitulua. Elkartearen aldizkaria sortu eta lehen urteetan instituzioko eta aldizkariko arduradunen artean egondako gorabeherak azaltzen ditu hasieran. Instituzioko zuzendaritza Regino Galdosek hartu zuenean jauzi kualitatibo bat gertatuko zen. Egunkari formatua izatetik aldizkari formatua izatera pasa zen eta aldizkaria modernizatzeko nahia azaldu zuen, euskal kulturaren presentziari pisua emanez aldi berean.

Arnaldo Pedro Parrabere izan zen *Euskal Erria* aldizkariaren zuzendaria 40 urtez. Honek erretiroa hartu zuenean agerkariak behera egin zuen eta pixkanaka urteroko aleak gutxitzen joan ziren 1960an desagertu arte. Beherakada horretan eragin nabarmena izan zuen baita ere herrialdeak urte horietan bizitako krisi ekonomikoak. Kapitulan Parraberek instituzioko zuzendaritzako kideekin izandako zenbait eztabaida ere azaltzen dira. Esan behar da historiako pasarte horiek berreskuratzeko instituzioaren aktak erabiltzen direla informazio iturri nagusi gisa.

Urazandiren 13. liburukian, *Euskal Etxea de la Ciudad de México*, euskal etxe horren inguruan sortutako argitalpenei buruzko bi kapitulu labur aurkitzen dira: “La historia de la historia; Euzko Deya, La voz de los Vascos en México” eta “Más historia de la historia; revistas y boletines”.

Lehenbiziko kapituluak *Euzko Deya* aldizkariaren historia labur bat kontatzen du, hura izan baitzen kolektibitate eusko-mexikarreko agerkari garrantzitsuen 1943an lehenbiziz agertu eta 1970. urtera arte. Aldizkariaren ezaugarri nagusiak azaltzen ditu gehiegi sakondu gabe: zuzendariak, sail ezberdinak, informazio mota, euskara edo euskal etxearen jarduna. Honi lotuta, Buenos Aireseko *Euzko Deya* aldizkariaren inguruan idatzi dute David Mota Zurdok (2018) eta Nadia Andrea de Cristoforisek (2020).

Bigarren kapituluan Mexiko Hiriko euskal etxe horretan urteetan zehar sortutako aldizkari ezberdinak aipatzen dira. Horietan artean *Argia* (1933-1935) eta *Boletín mensual del Centro Vasco* (1943) agerkarien zenbait zertzelada ematen ditu. Bukatzeko, *Gaurko Boletín Informativo del Centro Vasco* buletin berriagori buruz ere hitz egiten da.

Kubako prentsari buruzko informazioa ere badago Urazandiko bilduman. *La Asociación Vasco Navarra de Beneficiencia de la Habana y otras entidades vasco-cubanas* izeneko 27. liburukiko “El periódico *Laurac Bat* de la Habana” pasartean tituluan agertzen den aldizkaria aztertzen du. Aurrerago aipatuko den bezala, Jon Ander Ramos-ek ere aztertu du zenbait artikulutan Kubako *Laurac Bat* aldizkariaren jarduna.

Kasu honetan, agerkariaren egilea zen Faustino Diez Gaviño ardatz hartuta aldizkariaren antolaketaz, sinbologiaz, ideologiaz edo ekintza puntualaz hitz egiten du kapituluak, kontakizuna osatzeko aipu ugari erabiliz. Diez Gaviño 1895ean hiltzean etapa berri eta labur bati hasiera eman zitzaion. Zenbait aldaketa egon ziren, hala nola, aldizkaria Kubako politikarekin erlazioa zuten gaien inguruan hitz egin hasi zen. Bide horretatik aldizkariak ez zuen jarraipena izan eta 1896ean desagertu egin zen.

Urazandi bilduman prentsari buruz aurkitzen den informaziori dagokiona bukatzeko, Santiago Txileri buruzko *Tres tesis en el entorno de Euzko Etxea* (20. liburukia) lanean, “Revista *Euzkadi*: en defensa y al servicio de la nación vasca” kapitulua dago. Aldizkariaren erredaktoreak, erabilitako diskurtso politikoaren adibideak, sail ezberdinetako edukiak, euskararen erabilera edo finantzazioa eta publizitatea bezalako

aspektuak jorratzen ditu pasarte honek, diasporako prentsaren azterketa modu interesgarrian burutuz.

Horrez gain, garaiko gertakizun ugariren aurrean *Euzkadi*-ren erantzuna nolakoa izan zen kontatzen da, kontakizuna osatzen duten aipuak erabiliz. Zenbait grafiko ere erabiltzen ditu datuak erakusteko. Esan behar da lan hau Carlos Fariña Dies ikasle txiletarrak egina dela, bere Historiako lizentziatura eskuratzeko tesi gisa.

Bestalde, “Arturo Campión” ikasketa zentro argentinarrak urtean behin argitaratzen duen *Guregandik, Revista académica del Centro de Estudios Arturo Campión* aldizkarian ere Ameriketako euskal prentsari buruzko zenbait lan daude. Besteak beste, aurretik ere bere lanak aipatu diren Jose Ramon Zabalaren honako hiru artikulua aipatu daitezke: “La revista *Gernika* en Buenos Aires” (2012), “La revista *Euskaltzaleak*, isla del euskara en Argentina” (2015) eta “Opinar no es saber. Una revista en defensa de la cultura vasca” (2016). Azken hau *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* aldizkariaren inguruan.

Lan solteak egiten joan dira zenbait autore, aldizkari jakin baten edo testuinguru jakin baten zentratuz gehienetan. 2001an, Javier Diaz Nocik euskara hutsez idatzitako lehen bi argitalpenak, Estatu Batuetako *Escualdun Gazeta* (1885) eta *California-ko Eskual Herria* (1893) aztertu zituen “Historia del periodismo en lengua vasca de los Estados Unidos: dos semanarios de Los Ángeles en el siglo XIX” artikuluan.

Hasteko, Ameriketako euskal immigrazioaren sorrera bat egiten du Diaz Nocik eta diasporako lehen agerkarien sorrera aipatzen du. Frantses-euskaldunek sortutako aldizkari hauek hobeto ulertzeko, Iparraldeko testuingurua nolakoa zen azaltzen du. Euskal Herrian euskaraz argitaratzeko egindako lehen saiakerak azaltzen dira eta urte horietan iparraldean agerturiko *Le Réveil Basque* (1885) eta *Eskualduna* (1886) aldizkari aitzindariak aipatzen dira. Alabaina, autorearen ustez diasporako euskarazko lehen aldizkariak, kolonia frantsesak frantsesez publikatzen zituen agerkeriak izan zituzten eredu.

Escualdun Gazeta-ri dagokionez, bere zuzendari eta egilea izan zen Martin Bizcailuz abokatuaren bizitzan sartzen da, kazetak izan zituen helburuak, pentsamoldea eta desagerpena azaltzeko. *California-ko Eskual Herria* aztertzean ere bere egile Jean-Pierre Goytino abokatuaren ibilbidea kontatzen du. Bigarren aldizkari honek taxuzko tirada eta hedapena izan zituen eta bere arrakasta hainbat faktorek bultzatu zuten: informazioaren ugartasuna iritziaren aurrean, Europan euskarari buruz egiten ari ziren ikerketei buruzko ezagutza, kazetaritza estruktura egokia, euskararen erabilera modernoa, etb. Diaz Noci-ren ustez:

El grado de desarrollo informativo que muestra *California-ko Euskal Herria* (e incluso su desafortunado predecesor *Escualdun Gazeta*) es mucho mayor que el de los periódicos en euskera de Europa en esa misma época (Diaz Noci, 2001).

California-ko Eskual Herria eta Jean Pierre Goytinoren ibilbidea Xipri Arbelbidek landu ditu zenbait argitalpenetan. 2002an Mikel Zarate Sariaren saiakera arloko saria eskuratu zuen *Jean Pierre Goytino eta Californiako Eskual Herria* liburuarekin, horretarako Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindiaren laguntza edukiz. Gaiari buruzko zenbait artikulua ere argitaratu ditu Arbelbidek: 2001ean “Californiako Eskual Herria” Jean-Claude Larrondok Eusko Ikaskuntzarentzat editatutako *Eugène Goyheneche Omenaldia- Hommage* lanean; 2003an Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailak argitaratutako “Bidegileak” bilduman “Jean Pierre Goytino (1860-1920)” biografia; eta 2006an “Jean Pierre Goytino, Los Angelesetako notarioa” artikulua *Jado. Boletín de la Academia Vasca de Derecho* aldizkarian.

Iparraldeko euskaldunek Ameriketako burututako prentsa jardunarekin jarraituz, Claude Mehats historialari lapurtarraren lana aipatu daiteke. 2005an argitaratutako *Organisation et aspects de l’émigration des Basques de France en Amérique: 1832-1976* liburuan “La presse basque en Amérique” kapitulu labur bat eskaintzen dio Ameriketako euskal prentsari. Bertan, diasporako prentsaren historia labur bat egiten du, herrialde ezberdinetan sortutako agerkariak eta horien zenbait ezaugarri eta iraupena aipatuz. Hasieran, *Laurak Bat* eta *La Vasconia*-ren hastapenak nolakoak izan ziren kontatzen du eta horien segidan sortutako aldizkariak aipamenak egiten ditu. Ondoren, aldizkari politikoen sorrera azaltzen du eta horietan argitaratutako artikulua moten inguruko zertzelada batzuk ematen ditu.

Kapituluauren bigarren zatian, Buenos Airesen iparraldeko euskaldunek frantsesez argitaratutako *Eskual Herria* (1898) aldizkariaren azterketa labur bat burutzen du. Lehen berrogei aleak kontsultatuta Mehatsek aldizkariaren helburu politikoak zehazten ditu XIX. mendeko tradizionalismoaren eta arrazari buruzko ideien inguruan. Horretarako, aldizkariko hiru arduradun nagusien jarduna azaltzen du eta beraiek idatzitako zenbait artikuluren aipuak jartzen ditu, aldizkariak erabiltzen duen diskurtsoaren erakusgarri. Bukatzeko, autoreak uste du aldizkaria zinez erabilgarria dela Buenos Aireseko frantses-euskaldunen komunitatea ezagutu eta ulertzeko.

Horrez gain, Mehatsek baditu beste bi artikulua argitaratuta gaiaren inguruan. Batetik, aurrerago aipatuko den Ameriketako diasporako lehen euskarazko kazetaritza artikulua inguruan idatzi zuen 2002an: “Articles en basque parus en 1843 dans le *Patriote Français* de Montevideo”. 2012, berriz, liburuan aztertutako *Eskual Herria* aldizkarian sakondu zuen beste artikulua baten: “Eskual Herria: journal des basques français du Río de la Plata”.

Beste lan batzuekin jarraituz, Oscar Alvarez Gilak zuzendutako *Organización, identidad e imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos XVI-XXI)* (2010) liburuan prentsari buruzko bi kapitulu datoz.

Lehena, Jon Ander Ramos Martinezen “Los inicios de la prensa vasca en Cuba. *Laurac Bat* de La Habana (1886-1895)” artikulua da eta lan hau bere doktoretza tesiko parte da: *Euskal inmigrazioa Kuban XIX. mendean: Habanako “Asociación de Beneficencia Vasco Navarra” (1877-1902)*. Artikuluan aldizkariaren azterketaren hastapen bat egiten du. Erabilitako iturriak aldakorrak dira urte ezberdinetan, izan ere, azken urteko (1895) ale guztiak eduki arren zenbait urtetako alerik kontsultatu gabe burutu zuen azterketa.

Laurac Bat izen berdineko aldizkariak Montevideon, Buenos Airesen eta Habanan sortutako lehen hiru euskal instituzioekin batera sortutako diasporako lehen aldizkariak izan zen. Hala ere, artikulua honetan nabarmentzen da Habanako kasuan, beste bi kasuetan ez bezala, aldizkaria eta instituzioa ez zirela menpeko organoak. Aldizkariaren

edukiak aztertzen ditu laburki, atalak bereiziz eta bakoitzean agertzen diren edukiak azalduz. Azterketa 1895an bukatzen da, lehen etaparen amaieratzat jotzen baitu Ramosek. Orduan hil zen ordura arte zuzendari izandako Faustino Díez Gaviño. Berau Manuel Calvo Aguirrereren, Habanako euskal komunitateko pertsonai esanguratsuaren, iloba zen eta bi pertsonaiek aldizkariarekin izandako erlazioan sakontzen du artikuluak. Bukatzeko, aldizkariaren ideologiaren zertzelada batzuk ematen ditu, besteak beste, aldizkariaren portadan azaltzen zen armarria aztertuz.

Ramosek beste bi lanetan ere idatzi dut Kubako prentsaren inguruan. Hain zuzen ere, 2011n aldizkari eta pertsonai berdinari buruzko “Faustino Díez Gaviño e a primeira empresa xornalística en Cuba” artikulua idatzi zuen *Estudos Migratorios: revista galega de análise das migrações* aldizkarian. 2017an berriz “Una aproximación a la prensa periódica en la diáspora vascoamericana (siglos XIX-XX)” artikulua eman zuen argitara Marcelo Garabedianek koordinatutako *La prensa periódica española en América Latina: voces, prácticas y diálogos para la identidad española en la diáspora* liburuan. Bertan, diasporako euskal prentsaren garrantzia eta Urazandin egindako lana azaltzen ditu, ondoren agerkarien sorrera eta garapenaren lehen urteetako azalpenak ematen ditu, eta azkenik, Kubako euskal prentsaren nondik norakoak deskribatzen ditu.

Alvarez Gilaren liburutik aipatutako bigarren kapitulua Alberto Irigoyen Artetxek idatzitakoa da: “Publicaciones periódicas vascas en Uruguay (1876-1939)”. Artikuluaren tituluari zehazten den urte tartean agertutako argitalpenak banaka hartu eta bakoitzari buruzko datu eta azalpen interesgarriak kontatzen ditu. Honakoak dira azaltzen diren agerkariak eta puntuak: 1843. Ameriketako prentsako lehen euskarazko artikulua; 1877. *Laurak Bat*; 1884. *El Euskaro*; 1885. *El Centro Vascongado*; 1887. *Euskaldunak Bat*; 1896. *Laurak Bat*; 1912. *Euskal Erria*; 1915. Santa Isabel de Paso de los Toros-eko euskaldunak; 1924. *Euskaro Español*; 1933. *Euskal Ordua*; 1936. *Solidaridad Eusko Americana*.

Irigoyen prentsa amerikarrean euskarazko lehen artikulua nola publikatu zen kontatzen hasten da (aipatu bezala Claude Mehatsek horren inguruko artikulua bat du idatzita). 1843an Gerra Handia edo Uruguaiako Gerra Zibila bezala ezagutzen dena gertatzen ari zen, Montevideo setiatua zegoelarik. Horren aurrean *Le Patriote Française*

aldizkariak interbentzio frantsesarekin kolaboratzera deitu zituen aberkideak, baina frantses-euskaldunen partaidetza eza ikusirik euskaraz zenbait artikulua argitaratu zituzten borrokara animatuz, lehena maiatzaren 5ean atera zelarik. Gainera, Irigoyenen esanetan, munduan mota honetako bigarren euskarazko artikulua litzateke. Lehena, Javier Diaz Nocik bere tesian baieztatzen duen moduan (Diaz Noci, 1992: 23), Donostiako *El Correo del Norte*-n agertu zen 1834ko martxoaren 7an lehenengo Gerra Karlistan jazotzen ari zenean.

Aldizkari bakoitza zein instituzioren ahotsa zen eta zeintzuk ziren bere arduradunak azaltzen du laburki artikulua puntu bakoitzean. Euskal instituzioetako kideen arteko zenbait gorabehera eta aldaketa azaltzen dira, aldizkarien joera ideologikoa hobeto ezagutzen laguntzen dutenak. *Euskal Erria* izan zen Uruguaiako euskal argitalpen emankorrena, 1912tik 1960rarte argitaratu zelarik. Izen berdineko instituzioaren ahotsa izan zena, ispiluhobe ezina bihurtu zen mende erdiz euskal komunitate uruguaitarraren sektore baten bizitza soziala erakusteko. Tartean, Santa Isabel de Paso de los Toros herriko euskaldunek egindako lan miresgarria ere kontatzen da. Talde dezentea bildu, ekintza ugari antolatu (adibidez, ezagutzen diren “festa Euskara-Uruguaya” bakarrak) eta *El Pueblo* tokiko aldizkari isabeldarrean euskaldunen anaitasuna aldarrikatuz artikulua batzuk idatzi zituzten. Azpimarratzekoa da baita ere aipatzen dituen bi aldizkariaren alerik ez dela egundaino ezagutu eta beste zenbait kasutan azken urteetan aurkitu direla ale apur batzuk. Esaterako, *Euskal Ordua* aldizkariaren kasuan, desagertutzat ematen zen Claude Mehats eta beste zenbaitek egindako lanari esker hiru zenbaki aurkitu ziren arte, Baionako Euskal Museoa eta Gasteizko Diozesiar Seminarioan.

Oscar Alvarez Gilak Gerra Zibil aurreko diasporako euskal prentsaren fenomeno eta horien inguruan egindako ikerketak lantzen dituen artikulua bat argitaratua du 2019an *Revista Internacional de Historia de la Comunicación* aldizkarian: “Entre la información y la creación de identidad: origen y desarrollo de la prensa de la emigración vasca en América, 1877-1936”. Gaiaren inguruan egindako ikerketen balorazioa burutzen du, esparru honetan dauden baliabideak erakusten ditu, prentsa mota ezberdinen garapena (instituzionala, ekimen enpresarial pribatukoa eta politiko edo

ideologikoa) azaltzen du, prentsak euskal identitatearen eraikuntzan zer funtzio eduki zuten hausnartzen du eta bibliografia interesgarria eskaintzen du.

La Baskonia aldizkari euskal-argentinarraren inguruan ere zenbait lan burutu dira. Oscar Alvarez Gilak eta Angeles de Dios Altuna de Martinak (2010) aldizkariaren zuzendaria izandakoari buruz “Jose R. de Uriarte y la revista *La Baskonia*: una visión atípica de la colectividad vasca de Argentina de entre siglos” artikulua burutu zuten Marcela Garcia Sebastianik koordinatutako *Patriotas entre naciones. Élités inmigrantes españolas en Argentina (1870-1940)* liburuan.

Bestalde, de Dios Altuna de Martinak hainbat lan burutu ditu aldizkaria eta horren inguruko pertsonaiak aztertzen. Tartean, Euskonews-en hiru aleetan “Jose Rufo Uriarte, periodista, editor y escritor” (2012) lana dator; aldizkarian arte mota ezberdinek edukitako leku aztertu du “El arte y la construcción de una identidad vasca. *La Baskonia* (1893-1920)” (2007) artikuluan; *Andrea Moch. Andanzas de una artista* liburuan (2011) artista honen bizitza jasotzen du; baita Indalecio Ojanguren argazkilariaren lana “Indalecio Ojanguren fotógrafo: su obra en la revista éuskaroargentina *La Baskonia* (1913-1935)” (2012) artikuluan; eta Arturo Campionek aldizkarian eginiko kolaborazioak (2005).

La Baskonia aldizkariaren inguruan beste bi lan ere aipatu ditzakegu. Batetik, Macarena Bergarecheren (2009) “El ser vasco en un país lejano. Identidad e integración. La Vasconia (1893-1914)”, eta bestetik, Manuel Urrutia Leonen (2010) “Unamuno y la revista ilustrada *La Baskonia*”.

Ameriketako lehen aldizkari politiko eta abertzalea izen zen *Irrintzi* aldizkariari buruz, honen zuzendariari buruzko “Biografía de Nemesio Olariaga” (2008), Juan Mari Irustaren lana aipatu behar da. Aldizkari honi buruz berrikiago argitaratutako Gianfranco Calziniren (2021) azterketa ere aipatu behar da.

Argentinako euskal prentsarekin lotura duten beste zenbait lanen artean honakoa ere aipatu daiteke: Tandileko euskaldunei buruzko “Vascos y prensa en la pampa húmeda. Escenarios y necesidades (1850/1950)”, Marcelino Iriannik burutua.

Azkenik, azken urteetako komunikazioari buruz, Satelite bidezko eta telebistari lotutako aldiari dagokionez, erreferentzia nagusi eta ia bakarrik Josu Amezagak idatzitakoak dira. Gaiari buruzko lan nagusia *Satelite bidezko nortasunak. Latinoamerikan Canal Vasco ikusten* (2004) liburua da. Bertan Amezagak sakonean aztertzen ditu mundu mailan satelite bidezko telebistek hartutako garrantzia eta, Canal Vascoren nolakotasuna deskribatu ondoren, honek Latinoamerikako (Argentina eta Venezuelako kasuak aztertzen dira batik bat) euskaldunen nortasunaren garapenean edukitako garrantzia azaltzen du. Horri lotuta, ingelesez idatzitako artikulu batean liburuan jasotzen diren ideia nagusiak biltzen ditu: “New uses for old needs in the diaspora. Watching Basque television in Latin America” (2006).

Azkenik, internet eta sare sozialen aldiari dagokionez, Pedro Oiarzabalek eginiko lana aipatu behar da. Azken hamarkadetan euskal diasporako komunikazioak izan duen bilakaera aztertzen aritu da, euskal diasporak ziberespazioan hartu duen presentzia aztertuz. Bere lanen artean *The Basque Diaspora Webscape. Identity, Nation, and Homeland, 1990s-2010s* (2013) liburua nabarmendu daiteke. Ikerketa sakon baten emaitza izanik, gaia bere osotasunean ulertzeko beharrezkoa da, interneten zabaldutako lehen webguneetatik hasi eta sare sozialetaraino izandako bilakaera azalduz. Horrez gain, beste zenbait artikulutan ere jarraitu du gaia lantzen, tartean diasporako euskal komunitateetan Facebook sare sozialak izandako erabilera aztertuz (Oiarzabal 2012 eta 2019). Bide beretik, Koldo Diaz Bizkarguenagak eta Raphael Tsavkko Garciak (2015) ere euskal diasporako kideen artean blog-ek eta Facebook-ek hartu duten lekua aztertu dute, komunikazio paradigma berria transnazionalismoaren fenomenoari lotuz. Horrez gain, Tsavkko Garciak Argentinan ezker abertzaleari lotutako taldeek interneten izan duten presentzia aztertu du bere doktorego tesian: *The Basque digital diaspora: left-wing abertzale solidarity groups in Argentina* (2018a).

2. DISEINU METODOLOGIKOA

2.1. Helburuak

Atal honetan, gure planteamendu metodologikoa eta analisi praktikoa gidatu dituzten helburuak zehazten ditugu, sarreran jasotako ikerketa-interesak, gaiaren egoera eta gaiari buruzko esparru teorikoa kontuan hartuta. Zehazki, helburu nagusia hurrengo ikerketaren galdera nagusizat ere azal liteke: zein izan zen Argentinako diasporako prentsaren ekarpena kazetaritzari, historiari, kulturari eta politika- eta gizarte-arloei dagokienez? Helburu orokor hori hainbat esparrutan mugatzeko, zenbait helburu espezifiko ere planteatzen dira. Helburu hauek guztiak hipotesi nagusiekin lotzen dira, hurrengo epigrafean azaltzen den bezala.

Helburu orokorra:

HO.: Argentinako diasporako euskal prentsaren sorrera eta garapena aztertzea 1877-1936 urteen artean, aukeratutako laginean aldizkariak garatzen duten kazetaritza-estiloa, edukiaren egituraketa eta diskurtsoa aztertuz eduki-analisiaren bidez.

Helburu espezifikoak:

HE1. Aldizkariak argitaratutako testuingurua zein zen eta diasporako euskal komunitatearen zein beharri erantzuten zioten azaltzea.

HE2. Aldizkariak kazeta enpresa gisa deskribatzea. Horretarako, jabetza mota, argitalpenen azpiegitura, enpresa egituraketa, langileen baldintzak, harpidetzak, aldizkariaren banaketa, informazio iturriak, etab. aztertuz.

HE3. Kazetari eta idazleek burututako kazetaritza jardunaren nolakotasuna aztertzea eduki-analisia erabiliz, eta beraien bizi esperientzian sakontzea metodo biografikoaren bidez. Kazetarien sarea osatu.

HE4. Agerkarien edukiaren egituraketa deskribatzea portada, erabiltzen diren generoak, sailak, argazkiak, ilustrazioak, publizitatea, etab. aztertuz.

HE5. Aldizkarien gertaerekiko ikuspegia eta joera ideologikoak behatzea (editorialak, esloganak, ikurrak, sinbologia, diskurtsoa, etab. aztertuz), eta horren bidez, euskaltzale horien pentsamolde nagusiak ezagutu eta inguruko eztabaida politiko eta kulturalean sartzen ote ziren behatu.

HE6. Euskararen pisua eta nolakotasuna aztertzea. Gaztelera eta frantsesaren erabilerarekin alderatzea.

HE7. Agerkariak zein publiko motari zuzenduta zeuden eta zein helburu jarraitzen zituzten ulertzea, diasporako euskal komunitatearen kohesio eta komunikazioan izandako garrantzia azalduz.

HE8. Aldizkarien bilakaera behatzea kokatzen diren testuinguruan edukitako garapena azalduz.

HE9. Diasporako euskal prentsaren historia euskal prentsaren historia orokorrean kokatzea.

2.2. Hipotesiak

Tesi honen hipotesiak diseinatzerako garaian, hainbat ideia edo premisa hartu dira kontuan. Ameriketako euskal diasporan 128 aldizkari argitaratu eta horiek bidea egin izanak, erakusten du euskal komunitatearen baitan masa kritikoa osatzen zuen jende multzo garrantzitsua egon behar zela. Euskal komunitatea eraikitzeke lanetan ari zen masa kritiko horrentzat prentsa ezinbesteko tresna zen. Zenbait herrialdetan euskal prentsaren agerpena instituzioak sortu aurretik gauzatu zen, komunikazio bide honek komunitateen antolakuntzan zuen garrantzia eta eraginkortasuna erakutsiz.

Aztertzen den testuinguru eta denbora tartean, kazetaritza lanbidea izateaz haratago, komunitatearen aldeko lan gisa ulertzen zen. Kazetariak eta kazetaritza ekimenen parte

ziren aktoreek euskal komunitatearen jardunean modu aktiboan parte hartzen zuten. Espainiako Gerra Zibilaren aurretik eta ondoren prentsaren ezaugarriak ezberdinak izan ziren. Erbesteratuen iritsierak kazetaritza ekimen eta edukien politizazioa eragin zuen. 1936tik aurrera iritsitako erbesteratuek eragin nabarmena eduki zuten euskal kolektibitateen garapenean eta prentsan islatuta agertuko da muturtze politiko hori.

Ondoren adierazten diren hipotesiak izan dira ikerketa lan hau gidatu dutenak. Hipotesi guztiak prentsaren funtzioa eta interesaren arabera planteatu dira, normalean ezkutatuta agertzen direlako:

H1. Aldizkariak diasporako euskal komunitateko kideen askotariko interesak, hala nola, politikoak, kulturalak, ekonomikoak, aisialdikoak edo kiroletakoak asetzerara bideratuta zeuden.

H2. Argentinan 1877-1936 urteen tartean sortu ziren mota ezberdinetako (instituzionalak, kultural-intelektualak eta politikoak) kazetaritza ekimenek honako funtzio nagusia izan zuten: XIX. mende bukaerarako esanguratsua bihurtzen ari zen euskal diaspora amerikarrean harremanak areagotzea eta kohesioa hobetuko zuten komunikazio sistema eraginkorrak eratzea.

H3. Kanpora begira euskaldunen berezitasun kulturala plazaratzeko eta gizarte hartzailearekiko eraiki beharreko irudia hobetzeko baliabidea izan zen prentsa.

H4. Prentsa inguruko eztabaidaren isla izateaz gain, eztabaidarako plaza izan zen. Komunitatean beraien ideiek eragina izatea bilatzen zuten kazetariak.

2.3. Ikerketaren unibertsoa

2.3.1. Urazandi Digitala

Urazandi Digitala Eusko Jaurlaritzako Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren ekimena da. Urazandi Digitala bilduman, lan eskergea egin dute batez ere Ameriketako XIX. mendetik aurrera argitaratutako euskal aldizkariak digitalizatzeko lanean aritu diren Alberto Irigoyen eta Adriana Patrón teknikari uruguaitarrek, Josu Legarretaren zuzendaritza pean. Batik bat euskal etxeetako artxiboetan eta unibertsitateko liburutegietan aurkitu dituzte aldizkariak aleak eta guztira hiru kontinente eta hamazazpi herrialdetan zehar argitaratutako 183 argitalpen eta 200.000 orrialde inguru digitalizatu dituzte “beren lurraldea utzi behar izan zuten euskaldunen bizipenak, pentsamenduak eta itxaropenak berreraikitzea ahalbidetzen” (Urazandi Digitala, 2019) dutenak.

Lan hau 2003an hasi zen La Vasconia/Baskonia aldizkari argentinar enblematikoaren eta Alberto Azuaren, Eusko Jaurlaritzaren Mexikoko delegatua izandakoaren, funts dokumentala argitaratuta. 2007an proiektuaren emaitza aurkeztu zen Euskal Gizataldeen IV. Mundu Biltzarrean: 12 DVDk osatutako *Hemeroteca de la Diáspora Vasca (01): prensa americana y de otros países*. Horrez gain, bildutako material guztia online jarri zen web orri batean mundu guztiaren eskura¹. 2019an etapa berri bati ematen zaio hasiera web orria berrituz², eta era berean, Europan (batik bat Frantzia) editatutako hainbat argitalpen gehituz eta kontinente amerikar eta afrikarreko beste zenbait agerkari ere batuz.

Guztira Ameriketako diasporako 128 euskal argitalpen daude digitalizatuta Urazandin. Honela banatzen dira herrialdeka: Argentinan 38, Venezuelan 29, Mexikon 23, Estatu Batuetan 14, Kuban 7, Uruguain 7, Txilen 6, Kolonbian 2, Guatemalan 1 eta Panaman 1. Agerkariak nolakotasunari dagokionez, instituzio edo elkarteei lotutako 37 aldizkari daude, 34 aldizkari kultural-intelektual, eta azkenik, gai politikoak ardatz dituzten 57 aldizkari.

¹ Eusko Jaurlaritza (2007), *Urazandi Digitala*. In: <https://urazandi.euskaletxeak.eus/>

² Eusko Jaurlaritza (2019), *Urazandi Digitala*. In: <https://urazandidigital.euskaletxeak.eus/>

2.3.2. Jon Bilbao Basque Library-n

Doktoretza tesi hau burutzerakoan University of Nevada-ko (Reno, AEB) William A. Douglass Center for Basque Studies ikerketa zentroan hiru hilabeteko egonaldia egin zen. Bertan, Jon Bilbao Basque Library / Renoko Euskal Liburutegiko artxiboan lan egitea posible izan zen. Bertako arduradun Iñaki Arrietaren eskutik artxiboan dituzten diasporako euskal aldizkarien inbentarioa eskuratu ahal izan zen. Zerrenda horretatik abiatuta, Urazandi Digitala webgunean digitalizatuta dauden aldizkarien eta inbentarioan agertzen zirenen arteko alderaketa egin zen.

Horrela, ikusi zen Reno-ko liburutegiko artxiboan webgunean ez dauden aldizkarien zenbait zenbaki dituztela. Hutsune horiek banaka aztertu ziren modu fisikoan. Zenbait kasutan hutsune horien arrazoa informazioa gaizki zehaztuta zegoela izan zen, hau da, inbentarioan edo webgunean dauden aldizkarietarako buruzko zehaztapenak (enumerazio datuak) ez dira zuzenak. Hala ere, beste hainbat kasutan frogatu ahal izan zen artxiboan modu fisikoan dituzten zenbaki batzuk ez daudela webgunean digitalizatuta. Aldizkarien zenbaki horiek guztiak modu fisikoan kontsultatuak izan ziren. *Laurak Bat* aldizkariaren kasuan mikrofilmean aurkitu ziren ondoren datozen zenbakiak.

Besteak beste, aipatzekoa da *Laurak Bat* aldizkariaren kasuan, bere lehen eta garrantzitsuen den etapan (1878-1891), doktoretza lan honetan lantzen den epea hain zuzen, hiru zenbaki soilik falta direla bilduma osatzeko webgunean. Falta diren hiru zenbaki horiek Reno-ko liburutegian mikrofilmean aurkitzen direla frogatu zen. Bestalde, *La Baskonia* aldizkariari dagokionez, Urazandi Digitala webgunean zehazten da bilduma osoan zenbaki bakarria falta dela (1398.zbk). Zenbaki hori artxiboan badagoela ikusi ahal izan zen. Aldizkariaren errebaso osoa egin gabe, ikusi zen 28.zbk ere faltan zegoela eta hori ere Jon Bilbao Basque Library-ko artxiboko bilduman badagoela ikusi zen. *Almanaque La Baskonia* argitalpenean hainbat zenbakiren falta zegoela ikusi zen, tartean bi iturrietan zaharrena zen zenbakiarena, 1898. urtekoa hain zuzen ere. Beste batzuen artean, aipatu daitezke Mexikon gerra ostean argitaratutako *Alkartu: Erri guzietako langilleak alkartu!* aldizkariaren zenbakiak edo Venezuelako *Iritzi* eta *Zutik* aldizkarietako zenbait zenbaki.

Urazandi Digitalean digitalizatzeko lanetan aritutako Alberto Irigoyen Artetxeri egindako lana azaldu zitzaion, etorkizunean bilduma osatzeko lagungarri izate aldera. Bestalde, aldizkari guztien portada argitaratzeko baimena eskatu zen liburutegian. Eranskinetan ikusi daitezke ondoren datozen aldizkari zenbakien portadan. Esan bezala, zerrenda honetan dauden zenbaki guztiak Jon Bilbao Basque Library liburutegiko artxiboan daude eta Urazandi Digitala webgunean ez daude digitalizatuta:

- *Alkartu: Erri guzietako langilleak alkartu!* Mexico, 1942-1944; 1, 10 eta 18.zbk.
- *Almanaque La Baskonia*. Argentina. 1898, 1912, 1916, 1917, 1918, 1920, 1935, 1936. urteetako zenbakiak.
- *La Baskonia*. Argentina, 1894; 28.zbk.
La Baskonia. Argentina, 1932; 1398.zbk.
- *C.E.V.A.* Argentina, 1979, 16.zbk; eta Cuadernos (Euzkadi el 21 de julio de 1976, Discusión del lema “J.E.L.”, Aberri eguna apuntes para su historia, Consejo general vasco los 200 días de la lucha autonómica).
- *Euzkadi Azkatuta*. Mexico, 1950s, zenbaki gabea.
- *Euzko Enda*. Paris, 1939-1940; 1 eta 15.zbk eta “indizea”.
- *F.E.V.A.: los vascos en Argentina*. Argentina, 1970-1972 Cuadernos (Rosario, Historia Comité Pro Inmigración Vasca, Arrecifes Pergamino, Villa María).
- *Informa: Centro Laurak-Bat, El Hogar de Los Vascos*. Argentina, 1973; 3.zbk.
- *Iritzi: Venezuelan Euskadi'ko Albistaria*. Venezuela, 1979-1981; 2, 3, 6, 7, 8 eta 9.zbk.
- *Laurak Bat*. Argentina, 1883-1887; 91, 129 eta 172.zbk.

- *Pays Basque et Bearn*. Paris, 1982; 481.zbk.
- *Zutik*. Venezuela, 1969-1970; 85, 87, ?, 91, 92, 93 eta 94.zbk.

2.3.3. Unibertsoa aldizkari motaka Ameriketean

<u>Elkarte edo instituzioen aldizkariak</u>				
Herrialdea	Aldizkaria	Hiria	Urtea	Zenbaki kopurua
ARGENTINA	<i>Laurak Bat</i>	Buenos Aires	1878-1975	281
“	-1936-			
“	<i>Denak Bat</i>	Mar del Plata	1944-2001	4
“	<i>Grandes Fiestas Vascas de Azul</i>	Azul	1953	1
“	<i>Euskal Echea LLavallol</i>	Llavallol	1954	1
“	<i>Euskal Echea</i>	Buenos Aires	1954	1
“	<i>Irrintzi</i>	Bahia Blanca	1956-2003	65
“	<i>Denak Bat</i>	Lomas de Zamora	1964-1975	60
“	<i>Federación de Entidades Vasco Argentinas (FEVA)</i>	Buenos Aires	1969-1975	19
“	<i>Irrintzi</i>	General Acha	1972	1
“	<i>Euzko Etxea (La Plata)</i>	La Plata	1972	1
“	<i>Confederación de Entidades Vasco Americanas (CEVA)</i>	Buenos Aires	1973-1978	14
-				

VENEZUELA	-1936-			
“	<i>Euzkadi</i>	Caracas	1942-1979	81
“	<i>Euzkadi</i>	Caracas	1948	1
“	<i>Etxeko Jaun'en Alkartasuna</i>	Caracas	1968-1971	3
“	<i>Euzkadi</i>	Caracas	1972-1975	9
“	<i>Grupo Pelota Zale</i>	Caracas	1973	1
“	<i>Noti-mes</i>	Caracas	1974-1981	28
-				
MEXIKO	<i>Centro Vasco. Memorias</i>	Mexiko	1921-1975	25
“	<i>Argia Luz</i>	Mexiko	1934	1
“	-1936-			
“	<i>Jai Alai</i>	Mexiko	1936	1
“	<i>Boletín del Consejo de Contribución a la Resistencia Vasca</i>	Mexiko	1964-1969	12
“	<i>Euskal Elkargoa</i>	Mexiko/Euskal Herria	1970-1974	23
-				
ESTATU BATUAK	-1936-			
“	<i>Basque Studies Center</i>	Reno	1968-2006	74
“	<i>Zazpiak Bat Basque Club</i>	Reno	1970-2004	102
“	<i>Euskorria</i>	Elko	1971-1973	5
“	<i>Euzkotaran Abotza</i>	Boise	1972-1973	8
“	<i>Alkarteko</i>	Boise	1974	1

	<i>Berriak</i>			
-				
KUBA	<i>Laurac Bat</i>	Habana	1886-1896	130
“	<i>Asociación Vasco Navarra de Beneficencia</i>	Habana	1890-1972	10
“	-1936-			
“	<i>Gordejuela</i>	Cardenas	1943-1956	110
-				
URUGUAI	<i>Laurac Bat / El Euskaro</i>	Montevideo	1877-1888	185
“	<i>Centro Vascongado</i>	Montevideo	1885	1
“	<i>Euskal Erria</i>	Montevideo	1912-1985	1.025
“	<i>Euskaro Español</i>	Montevideo	1924-1926	14
“	-1936-			
-				
TXILE	-1936-			
“	<i>Euzko Etxea</i>	Santiago Txile	1960	2
-				
KOLONBIA	-1936-			
“	<i>Eusko Etxea Deya</i>	Bogota	1962	8
“	<i>Gure Sustraiak</i>	Bogota	1977	1

Taula 1: Elkarte edo instituzio aldizkariaren unibertsoa.
Iturria: lanaren egileak egina.

Aldizkari kultural-intelektualak

Herrialdea	Aldizkaria	Hiria	Urtea	Zenbaki kopurua
ARGENTINA	<i>La Vasconia Revista Ilustrada</i>	Buenos Aires	1893-1943	1.671
“	<i>Eskual Herria</i>	Buenos Aires	1898	41
“	<i>Haritza</i>	Buenos Aires	1905-1912	365
“	<i>Almanaque de La Baskonia</i>	Buenos Aires	1909-1957	16
“	<i>Aitor</i>	Rosario de Santa Fe	1915-1916	20
“	<i>Navarra</i>	Buenos Aires	1917	1
“	<i>Eskualduna</i>	Buenos Aires	1921-1922	3
“	<i>Gure Herria</i>	Buenos Aires	1928	38
“	-1936-			
“	<i>Anuario Almanaque Vasco</i>	Rosario	1941-1942	2
“	<i>Gernika</i>	Buenos Aires	1945-1953	25
“	<i>Boletín Instituto Americano de Estudios Vascos</i>	Buenos Aires	1950-1993	175
“	<i>Euskalduna/ El Vasco</i>	Buenos Aires	1954-1955	11
“	<i>Euskaldunak Denak Bat</i>	Arrecifes	1962	1
“	<i>La Baskonia</i>	Buenos Aires	1978-1980	15

VENEZUELA	-1936-			
“	<i>Acción Cultural Vasca</i>	Caracas	1967	4
“	<i>Euzkadiko Erriak</i>	Caracas	1951	1
“	<i>Eman</i>	Caracas	1967	4
-				
MEXIKO	-1936-			
“	<i>Cancha</i>	Mexiko	1945-1958	71
“	<i>Estampas del País Vasco</i>	Mexiko	1946	1
“	<i>Ekin</i>	Mexiko	1950	1
“	<i>Chic Chac</i>	Mexiko	1951	6
“	<i>Euzko Izketa</i>	Mexiko	1956	2
-				
ESTATU BATUAK	<i>Escualdun Gazeta</i>	Los Angeles	1885-1886	2
“	<i>Californiako Eskual Herria</i>	Los Angeles	1893-1897	152
“	-1936-			
“	<i>Le Californien</i>	San Francisco	1963-1979	315
“	<i>Eusko Albistaria</i>	Nueva York	1973	2
“	<i>Voice of the Basques</i>	Boise	1974-1977	33
“	<i>Chula</i>	Maitland	1975	4
-				
KUBA	<i>Beti Jai</i>	Habana	1906	6
“	<i>La Cancha Habanera</i>	Habana	1920-1921	25
“	-1936-			
“	<i>Cancha Nacional</i>	Habana	1943	1

“	<i>Cancha y Ring</i>	Habana	1947	1
-				
TXILE	-1936-			
“	<i>Batasuna</i>	Santiago Txile	1941-1942	5
-				
GUATEMALA	-1936-			
“	<i>Euzko Gogoa</i>	Guatemala	1950-1959	84

Taula 2: Aldizkari kultural-intelektualen unibertsoa. Iturria: lanaren egileak egina.

Aldizkari politikoak

Herrialdea	Aldizkaria	Hiria	Urtea	Zenbaki kopurua
ARGENTINA	<i>Irrintzi</i>	Maipu	1905-1923	133
“	<i>La Euskaria</i>	Buenos Aires	1906-1915	385
“	<i>Euzkotarra</i>	Buenos Aires	1913	4
“	<i>Egizale</i>	Buenos Aires	1915	1
“	<i>Zazpirak Bat</i>	Rosario	1922-1946	6
“	<i>Nación Vasca</i>	Buenos Aires	1924-1998	125
“	-1936-			
“	<i>Euzko Deya</i>	Buenos Aires	1939-1987	677
“	<i>Galeuzca</i>	Buenos Aires	1945-1946	12
“	<i>Euskalzaleak</i>	Buenos Aires	1954-1960	13
“	<i>Tierra Vasca</i>	Buenos Aires	1956-1975	220
“	<i>Tximistak</i>	Buenos Aires	1961-1967	77
“	<i>Euzko Abertzale Laguntza</i>	Lomas de Zamora	1969-1975	26
“	<i>Zutik</i>	Buenos Aires	1972-1974	4
-				
VENEZUELA	-1936-			
“	<i>Argia</i>	Caracas/ Nueva York	1946-1948	15
“	<i>Eusko Gaztedi</i>	Caracas	1948-1977	150
“	<i>Erri</i>	Caracas	1949	1
“	<i>Aberri</i>	Caracas	1958-1962	21
“	<i>Irrintzi</i>	Caracas	1958-1962	15
“	<i>El Amarreko</i>	Caracas	1960	2
“	<i>Frente Nacional Vasco</i>	Caracas	1960-1968	42

“	<i>Zutik</i>	Caracas	1960-1975	80
“	<i>Askatuta</i>	Caracas	1961-1962	6
“	<i>Gudari</i>	Caracas	1961-1973	70
“	<i>Cuaderno Zutik</i>	Caracas	1963	2
“	<i>Goazen</i>	Caracas	1965 – 1966	4
“	<i>Acción Nacionalista Vasca</i>	Caracas	1965-1976	15
“	<i>Euskadi Bai</i>	Caracas	1969	2
“	<i>La Pulga</i>	Caracas	1969-1973	15
“	<i>Sabindarra</i>	Caracas	1970-1974	40
“	<i>Berriak</i>	Caracas	1970?-1971	9
“	<i>Lan Deya</i>	Caracas	1971-1974	15
“	<i>G.V. / O.P.E.</i>	Caracas	1972-1978	15
“	<i>Irrintzi</i>	Caracas	1979-1980	3
-				
MEXIKO	<i>Euzkotarra</i>	Mexiko	1907-1909	5
“	<i>Patria Vasca</i>	Mexiko	1928-1930	5
“	-1936-			
“	<i>Aberri Aldez</i>	Mexiko	1937	3
“	<i>Euzko Deya</i>	Mexiko	1943-1973	390
“	<i>Alkartu</i>	Mexiko	1946	10
“	<i>Aberri</i>	Mexiko	1946-1947	15
“	<i>Euzko Langillen Alkartasuna</i>	Mexiko	1948	1
“	<i>Euzkadi Roja</i>	Mexiko	1952	2
“	<i>Euzkadi Azkatuta</i>	Mexiko	1956-1960	9
“	<i>Zutik</i>	Mexiko	1962	3
“	<i>Gudari</i>	Mexiko	1965	1

“	<i>La Patria, el Mundo y Nosotros</i>	Mexiko	1966	1
“	<i>Euzkadi'ko Egiak</i>	Mexiko	1970-1971	6
-				
ESTATU BATUAK	<i>Aberri</i>	Nueva York	1925-1928	20
“	-1936-			
“	<i>Basques</i>	Nueva York	1943-1944	6
“	<i>Ambos Mundos</i>	Nueva York	1943-1944	2
-				
URUGUAI	<i>Euskal Ordua</i>	Montevideo	1934	6
“	-1936-			
“	<i>Solidaridad Eusko Americana</i>	Montevideo	1936	2
“	<i>Delegación de Euskadi</i>	Montevideo	1946-1947	2
-				
TXILE	<i>¡Aurrera!</i>	Rancagua	1907-1910	16
“	-1936-			
“	<i>Boletín Euzko Gastedija</i>	Santiago Txile	1942	2
“	<i>Euzkadi</i>	Santiago Txile	1943-1949	62
“	<i>Oficina de Prensa de Euzkadi</i>	Santiago Txile	1947	2
-				
PANAMA	-1936-			
“	<i>Gernika</i>	Panama	1943-1944	3

Taula 3: Aldizkari politikoaren unibertsoa.
Iturria: lanaren egileak egina.

2.3.4. Unibertso osoa Argentinan

<u>Unibertsoa osoa Argentinan</u>				
Herrialdea	Aldizkaria	Hiria	Urtea	Zenbaki kopurua
ARGENTINA	<i>Laurak Bat</i>	Buenos Aires	1878-1975	281
“	<i>La Vasconia Revista Ilustrada</i>	Buenos Aires	1893-1943	1.671
“	<i>Eskual Herria</i>	Buenos Aires	1898	41
“	<i>Haritza</i>	Buenos Aires	1905-1912	365
“	<i>Irrintzi</i>	Maipu	1905-1923	133
“	<i>La Euskaria</i>	Buenos Aires	1906-1915	385
“	<i>Almanaque de La Baskonia</i>	Buenos Aires	1909-1957	16
“	<i>Euzkotarra</i>	Buenos Aires	1913	4
“	<i>Egizale</i>	Rosario	1915	1
“	<i>Aitor</i>	Rosario de Santa Fe	1915-1916	20
“	<i>Navarra</i>	Buenos Aires	1917	1
“	<i>Eskualduna</i>	Buenos Aires	1921-1922	3
“	<i>Zazpirak Bat</i>	Rosario	1922-1946	6
“	<i>Nación Vasca</i>	Buenos Aires	1924-1998	125
“	<i>Gure Herria</i>	Buenos Aires	1928	38
“	-1936-			
“	<i>Euzko Deya</i>	Buenos Aires	1939-1987	677
“	<i>Anuario Almanaque Vasco</i>	Rosario	1941-1942	2
“	<i>Denak Bat</i>	Mar del Plata	1944-2001	4
“	<i>Galeuzca</i>	Buenos Aires	1945-1946	12

“	<i>Gernika</i>	Buenos Aires	1945-1953	25
“	<i>Boletín IAEV (Instituto Americano de Estudios Vascos)</i>	Buenos Aires	1950-1993	175
“	<i>Grandes Fiestas Vascas de Azul</i>	Azul	1953	1
“	<i>Euskal Echea LLavallol</i>	Llavallol	1954	1
“	<i>Euskal Echea</i>	Buenos Aires	1954	1
“	<i>Euskalduna / El Vasco</i>	Buenos Aires	1954-1955	11
“	<i>Euskalzaleak</i>	Buenos Aires	1954-1960	13
“	<i>Tierra Vasca</i>	Buenos Aires	1956-1975	220
“	<i>Irrintzi</i>	Bahia Blanca	1956-2003	65
“	<i>Tximistak</i>	Buenos Aires	1961-1967	77
“	<i>Euskaldunak Denak Bat</i>	Arrecifes	1962	1
“	<i>Denak Bat</i>	Lomas de Zamora	1964-1975	60
“	<i>Federación de Entidades Vasco Argentinas (FEVA)</i>	Buenos Aires	1969-1975	19
“	<i>Euzko Abertzale Laguntza</i>	Lomas de Zamora	1969-1975	26
“	<i>Irrintzi</i>	General Acha	1972	1
“	<i>Euzko Etxea (La Plata)</i>	La Plata	1972	1

“	<i>Zutik</i>	Buenos Aires	1972-1974	4
“	<i>Confederación de Entidades Vasco Americanas (CEVA)</i>	Buenos Aires	1973-1978	14
“	<i>La Baskonia</i>	Buenos Aires	1978-1980	15

Taula 4: Unibertso osoa Argentinan.
Iturria: lanaren egileak egin.

2.4. Aukeratutako lagina

Ameriketako euskal prentsaren unibertso horretatik lagin bat aukeratu da sakoneko azterketa burutzeko. Laginaren azterketa egiteko Argentinako kasua aukeratu da, diasporako euskal prentsaren fenomeno behatu eta ulertzeko herrialde egokiena dela iritzi baita.

Rio de la Platako herrialdeak, hots, Argentina eta Uruguai, izan ziren XIX. mendean emigrazio masiboaren garaian euskaldunen portu nagusiak. Joera horrek XX. mendean aurrera eginda ere jarraitu zuen, baina erritmo eta egoera ezberdinak jazo ziren denboran zehar. Douglass eta Bilbaok zioten XIX. mendean emigratutako euskaldun guztien artean bostetik lau eskualde horretara heldu zirela. 1980an, Argentinako euskal ondorengoak milioi bat inguru izan behar zutela estimatzen zen, eta bi hamarkada geroago, argentinar guztien %10 inguruko zifra ematen zen (Alvarez Gila, 2004).

Argentina da diasporako euskal aldizkariak dituzten herrialdeetatik agerkari gehien dituenena, hain zuzen ere, 38 agerkari. Horrela, unibertso osoaren %30 osatzen du Argentinako kasuak.

Unibertsoa sailkatzeko erabili diren hiru aldizkari moten adibide garbiak daude. Argentinako euskal diasporako aldizkarien artean 11 dira instituzio edo elkarteei lotutakoak, 14 aldizkari dira kultural-intelektualak eta 13 agerkarik dituzte gai politikoak ardatz.

Horrez gain, diasporako lehen euskal aldizkariak agertu zirenetik gerra osteko kazetaritza ekimenetaraino etengabe argitaratu dira aldizkariak Argentinan. Beraz, posible da diasporako euskal prentsaren fenomeno kronologiaren jarraikortasun egokiarekin aztertzea. Argentinan 15 aldizkari dira Espainiako Gerra Zibilaren aurretik sortutako aldizkariak eta 23 dira gerra ondorengoak.

Aldizkari mota bakoitzeko aldizkari bat aukeratu da azterketa sakona burutzeko eta aldizkari horien zenbaki guztiak aztertuko dira. Eduki-analisisa egiterakoan zenbaki bakoitzeko ondoren xehatuko den fitxa beteko da:

- *LAURAK BAT*

Buenos Aires

1877-1975

Centro Vasco Laurac Bat

Instituzionala

281 zenbaki

Laurak Bat aldizkaria Rio de la Platan sortutako lehen euskal etxeek argitaratutako prentsa instituzionalaren erakusgarri da. 1877an sortu zen diasporako lehen euskal agerkaria Montevideon eta 1878an Buenos Airesen argitaratu zen bigarrena, biak *Laurak Bat* izenarekin.

Lehenbiziko etapa, 1878ko urtarrilean argitaratutako lehen aletik 1891ko abendura artekoa izan zen eta guztira 230 zenbaki eman ziren argitara. Bigarren etapa, 1921ko apirilean hasi eta 1923ko apirilera arte izan zen, orduko 18 zenbaki ezagutzen direlarik. Hirugarren etapa, 1930ko urritik 1931ko iraila arteko izan zen eta 12 zenbaki editatu ziren. Ordutik aurrera, 1975ra arte, zenbaki solteak argitaratu ziren San Inazio bezalako ospakizun bereziei, urteurrenei edo konferentziei lotuta.

Aldizkari honen jardunari buruzko lanik ez dago eginda. Hala ere, aipatu behar da Buenos Aireseko Laurak Bat euskal etxeari buruz Mikel Ezkerrok argitaratuta duela erreferentziatzko liburu bat (Ezkerro, 2004) eta tarte batez agerkariaren zuzendari izandako Daniel Lizarralderen inguruan ere hitz egiten dela Kepa Altonagaren artikulu batean (Altonaga, 2009).

- *LA BASKONIA*

Buenos Aires

1893-1943

Autonomoa

Kultural-intelektuala

1.671 zenbaki

La Baskonia aldizkaria ekimen enpresarial pribatuko aldizkaria izan zen, edukiei dagokienez euskal kultura sustatzea izan zuena xedetzat. Diasporako euskal agerkarien artetik aldizkari arrakastatsu eta enblematikoena izan zen, bere kalitate editorialagatik nabarmendu zena.

Jose Rufo Uriartek eta Francisco Grandmontagnek gidatu zuten aldizkaria lehen hamarkadan, ezberdintasun ideologikoen eraginez Grandmontagnek 1901ean aldizkaria utzi zuen arte. Uriarte 1932an hil zen, baina aldizkariak beste zenbait urtez jarraitu zuen hainbat kidez osatutako sozietate batek bultzatuta.

La Baskonia-ren inguruan zenbait lan egin dira. Besteak beste, Jose Rufo Uriarte zuzendariari buruz (de Dios Altuna de Martina eta Alvarez Gila, 2010); Andrea Moch artistak (de Dios Altuna de Martina, 2007) eta Indalecio Ojanguren argazkilariak (de Dios Altuna de Martina, 2012) aldizkarian eginiko kolaborazioei buruz; Unamuno eta aldizkariaren erlazioari buruz (Urrutia Leon, 2010); eta aldizkariaren lehen urteetan euskal identitatea eta integrazioari buruz (Bergareche, 2009) dago idatzita.

- *IRRINTZI*

Buenos Aires

1905-1923

Autonomoa (EAJren jarraitzaile)

Politikoa

133 zenbaki

Irrintzi aldizkaria Ameriketako lehen agerkari abertzalea izan zen. Nemesio Olariagak sortu eta eraman zuen aurrera aldizkari politiko hau. Sabino Aranaren jarraitzaile sutsua izanik, Olariagak hainbat ekimen bultzatu zituen ideia abertzaleen alde. 237 zenbaki argitaratu zituen hogeitun urtetan, baina horietatik 133 berreskuratu ahal izan dira.

Ameriketako euskal abertzaletasuna hedatu zen lehen urte horietan beste zenbait aldizkari ere argitaratu ziren *Irrintzi*-ren bidea eta eredia jarraituz, hala nola, *¡Aurrera!* (1907) Txilen eta *Euzkotarra* (1907) Mexikon.

Irrintzi-ren jardunari buruzko lan zehatzik ez da burutu, aldizkariaren inguruko informazioa iturri ezberdinetan aurkitu daitekeen arren. Nemesio Olariaga zuzendariari buruz badago Juan Mari Irustak eginiko biografia bat (Irusta, 2008).

2.5. Metodoa

2.5.1. Eduki-analisia

Kazetaritzako informazioa zeinu sistema gisa ulertzen bada, sistema hori ezagutzeko beharrezkoa da elementu ezberdinen barne analisia egiteaz gain aurkitzen den testuingurua ezagutzea. Max Weberrek 1910an emandako hitzaldi batean prentsaren soziologiaren garrantzia azpimarratzen zuen: “We need to realize that this is an enormous undertaking, an effort that will require not only very large material support for doing the preliminary work, but also the trust and goodwill of those interested in the press...” (Weber, 2009).

Ingurua ezagutzuz informazio horrek duen erabilera sozialaren ebaluazio bat egin ahal izango da eta ekosistema komunikatiboan duen garrantzia ere behatzea posible izango da:

What is needed, as was earlier indicated, is the continuous analysis of a large number of journals. Data would then exist for discovering the exact relation, which may obtain between press attention and public action. The records in themselves would constitute a series of observations of the “social weather” comparable in the accuracy to the statistics of the United States Weather Bureau (Tenney, 2009).

Azken bi mendeetan jendartea historian sartu dela esan ohi da eta jendarteko komunikazioaren testuinguruan “XIX mendean barrena astekariak eta egunkariak gizarte berriaren isla eta adierazpidea bihurtu ziren” (Agirreazkuenaga, 2017: 6). Beraz, kazetaritza-mota horretan kokatuz Ameriketako diasporako euskal aldizkariak, honakoak izango dira jendarteko kazetaritza diskurtsoaren forma eta edukia aztertzeko interesgune edo kategoria nagusiak, Gomez Mompert eta Marin Ottoren (1986) lanean oinarrituz:

I. Egoera sozial orokorra

Ameriketako herrialde ezberdinetan sortutako euskal komunitateen egoera sozial eta historikoa ezagutzea beharrezkoa da. Diasporako kolektiboek nortasun ezberdinak dituzte herrialde eta hiri bakoitzean, tokian-tokiko behar eta aukeretara moldatu zirelarik. Horregatik, aldizkariak aztertzen hasi aurretik, herrialde horretako euskal komunitatearen egoera ezagutu behar da, aldizkariaren jarduna behar bezala ulertzeko: “...difícilmente se podría escribir la Historia de la Comunicación sin incluirla dentro de la Historia General, de la evolución política, social, cultural y tecnológica de la misma” (Garitaonandia, 1986: 43).

II. Argitalpenaren sorrera

Aldizkariaren lehenengo zenbakietan kasu gehienetan datozen aurkezpen artikuluek sorreraren inguruko arrazoi eta motibazioak jakiteko informazioa eskaintzen dute. Urteurrenetako zenbakiak ere egokiak izango dira horretarako. Era berean, garaiko beste egunkariak ere aipatzen dute egunkari berrien sorrera (sortu eta hurrengo egunetan normalean).

Hala ere, eratze-prozesua nola izan zen jakiteko beharrezkoa izango da kolektibitatearen jardunean sakontzea. Horretarako, informazio-iturri erabilgarriak izango dira instituzio edo elkarte ezberdinen aktak edo batzar-agiriak. Lagungarria izan daiteke baita ere Jabetza-erregistroetan begiratzea, sortzaileen izena, jarritako diru-kopurua, ezarritako helburuak edo desegite prozesuaren datuak aurkitzea posible baita.

Aldizkariaren sorrera elkarte edo talde oso baten asmoa izan zen zenbaitetan baina inizatiba pertsonalak ere izan ziren proiektuak, Kaliforniako ipar-euskaldunek euskaraz argitaratutako bi aldizkariak kasu (Diaz Noci, 2001). Agerkariaren lehen pausuak ezagutzeak protagonisten asmo eta pentsamoldea hobeto ezagutzen lagunduko du. Horrekin batera, agerkariak izandako eboluzioa behatuko da.

III. Enpresa antolaketa

Agerkariak enpresa gisa nola antolatzen ziren aztertu beharko da, mota honetako enpresa baten eginkizun eta alderdi ezberdinak aurrera nola eramaten ziren behatuz. Besteren artean honakoak aztertu beharko dira: baliabide teknikoak, edizioa, inprimatzea, tirada, prezioa, banaketa eta salmenta sistema, zuzendari eta editoreak, langile kopurua eta enpresa-mota. Beste kontu garrantzitsu bat publizitatearen presentzia izango da. Honen bidez, aldizkarien inguruan mugitzen zen sarea ezagutu ahal izango da:

La prensa en el siglo XX se irá convirtiendo progresivamente en una gran industria, que emplea los más modernos hallazgos técnicos, que absorbe importantísimos medios económicos y que requiere una alta organización técnica, lo cual ha originado el fenómeno más característico de la actualidad: la concentración informativa, tanto entre empresas de un específico medio de comunicación como en empresas multimedia (Garitaonandia, 1986, 38).

IV. Zuzendari eta kazetarien nortasuna

Zuzendarien eta kazetarien profilak aztertuko dira, beraien bizitza eta lana ezagutzeko asmoz. Zein ofizio zuten eta kazetaritzak beraien bizitzetan zer leku zuten ezagutzea izango da helburua. Ezizenen azpian dauden idazleak identifikatzeko lan nekeza aurrera eraman eta horiek idatzitako artikuluko motak aztertuko dira. Kazetari batzuen berri egunkari “etsaietan” irakurritakoari esker ere jakitea posible da, eztabaida eta ezinikusietan esandakoak baliatuz. Zuzendari eta kazetari ezberdinen profilak ezagututa, diasporan kazetari lanetan aritu zirenen irudi bat osatzea posible izango da. Horiek egindako lana bistaratu eta aitortzea garrantzitsua izango da.

Kontuan hartu behar da intelektuala, gertaeren iruzkingilea eta diskurtso sozialaren sortzailea den heinean, ez dela begirale neutrala:

De tal manera que se puede afirmar que es tanto el intelectual que hace la prensa como la prensa que hace al intelectual, pero también que es tanto el acontecimiento que hace al intelectual como el intelectual que hace el acontecimiento. En efecto, si los intelectuales influyen sobre el génesis y el estatuto del acontecimiento, al que infunden coherencia por su propio comentario, cuando llegan a

cristalizar momentáneamente un pensamiento colectivo, éste, a su vez, no deja de modificar la trayectoria de los intelectuales a quienes permite definirse y situarse políticamente. (Aubert, 1986: 47)

V. *Edukiaren egituraketa*

Lehen orrialdea: Hasierako orrialdearen erabilera aztertu beharko da bertan izenburuek, editorialek, armari eta apaingarriek, notizia garrantzitsuenek, iragarkiek, printzipioen adierazpenek edo esloganek hartzen zuten lekua behatuz. Aldizkariak orrialde kopurua ugartzearekin batera, jakitun dira irakurleak seguruenik ez duela aldizkari osoa irakurriko. Orrialde hau aldizkariaren nortasunaren erakusgarri kontsideratu behar da.

Albistearen diskurtsua: Egitura narratiboa jendarteko komunikazioaren diskurtsora moldatzen zen behatu behar da. Izenburu eta lead-aren nolakotasuna behatu eta piramide alderantzikatua erabiltzen zen aztertu beharko da. Kazetaritza-teknika berriak bereganatuz tonu “inpersonal” erabiltzen zen, edo aitzitik, narrazio tradizional “subjetikoa” erabiltzen zen ikusi beharko da.

Kazetaritza generoak: Gehien erabilitako generoak zeintzuk ziren aztertu beharko da, iritzizko kazetaritza edo informazio soilarena nagusitzen zen ondorioztatzeko (Diaz Noci, 2001). Editorial politikoa, albistea, iritzizko artikulak, erreportajea, kritika edo pertsonaien elkarrizketa bezalako generoen erabilera aztertuko da.

Sailak: Atal bakoitzean azaltzen ziren artikuluko motak eta gaiak landuko dira. Posible da sail bakoitzean egile berdina aldiro agertzea. Sailen izenak aldizkari ezberdinetan errepikatuko ziren, garaiko euskal prentsaren artean ezaugarri komun batzuk bistaratuz.

Argazkiak: Aldizkarietan agertzen ziren argazkiek islatzen zituzten egoera eta paisaiak behatuko dira. Argazki horiek funtzio dekoratibo soila edo informazioaren osagarri ziren argitu beharko da.

Ilustrazioak: Marrazkiek islatzen zuten iruditeria eta zuten konnotazioa aztertuko da. Ilustrazioek, esaterako, euskaldun baserriar giro idealizatua eraikitzeke edo diktadoreen mespretxuzko karikaturak zabaltzeko balio zuten.

Publizitatea: Aipatu bezala, publizitatearen erabilera funtsezkoa izango zen zenbait aldizkari aurrera ateratzeko eta erlazio sare sendo bat sortzeko. Eskelak ere garrantzitsuak dira, batetik, diru iturri zirelako aldizkariarentzat, eta bestetik, hildakoari buruz ematen zen informazioarekin hildakoaren eta egunkariaren arteko harremanaren berri izan daitekeelako.

VI. *Diskurtso ideologikoa*

Aldizkarien ideologia arakatzerako orduan, bere diskurtsoan agertzen diren ardatz nagusiak interpretatuko ditugu. Agirreazkuenagak, esaterako, 1937an sortutako *Eguna* euskara hutsezko lehen egunkaria aztertzean identifikatutako diskurtsoaren joera nagusiak interesgarriak dira: Antifaxismoa eta askatasuna, euskal herritarren askatasuna euskal abertzaletasunaren bidez, euskara abertzaletasunaren muina, kristautasun katolikoa, Euskal Jaurlaritzaren defentsa sutua eta baserritar eta arrantzaleen alde (Agirreazkuenaga, 2017: 12).

Horrez gain, aldizkariak erabiltzen zuten sinbologia aztertu beharko da, lehen orrialdeko izenburuan agertzen diren armarrak eta irudiak, esaterako. Esloganek ere informazio interesgarria eskaintzen dute, askotarikoak baitira eta garai horretako asmo eta gogoak ezagutzeko aukera ematen dute.

VII. *Euskara eta euskal kultura*

Euskarak aldizkari ezberdinetan zuen presentzia neurtuko da. Aldi berean, hizkuntzaren nolakotasuna aztertuko da erabiltzen ziren euskalkiak eta hizkuntza-ereduak behatuz (Diaz Noci, 1994). Sail ezberdinetan literaturak, olerkiek edo bertsoek lekua zuten eta horiek euskara eta euskal kultura sustatzerako orduan zuten garrantzia ikusi beharko da.

Kontuan hartu behar da urte horietan euskal publikoa ez zegoela ohituta euskaraz irakurtzera. XIX. mende amaieran ideien zabalpenerako euskarazko espazio komunikatiboa garatzen hasi zen eta Bilbon Euskalerriakoek edo Sabino Aranak

euskarazko argitalpenari zergati politikoa eransten zioten: “Kontakizun horren baitan, euskaldunon iraupena bera bait dugu ezina egina bihurturik, mendez mende” (Agirreazkuenaga, 2017: 5).

VIII. Funtzioa eta erabilera komunikatiboa

Aldizkari bakoitzak zein behar komunikatibori erantzuten zion aztertu behar da, hau da, euskal komunitate bakoitzean prentsak zein funtzio betetzen zuen argitu behar da. Horretarako, aldizkariak zuten irismenari eta irakurleen nolakotasunari erreparatuko zaio eta baita publikatzen den informazio-motari. Jendarteko komunikazioan aldizkariak honako funtzioak bete ditzake, besteak beste: mobilizazioetan lagundu; balore, ideia, sineskera edo ohitura berriak hartzeko transmisioan garrantzitsuak izan (modak sustatuz); gertaera propioak sortu eta ekintza sinpleak gertaera historiko bihurtu; norbere burua unibertso bat bezala aurkeztu eta auto-promozionatu; ezagutzaren hedapen geografikoa bultzatu mundu guztiarengan, zentzu kosmopolitan (Gomez Mompert eta Marin Otto, 1986: 94).

2.5.1.1. Analisisirako fitxa

Aldizkarien azterketa burutzean, hau da, aldizkarietako zenbaki bakoitzaren eduki-analisia egitean, datuak biltzeko fitxa bat diseinatu da Google Forms formularioak egiteko baliabidea erabiliz. Honakoak izan dira datuak biltzeko fitxa horretan ezarri diren irizpideak.

Fitxa – Eduki-analisia	
<u>Datu orokorrak</u>	
Herrialdea	
Aldizkaria	
Azpitulua	
Data	
Edizio urtea	
Zenbakia	
Salneurria	
Aldizkakotasuna	
Helbidea	
Zuzendaria	
Inprimategia	
Goiburua	Armarria / Ilustrazioa / Ez
Goiburua (lema)	
Aurkibidea	Bai / Ez
<u>Edukiaren egituraketa</u>	
Lehen orrialdea: irudiak	Bai / Ez
Titulu nagusia: izaera	Politikoa / Soziala / Kulturala / Ekonomia / Kirolak / Beste batzuk
Titulu nagusiko edukia: generoa	Albistea / Erreportajea / Iritzi artikulua / Iritzi zutabea / Kronika / Elkarrizketa
Editoriala	Bai / Ez
Albisteen kopurua (zenbaki bakoitzean)	0 / 1-10 / 11-20 / 21-30 / >30

Erreportajeen kopurua (zenbaki bakoitzean)	0 / 1-5 / 6-10 / 11-15 / >15
Kroniken kopurua (zenbaki bakoitzean)	0 / 1-5 / 6-10 / 11-15 / >15
Elkarrizketen kopurua (zenbaki bakoitzean)	0 / 1-5 / 6-10 / 11-15 / >15
Iritzi-artikuluak (zenbaki bakoitzean)	0 / 1-5 / 6-10 / 11-15 / >15
Iritzi-zutabeak (zenbaki bakoitzean)	0 / 1-5 / 6-10 / 11-15 / >15
Literatura artikuluak: ipuinak, poesia, bertsoak (zenbaki bakoitzean)	0 / 1-5 / 6-10 / 11-15 / >15
Artikuluen gaiak	
Kazetarien izenak	
Sailak	Diasporako berriak / Euskal Herriko berriak / Nazioartea / Euskal historia, geografia eta folklorea / Kultura
Sailen izenak	
Argazkiak (kopurua)	Ez / 1-10 / 11-20 / >20
Argazkiak (gaiak)	Politika-politikariak / Kultura / Diasporako komunitatea / Euskal gizartea (landatar) / Euskal gizartea (hiritar) / Kirola / Beste batzuk
Marrazkiak / Ilustrazioak (kopurua)	Ez / 1-10 / 11-20 / >20
Marrazkiak / Ilustrazioak (gaiak)	Politika-politikariak / Kultura / Diasporako komunitatea / Euskal gizartea (landatar) / Euskal gizartea (hiritar) / Kirola / Beste batzuk
Biñetak	Ez / Bai: entretenimendua eskaintzeko / Bai: politiko-satirikoak-ironikoak / Beste batzuk
Publizitatea	Ez / Abokatuak, notarioak,... / Medikuak, dentistak... / Fabrika txikiak, saltokiak... / Hotelak, ostatuak, jatetxeak... / Alkohola, kafea, tabakoa... / Beste batzuk
Euskara artikuluak	0 / 1-5 / 6-10 / 11-15 / >15
Ohar bereziak	

Taula 5: Fitxa – Eduki-analisia.

Iturria: lanaren egileak egina.

2.5.2. Azterketa biografikoa

Azken bi hamarkadetan ikuspegi humanisten goraldia jazo da gizarte zientzietan, denbora luze baten hegemonikoak ziren ikuspuntu positibisten aurrean erreakziotzat hartu daitekeelarik. Honek norbanakoaren eta taldearen subjektibitateak abiatuta errealitatea interpretatzera daroma ikertzailea, norbanako eta talde horiek egin, pentsatu eta esaten dutenean sakonduz. Errealitate desitxuratu eta zientifista bat marrazten duten arau metodologiko sofistikatu eta gizatasun gabeen aurrean ezartzen da ikuspegi berria (Pujadas, 2000: 127).

Historia idazteko modu bat pertsona edo leku baten mikrohistoria erabiliz iraganeko eszenatoki edo momentu bat berridaztea da berau aztertu, interpretatu eta azalduz. Jasotzen den testigantza adierazgarria edo esanguratsua izan behar da talde soziala ordezkatu behar baitu, berezitasunak beti egongo direla onartuta. Erronka eta zirkunstantzien inguruan dabilen pertsona bat, izen propioa duena eta identitate bat eraiki duena bere bizitzako esperientziak osatuta. Bizitzako gertaera garrantzitsuak behatzen dira eta soziabilitate zirkulu ezberdinetan duen esanahia eta jarduna neurtzen da, baina betiere egitura komun bat mantenduz kolektibo osoaren azterketa burutzea bermatuz. Prosopografiak talde sozialen ezaugarri komunak bilatzen ditu, biografia besteekin testuinguruan elkartrukean ulertzen baita (Agirreazkuenaga, 2019: 48).

Narrazio biografiko bat burutzean beharrezkoa da pertsonaiarekiko eta inguru sozialarekiko zentzu kritikoa edukitzea. Ikertzaileak bere subjektibitatearekin bizipen batzuk aukeratu eta beste batzuk isildu ditzake, hau da, diskurtsoa antolatzen du. Ikertzaile eta ikertuaren artean komunitate sentimendu bat egoteak erraztu egiten du interpretazioak ere partekatuak izatea (Pujadas, 2000).

Euskal Herriko komunikabideetan idatzi duten kazetari historikoen inguruan, beraien lana aztertu (ideologikoki, estilistikoki edo gai aldetik) eta berreskuratuko duen ekimen baten falta dago, urte askotako eta lan-talde batek egin beharreko lana delarik. Beste arlo batzuetan, parlamentarioen prosopografia adibidez, egin den bezala ekimen sistematiko baten beharra dago komunikazioaren historian, izan ere, komunikabideen historiari buruz hainbat gauza egin diren arren ezin da berdina esan kazetarien historiaz.

Proposopografiaren bidez gizatalde jakin batzuei biografia sistematikoak egingo lirateke, kolektibo osoarentzat teknikan egitura komun bat edo fitxa tipo bat erabiliz. Euskal Herrian kazetaritzaren historia sozial baten beharra dago, komunikabideen atzean dauden gizataldeak (kazetariak, enpresariak, publikoa) kontuan hartuko dituen (Diaz Noci eta Meso Ayerdi, 2016: 144).

Zenbait euskal kazetariren inguruko lanak aurkitzea posible da, luzera eta testu motak oso ezberdinak direlarik. Horrela, beste batzuen artean, Resurreccion Maria Azkue, Evaristo Bustinza *Kirikiño*, Esteban Urkiaga *Lauaxeta* edo Piarres Lafitte kazetarien obraren buruzko lanak aurkitu ditzakegu. Ameriketako diasporari dagokionez, Jean Pierre Goytino edo Jokin Zaitegiren buruzko lanak ere egin dira. Bestalde, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politika Sailak argitaratutako “Bidegileak” bilduman Gregorio Mujika (*Euskal Esnalea*), Jean Hiriart-Urruty (*Eskualduna*), Bittor Garitaonandia (*Argia*) eta Manuel Ziarsolo (*Eguna*) kazetarien biografiak aurkitu daitezkeela.

Javier Diaz Noci eta Koldo Mesok *Euskal Herriko kazetarien biografi hiztegia* egitea proposatzen dute, metodoa lantzeko saiakera bezala Manuel Aznar Zubigarayk *Euzkadi* aldizkariaren egindako lana aztertuz:

Horixe da, hain zuzen ere, guk ere egin nahi genukeena eta proiektu honetan proposatzen duguna: aldizkariaren hiztegi bat eta, aldi berean, beraietan garai berean idatzi zuten kazetarien biografi hiztegi bat. Horrelako lan sistematikoaz baliatuta proposatu dezakegu kazetari zehatz batzuen lan osoaren ustiaketa eta edizio kritikoa. (Diaz Noci eta Meso Ayerdi, 2016: 147)

Hiztegi hori inprimatua eta elektronikoa (internetekoa) litzateke. Taldeko hiztegi biografikoen kategorian sartuko litzateke, ingurune geografiko zehatz batekoa (Euskal Herrikoa) izateko zailtasunak medio. Ikerketa honetan hizkuntza komunitatearen kontzeptua erabilgarriagoa da. Horrela, arrazoi soziala Euskal Herrian duten edo zuten komunikabideetan lan egindako kazetariak bilduko lituzke hiztegiak, jaioterria edo bititokiaren gorabehera. Euskal Herria euskararen herria bezala kontsideratuz, lurraldetasunaz haratago. Honen bidez, zazpi probintziez gain Frantzia edo Argentinako diasporako euskaldunen prentsa ere kontuan hartuko litzateke (Diaz Noci eta Meso Ayerdi, 2016: 151).

Euskal prentsaren inguruko pertsonaia eta gizataldeen lana berreskuratzeak ikerketa lokalei egindako ekarpena ere aipatu behar da:

Local y global son parte de la misma realidad, porque nuestras preocupaciones son globales pero al fin la intervención será en nuestro medio local. El análisis de la resiliencia nos conduce al descubrimiento de la acción de las personas y sus familias, sus trayectorias de vida, en la esfera individual y en la plaza pública (...) En la actualidad, los investigadores debemos construir el espacio y el tiempo de nuestras investigaciones, y aunque se apele a la historia comparativa, solo desde sólidas visiones microhistóricas se podrán realizar y fundamentar reflexiones generales. (Agirreazkuenaga, 2019: 49-50)

Diaz Nocik beste ikerketa baten Bartzelona post-olinpikoan *Diari de Barcelona* eta *La Malla* komunikabide digitalen jatorria eta lehen urteetako egonkortzea landu ditu. Teknika prosopografikoekin batera beste bi teknika erabiltzen ditu: elkarrizketa erdi-egituratuak eta sare sozialen azterketa. Talde sozial baten *career research* eginez erredakzio digitalen etnografia bat aldarrikatzen du:

...la historia social, entendida no sólo pero sí sobre todo como una *history from below*, como lo han planteado historiadores como Eric Hobsbawn y otros, al tratar el periodismo como una actividad social más que exclusivamente una iniciativa empresarial, y por tanto poniendo el acento en la relevancia de personas y grupos sociales. (Diaz Noci, 2018: 86)

3. MARKO TEORIKOA

3.1. Ameriketako euskal diaspora 1877-1936 eta kazetaritza ekimenak

3.1.1. Euskal emigrazioak XIX. mendean

Euskaldunek Amerikara eginiko emigrazioa Konkista garaitik datorren fenomeno da eta etengabe jarraitu du erritmo ezberdinetan bada ere. XIX. mende osoan zehar eta XX. mendearen zati handi batean, Euskal Herri osoko eskualde ezberdinetan prozesu migratzailea jazo zen, historiografiak “masibo” bezala kalifikatu duena. Migrazio hori herrialde amerikar ezberdinetara bideratu zen, bereziki hutsak edo herri indigenen esku zeuden lurak okupatu eta errentagarri bihurtzeko europar langileak eskatzen zituzten herrialdetara gertatu zen fenomeno. Hego Konoan, Argentina eta Uruguay nabarmentzen dira, eta Chile eta Brasilera ere eman zen neurri txikiagoan; Ipar Konoan, berriz, Kuba, Estatu Batuak eta Mexiko izan ziren helmuga.

Euskal emigranteek euskal kulturaren elementuak (kirola, hizkuntza edo gastronomia) eraman zituzten itsasoz bestaldera. Horrez gain, sare instituzional “etniko” oso bat eratu zuten, aisialdi eta elkar laguntzarako asoziazioek, kirol eta erlijio elkarteek, jai egunek edo prentsa agerkariak osatuta. Diasporako euskaldunek beraien jatorrizko kultura errepikatzen saiatu ziren, baina beraien herrialde berrietako gizartean bertakotzea ahaztu gabe. Horrela, Euskal Herrikoaren erabateko kopia izan gabe, euskalduntasun propio bat eraikiz joan dira denboran zehar munduko herrialde ezberdinetan (Alvarez Gila, 2004).

Industrializazioaz eta gerrez gain, seguruenik historia garaikideko beste fenomeno batek ere ez du izan emigrazioak besteko eragina euskaldunen eguneroko bizitzan. Euskal gizartean izan duen garrantzia argi erakusten du Pierre Lhande jesuita euskaltzaleak 1910ean esandako esaldi ezagunak: “egiazko euskalduna izateko, hiru gauza dira beharrezkoak: jatorria adieraziko duen abizen ozen bat edukitzea, Aitorren semeen hizkuntza hitz egitea eta... Amerikan osaba bat edukitzea” (Lhande, 1910).

Euskal Herritik Ameriketara joandakoen kopuru zehatza ez dakigu eta zaila izango da inoiz jakitea. Fenomenoaren handitasuna frogatutzat ematen da testigantza, estatistika lokal, errolda-agiri, etab-ei esker, baina datu zehatzak eta horien ezaugarriak jakitea ezinezkoa da. Douglass eta Bilbaok (1975) 200.000 euskaldunetan ezarri zuten emigranteen kopurua 1825-1950 urteen artean. Gerora autoreek beraiek eta beste historialari batzuk gutxieneko zifratzat jo dute. Milioi erdi inguru izan zirela esan daiteke, betirako joan zirenak eta bueltatu zirenak kontuan hartuz. Euskal migrazioaren beste ezaugarri bat probintzia eta eskualde mailaka izandako ezberdintasun handiak dira, erritmoei eta norakoei dagokienez (Alvarez Gila, 2004). Emigrazio mota ezberdinei buruz interesgarria da honako haurnasketa:

Es cierto que las peculiaridades de Mataró, el Valle de Baztán o Corcubión impiden una caracterización generalizada de la emigración española. Sin embargo, estas localidades representan tipos de emigración antes que instancias singulares, tipos que por lo general aparecen respectivamente en las ciudades industriales de Inglaterra, los valles pastoriles de Irlanda y las aldeas de pescadores de Liguria, por ejemplo. En realidad, al exponer la naturaleza universal de los esquemas locales, este enfoque, en última instancia, puede acercarnos más a una comprensión general del movimiento poblacional que cualquier perspectiva supuestamente más vasta, en el plano nacional (Moya, 2004: 135).

Urte horietako euskal emigrazioaren erakusgarria da gaur egungo populazioan utzitako ondorengoa. Horrela, Argentinan 1980an, herrialde horretako euskal ondorengoak milioi bat inguru izan behar zutela estimatzen zuten, eta bi hamarkada geroago, argentinaren guztien %10 inguruko zifra ematen zuten. Estatu Batuetan, berriz, 2000. urteko erroldan 58.000 pertsonak onartu zuten euskal jatorria izatea (Alvarez Gila, 2004).

Kasik mende batez, 1929an gertatutako krisira arte, herrialde amerikar ugarik immigrazio askatasuna izan zuten beraien identitate nazionalaren eraikuntzaren oinarri:

En fin, tanto en Argentina como en Uruguay, decir inmigración era sinónimo de progreso durante el pasado siglo. La “utopía agraria” se trató de hacer realidad, y para lo que al Cono Sur acontece, se esperaba del colono la vitalidad, sabiduría y experiencia con la que poder iniciar el despegue socioeconómico que sacara a aquellos países de los niveles de precaria economía en que se encontraban poco después de su independencia de España (Azcona Pastor, 1992: 30-31).

Beraz, euskaldunen emigrazioa mugimendu zabalago baten parte bezala ulertu behar da, 1830 eta 1930 urteen artean 52 milioi europarri eragin ziena (Alvarez Gila, 2004). Euskaldunen emigrazioa Konkistaren garaitik ematen zen fenomeno zen, baina XIX. mendera arte goi mailako profesionalak, militarrek, elizgizonak, gobernadoreak eta abar ziren itsasoz bestalde joaten zirenak. Gizarte aldaketan eta aurrerapen teknologikoen ondorioz fenomeno masiboa bihurtuko zen:

The Basques immigrating to the Southern Cone in the nineteenth century were part of the second phase of Basque immigration. They were no longer government administrators for the Spanish or trained lawyers, military leaders, or professionals with formal educations. Now the typical Basque immigrant was a young rural male with almost no formal schooling, a male escaping mandatory military service for Spain or to France, a political refugee fleeing persecution after the Carlist Wars, or a brother or sister who would not inherit the family *baserri* (Toticagüena, 2005: 164).

Eredu koloniala amaituta, Amerika independenteak oinarritzko produktuez hornitzen zuten industrializazioaren hedapen bete-betean zegoen Europa. Indigenei lurak ebatsita Juan Bautista Alberdi Alberdi ideologo argentinarraren “gobernar es poblar” esaldi ezaguna martxan zegoen. Emigrazio masiboen testuinguru horretan emigrazio agente edo “engantxadoreek” garrantzia handia izan zuten:

En Bilbao, Gernika, los agentes de emigración, llamados “enganchadores” pagados por las repúblicas sudamericanas, ofrecían tierras de cultivo y el viaje gratuito. Estos recorrían pueblos rurales ofreciendo todo tipo de bienestar y felicidad en las nuevas tierras prometidas. (...) Por lo que sucedió parece que las promesas frecuentemente no se realizaban, pues, a su llegada a la nueva tierra, se veían abandonados y a emplearse de la peor manera (Agirreazkuenaga, 1987: 225).

1930ko hamarkada europar guztien emigrazioan mugarria izan zen, ordura arte izandako gorako joera amaitu baitzen, hau da, “emigrazio masiboa” bukatutzat eman zen. Ordutik euskaldunen joana Amerikara jaisten joan zen. Gerra Zibilaren ondorioek, eta honek ekarritako abertzale eta errepublikanoen erbesteratzeak, aldatu zuen berriz joera hori 1940ko hamarkada hasieran. 150.000 euskaldun inguruk utzi zuen bere lurraldea frankisten garaipenaren ondorioz eta horietatik 35.000 inguru Ameriketara joan zirela kalkulatu da. Horrela, ziklo migratzailea euskaldunek inoiz ezagututako behartutako emigrazio handienarekin amaituko zen (Alvarez Gila, 2004).

i. Arrazoiak

Zeintzuk izan ziren euskaldunak itsasoz gandi emigratzeko arrazoiak? Emigrazioaren fenomeno hasi zenetik milaka orrialde idatzi ziren “emigrazioaren arazoa” gaitzat hartuz. Lehenbizi, emigrazioaren azalpena eskala kontinental batean burutu zen, hau da, itsasoz gandiko migrazioak europar industrializazio prozesuaren ondoriok bezala ulertzen ziren. Hiriek ezin zuten landa eremuetako langile guztiak jaso eta landako demografia maximoa gainditzen zenean emigrazioa zen irteera erabiliena. Gainera, kontuan hartu behar da Amerikara bidaiatzea askoz merkeago bihurtu zela urte horietan, nabigazioan jazotako aurrerapenei esker. Sota & Aznar nabigazio konpainiak Bilbo penintsula osoko portu garrantzitsuenetako bat bihurtu zuen eta hego Ameriketako joan etorriak antolatu eta sendotu egin zituen. Bordele eta Baionatik ere euskaldun ugari partitu ziren.

XX. mendean emigrazioaren arrazoiak ekonomikoak zirela aldarrikatu zuten zenbait historialarik, laborantza sektorearen krisian jarriz fokua. Beste kasu batzuen ereduak aurkitzen saiatu ziren, adibidez, 1848-1849an irlandarrek Estatu Batuetara eginiko emigrazio masiboa patata gosetearen ondorioz. Alabaina, Euskal Herria garai horretan ez zen lurralde guztiz landatarra, izan ere, Bilbon emandako aldaketa sakonek bete-betean sartzen zuten garai industrialean. Industria berriak eskaintzen zituen lan eta ordainsariak ez ziren Ameriketara eskaintzen zirenak baino eskasagoak. Euskal Herria, XIX. mendeko azken tertzioan, herri emigrantea eta immigrantea zen aldi berean (Alvarez Gila, 2004). Fabrika gehienetako langileak probintzia berdinetik zetozen batik bat, zuzendariak eta teknikari espezializatuak atzerritik zetozen bitartean (Agirreazkuenaga, 1987). Orduan, euskaldunek zergatik erabakitzen zuten logika ekonomiko horri kasurik egin ez eta beraien lurra uztea?

Zenbait historialarik planteatu dute, Douglasssek eta Bilbaok (1975), eta Lhandek (1910) esaterako, euskalduna nekazaria zela gogoz eta hiriko bizitzaren aurrean uztertzen zela. Hala ere, itsasoz gandi joandako ugari hiriko bizitzan txertatu ziren, tartean merkataritza ofizio hartu zuten askok.

Soldadutzari uko egitea ere arrazoiaren artean aipatu izan da. Iparraldean hedatuta zegoen uko egitea, eta adibidez, 1851n Garindein herri zuberotarrean, 31 soldadugaietatik 5 bakarrik aurkeztu ziren, gainontzekoak Montevideon baitzeuden. Hegoaldean, berriz, derrigorrezko soldadutza 1877an ezarri zen, azken karlistada amaituta foruak deuseztatu zirenean. Beraz, zerbitzu militarren ezarpena emigrazioa bere maila gorenean zegoenean ezarri zen eta zaila da bien arteko erlazio garbi bat ezartzea. Emigrazio kopurua handitu baino, emigranteen adina azkartzea ekarri zuen soldadutzak. 1876tik aurrera Bizkaian batutako datuek islatzen dute, emigranteen adina 17 urtetik 13 urtekoa izatera pasatu zela (Alvarez Gila, 2004).

Horrez gain, XIX. eta XX. mendeetan gertaturiko gerra nagusiak kontuan hartu behar dira, bi Gerra Karlistak eta espainiar Gerra Zibila, hain zuzen ere. Gerren kasuan, bi arrazoi nagusi erabili daitezke emigrazioarekin duten lotura azaltzeko. Batetik, alderdi ekonomikoa dago, gatazkak eragindako kalte materialek eragindakoa; eta bestetik, alderdi politikoa dago, gatazka ideologikoa denean eta galtzaileen erbesteratze derrigortua gertatzen denean (Alvarez Gila, 2004).

Soldadutza eta gerren inguruko arrazoiek, baina, noizbehinkakoa eta koiunturala zen fenomeno bat erakusten dute, Ameriketara joandako emigrazioa urteetan zehar iraunkorra izan zen bitartean. Beraz, beharrezkoa da euskal gizartea osatzen zuten oinarriei begiratzea. Bertan, eredu familiarra, eta zehatzago esanda herentzia sistema, izan daiteke arrazoi sakonena azalerazi ditzakeena. Euskal herentzia sistema ez zen bat bakarra izan Euskal Herri osoan eta eskualde ezberdinetako zazpi sistema gutxienez ezagutzen dira:

En opinión del antropólogo Julio Caro Baroja las reglas de herencia prevalecientes en la sociedad rural de Euskal Herria constituyen el elemento que más estimuló la emigración vasca. La densidad de la población, el alto índice de fertilidad y de natalidad, unidos a la escasez de tierras disponibles para la agricultura y al bajo rendimiento de éstas, limitaron el potencial de expansión. (...) Cada caserío sólo podía mantener a una única familia. (...) Los propietarios de tierras y de ganado mantenían sus propiedades en la familia y la ley sucesoria vasca impedía la fragmentación o división mediante ventas o por herencia (Totoricagüena, 2003: 120).

Horrela, euskal emigrazioa aztertzean kontuan hartu behar da bere iraunkortasuna. Pierre Lhandek (1910) “odolezko arrazoi” bat zekusan emigrazioaren deiaren atzean, ia

genetikoa zen kontu bat, balea arrantzaleak eta konkistatzaileak XVI. mendetik Ameriketara eraman zituen “egonezin abenturazale eta ibiltaria”. Beraz askotariko arrazoiek “nutrieron los barcos que desde Bayona y Burdeos, principalmente, arribaban a los muelles americanos, cargados de emigrantes en busca de paz, trabajo y nuevo techo” (Chueca, 2008: 114).

Emigrazioa ez zen izan salbuespenezko egoera bat: “La emigración masiva fue mucho más que la acumulación de millones de decisiones individuales. Fue el resultado de la interacción de fuerzas macroestructurales y microsociales, de la aleación de tendencias globales y redes con base local...” (Moya, 2004: 404-405). Ez zen desesperazioak eragindako azken aukera, euskal gizarteko zati handi bati beraien etorkizuna antolatzerako orduan eskaintzen zitzaion posibilitate bat zen. Beraz, Ameriketara joatea ez zen soilik erabaki pertsonala, familia edo gizarte egitura baten parte zen. Jakina da itsasoz gaindiko herrialdeetan aurkitzen ziren senide eta lagunek zuten eragina, horiek izango baitziren lan mundura gerturatzen edo gizarteratzen lagunduko zietenak herrialde berrian. Horregatik, emigrazioa Euskal Herriko zenbait tokitan “ethos”-aren parte zen, errotutako oihutura bat zen (Alvarez Gila, 2004).

ii. Erreakzioak

Azken bi mendeetan jendartearen historian sartu dela esan ohi da. Fenomeno sozial, ekonomiko eta politikoen milioika pertsonen eragiten die aldi berean. Horrekin batera, gero eta garrantzi handiagoa hartzen joan da informazioaren eta ideien hedapena, iritzi publikoa elikatu eta bertan eragiteko asmoarekin. XIX. mendeko euskal prentsan emigrazioaren gaia sarri azaltzen zen eta argitalpen guztiak bat zetozen, guztiek zuten kontrako jarrera:

En el espacio de tiempo por nosotros consultado (1842-1900), los periódicos vascos repitieron hasta la saciedad sus palabras antiemigración. A tenor de la enorme cantidad de personas que optaron por emprender la aventura americana deducimos que este intento bienhechor no tuvo las consecuencias en principio apetecidas (Azcona Pastor, 1992: 166).

Alvarez Gilaren (2004) arabera, hiru ideia nagusitan ardaztu zuen garaiko euskal prentsak emigrazioaren aurkako diskurtsoa. Lehenbizi, emigrazioak aberrian eragiten

zituen kalteak azpimarratzen zituzten, herrialdearen aberastasuna eta boterea populazio dentsitatearekin lotuz. Populazio gabe ezingo litzateke nekazaritza eta industria aurrera eramanez, ezta armada nazioartean behar zuen mailan kokatu. Bigarren, partitzen zirenen sufrimendua eta zorigaitza kontatzen zuen prentsak. Bidaiak egiten zirenen barkuak ur gaineko hilketak zirenen eta bizirik iristen zenak zailtasun amaigabeei egin beharko ziren aurre. Pobretuta itzultzen zirenen historiak ere kontatzen zituzten. Hirugarren argudio bezala “engantxadoreen” edo emigrazio agenteen kontra gogor egiten zuten. Beraien lana arbuiatzen zuten gizakien trafikatzailerak edo inuzenteen merkatariak zirela esanez. XIX. mende amaieran emigrazioaren kontra egindako kanpaina setatsuaren erakusgarri, Jose Colá y Goitik kazetariak arabarraren *La emigración vasco-navarra* (1883) liburua argitaratu zen 1883an, euskara eta frantsesera ere itzuli zena.

Euskal prentsa instituzio politikoaren babesean sentitzen zen. Izan ere, Diputazioek eta Batzar Nagusiek ez zuten aukerarik galtzen emigrazioak eragiten ziren atsekabea eta izan zitezkeen ondorioekiko beldurra adierazteko. Hala ere, autoritate gorenenek ez zuten erraza erabaki sendoagoak plazaratzeko orduan. Emigrazioa erregulatzera bideratuta zegoen legegintza arindu egin zen 1853ko Emigrazio Legea eta 1907koa aldatzen baditugu. Iraultza frantsesaren ondoren hedatu zen ideologia liberalak babestu egiten zuten eskubide indibidualak ukitzea: “La revolución liberal, entonces, contribuyó a favorecer la emigración al instalar el concepto de libertad de movimiento tanto en la cultura oficial como en la popular” (Moya, 2004: 37).

XX. mendean prentsak emigrazioarekiko zuen diskurtsoa zertxobait aldatu egin zen. Zenbait artikulugilek bere kritika zorrotzarekin jarraitu zuten, baina tartean ahots ezberdinak ere azaleratu ziren, abertzaleenak hain zuzen ere. Euskal abertzaleentzako emigrazioa ez zen hasiera batean positiboa, euskal arraza ahultzen baitzuen eta Euskal Herrira atzerritar gehiago sartzea ahalbidetzen baitzuen. Hala ere, guztia ez zen txartzat jotzen eta diasporako komunitateek kanpoko laguntza lortzeko izan zezaketen garrantzia azpimarratzen zuten. Horregatik, funtsezkoa zen Ameriketara aberriaren kontzientziaz joatea eta bertako euskal etxeetan nazio bat zirenen ideia sendotzen jarraitzea. Agerkari abertzaleetan emigrazioaren gai honi jarraipen gehien egin ziona *Euzkadi* izan zen (Alvarez Gila eta Tapiz Fernandez, 1996). Aldizkariaren diskurtsoan kontraesanak aurkitzea ere ohikoa da. Prentsak Ameriketarako joan-etorrian emigranteek fisikoki,

psikologikoki eta moralaren aldetik nozitutako narriatze-prozesu bat azaldu arren, era berean, beste zenbait emigranteren lorpenak eta izaera goraiipatzen ditu emigrazioaren nolabaiteko “apologia” eginez. Horrez gain, prentsak azaldutako iritzi publikatuaren eta benetako iritzi publikoaren artean ezberdintasunak antzeman daitezke (Apaolaza, 2009).

Elizak ere izan zuen zeresana emigrazioaren gaian, izan ere, iganderoko sermoiak eragin izugarria zuen iritzi publikoan, are gehiago euskal hiztunak ziren eskualdeetan. Elizak kontrako iritzi garbi eta homogenea garatu zuen urteetan zehar fenomeno masibo honen inguruan. Instituzio politikoek hauspotuta apezpiku-gutunak eta pulpitutik egindako sermoiak erabili zuten mezua fidelei helarazteko. Kontuan hartu behar da garai hartako kleroa kultura maila altua zuen sektore gutxitakoa zela. Euskara ondo menperatzen zuten eta beraien mezua zabaltzeko literatura eta bertsoak ere erabiltzen zituzten. Kontrako kanpaina guztiaz gain, Elizak ez zituen bere fededunak galdu nahi izan, eta horretarako, modu erregular eta antolatuan elizkideak bidali zituen Ameriketara (Alvarez Gila, 2004).

Iritzi publikoan eragin nabarmena zuen bertsolaritzak ere. Iragana aztertzean kontuan hartu behar da zein ezberdinak ziren informazioa hedatzeko moduak eta bitartekoak gehiengoak irakurtzen ez zekien gizarte batean. Gainera, euskal gizartearen zati handi batek euskaraz soilik zekien. Bertsoetan azaltzen ziren gaiak askotarikoak izaten ziren: emigranteek beren erabakia justifikatzeko ematen zituzten arrazoiak; amerikar arrakastatsuen irudia; emigrazio behartuen eta “engantxadoreen” lan zekena salatzen zutenak; Ameriketara abiatzea eta bidaietako esperientzia pertsonalak; herrialde berriko bizitzaren gorabeherak kontatzen zituztenak; herri minari kantatzen ziotenak; eta azkenik, Euskal Herrian Amerikan egindako aberastasunek ekarritako alde onak ere kontatzen dira. 1882an Saran ospatu ziren Lore Jokoetan Pierre Ibarrart honako bertsoekin garaile atera zen:

Ene anai joan zen Amerikan barna
Laster zerbeit eginik ustekotan lana;
Egun bezein aberats zen sorthu zenien!
Hobe lukela dio ikhazkin mendian.

iii. Herrialde berriko lanak

Euskal emigrazioak Ameriketako herrialde ezberdinetan utzi duen irudia aztertuz gero, konturatuko gara identitatea markatzerako orduan ezaugarri kulturalak baino egindako lanbideek garrantzi handiago izan dutela. Horrela, euskalduna esne-saltzailea da Argentina eta Uruguain, euskaldun doktorea edo lizentziatua da Venezuelan, euskaldun dendaria da Habanan, euskaldun okina da Mexikon, euskaldun artzaina da Far West-en, okina da Kalifornian eta berrikiago euskaldun kanabera ebakitzailea da Australian. Emigrazioa masiboa ezagutu duten herrialde guztiek bukatu dute irudi edo estereotipo sozial jakin bat izaten, herrialde hartzaileko biztanleek onartu dutena. Euskaldunei bakarrik ez, emigrante talde guztiei gertatzen zaie beraien lanbidearen arabera identifikatzea (Alvarez Gila, 2004).

Emigrante taldeek bere egiten dituzten lan espezializatuak eztabaida gai izan dira soziologo, antropologo eta historialarientzat. Eztabaida honakoan laburbiltzen da: emigranteen lan estereotipoa jaio edo egin egiten den. Horrela, Argentina eta Uruguain euskaldunek esne industriari lortutako maila ezin da ulertu beraien jatorrizko herrialdean abeltzaintzak zuen indarra ezagutu gabe:

He was a carpenter, furniture maker, stone mason, grain cropper, animal raiser, mule skinner, charcoal maker, logger, and contraband runner. The successful operation of the Basque farmstead required a certain amount of business acumen and the ability to weigh many factors. The Basque farmstead is in miniature a complicated enterprise (Douglass eta Bilbao, 1975: 398).

Iritzi berdinekoa zen Theodore Lefebvre historialari frantsesa, Argentinara emigratutako euskaldunak bizitza artzain estentsiboa zuen herrialde batetik bizitza mota berdina zuen beste batera mugitzen zirela baitzioen. Gainera lan gogor eta nekaezinari esker, horietako batzuk artzain huts izatetik panpako konkistatzaile modernoak bihurtu ziren Lefebvren ustez:

(...) les plus favorisés par la fortune finirent par constituer une oligarchie qui mit la main sur le gouvernement argentin, notamment sur la présidence de la République (Lefebvre, 1933: 703).

Historialari frantziarrak zioen Baztan eta Baigorriko dirutza handienek Argentinan zutela jatorria. Hala ere, guztiek ez zuten arrakasta lortuko eta lortu zuten horietan urte

luzeetako lanaren emaitza izango zen. Gainera herrialde hartzaileetako gobernuek ez zuten beti interes berdinarekin bultzatuko emigranteen etorrera, interes ekonomiko koiunturalak ulertu behar dira horretarako. Familia eratzea funtsezkoa izango zen egindako lanari jarraipena emateko eta baita jatorrizko herrian ondasunak zabaltzeko (Lefebvre, 1933).

Argentinan edo Uruguain ez bezala, Txilen, Mexikon edo Kuban merkataritzan eta transformazio industrian aritu ziren euskaldunak, lanbide berrietan aurretik inolako ezagutzarik eduki gabe. Esaterako, karrantzarrak eta baztandarrak irin-industrian indar izugarria lortu zuten eta baztandarrak garagardo sektorera ere hedatu ziren *Corona* eta *Coronita* bezalako marka ezagunak sortuz. Euskaldunek ordura arte beste immigrante talde batzuk bete gabe zituzten merkatu-nitxoei probetxua ateratzen jakin zuten, zenbait ofizio “gordailu-etniko” ere bihurtuz (Alvarez Gila, 2004). Beraz, Ameriketako euskal immigranteen lan espezializazioa eboluzio historiko baten fruitua izan zen. Eboluzio horren adibide, 1850ean Kaliforniara urre sukarraren atzetik iritsi ziren lehen euskaldunetatik asko denborarekin artzain bilakatuko ziren, tartean Pedro eta Bernardo Altube anai oñatiar ospetsuak (Douglass eta Bilbao, 1975).

Ikusi dugu emigrazioaren gaiak eztabaida eragin zuela gizartean, prentsa eta instituzioen jarrera erakusgarria delarik. Lefebvreren (1933) iritziz itsasoz gaindiko emigrazioa positiboa izan zen aurrerabiderako faktore bezala, izan ere, emigranteek diruaz gain, ekiteko grina eta metodo berriekiko gustua bezalako gauzak ere ekarri zituzten. Agirreazkuenagaren ustez, berriz, emigrazioa testuinguru jakin baten aukera ezinbestekoa izan bazen ere, txarrenen artean onena, ez da ahaztu behar baliabideen banaketa desorekatu baten eta gizarte egitura jakin baten ondorioa zela:

Los emigrantes en su inmensa mayoría pertenecían a las clases desposeídas y en definitiva la sangría emigrante puede desembocar en la mitigación de la energía creadora de una determinada comunidad en su relación con el medio (Agirreazkuenaga, 1987: 227).

Gaur egun, Ameriketako hainbat tokitan euskaldunek leialak eta langile gogorrek izatearen erreputazioa dute. Erreputazio hori artzainen edo esne-saltzaileen bezalako lanei esker lortu dute, baina ekonomiako beste hainbat sektoretara ere hedatu da. Douglass eta Bilbaoren (1975) esanez Kaliforniako supermerkatu konpainia batzuk eta

Nevadako zenbait eraikuntza konpainiek helburutzat zuten beraien enpresaren oinarrian euskaldunak soilik kontratatzea. Izan ere, hurrengo orrialdetan ikusiko den bezala, euskaldunok, batzuetan berandu izan arren, utzi dugu gure arrastoa eta gure identitatea plazaratu dugu toki ezberdinetan.

Bestalde, aipatzekoa da zenbait literatur lanek euskal emigranteen lanbideetan oinarritutako istorioak kontatu dituztela. Hala ere, lan horiek ez dira gehiegi izan, euskaldunak nabarmendu ziren ofizioak ez baitziren bereziki ikusgarriak izan, ezkutukoak baizik. Estatu Batuetan zenbait idazle aurkitu ditzakegu, tartean Robert Laxalt edo Frank Bergon. Laxalt-en liburuen artean honako biak aipa ditzakegu: *Sweet Promised Land* (1957) liburuak autorearen aitak Nevadan eta Kalifornian bizitako artzain bizitza kontatzen du; *The Basque Hotel* (1989) liburua gurasoek euskal hotel bat aurrera eramaten duten nerabe baten istorioa da eta gazteak euskal sustraiak ukatzetik horiengatik interesa jartzera egiten duen inimiziaz bidaia kontatzen du. Bergonen *Shosone Mike* (1987), berriz, lau artzain euskaldun hil dituzten Shoshone indiar-talde baten istorioa da, indiarrek berrehun miliaz jarraitu eta hil egiten dituztelarik.

3.1.2. Euskal diasporaren asoziazionismoaren hasiera eta lehen prentsa ekimenak

iv. Kolektibitatearen lehen urratsak

Emigrazioen historiografian kolektibitatea ez da sortzen jatorri geografiko berdinetik etorritako pertsonen batura bezala soilik. Talde horrek subjektu aktiboa behar du izan, nazionalitate baten babesean bere burua definitu, talde kontzientzia hartu eta asoziazio gisa egituratu behar du herrialde berrian (Alvarez Gila, 2004).

Horrela, ezaugarri identitario etniko komun batzuk dituzten immigranteek sozializazio eta solidaritaterako espazioak osatzen dituzte. “Kolektibitate” bezala ezagutzen dena eratzen da, “ethnic community” kontzeptuarekin parekatu daitekeena. Talde horren zenbait elementu honakoak lirateke: sare instituzional baten eraketa, kolektibitate barnerako osatzen den identitate jakin bat eta zenbait kasutan kanpora begirako irudi propio eta bereizgarri bat, gizarte hartzaileak onartzen dituen

estereotipoek ere osatuta. Horregatik, beharrezkoa da “kolektibitate” eta “kolektibo” kontzeptuak bereiztea. Kolektiboa, euskal kolektiboa, euskal lurraldean jatorria zuten immigrante guztiek osatutako *stock* demografikoa litzateke. Kolektibitatea, aldiz, immigrante talde jakinaren identitate, identifikazio, ikusgarritasun, errepresentazio eta antolakuntza instituzionalaren eraikuntzan aritutakoek lirateke (Alvarez Gila, 2016). Beraz, kontuan hartu behar da prentsaren eta beste iturri batzuen bidez jasotzen dena ez dela emigrazioaren irudi osoa:

Como ya lo hemos planteado en otros ámbitos, las historias que podemos recoger a través de este tipo de publicaciones, ya sea en Uruguay como en cualquier otro país, no pueden ser, de manera alguna, traspolables a la totalidad de los inmigrantes vascos. Tomando prestado el subtítulo utilizado por Iriani para su historia del centro vasco de Tandil, esto no puede ser más que “la punta de un iceberg” que esconde, en su parte más profunda, las vivencias de aquellos miles que no llegaron a descollar ni económica ni socialmente, y de otros que, lejos de haber hallado su “Eldorado americano” se vieron obligados a convivir con la pobreza y la marginación social (Irigoyen Artetxe, 2010).

Euskal instituzioen antolakuntza benetan berantiarra izan zen. Argentina, Uruguai eta Estatu Batuetan, adibidez, lehen euskal immigrante oldeen iritsiera eta lehen euskal elkarten sorreraren artean mende erdi igaro zen. Tarte horretan oraindik ez zen euskal kolektibitate bat existitzen, hots, euskal identitate baten eraikuntza kulturalak garapen urria zuen oraindik (Alvarez Gila, 2004). Hasiera batean, 1876rarte, euskaldunak espainolen eta frantsesen elkartetara batu ziren. Horietatik gehienak elkar-laguntzarako talde praktikoak ziren, lehenetarikoak 1852an Montevideon sortutako Asociación Española de Socorros Mutuos edo Buenos Aireseko Hospital Francés izan zelarik.

Blancoren Rodriguezen ustez (2008) asoziazioak funtsezkoak izaten ziren emigranteen integrazioan. Toki berrian lekukotu, espazio bat egin eta identitate kolektibo berria eraiki, adierazi eta mantentzeko erabaki erdi kontzientean funtsezkoak izan ziren. Hasierako etapa baten immigrantea eszenatoki multietniko baten aurkitzen zenean beste identitate batzuekin batera, bere ezaugarri kulturalen ikusgarritasuna indartzen saiatzen zen. Tradizioen berrinterpretazio, berdefinizio eta asmatze erlatibo bat ematen zen. Horrela, sortutako soziabilitate espazioek immigranteek atzean utzitako bizitzarekin jarraikortasun bat mantentzen laguntzen zuten eta zerbait arraroa bezala iritsitako gizartean integratzea errazten zuten, isolamendurako joera bultzatzeko

arriskua ere eduki arren. Eliteek bitartekari lana egingo zuten, herrialde berriko agintariengan influentzia eta jatorrizko gizarteko kideengan onarpena lortu asmoz:

Las primeras asociaciones de inmigrantes surgieron para solucionar algunos de los principales problemas con que se encontraron los inmigrantes en los países de acogida (...) la consciencia de inseguridad en un medio diferente al de procedencia (...) La necesidad de favorecer las relaciones personales y profesionales entre individuos de un mismo grupo étnico, sería otro de los objetivos iniciales y concretos de los inmigrantes para asociarse. En el desarrollo del asociacionismo influyeron también las modalidades de las migraciones, en especial las generadas por medio del mecanismo de “la llamada” que promovían y financiaban de manera encadenada una emigración de relevo procedente del propio solar, transmitiendo a los recién llegados sus comportamientos y conductas, generando entre las diferentes oleadas de inmigrantes una relación endogámica que les conducía a su participación en las asociaciones creadas anteriormente (Lorden, 2008: 54).

Elkartasun sareak indartzeko jardunaz gain, asoziazioak presentzia sozial eta politikorako plataforma gisa funtzionatzen zuten. Herrialde berriko sare sozialen erakusgarri izango dira, diskurtso partekatatu bat instituzionalizatu eta ofizialduko duten espazioak (Blanco Rodriguez, 2008). Testuinguru horretan identitatearen diskurtso jakin bat gailendu dadin saiaturiko dira korrante ezberdinak eta prentsa izango da eztabaidarako plaza nagusienetako bat.

v. *Euskara eta hotelak*

Kontuan hartu behar da emigrazio masiboaren fenomenoan parte hartu zuten euskaldun gehienak herritar xeheak zirela. Emigrazioari buruzko Joan Andoni Irazustaren *Joañixio* nobelan agertzen den pasarte bat argigarria zaigu. Narrazioko protagonista den nekazari gipuzkoar batek, bere herritik sekula irten gabea, ezkutuan muga pasatzen du Bordelen ontziratzeko asmoarekin. Bertan, Joañixio harrিতa geratzen da ostatu baten euskaraz hitz egiten diotelako, ez baitzekien mugaz bestaldean ere euskaraz mintzatzen zenik. Nobelako protagonisten bezalako pertsonen ezezagutzari, iragan hurbilean euskal lurraldean gertatutako Espainia eta Frantziaren arteko gerraren ondorioak eta hezkuntza sistema nazionalizatzaileak utzitako arrastoak gehitu behar zaizkio euskaldunen arteko ezagutza eza ulertzerakoan (Alvarez Gila, 2004).

Testuinguru horretan, euskara izan zen euskaldunak batzen hasteko elementu bateratzailea. Euskaldunen kasua Ameriketako beste kolektibitate europar batzuekin alderatu daiteke, oinarri politiko banandua eduki arren ezaugarri etnikoak zituen hizkuntza komun baten inguruan biltzen zirelarik. Hala nola, poloniarrek eta hungariarrak. Hizkuntzaren inguruko bateratze prozesu honen emaitza moduan, “Buenos Aireseko dialektoa” edo Far West estatubatuarrean hitz egiten zen euskarari buruzko eztabaida aipatu daiteke. Euskara batu edo “koine” baten lehen saiakerak Ameriketako emigrazioaren laborategi sozialean eman zirela baieztatu izan da. Zaila den arren euskalki komun bat garatu zela baieztatzea, egia da euskal ahots eta esamoldeen hartu-eman garrantzitsu bat jazo zela eta bueltan zetorren emigranteak beste bereizgarri batzuekin batera euskara berezi bat ekartzen zuela berarekin (Alvarez Gila, 2004).

Bidaiarien testigantzak ugariak dira mugaz bi aldeko euskaldunak beraien txapel eta jantziekin lanean edo aisian elkarrekin euskaraz hitz egiten deskribatzen dituztenak. Zenbait lan eskaintzek euskara jakitea ezartzen zuten baldintza, beste lankide guztiek ere halaxe hitz egiten zutelako beraien artean, eta baita bezeroek ere. Ezaugarri hori nabarmendu egiten zen landan, non isolamenduak beste nazionalitate batzuekin kontaktuak gutxitzen zituen. Bai hegoko euskaldunek eta bai iparraldeko euskaldunek aisia ere konpartitzen zuten eta pilota jokoak indar handia hartu zuen Ameriketara emigratutakoen artean, zenbait herrialdetan gainontzeko biztanleengana ere zabaldu zelarik. Esaterako, honela deskribatzen du Jose Manuel Azcona Pastorrek Rio de la Platako estantzia eta gazitegi ugarian zegoen giroa:

(...) el inmigrante se encontraba con un ambiente laboral netamente vasco. Allí se hablaba euskera. Sus compañeros, los capataces y en ocasiones el propietario, habían nacido en el País Vasco. La indumentaria (boina, fajín rojo y alpargatas) recordaba, en todo, el hábitat del Viejo Mundo. Aún hay más: la mayoría de los saladeros poseían frontón en el cual se jugaba en ratos de descanso (Azcona Pastor, 1992: 311).

Euskaldunen bateratzeko prozesuaren erakusgarri zen beste esparru bat ezkontzak ziren. Nora Siegrist de Gentilek 1855ean Buenos Airesen hegoaldeko euskaldunek jarraitutako ezkontza patrioiak aztertu zituen. 114 ezkontzetatik 26 soilik ezkondu ziren euskaldunak ez zirenekin eta gainontzekoak beraien artean elkartu ziren. Datu horiek

gainerako immigrante taldeekin konparatzean, euskaldunak dira endogamia maila altuena erakusten dutenak. Martha Marenales Rossiren arabera, berriz, Montevideon 1841-42 eta 1870-71 urteetan ospatutako ezkontzen %20 mistoak izan ziren, hau da, hegoaldeko euskaldunen eta iparraldeko euskaldunen artekoak (Alvarez Gila, 2004).

Poliki-poliki herrialde amerikarretako biztanleak “euskaldun” figura barneratuz joan ziren eta euskaldunak ere beren burua halaxe deitzen hasi ziren, zenbait dokumentu ofizialetan ere beraien nortasuna azpimarratuz. Elizaren paperak ere lagundu zuen espainiar eta frantziar euskaldunak batzen. Euskara nolabait modu ofizialean erabiltzen zuen instituzio bakarra izanik, bi jatorrietako euskaldunak elkartzen ziren bertan. Euskal etxeak agertu aurretik pilotalekuak eta elizak izan ziren euskal komunitate hasi berriaren bilgune nagusiak (Alvarez Gila, 2004).

Horiez gain, euskaldunen hotelak ere nabarmendu behar dira, batik bat Argentina, Uruguai eta Estatu Batuetan egon zirenak. Hotelak iritsi berrientzako bizileku ziren eta landako estantzietan lan egin zutenentzat ere noizbehinkako geltokiak ziren: “The hotel served the nomadic Basque shepherd and itinerant operator as the closest thing that he had to a home” (Douglass eta Bilbao, 1975: 377). Hotelaren jabeak bitartekari lanak egiten zituen hainbat kontutan bere ostatuan zeudenentzako: korreoa jaso eta bidali, dokumentazio tramiteak burutu, itzultzaile lana egin medikuaren aurrean, lan eskaintzen berri eman eta baita neska ezkongabeekin kontaktuan jarri emigranteen jatorrizko herrietan. Euskal hotelek emakumeak behar zituzten etxeko-andre eta zerbitzari bezala lan egiteko eta bikote askok bertan ezagutzen zuten elkar: “the Basque hotel, which served as a place of recreation, was a prime context for matchmaking” (Douglass eta Bilbao, 1975: 161). Hotel hauek existitu ziren tokitan beranduago sortu ziren euskal etxeak.

Ameriketara joandako euskaldun guztiek ez zuten euskaraz hitz egiten, Euskal Herriko zenbait tokitan euskara galtzen hasi edo erabat galduta baitzegoen. Euskaldun horiek hasieratik egongo ziren euskal asoziazionismoaren sorreran, beraz, nabarmendu behar da hizkuntzaz gain hasita zela erretzen beste elementu bateratzaile bat ere: komunitate politiko baten parte zirenen kontzientzia. Ameriketako Euskal Herrian gertatzen ari zenaren isla zen, sentimendu foralista indarra hartzen ari baitzen.

Euskalduntasunaren ideia berri horiek, euskal hiztunen eta ez hiztunen arteko bereizketa kulturalari gain hartzen zioten (Alvarez Gila, 2004).

vi. *Lehen euskal etxeak eta lehen prentsa ekimenak*

1876a urte garrantzitsua izan zen euskal kolektibitatearen sorreran. Gerra Karlisten amaierak mugari garrantzitsua ezarriko zuen: Foruen deuseztatzea, Kontzertu Ekonomikoa salbu. Madrileko *La Paz* egunkari foruzaleak honela zioen egoera berriak ekar zezakeenaz: “...traería la ruina del país vasco y la emigración de sus naturales por bandadas a extrañas y remotas tierras” (Irujo eta Irigoyen, 2006: 35).

Euskal Herrian foruen sistemaren pean bizitako autonomia galtzeak, euskal identitatearen aldeko mugimendu politiko eta kultural zabal bat hastea ekarri zuen Pirinioen bi aldeetan, Atlantikoaren beste aldean ere oihartzuna izan zuena. Mugimendu honen aitzindaritzat hartu dezakegu Nafarroako Euskarazko Elkargoa. Joera foruzalea eta euskaltzalea zuen eta 1877an sortu zen Arturo Campion eta Juan Iturraldereen eskutik. Asoziazio honek *Revista Euskara* hilabetekaria sortuko zuen urte bat beranduago. Halaber, garrantzitsua izango da Jose Manterolaren jarduna eta honek bultzatutako *Euskal Erria* aldizkaria (Ramos, 2010). Euskal identitatean sakontzeko mugimendu honetan Lore Jokoez izandako garrantzia ere azpimarratu behar da.

Beraz, foru tradizioaren galerak ere izan zuen oihartzuna Ameriketan eta kolektibitatearen garapenean beste urrats bat gehituz lehen Euskal Etxeak sortu ziren. Horrela, 1876an Montevideon sortu zen Laurac Bat lehen euskal etxea; 1877an Buenos Airesekoak jarraituko zion Laurac Bat izen berdinarekin; eta 1878an Habanako Sociedad Vasco-Navarra de Socorros Mutuos eratuko zen, euskal kolektibitateari hasiera emanez. Kontuan hartu behar da asoziazionismo mota berri honek urte batzuk lehenago ere urratsak emanak zituela, 1868an Matanzas-eko (Kuba) Asociación Vasco-Navarra elkartearen sortzearekin (Irigoyen Artetxe, 2014), hain zuzen ere:

La constitución en 1877 en Buenos Aires de la Sociedad vasco-española “Laurac Bat”, puede considerarse entre el colectivo de españoles, como el inicio de una etapa de insatisfacción de los modelos asociativos existentes (...) A finales del decenio de 1870 esta insatisfacción se vuelve a manifestar con gran intensidad, ahora en el colectivo gallego, el más numeroso e ideologizado de

todos los españoles, a través de aireadas campañas de prensa alentadas por una minoría culta (...) Algunos años después el modelo regionalista llegó a convertirse en la forma asociativa más extendida entre los inmigrantes españoles, hasta el punto de no quedar ningún grupo regional o provincial sin Centro propio (Llorden, 2008: 81).

Hemen hasiko da gure ikerketaren helburua den Ameriketako diasporako euskal prentsaren ibilbidea. Izan ere, sortu eta denbora gutxira, euskal etxeek sustatuta agertuko zen prentsa instituzionala. Rio de la Platan, 1877an Montevideon eta 1878an Buenos Airesen, *Laurac Bat* (urte batzuk geroago ortografia aldatu eta *Laurak Bat* bihurtuko zirenak) izen berdineko aldizkariak argitaratu zituzten.

Euskal etxeei dagokienez, sortu berritan zenbait zailtasun izan zituzten beraien nortasunari zegokienean. Bi helburu nagusi zituzten: batetik, euskaldunen aisialdirako elkargune izan eta euskalduntasunaren hedapenean lan egin, eta bestetik, asistentzia lanak egin gaixotasun, txirotasun eta heriotza kasuetan. Helburu guztiz ezberdinak ziren eta nekez koordinatu zitezkeen instituzio bakarretik. Hori dela eta, Uruguain esaterako, euskal etxeari lotuta egongo zen Caja Vasco-Navarra de Reempatrio sortu zuten bi helburuei bereizita ekiteko (Alvarez Gila, 2004).

Esan behar da, euskaldunen asoziazionismoaren jatorriak garai kolonialean aurki ditzakegula, 1612ean Liman Cofradía de Nuestra Señora de Aranzazu sortu zenean (Puente Brunke, 2004). Mota honetako entitateak beste hainbat tokitan ere sortu ziren, baina prozesu independentistaren ostean ez zuten aurrera jarraitu. Hala ere, asoziazionismo berria aurrekoaren oso bestelakoa zen. Sarrera borondatezkoa eta indibiduala zen euskal etxe berrietan eta ez aurrekoak ziren bezala esleipen selektiboan eta tradizio familiarrean oinarritua. Gainera, neurri handi batean kutsu elitista galdu egin zuten eta egoera sozial orotako pertsonak parte hartzen hasi ziren.

Euskal etxe berrien beste ezaugarri bat hegoaldeko euskaldunak soilik onartzen zirela zen eta instituzioak eratu ziren lehen momentutik eztabaida gai sutsua bihurtu zen mugaketa hori. Lehen bi euskal etxeen izenak, *Laurak Bat*, argi adierazten zuen erreferentzia estatu espainiarra zela eta euskalduntasuna horren barruan kokatzen zuen. Hain zuzen ere, Buenos Aireseko instituzioak bere bazkideentzako agerkaria argitaratu

zuenean, goiburuan jartzeko Espainiako armari monarkiko tradizionalaren irudia aukeratu zuen (Alvarez Gila, 2019b).

Hala ere, kontuan hartu behar da emigrazioaren fenomenoak Pirinioen bi aldeko euskal lurraldeei modu antzerakoan eragin ziela denboran, geografian eta baita lan espezializazioan ere. Mugaren alde bateko eta besteko euskaldunek jatorrizko hizkuntza partekatzen zuten emigranteak ziren, baina herrialde ezberdineko hiritar ziren; aldi berean, erregistro ofizialetan beraien herrikideak zirenekin muga linguistikoak zituzten. Modu progresiboan bi aldeen integrazioa ematen joango zen, prozesuaren interpretazioa oraindik hein batean marko estatalean ezkatua dagoen arren (Alvarez Gila, 2016). “Abizen gabeko” euskal kolektibitatearen bateraketa 1880ko hamarkadan jazo zen Kuban, 1890ko hamarkadan Uruguain, XIX. mende bukaeran Argentinan eta 1960ko hamarkadan Estatu Batuetan (Alvarez Gila, 2019b). Hain zuzen ere, aipatutako Uruguaiako Caja Vasco-Navarra de Reempatrio izan zen “abizen gabeko” onarpen horretan lehena (Irujo eta Irigoyen, 2006). 1904an Asociación Cultural y de Beneficencia Euskal Echea eratu zen, iparraldeko eta hegoaldeko euskaldunak batuz.

Uruguaiako kasuan, adibidez, iparraldeko euskaldunak onartzean *Laurak Bat* elkarteak *Sociedad Euskara* izatera pasako zen 1884an eta prentsa argitalpenak ere izena aldatuko zuen *El Euskaro* bihurtzeko. Euskal etxeen barnean ematen ziren eztabaiden erakusgarri, aipatutako elkarteko presidente zen Jose Umaranen etsai zen Fermin Landak *El Vascongado* plazaratu zuen (aldizkariaren alerik ezagutzen ez den arren) honen kontra egiteko, difamazio salaketa bat ere jasoz idatziengatik (Irigoyen Artetxe, 2010).

vii. *Prentsa euskaraz eta “La Baskonia”*

Era berean, ekimen enpresarial pribatuko prentsa agerkarien sorrera eman zen. Euskara hutsez idatzitako *Escualdun Gazeta* (1885) eta *California-ko Eskual Herria* (1893) astekariak izan ziren lehenengotarikoak. Estatu Batuetara joandako Ipar Euskal Herriko euskaldunen eskutik sortutako egitasmo hauek diasporako lehen euskarazko agerkariak ere izan ziren. Lehenbizikoaren egilea Martin V. Biscailuz abokatua izan zen

eta bere ustez “munduko lehemisiko escualdun gaseta” idazten ari zen (Diaz Noci, 1992).

Hala ere, diasporako euskarazko lehen agerkari horrek hiru ale besterik ez zituen argitaratu. Gerora jakin dugu Agosti Xaho izan zela lehena 1848an euskarazko prentsa argitalpen baten saioa burutzen, *Uscal-Herrico Gaset*a, hain zuzen ere: “Horregatik bakarrik balitz ere, Xahok «bidegile» izena mereziko luke eskubide osoz” (Zabaltza, 2011: 19). Baina Xahoren argitalpen hori, *L’Ariel* aldizkariaren gehigarria izan zen eta bi ale soilik eman zituen argitara hauteskunde garaian egonik (Diaz Noci, 2012). Beraz, ez Biscailuzen ez Xahoren argitalpenek ez zuten aldizkariak behar duten jarraipenik izan. Horrela, euskarazko prentsaren benetako hastapena Ipar Euskal Herrian eman zela esan daiteke, *Le Réveil Basque* (1886) liberal gorria eta *Eskualduna* (1887) zuri katoliko integrista aldizkariaren agerpenarekin.

California-ko Eskual Herria argitaratutako urte berdinean (honek bost urte iraun zituen), 1893an, beste aldizkari esanguratsu bat emango zen argitara Buenos Airesen, Jose Rufo Uriartek eta Francisco Grandmontagnek sortutako *La Vasconia* (ondoren *La Baskonia*) aldizkari kultural-intelektuala. Ekimen pribatuko prentsaren artean aldizkari arrakastatsuena eta enblematikoena bihurtuko zen, urte luzez argitaratu izanagatik eta kalitate editorialagatik nabarmenduz. Claude Mehats historialari lapurtarraren ustez:

Il est impossible d’écrire sur le Basque en Argentine dans la période 1893-1938 sans avoir lu cette publication qui mérite à son époque de grands éloges autant de la part des journalistes basques qu’argentins (Mehats, 2005: 286).

Beraz, hegoaldekoen eta iparraldekoen arteko bereizketa hori aldatu egingo zen herrialde gehienetan XX. mendearen etorrerarekin. Orduetik aurrera sortutako euskal etxeek euskal kolektibitatearen ideia integrala izan zuten eta euskaldun guztiak berdintzat hartu ziren (Alvarez Gila, 2004). Horrela joango ziren sortzen beste euskal etxe batzuk: 1907an Mexikoko Centro Vasco, 1908an Estatu Batuetako lehen euskal erakunde mutualista Boisen, 1912an Santiago Txileko Centro Vasco, urte berdinean Montevideoko Euskal Erria eta Rosarioko (Argentina) Zazpirak Bat. Azken horrek lehenbizikoz amerikar euskal elkarteetan euskal abertzaletasuna besarkatuko zuen eta horrekin hainbat desadostasun ugari azaleratu ziren.

Euskal etxeen nolakotasunari dagokionez gehienek “zentro sozial” izaera izan zuten (Alvarez Gila, 2004). Horrela, euskal identitatea mantentzeko helburuari jarraituz saloia, taberna, jatetxea eta frontoia izan ohi zituzten dantzak, pilota-partiduak eta mus txapelketak antolatzen. Gainera, garrantzi handia hartu zuten San Inazio eguna bezalako ospakizun bereziek. Egun horietan, elkarteko kide aktiboez gain, euskal immigrante ugari gerturaten ziren jaiak gozatzera eta erakusleiko ezin hobeak bihurtu ziren komunitatea saretzen joan eta gizartean euskaldunen irudia zabaltzeko. Horrez gain, hezkuntza ere izan da hainbat euskal etxeren helburua, hainbat eskola martxan jarri, baina gehienek ez dute aurrera egiterik izan arrazoi ezberdinengatik.

Bestalde, Rio de Janeiron (Brasil) ere bildu zen euskaldun talde bat eta 1885ean Euskaldunak Orok Bat elkartea eratu zuten. Venezuelan, bestetik, oso urria izan zen XIX. mendean jaso zuten euskal emigrazioa. Horrekin nahigabeturik azaldu zen Aristides Rojas intelektuala bere *El elemento Vasco en la Historia de Venezuela* liburuan: “only the republics of the Plata enjoy the enviable privilege of witnessing a steady current of immigration originating in the Basque provinces” (Douglass eta Bilbao, 1975: 169). Euskal emigrazioa Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz iritsiko zen Venezuelara aurrerago.

Euskal Etxeen inguruan elementu ezberdinak batu eta lotuz joango ziren euskal komunitatearen osotasun bat osatuz (Chueca, 2008: 113). Euskaldunek identitate etnikoari eusteko ardura hartu zuten, “euskaldunen izen ona mantentzeko” asmoz (Totoricagüena, 2005). Beraz, euskal identitate baten nozio partekatua izango zen egitura asoziatiboa eratzeke oinarrian egongo zena (Alvarez Gila, 2019b). Baita euskal prentsaren sorreraren oinarrian egongo zena.

3.1.3. Euskal abertzaletasunaren iritsiera Ameriketara eta aldizkari abertzaleak

Euskal identitatea osatzeko prozesu honetan zeharo interesgarria da behatzea nola garatu zen sinbologiari dagokion zatia. Euskal Herriaren errepresentazio enblematikoa beste auzi bat bihurtuko zen euskal identitatearen kontzeptu eta mugen (geografikoak, kulturalak eta politikoak) osieran. Irurak Bat, Laurak Bat eta Zazpiak Bat ikurren garapena gertatuko da (Alvarez Gila, 2019b).


XVII. mendean euskal-amerikarrak lehen instituzioak sortzen hasi zirenean ere, sinbolo bateratzailea aurkitu behar izan zuten. Horrela, Arantzazuko amabirjina aukeratu zuten, Gipuzkoan ez ezik beste euskaldun ugarik ere debozioa ziotelako, baita iparraldean. Alabaina, XIX. mendean baldintzak bestelakoak ziren eta sinbolo erlijiosoak soilik ezin zituen funtzio horiek bete. Europa eta Ameriketako beste nazionalitateen mailan egoteko euskaldunek beharrezkoak zituzten bere nazioaren diskurtsoa osatuko zuten himnoa, bandera eta armarrria (Alvarez Gila, 2019b).

viii. *Himnoa eta lehen “ikurrina”*

Himnoari dagokionez adostasuna azkar lortu zen, Iparragirrereren *Gernikako Arbola* izango zen, sentimendu foralistak ederto barnebiltzen baitzituen honek. Hala ere, beste bi sinboloak zailagoak izango ziren adosteko. 1881ean Pedro Soraluze historialariak bandera bat diseinatu zuen Parisen eta lehen aldiz atera zuten “entre los 324 estandartes que se ostentaron en la manifestación que tuvo lugar en aquella capital el domingo 27 de Febrero en honor del gran poeta Victor Hugo y con ocasión de su 80º aniversario”³.

1882an Buenos Airesen *Plaza Euskara* frontoi ezagunaren inaugurazioan, bandera hori espainiar eta frantses banderekin batera atera zuten. Ikur berriak hasiera batean soilik lau probintziei erreferentzia egin arren, espainiar eta frantses bandera baino onargarriagoa zen euskaldunentzat ikur soilik euskalduna izanik. Euskal Herrian apenas oihartzunik izan arren, Buenos Airesen, Montevideon eta Habanan berriki sortuta zeuden euskal etxeetan bandera eta armarrria erabiltzen hasi ziren, bakoitza bere moldaketekin. Hain zuzen ere, Buenos Aires eta Habanako aldizkari instituzionalak armarrria erabiltzen hasi ziren lehen orrialdeko goiburuan, “Laurak Bat” bat esaldiaren orde “Euskal Erria” jarriz (Alvarez Gila, 2019b).

³ “Miscelánea”, *Euskal Erria*, Donostia, II (1881), 167.or.



Irudia 1: 1881ean Pedro Soraluceek sortutako ikurrina.
Iturria: Alvarez Gila, 2019b.

Ikur berri honek erabilera eta iraupen ezberdina edukiko zuen euskal kolektibitatea aurkitzen zen hiru herrialde nagusietan. Gernikako arbola ere erabiliko zen ikur bezala beste sinbolo batzuen osagarri, tartean prentsan, elementu “neutro” bezala hartzen baitzen eta zuzentasun politikorako aukera eskaintzen baitzuen. XX. mendean aurrera egin ahala Zazpiak Bat ikurra izango zen lekua hartuko zuena. Horren adibide garbiena prentsan ikusi daiteke, behin eta berriz agertuko baita Zazpiak Bat ikurra izan errepresentazio bisual edo lema bezala. 1920an Argentinan eta Estatu Batuetan eta 1930ean gainontzeko herrialde amerikarretan orokortuko zen ikurrinaren erabilera euskal identitatearen ordezkariatzat (Alvarez Gila, 2019b).

Beraz, Ameriketako emigranteek Euskal Herri zaharrarekin lotura mantentzeko ahaleginak egiten zituzten, askok eta askok sentitzen zuten herrimina eta euskaldun izatearen harrotasunaren testigu. XIX. mendean, lehen euskal etxeak sortu eta euskal identitate bakarraren osaeran pausuak eman baziren, XX. mendea nazionalismoaren etorrerak baldintzatu zuen: “...possibly the clearest indicator of a continued Old World orientation was seen in the responsive chord that Basque nationalism struck in the thinking of many Latin American Basques” (Douglass eta Bilbao, 1975: 170).

ix. Aurretiazko euskal abertzaletasuna?

Ameriketan euskaldun guztien identitate komun baten eraikuntzan aldarrikapen kulturelei gain hartuz abertzaletasunari lotutako aldarri politikoak egon ziren ala ez eztabaidatu izan da. Hau da, kolektibitate euskal-amerikarrean “avant la date” sortutako abertzaletasun bat dakusate zenbaitek. Itsasoz gaindi emigranteak zeuden gizarteek eta

Bilboko giro sozialak bazituzten antzekotasunak, izan ere, biak ziren immigrazio toki eta kulturarteko kontaktua dagoen espazioetan errazagoa da abertzaletasuna bezalako ideiak garatzea (Alvarez Gila, 2019b). Irujo eta Irigoyenen (2006) lana da honetan aitzindari eta kolektibitate euskal-uruguaitarrean identitate komunaren eraketa esparru politikora heldu zela defendatzen dute. Jose Umaran Montevideoko Laurak Bat-eko lehendakariak, 1883an instituzioaren aldizkarian idatzitakoa jartzen da adibidetzat:

...La disgregación del pueblo euskaro, no es obra suya; ha sido disgregado, mejor dicho, conquistado con un pretexto ú otro por Francia y España; por consiguiente ha obedecido al bárbaro principio de la fuerza, la desmembración de su territorio.

...ambos pueblos han conservado con nobleza y con honradez la tradición y la herencia de sus padres, y no hay fundamento para creer, que en un siglo en que los Estados del Norte, los italianos del medio día y los germanos del Noroeste se unen y reconstruyen sus antiguas nacionalidades, no se unan también los hijos de la Euskalerría, anteponiendo los sagrados principios de hermandad á los de la odiosa imposición que los separó en mala hora.

Unir a todos los hijos de la Baskonia bajo un solo y único lema ha sido siempre nuestra suprema aspiración⁴.

Hala ere, tentsioak zeuden identitatearen eztabaida sutsuan sartuta zegoen zuzendaritza eliteak osatzen zuen abangoardiaren eta gainontzeko masa sozial anonimoaren artean, azken hauek lotura espainiarra eta frantsesa mantentzera jotzen baitzuten inertziatz. Horrela, itxuraz paradoxikoa zen egoera bat mantendu zen, euskalduntasun abertzale eta batu baten aldeko aldarrikapen momentuak, espainiar edo frantziar estatuaren aldeko defentsa sutsuko momentuekin tartekatzen baitziren (Alvarez Gila, 2019b). Gehientzat, Euskal Herrian bezalaxe, bateragarriak ziren euskalduntasunaren aldarrikapena eta Espainia edo Frantziarekin lotura politikoa: “El regionalismo vasco ayuda a explicar así tanto el nacionalismo español en el País Vasco finisecular como el nacionalismo vasco; el fuerismo actuó de nutriente (no exclusivo por supuesto) de ambos” (Rubio Pobes, 2016: 419).

Itxuraz abertzalea den diskurtso bat irakur daiteke XIX. mende bukaerako euskal prentsa amerikarra irakurriz gero, batez ere argentinarra eta uruguaiarra. Alabaina, abertzaletasun hori ez zen egituratuko mugimendu bateratu edo alderdi politiko batean. Horrez gain, Sabino Aranaren pentsamenduaren eta Rio de la Platan garatu zenaren

⁴ “Euskaldun Guziak Bat”, *Laurak Bat*, Montevideo, 1883ko ekainaren 21a.

artean zenbait ezberdintasun nabarmendu daitezke. Batetik, arraza ez zen izango euskal identitatea eraikitzeko ardatza, eta horren aurrean, elementu kulturei eta bereziki euskarari eman zitzaion garrantzia. Bestetik, eredu sozio-politiko eta ideologikoan ere ezberdintasunak zeuden; pentsamolde aranista tradizionalismo eta katolizismo integristan oinarritzen zen bitartean, kolektibitate amerikarrearantz ideal errepublikano eta zibiko, ia demokratiko, baten inguruan ardaztuko ziren ideiak, errepublika amerikarrek independentzia garaitik hartu zuten ereduak eraginda (Alvarez Gila, 2019b).

x. *Sabino Aranaren ideiak itsasoz bestaldera eta aldizkari abertzaleak*

Ez da erraza zehaztea noiz hasi zuen abertzaletasunak bere hedapena euskaldun-amerikarrengan. Badirudi 1903a data garrantzitsua izan zela, izan ere, Sabino Aranaren heriotzaren urte berean, Euzko Alderdi Jeltzaleko (EAJ) partaide aktibo ziren hogeit hamar pertsona inguruko talde txiki bat Argentinan lehorreratu zen. Ez dakigu emigrazio honen arrazoiak ekonomikoak edo politikoak izan ziren (ez dago zantzurik esateko intentzio politiko bat egon zela Ameriketako lehen euskal abertzaleen iritsieran), baina iritsi eta segituan Rio de la Platan abertzaletasuna hedatzeko lanean hasi ziren (Alvarez Gila, 2019b).

Euskal abertzaletasuna diaspora amerikarrearantz hedatzeko orduan prentsa funtsezkoa izango zen. Jendea konbentzitzeko mezua barreiatu behar zen. Horrela, 1903an Nemesio Olariagak (Andoain, 1854), Argentinara hamabost urterekin joana zenak, lehen aldizkari abertzalea sortu zuen Maipun (Buenos Aires): *Irrintzi*. Ameriketako diasporako lehen agerkari politikoa izan zen hau hogeita bi urtez banatu zen dohainik Argentinan, Uruguain edo Txilen eskatzen zuten etxeetara. Urte berean *La Vasconia* aldizkariak ortografia aranistara moldatuko zuen izena, *La Baskonia* bihurtuz.

Era berean, funtsezkoa izango zen Sebastian Amorrortuk zabalduko inprenta, “Artes Gráficas. Sebastián de Amorrortu e hijos, S.A.”, bertan inprimatuko baitziren argitalpen abertzaleak. Amorrortuk Bilbon ere inprimategi negozioa eduki zuen emigratu aurretik, Alde Zaharreko Jardines kalean kokatua, “Gure Izarra” izenarekin. Bertan, abertzaletasunari lotutako hainbat lan inprimatu zituen, tartean Sabino Aranaren argitalpen ugari. Aranaren lagun izandako Amorrortuk agintarien jazarpena jasan behar

izan zuen lan horiengatik, kartzela eta zigor ekonomikoak barne, eta 1910ean Argentinara emigratzea erabaki zuen (San Miguel, 2008).

1907ko abuztuan, *Irrintzi*-ren urratsei jarraituz, Rancaguan (Txile) *¡Aurrera!* astekaria argitaratuko zen. Valentin de Landetak zuzendutako ekimen hau 1910 urtera arte argitaratu zen. Gainera, esan behar da Rancaguako abertzaleen talde txiki honek Ameriketara ezagutzen den ikurrinaren lehen igotze instituzionala egitearen meritua duela, kolektibitate espainiarraren protesta eraginez Santiago Txileko *El Heraldo de España* agerkariaren bidez. Lehenago, Nemesio Olariaga aitzindaria izan zen bere estantzia eta lokaletan ikurrina publikoki haizatzen (Alvarez Gila, 2019b).

1907ko azaroan, *Euzkotarra* aldizkariaren lehen zenbakia argitaratutako zen Mexiko Hirian. Ibilbide laburra izan arren, argitara emandako 5 zenbakietan euskal abertzaletasunak Mexikon egindako hastapenen isla da eta ideal horiek babesten zituen agerkari batek jasan behar izan zituen zailtasunak erakusten ditu: “durante el porfiriato el nacionalismo vasco fue perseguido en México” (San Sebastian, 1989: 39).

Prentsaz gain, nazionalistak euskal instituzioetan sartu ziren komunitatearengan eragiteko asmotan. 1902an Jose Mari Larrea nazionalista Buenos Airesko Laurak Bat-en lehendakari bihurtuko zen. Bera lehendakari izanik, Foruak deuseztatzen zituzten legeen kontrako protesta publikoa plazaratzen hasi ziren, “fundatze-espirtua” berreskuratuz, izan ere, protesta hori instituzioaren estatutuek jasotzen zuen sortze momentutik, baina ordura arte praktikan gauzatu gabe zegoen (Ezkerro, 2004). 1908an Larreak Sukarrietako hilerria bisitatu zuen euskal etxearen izenean lore-sorta bat jartzeko Sabino Aranaren hilobian. Ekintza horrekin bazirudien Argentinako euskaldunak “maisuaeren” esanetara lerratzen zirela, baina benetako egoera ezberdina zen. Abertzaletasuna euskal kolektibitatearen estrukturan sartzearekin bat bi joera bereizi ziren: abertzaleak eta espainolistak (“vascos” eta “vascongados”):

Las renovadas ideas provocaron conflictos por la política cultural y simbólica como refuerzo de la identidad y la diversificación de actividades sociales y educativas sin restar peso a la religión del nacionalismo vasco en la emigración (García Sebastiani, 2020: 51).

Hurrengo hamarkadan batzuen eta besteen arteko eztabaida gogorak eman ziren, Buenos Aireseko Laurak Bat izanik erdigune Rio de la Platan zuen garrantziagatik. 1912an abertzaleek bertako presidentzia galdu zuten, eta horren aurrean, instituzio berriak eratzea erabaki zuten. Rosario, Argentinako bigarren hiri populatuenean, ekin zioten lan horri bertan ere euskal komunitatea zabala baitzen. Euskal etxe berriak Zazpirak Bat izena hartuko zuen, beraien ustetan horrek adierazten baitzuen benetan euskaldun guztien batura eta ez Buenos Aireseko Laurak Bat-ek (Alvarez Gila, 2019b).

Era berean, XX. mende hasieran lehen erakunde politikoak ere sortu zituzten euskal-amerikarrek. 1904an Buenos Airesen Comité Nacionalista Vasco edo Baskongado eratuko zen, aipatutako Jose Mari Larrea izanik lehen lehendakaria. Batzorde hori litzateke Argentinan sortutako lehen erakunde abertzalea eta gaur egun EAJ-ren Lurralde Kanpoko Junta denaren lehen aitzindaria (Mignaburu, 2013). 1911n, Euzko Gastedija eratuko zen Buenos Airesen eta bertan haizatuko zen ikurrina lehenbizikoz hirian eraikin publiko batean, kasu honetan ere espainiar enbaxadaren jazarpena eraginez:

Del mismo modo, en 1904 había fundado (Nemesio Olariaga) en Maipú, en una casa de su propiedad, una sociedad llamada “Euzkaldun Batzokija” (en cuya “delegación” en Buenos Aires, que no era otra cosa que su propio domicilio, había hecho ondear, como ya hemos visto, una ikurriña, aquel mismo año), y otra llamada “Euzko Gaztedija”, de corta vida y casi nula afiliación (eran pocos los vascos en Maipú por aquellos años, y más escasos aún los nacionalistas). En Buenos Aires, en cambio, existía la masa crítica necesaria para que la delegación de Juventud Vasca de Buenos Aires –a veces identificada como la “Uri Buru Batzarra” peneuvista de la capital argentina- pudiera incluso contar con una sede propia, la misma (...) donde se produjo el izado de la bandera nacionalista (Alvarez Gila, 2019b: 276).

Esan bezala, Rosario ere abertzaleak elkarte berriak sortzeari ekin zioten. 1911n Rosarioko Comité Nacionalista Vasco eratuko zen. Hurrengo urtean, aipatutako Zazpirak Bat euskal etxea sortuko zen. 1914n, berriz, euskal etxean jazotako banaketen ondorioz Euzko Batzokija jarriko zen martxan.

Horrela, urte horietan beste zenbait prentsa argitalpen abertzale agertu ziren Argentinan, hala nola, *Euzkotarra* (1913) eta *Euskalduna* (1921) Buenos Airesen eta *Aitor* (1915) eta bere segida izan ziren *Egi-Zale* eta *Patria* Rosario.

1920ko hamarkadan hartu zuen benetako indarra euskal abertzaletasunak Ameriketara. Komunionista eta aberrianoen arteko zatiketek desadostasunak eragin zituzten zenbaitetan baina abertzaleek oinarriak sendotzen jarraitu zuten. 1924an Acción Nacionalista Vasca sortuko zen Argentinan, aurrerago Acción Vasca izena edukitzera pasako zena eta EAJ-k ofizialki bere “lurraldez kanpoko junta” bezala onartuko zuena. Delegazio honek *Nación Vasca* aldizkaria martxan jarri zuen urte berean eta jai egutegi nazionala ere ezarri zuen, honako egunak ospatuz: San Inazio, San Migel (alderdi eguna), San Francisco Javier (euskararen eguna), Sabino Aranaren heriotza eta Aberri Eguna: “En ellos la misa, el almuerzo, la música y las danzas típicas adquirirían la importancia de una reafirmación étnica, fiesta religiosa y, especialmente en este caso, un evento de trascendencia política” (Mignaburu, 2013: 59).

Euskal Herriko buruzagi abertzaleen artean eztabaida zabaldu zen Amerikan modu sistematikoan propaganda abertzalea egitearen komenigarritasunaz:

El ejemplo irlandés y la importancia que había tenido la colonia irlandesa de Estados Unidos como sostenedor moral y pecuniario del nacionalismo, había hecho despertar entre los dirigentes del nacionalismo la convicción de que convenientemente cuidada, la cantera americana podría ser determinante en el futuro del nacionalismo y en el logro de sus fines (Alvarez Gila, 2004: 380).

Horren adierazgarri, *Euzkadi* egunkariak Amerikari buruzko albisteak jasotzen zituen orri bat eskaintzen hasi zen astero. Bertan korrespontsal ezberdinek kolaboratzen zuten: Txiletik “Lautzi”, Argentinatik *Nación Vasca* aldizkaria, Uruguaitik *Euskal Ordua* irrati saioa edo Mexikotik “Etxeberri’tar” (Alvarez Gila, 2004).

1936rako euskal abertzaletasuna dezente garatuta zegoen Amerikan. EAJ-k “lurraldez kanpoko juntak” zituen Buenos Aires, Montevideo eta Santiago Txilen. Zenbait batzoki ere zabaldu ziren, hala nola, Rosario eta Santa Fe (Argentina) eta Melipillan (Txile). Aldi berean, aipatzekoa da Uruguaiako *Euskal Orduba* irrati saioak euskal zaletasunaren alde eginiko lana. Kuba eta Mexikon ere nazionalisten presentzia gorantz zihoala zioten zenbait txostenek eta Estatu Batuetan ere bazituen jarraitzaileak, nukleo handiena Nueva Yorkeko Centro Vasco Americano-n biltzen zelarik (San

Sebastian, 2018). Azkenik, Filipinetan sortutako taldea ere aipatu behar da, Ilo-Ilo hirian batzokia sortu baitzuten.

Amerikan euskal nazionalisten presentzia hartzen ari zen indarra ikusirik, Bilboko EAJ-k 1932tik aurrera “Censo de la Raza Vasca” egitea proposatu zuen. Honen helburua herrialde amerikarretan zeuden emigrante euskaldunak eta beraien oinordekoak zenbatu eta kokatzea zen. Lana ez zuten bukatu baina egindakoa probetxuzkoa izan zen, Gerra Zibilean pertsona horiekin kontaktatu eta euskal errefuxiatuentzat laguntza lortzeko erabili baitzituzten erroldako datuak (Tapiz Fernandez, 2002).

3.2. Euskal kazetaritzaren historia

3.2.1. Euskal kazetaritzaren historiari buruzko ikerketak

Prentsaren historiari buruzko ikerketak Leioako Informazio Zientzien Fakultatean hasi ziren sistematikoki burutzen Tuñon de Lararen ekimenez. Ikerketa horiek plazaratzeko Prentsaren Historiari Buruzko Ihardunaldiak antolatu ziren 1986an. Izan ere, komunikabideen historiak estatus zientifiko propio baten beharra zuen lantzen zituen esparru ezberdinei erantzuteko. Jardunaldien ekimenez prentsa historikoa mikrofilmatzeko eta ondoren digitalizatzeko laborategia ere sortu zen.

Hasteko, prentsa historia garaikidea ikertu eta idazteko ezinbesteko iturria zela ikusten zuten. Tuñon de Larak honako hiru puntuak zehazten zituen prentsa iturri onargarri bezala ezartzerakoan: 1. Aniztasuna; 2. Testuinguru historikoaren ezagutza eta baita orduko argitalpen garrantzitsuenena, aspektu politiko, sozioekonomiko eta idazketakoak kontuan hartuz; 3. Ez ahaztea, prentsa iturri gisa erabiltzean, informazioa, iritzi politikoa, literatura edo erreportajea izateaz gain, “ideologia” dela eta karga hori izan zuzenean ala zeharka beti presente dagoela (Tuñon de Lara, 1986: 14). Alegia, prentsak garaiko gertaerei buruzko informazioa eskaintzen du, eta aldi berean, prentsa organoa bera informazio iturri inportantea da (nork sortu zuen, noiz, nork irakurtzen zuen, zer kontatzen zuen, ildo ideologikoa, etab.).

Hori ikertzeko, garrantzitsua zen prentsaren historia bere horretan kontsideratzea. Hau da, estatus zientifiko propioa izan zezan beharrezkoa zen ezagutzarako objektu teoriko bezala definitzea eta historialariek planteatutako hipotesiak egiaztatzeke metodologia espezifiko bat zehaztea:

Tengo la convicción de que la historia de la prensa es como un microcosmos de la historia total de una formación social-histórica. Lo es toda su complejidad desde las estructuras empresariales y sus posibles conexiones con otras ramas de la producción y del cambio y desde el hecho fundamental de lanzar una mercancía *sui generis* al mercado, hasta los problemas jurídicos y de relaciones con el Poder, los aspectos estructurales (...) (Tuñon de Lara, 1986:14).

Modu honetara, behar bezalako zehaztasun zientifikoaz lantzen hasi zen prentsaren historia Tuñon de Lararen zuzendaritza pean, lan hipotesi berriak garatuz. I. Ihardunaldi horietan askotariko gaiak landu zituzten historialari ezberdinek, ikerketa horien inguruko artikuluak jardunaldien liburuan bilduta aurkitzen direlarik. Honakoak dira artikuluak lantzen dituzten ildo nagusiak: prentsaren historia lantzeko metodologia; ideologia eta informazioaren trataera; testuinguru ezberdinetan agerkariek izandako jarduna eta funtzioa; aspektu ekonomiko eta teknologikoak; Kataluniako prentsaren historiari buruzko zenbait ikerketa; eta azkenik, euskal prentsaren historiari buruzko hainbat ikerketa. Azken atal honi dagokionez, ez da diasporako euskal prentsaren inguruko artikulurik aurkitzen.

1990ean ospatutako II. Prentsaren Historiari Buruzko Ihardunaldiak “Comunicación, Cultura y Política durante la II República y la Guerra Civil” izenburu pean egingo ziren. Joseba Agirreazkuenagak jardunaldi honetarako eginiko “Prensa euskaraz: 1936.eko gudaldia eta lehen euskal Gobernuaren garaia” artikulua honela hasten zuen euskarazko prentsari buruz eginiko lanez hitz egiten:

Ez dugu oraindik orain ezagutzen zehatz mehatz euskal prentsari buruzko azterketarik (...). Beraz egiteke jarraituko du neurri batetan eta ondoko urteetan seguru asko baten batzuek helduko diotelakoan gaude (Agirreazkuenaga, 1990: 125).

Zeregin horri Javier Diaz Nocik (1992) ekingo zion bere doktorego tesia burutuz: *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Tesiarekin batera aztertutako argitalpenen katalogoa ere aurkeztu zuen. Tesiaren ardatza XX. mendeko 20. eta 30. hamarkadetako kazetaritza da, *Argia* astekaria garai hartako euskarazko prentsaren arketipo bihurtuta. Urte horietan, Munduko I. Gerra amaituta, masa komunikabideen laugarren belaunaldiari ekin zitzaion (Diaz Noci, 1992: 10).

Diaz Nociren tesian euskara erabili zuten aldizkari guztien ahalegina, pentsamoldea, egitasmoa eta ezaugarriak jasotzen dira. Donostiako liberalek 1834ean beraien *El Correo del Norte*-n lehen euskarazko artikulua argitaratu zutenetik, 1937an Eusko Jaurlaritzaren nahiari jarraituz *Eguna* euskara hutsezko lehen egunkaria irten zen arteko kontakizuna egiten du Diaz Nocik.

Hurrengo urteetan ere Diaz Nocik jarraituko zuen euskal prentsaren historia aztertzen artikulu interesgarriak argitaratuz. Horrela, Diaz Nocik (2012) euskal prentsaren historiari egin dion ekarpen garrantzitsuenetako bat “Historia del periodismo vasco (1600-2010)” lana da. Euskal kazetaritzaren ikuspegi orokor bat azaltzea da lan honen helburua, izan ere, Diaz Nociren esanetan:

A diferencia de lo que ha ocurrido en otros lugares del Estado, donde sí se han producido monografías sobre prensa provincial o regional, no tenemos aquí libros o estudios generales de ese tipo (Diaz Noci, 2012: 11).

Liburu honen ezagutza ezinbestekoa da euskal prentsaren historia ezagutu eta kokatzeko. Autorearen iritziz, berau da euskal prentsaren historia ikuspegi orokor batetik kontatzen saiatzen den lehen liburu. Amerikako prentsari buruz hitz egiten du bi kapitulutan: “La prensa vasca de América” eta “Los medios del exilio”. Bertan aurkitzen den informazioa Diaz Nocik berak beste argitalpen batzuetan idatzitakotik haratago ez doa. Lan honen garrantzia euskal prentsaren historia bere osotasunean ulertzeko ezinbestekoa dela da.

Euskal prentsari buruzko lehen monografia 1977an eman zen argitara Alfonso Carlos Saiz Valdivielsoren eskutik: *Triunfo y tragedia del periodismo vasco (1900-1939)*. Diaz Nociren ustez liburu honek XX. mendeko lehen hereneko prentsaren ibilbide interesgarri bat egiten du, baina metodologia aldetik mugatua da eta edukiak oso deskriptiboak dira. Gainera, saiakera horrek ez du jarraipen bat izan, hasitako bideari jarraitasun bat eman eta historia osatzeko (Diaz Noci, 2012: 15).

Katalogoei dagokienez, euskal prentsari buruzko katalogoak berandu egin dira, Valentzia, Madrid edo Katalunian egin diren lanekin alderatzen baditugu, XX. mende bukaera arte itxaron behar izan baita horien agerpenerako (Diaz Noci, 2012: 14). Garrantzitsuena Adolfo Ruiz de Gaunak (1991) eginiko *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX* da, ikertzaileentzat erreminta ezinbestekoa dena. Beste zenbait katalogo ere badaude egun eta horien artean aipagarriak dira aurretik aipatu bezala Diaz Nocik (1994) bere tesiarekin batera argitaratutako *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)* eta Joxe Mari Muxikak (2002) eginiko *Euskaraz idatzitako aldizkarien errolda: 1960-1999*. Arantxa

Arzamendik (2009) burututako *Catálogo de publicaciones periódicas donostiaras: 1800-1936* ere aipatu daiteke.

3.2.2. Euskal diaspora eta komunikabideen bilakaera Argentinan

3.2.2.1. Euskal prentsaren lehen ekimenak 1878an hasita

Foru tradizioaren galerak ere izan zuen oihartzuna Ameriketara eta kolektibitatearen garapenean beste urrats bat gehituz lehen Euskal Etxeak sortu ziren. Horrela, 1876an Montevideon sortu zen Laurac Bat lehen euskal etxea; 1877an Buenos Airesekoak jarraituko zion Laurac Bat izen berdinarekin; eta 1878an Habanako Sociedad Vasco-Navarra de Socorros Mutuos eratuko zen, euskal kolektibitateari hasiera emanez.

Hemen hasiko da lan honen helburua den Ameriketako diasporako euskal prentsaren ibilbidea. Izan ere, sortu eta denbora gutxira, euskal etxeek sustatuta agertuko zen prentsa instituzionala. Rio de la Platan, 1877an Montevideon eta 1878an Buenos Airesen, *Laurac Bat* (urte batzuk geroago ortografia aldatu eta *Laurak Bat* bihurtuko zirenak) izen berdineko aldizkariak argitaratu zituzten.

Euskal etxe berrien beste ezaugarri bat hegoaldeko euskaldunak soilik onartzen zirela zen eta instituzioak eratu ziren lehen momentutik eztabaida gai sutsua bihurtu zen mugaketa hori. Lehen bi euskal etxeen izenak, Laurak Bat, argi adierazten zuen erreferentzia estatu espainiarra zela eta euskalduntasuna horren barruan kokatzen zuen. Hain zuzen ere, Buenos Aireseko instituzioak bere bazkideentzako agerkaria argitaratu zuenean, goiburuan jartzeko Espainiako armari monarkiko tradizionalaren irudia aukeratu zuen (Alvarez Gila, 2019b: 92-93).

...que como nosotros aman al incomparable pais que puebla desde las márgenes del mar Cantábrico hasta la ribera del rio Garona, es decir el pais basco, es decir la familia euskara que bajo la bandera española y francesa, llora por las desgracias de su madre Euskaria (*Laurak Bat*: “Lo esperabamos”, 1883/07/30, 97.zbk, 1.or).

1882an Plaza Euskara inauguratu zutenean, bandera espainiar eta frantziarrarekin batera Pedro Soralezaren bandera edo “estandarte euskar” plazaratu zuten. Ikur berri hori segituan onartu zuten Buenos Aireseko kolektibitatean, eta horren erakusgarri, aldizkariaren goiburuan jarri zuten 1891n honen lehen etapa bukatu zen arte.

Era berean, ekimen enpresarial pribatuko prentsa agerkarien sorrera eman zen Ameriketako euskaldunen artean. Euskara hutsez idatzitako *Escualdun Gazeta* (1885) eta *California-ko Eskual Herria* (1893) astekariak izan ziren lehenengotarikoak. Estatu Batuetara joandako Ipar Euskal Herriko euskaldunen eskutik sortutako egitasmo hauek diasporako lehen euskarazko agerkariak ere izan ziren. Lehenbizikoaren egilea Martin V. Biscailuz abokatua izan zen eta bere ustez “munduko lehemisiko escualdun gaseta” idazten ari zen (Diaz Noci, 1992: 35).

California-ko Eskual Herria argitaratutako urte berdinean (honek bost urte iraun zituen), 1893an, beste aldizkari esanguratsu bat emango zen argitara Buenos Airesen, Jose Rufo Uriartek eta Francisco Grandmontagnek sortutako *La Vasconia* (ondoren *La Baskonia*) aldizkari kultural-intelektuala. Ekimen pribatuko prentsaren artean aldizkari arrakastatsuena eta enblematikoenen bihurtuko zen, urte luzez argitaratu izanagatik eta kalitate editorialagatik nabarmenduz. Ameriketako euskal prentsari buruz idazten lehengotarikoa izan zen Andoni de Astigarragak idatzi bezala: “Su colección es, no solo un pedazo de la historia de los vascos en América, sino de Euzkadi misma” (Astigarraga, 1981: 20).

Honen sorrera baino bi urte lehenago *Laurak Bat* aldizkariak ateratzeari utzia zion eta Buenos Aireseko euskal komunitatean hutsune kultural nabarmena zegoen, geroz eta ekitaldi kultural gutxiago antolatzen zirelarik. *La Baskonia*-ren etorrerarekin bertako euskaldunak hamar egunero jasotzen hasi ziren Argentinako euskal immigranteen artean gertatzen zenaren berri eta baita euskal lurraldeko gertakizunei buruzko informazio eta iruzkinak. Enrique Gandia historialari argentinarren hitzetan:

Esta revista, a la cual Uriarte dedicó su vida, fue el alma de los vascos en la Argentina. Se leía en las grandes ciudades, en las estancias y en pueblos de campo. Traía noticias de Vasconia que emocionaban a sus lectores, y estudios, muy serios, sobre temas históricos y filológicos euskéricos que dejaban boquiabiertos a los lectores argentinos que nada sabían de los misterios euskaldunes (Gandia, 1990 apud de Dios Altuna de Martina eta Álvarez Gila, 2010, p.347).



Irudia 2: *La Baskonia* aldizkariaren portada (1898/02/30, 159.zbk), Iparragirre eta bere familiaren erretratua.

Iturria: Urazandi Digitala.

Urte horietan beste zenbait prentsa ekimen ere burutuko dira Buenos Airesen, tartean iparraldeko euskaldunen eskutik argitaratu zen *Eskual Herria* (1898), *Haritza* (1899)⁵ eta *La Euskaria* (1906).

Hegoaldekoen eta iparraldekoen arteko bereizketa aldatu egingo zen herrialde gehienetan XX. mendearen etorrerarekin. “Abizen gabeko” euskal kolektibitatearen bateraketa 1880ko hamarkadan jazo zen Kuban, 1890ko hamarkadan Uruguain, XIX. mende bukaeran Argentinan eta 1960ko hamarkadan Estatu Batuetan (Alvarez Gila, 2019b: 68).

Ameriketako emigranteek Euskal Herri zaharrarekin lotura mantentzeko ahaleginak egiten zituzten, askok eta askok sentitzen zuten herrimina eta euskaldun izatearen harrotasunaren testigu. XIX. mendean, lehen euskal etxeak sortu eta euskal identitate bakarraren osaeran pausuak eman baziren, XX. mendea nazionalismoaren etorrerak baldintzatu zuen: “...possibly the clearest indicator of a continued Old World orientation was seen in the responsive chord that Basque nationalism struck in the thinking of many Latin American Basques” (Douglass eta Bilbao, 1975: 170).

Ez da erraza zehaztea noiz hasi zuen abertzaletasunak bere hedapena euskaldun-amerikarrengan. Badirudi 1903a data garrantzitsua izan zela, izan ere, Sabino Aranaren heriotzaren urte berean, Euzko Alderdi Jeltzaleko (EAJ) partaide aktibo ziren hogei

⁵ *La Baskonia*: “«Haitza»”, 1899/07/20, 209.zbk, 10.or

pertsona inguruko talde txiki bat Argentinan lehorreratu zen. Ez dakigu emigrazio honen arrazoiak ekonomikoak edo politikoak izan ziren (ez dago zantzurik esateko intentzio politiko bat egon zela Ameriketako lehen euskal abertzaleen iritsieran), baina iritsi eta segituan Rio de la Platan abertzaletasuna hedatzeko lanean hasi ziren (Alvarez Gila, 2019b: 244-245).

Euskal abertzaletasuna diaspora amerikarrean hedatzeko orduan prentsa funtsezkoa izango zen. Jendea konbentzitzeko mezua barreiatu behar zen. Horrela, 1903an Nemesio Olariagak (Andoain, 1854), Argentinara hamabost urterekin joana zenak, lehen aldizkari abertzalea sortu zuen Maipun (Buenos Aires): *Irrintzi*. Ameriketako diasporako lehen agerkari politikoa izan zen hau hogeita bi urtez banatu zen dohainik Argentinan, Uruguain edo Txilen eskatzen zuten etxeetara. Urte berean *La Vasconia* aldizkariak ortografia aranistara moldatuko zuen izena, *La Baskonia* bihurtuz.



Irudia 3: *Irrintzi* aldizkariaren portada (1908/07/15, 63.zbk), goiburuko ilustrazioa eta “Nuestros presos” titulu nagusia.
Iturria: Urazandi Digitala.

Nemesio Olariaga aitzindaria izan zen Argentinan Sabino Aranaren ideiak jarraitzen. Bera izan zen Amerikan ikurrina lau haizeetara jarri zuen lehena. Goizero bere landako estantzia guztietan eta baita Buenos Airesen zituen lokaletan ikurrina ateratzen zuen bandera argentinarrarekin batera: “Mi padre hacía izar todas las mañanas en sus estancias las dos Banderas: la Argentina y la Vasca” (Ezkerro, 2004: 75). Olariaga kazetari, propagandista eta abertzale amorratua izan zen eta arrasto nabarmena utzi zuen Argentinako euskal komunitatean.

Era berean, funtsezkoa izango zen Sebastian Amorrortuk zabaldutako inprenta, “Artes Gráficas. Sebastián de Amorrortu e hijos, S.A.”, bertan inprimatuko baitziren argitalpen abertzaleak. Prentsa gain, nazionalistak euskal instituzioetan sartu ziren komunitatearengan eragiteko asmotan. Abertzaletasuna euskal kolektibitatearen elean sartzearekin bat bi joera bereizi ziren: abertzaleak eta espainolista (“vascos” eta “vascongados”): “Las renovadas ideas provocaron conflictos por la política cultural y simbólica como refuerzo de la identidad y la diversificación de actividades sociales y educativas sin restar peso a la religión del nacionalismo vasco en la emigración” (García Sebastiani, 2020: 51).

Hurrengo hamarkadan batzuen eta besteen arteko eztabaida gogorak eman ziren, Buenos Aireseko Laurak Bat izanik erdigune Rio de la Platan zuen garrantziagatik. 1912an abertzaleek bertako presidentzia galdu zuten, eta horren aurrean, instituzio berriak eratzea erabaki zuten. Rosario, Argentinako bigarren hiri populatuenean, ekin zioten lan horri bertan ere euskal komunitatea zabala baitzen. Euskal etxe berriak Zazpirak Bat izena hartuko zuen, beraien ustetan horrek adierazten baitzuen benetan euskaldun guztien batura eta ez Buenos Aireseko Laurak Bat-ek. Horrela, urte horietan beste zenbait prentsa argitalpen abertzale agertu ziren Argentinan, hala nola, *Euzkotarra* (1913) eta *Euskalduna* (1921) Buenos Airesen eta *Aitor* (1915) eta bere segida izan ziren *Egi-Zale* eta *Patria* Rosario (Alvarez Gila, 2000).

1920ko hamarkadan hartu zuen benetako indarra euskal abertzaletasunak Ameriketara. Komunista eta aberrianoen arteko zatiketek desadostasunak eragin zituzten zenbaitetan baina abertzaleek oinarriak sendotzen jarraitu zuten. 1924an Acción Nacionalista Vasca sortuko zen Argentinan, aurrerago Acción Vasca izena edukitzera pasako zena eta EAJ-k ofizialki bere “lurrez kanpoko junta” bezala onartuko zuena. Delegazio honek *Nación Vasca* aldiakaria martxan jarri zuen urte berean eta jai egutegi nazionala ere ezarri zuen: “En ellos la misa, el almuerzo, la música y las danzas típicas adquirirían la importancia de una reafirmación étnica, fiesta religiosa y, especialmente en este caso, un evento de trascendencia política” (Mignaburu, 2013: 59).

3.2.2.2. 1936ko Espainiako Gerra Zibila eta erbesteko argitalpenak

Euskal erbestean kazetaritzan jardun zutenek askotariko lanak burutu behar izan zituzten, egunkari eta aldizkariak argitaratzetik hasi eta lan editoriala burutzeraino. Beraien jarduna kazetaritza, literatura eta politikaren artean mugitu zen. Nazioarteko gertakizunek eta deserriko berezitasunek eragina izango zuten aldizkarien bilakaera gorabeheratsuan: “Permanece, no obstante, el testimonio de una importante aportación colectiva” (Hermoso eta Rodriguez, 1994: 45-46).

Nación Vasca aldizkaria urrian atera zen lehenbizikoz altxamendu militarra gertatu ostean eta modu honetara mintzo zen zenbaki horretako editorialean (San Sebastian, 2014 apud Hermoso eta Rodriguez, 1994, p.50):

Tal y tanta es la confusión que se advierte en los actuales momentos a través de las agencias informativas, tanta es la confusión sembrada en torno a la actuación del Partido Nacionalista Vasco, que la más elemental prudencia nos aconseja suspender momentáneamente nuestro fallo mientras no nos lleguen noticias concretas y fidedignas, noticias oficiales directas, provenientes de las autoridades de nuestro partido.

Espainiako Gerra Zibilean frankistek lortutako garaipenak abertzaletasunaren hedapena ekarriko zuen Ameriketara, hau da, errefuxiatuen etorrerak bultzada berri bat eman zion asoziazionismoari. Euskal Herritik heldu berriek, ideologikoki oso mobilizatuta egonik eta erruduntasun sentimendu nabarmena izanik, arrasto sakona utzi zuten harrera egin zieten euskal komunitateetan:

In the Basque organizations that received political exiles from the Civil War, the contemporary ethnic identity of the Basque descendants is more political, more nationalist, and more separatist than communities that did not have exiles join their towns and cities (Totoricagüena, 2005: 279).

Hainbat herrialdetan gertatu zen aldizkarien loratzea. Erbesteratuek benetako zuzendaritza kulturala aurrera eramane zuten urteetan zehar (Alvarez Gila, 2004: 381) eta emigrazio politiko horrek aldizkarietan ere izan zuen eragina. Horrela, hego Ameriketako argitalpenek iparraldekoek baino kutsu politikoagoa dute (Mehats, 2005: 289).

Herrialde hartzaileetako gobernuek Francoren jarduna gaitzetsi zezaten eragiten ere saiatu ziren. Espainiatik iristen zen informazio ofiziala arbuiatu eta kontaktu pertsonalen bidez edo ordurako ezarria zegoen prentsa abertzalearen eta informazio sarearen bidez lortutako berriak argitara emanaz. Hala ere, ez zen erraza espainiar komunikabideen desinformazio kanpainari aurre egitea, euskaldun guztiak komunizatzat eta antikatolikotzat jotzen zituena (Totoricagüena, 2005: 291).

Frankismoaren urte gogorretan Eusko Jaurlaritza sortu berriaren lana ere goraiatzekoa izan zen. Euskal Herrian bizitza laburra eduki arren, erbestetik lanean jarraitu zuen. Kolonia eusko-amerikarrekin kontaktuak ezarri eta hainbat delegatu bidali zituen diasporako herrialdeetara, zituen posibilitate mugatuaren barruan betiere. Agirre lehendakariak Amerikako herrialde ezberdinak bisitatuz egindako birek, ondoren Leizaolak ere jarraipena emango zienak, garrantzia handia izan zuten diasporaren garapenean. Argentinan ondorio nabarmenena euskal etxe berrien irekiera izan zen, 1940ko hamarkadan kopurua bikoiztu egin zelarik herrialde osoan (Alvarez Gila, 2004: 380).

Paulo Iztuetak (2019) bere lanean zehazten du frankismo garaian, gerra zibilarekin hasi eta Francoren heriotzarekin amaitzen dena, bi belaunaldi ezberdinei dagokien bi erbeste politiko ezberdin bereizten direla. Horrela, bi belaunaldi horien bereizketa erbesteko argitalpenak kokatzeko ere beharrezkoa da. Lehena, “erbeste errepublikarra” gisa izendatu izan da. Bertan, gerra zibileko gertakizunetan zuzenean edo zeharka parte hartu eta gerraren ondorioz erbesteratu behar izan zirenak sartuko lirateke. Bigarrena, “euskal abertzaletasun iraultzailearen erbestea” izendatzen du Iztuetak. Gerraosteko belaunaldi honek 1950eko hamarkada bukaeran eta 1960 hasieran izango zuen batik bat protagonismo sozial eta kulturala, hain zuzen ere, abertzaletasun historiko autonomistaren krisia eta abertzaletasun iraultzaile independentistaren agerpena gertatu zen urteetan. Belaunaldi hau ETA-ren fenomenoaren inguruan garatuko zen batez ere eta honen ondorioz etorriko zen erbesteratzea Burgosko auziaren aurretik 60ko hamarkadaren bukaeran gertatuko zen.

Erbesteko euskal aldizkariak dagokienez, esan behar da aldizkari gehienek euskal abertzaletasunari lotutako ideiak defendatzen zituztela. Horietako asko Eusko

Jaurlaritzak sustatuta edo bere laguntzarekin sortuko ziren. Beste zenbait argitalpenek ildo ideologiko errepublikarrari jarraituko zioten. Mexikon erbestera sozialista eta komunisten argitalpenek presentzia nabarmena zuten bitartean, Argentinan eta Venezuelan abertzaleen aldizkariak izango ziren nabarmen gehiengoa. Bi aldeetan helburua berdina izango zen: "...buscaban agrupar a los miembros de las comunidades respectivas en aquellos ideales comunes que se iban apagando por obra y gracia del tiempo y de la dispersión" (Hermoso eta Rodriguez, 1994: 45-46). Horrez gain, euskal erbesteko argitalpenez hitz egiten denean, ez dira erraz bereizten erbesteratuek sortutako agerkariak eta ordurako bertan finkatuta zeuden euskaldunek argitaratutakoak.

Argentinako erbesteari dagokionez, 1938ko azaroan iritsi zen Buenos Airesera Ameriketako bigarren euskal delegazioa, lehena Estatu Batuetan ezarri zen, berau Ramon Maria Aldasoro, Isaac Lopez Mendizabal, Santiago Cunchillos eta Pablo Archancok osatzen zutelarik. Bertan aurkitu zuten egoera herrialde estatubatuarrean zegoenaren oso bestelakoa izan zen. Izan ere, Argentinan Europarekin lotura sendoagoa mantentzen zuten eta euskal kolonia ugariak bazuen talde kohesioa (Zabala, 1994: 90). Horrela, Argentinaren kasuan bete-betean betetzen zen ondorengo egoera:

...con anterioridad a la llegada de los exiliados a los países americanos anfitriones, antes de que el Gobierno Vasco estableciera sus propias Delegaciones, existían en algunos países publicaciones periódicas de inspiración vasquista e, incluso, nacionalista. En estos casos, pues, no se partía de cero, sino que se daba continuación a una tradición cultural vasca viva, consolidándola con nuevas publicaciones de tinte más bien político (Iztueta, 2019: 37).

1939ko maiatzaren 10ean *Euzko Deya*, "La voz de los vascos en América", agertu zen lehenbizikoz Buenos Airesen. Eusko Jaurlaritzaren aldizkari politiko ofiziala izan zena, erbesteko euskal komunikabideen artean bizitza luzeenetakoa izan zuena bilakatu zen. Azken zenbakia 1975eko abenduan argitaratuko zen, 668 zenbaki argitara eman ostean. Lehen etapan Ramon Maria Aldasoro (1939-1946) izan zen zuzendaria, honi Francisco Basterretxeak (1946-1951) eta Pedro Basalduak (1951-1975) eman ziotelarik jarraipena.



Irudia 4: *Euzko Deya* aldizkariaren portada (1939/05/30, 3.zbk).
Iturria: Urazandi Digitala.

Hurrengo urteetan aldizkari berriak sortzen joango ziren Argentinan, eta horretarako, funtsezko faktore bilakatuko ziren herrialdean zehar banatutako euskal etxe ugariak. Horien artean aipatu daitezke, 1944an Mar de Platan sortu zen *Denak Bat* edo 1945ean izen berdinarekin Lomas de Zamoran argitaratuko zena.

1945ean baita ere, *Galeuzca* argitalpena agertu zen euskaldun, galiziar eta katalanen elkarlanaren fruitu bezala. 1933an Konpostelako Ituna sinatu ostean eratu zen aliantza, 1944an Mexikon berriz sinatu zuten eta 1945eko abuztuan Buenos Airesen jarraipena eman zitzaion. Aldizkariak eduki politikoak izan zituen gehienbat eta urte bateko iraupena eduki zuen, 12 zenbaki argitaratuz.

1950ean garrantzi handiko aldizkari kulturala sortu zen, hain zuzen ere, *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*. 1975erarte luzatu zen bere ibilbidea “Ustea ez da jakitea: Gurea berritzen” lema jarraituz: “pretendía, tal y como indica el mismo, proporcionar bases científicas e históricas a la reivindicación nacionalista, tratando de fundir a la vez lo vasco y lo argentino” (Zabala, 1994: 92). Agerkaria hiru hilabetero argitaratzen zen Ekin argitaletxearen eskutik eta bere zuzendariak Gabino Garriga, Bonifazio Ataun eta, azkenik, Andres Irujo izan ziren, azken hau izan zelarik buletinaren bultzatzaile nagusia.

Aipatu beharreko beste aldizkari bat *Euskalzaleak* izan zen, izan ere, euskara hutsez idatzitako gutxitakoa izan zen: “Tampoco supone un sorpresa constatar que la lengua mayormente usada es el español, porque, incluso en los clasificados como publicaciones bilingües, el porcentaje del uso del euskara es ínfimo, en la mayoría de los casos no

superior al 10%” (Iztueta, 2019: 12). *Euskalzaleak* aldizkaria euskara zabaldu eta erakustea helburu zuen izen bereko instituzioaren ahotsa izan zen eta 1954-1956 urteen artean 13 zenbaki eman zituen argitara Iñaki Azpiazuaren zuzendaritza pean. Era berean, aipatzekoa da *Gernika* aldizkari kulturala Donibane Lohitzunen editatua izatetik Buenos Airesen argitaratzera pasatuko dela 1951-1953 artean.

1956an *Tierra Vasca. Eusko Lurra* aldizkaria agertu zen Buenos Airesen eta bi hamarkadaz Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) alderdiaren ahotsa bihurtu zen itsasoz bestalde. Aldizkaria Donostian argitaratu zuen alderdiak lehendabizikoz 1933an, baina gerrako gertakizunen ondorioz Bilbo eta Baionara mugitu behar izan zuten. Zenbait urte geroago Buenos Airesen berragertuko zen Jose Olivares Larrondo “Tellagorri” kazetariak zuzendurik. Tellagorri aldizkariaren Bilboko garaian zuzendaria izana zen eta 1960an zendu zenean, Pello Mari Irujok hartuko zuen aldizkariaren zuzendaritza. Aldizkarian ideologia ezberdineko sinadurak aurkitu daitezke, CNT-tik hasi eta Enbataraino, izan ere, frankismoari aurre egingo zion planteamendu bateratzailea ezarri zen oinarrian.



Irudia 5: *Tierra Vasca. Eusko Lurra* aldizkariaren portada (1973/12, 210.zbk).
Iturria: Urazandi Digitala.

Bukatzeko, ETA-ren sorrerak eta jardunak ere izan zuen oihartzuna diaspora amerikarrean. Argitaratutako zenbait buletinetan ETA-ren sinadura aurkitu daiteke. Argentinan horren adibide dugu 1972-1974 urteen artean argitaratu zen *Zutik* aldizkaria. Horrez gain, Burgosko auziaren epaiketak ere zenbait euskal komunitate mugiarazi zituen. Australia, Estatu Batuak, Uruguai eta Argentinako euskaldunak beraien herrialdeko gobernuan eragiten saiatu ziren (Toticagüena, 2005: 302).

3.2.2.3. Satellite bidezko komunikazioa eta Canal Vasco

XX. mendearen lehen erdialdean nazioarteko komunikazioa zabalduz joan zen, haririk gabeko komunikazioa eta irrati-difusio teknologia garatuz joan zirelarik. Horrela, 1960ko hamarkadan paradigma berri bat agertzen hasi zen, telekomunikazioaren arloan jazotako berrikuntzek bultzatuta. Satellite bidezko telebistek soinua eta irudiak berehala eta mundu osora hedatzea ahalbidetu zuten: “From a technological perspective, the world became a global village” (Chalaby, 2005a: 29).

Migratzaileei zuzendutako komunikabide transnazionalak deitzen zaizkie, jatorrizko hizkuntza eta kultura partekatu arren muga igarota barreiatzen diren audientziei zuzendutako komunikabideei. 1980ko hamarkada erdialdetik aurrera, hedabide ugariak satellite bidezko kanalak aireratu zituzten itsasoz gaindi aurkitzen ziren ikusleengana iristeko muga nazionalez haratago. Kanal horiek normalean aurretik etxeko merkaturako ekoiztutako saioekin osatzen zuten beraien programazioa (Chalaby, 2009).



Irudia 6: Canal Vasco eta ETBSat-en logotipoak.

EITB 1996ko abenduaren 31n hasi zen irrati eta telebista nazioartean hedatzen. Galiziako TVG eta Kataluniako TV kateekin batera Galeusca kanala sortu zuten eta satellite bidez Ameriketara iristen zen kanala. Hala ere, lehen esperientzia horrek ez zuen luzaroan iraun eta 1998ko irailean desagertu zen. EITBk bere kabuz aritzea erabaki zuen eta 1998ko abenduaren 31n ETBSat nazioarteko kanal propioa eratu zuen. Honen seinalea Latinoamerika osora eta AEB-tako ekialdeko kostara heltzen zen. Egun osoko programazioa eskaintzen zuen, ia saio guztiak ETB1 eta ETB2koak zirelarik eta euskararen presentzia oso urriarekin. 2000ko maiatzean bitan banatu zuen ETBk nazioarteko kanala. Alde batetik, Amerika eta batez ere Latinoamerikara zuzendu zen kanalak Canal Vasco izena hartu zuen, ikusleria gazteleradunaren artean errazago zabaltzeko. Bestetik, Europara hedatuko zen kanalak ETBSat izen berdinarekin jarraituko zuen. Bi telebista kanal horiekin batera Euskadi Irratia eta Radio Euskadiren

seinaleak ere hedatzen ziren. Era berean, telebista kanalak internet bidez kalitate egokiarekin ikusteko (irradiaren kasuan arazorik gabe entzun zitekeen konexioa edukiz gero) urratsak ematen hasi ziren.

Horrela, kanpora joandako euskaldunek geroz eta aukera gehiago zituzten beraien herrialde berriko etxean sartu eta Euskal Herriarekin konektatzeko:

Minutu edo ordu batzuetan zehar, hamaika mila kilometrotara dagoenari Euskal Herria bizitzeko bidea ematen dio satellite bidezko telebistak. Bizipen birtuala da, nolabait esateko, kristalezko pantailak ematen diona; baina neurri batean, ez da Euskal Herrian ordu berean saio berbera ikusten ari denaren bizipena baino birtualagoa (Amezaga, 2004: 13).

Globalizazio testuinguru honetan beharrezkoa da komunikabideek nazio bateko herritarren artean duten funtzioa ulertzea. Horrela, nazionalismoaren garapenean prentsa idatziak eduki zuen garrantzia azpimarratu izan den bezala, irrati eta telebistak estatu-nazioetako homogeneousatze kulturalen izandako garrantzia ere nabarmena da (Amezaga, 2004). Teknologia berrien garapenak eragin zuzena eduki du migratzaileei zuzendutako komunikabideen ekoizpen eta kontsumoan. Komunikabide transnazional horiek ezin dira egun ulertu nazio-estatu mugen barruan, muga horiek gainditu eta migratzaileei kultura ezberdinen artean mugitzeko aukera eskaintzen baitiete: “the nation-centric discourse cannot deal appropriately with the diversity and complexity of transnational television. (...) They face the challenge of transnationality more than they challenge national boundaries” (Chalaby, 2005b: 171).

Amezagak diasporako euskaldunek Canal Vascorekin egindako erabilera euskal nortasuna birsortzeko burutzen dituzten bestelako praktiken testuinguruan txertatzen du. Euskal kanala bertako euskaldunen elkarrizketa gaia bihurtuta komunitatea trinkotu egiten da, izan ere, euskaltasunak familia giroko esparrura mugatu gabe espazio zabalagoa hartzen du. Horrez gain, Euskal Herrian eta Latinoamerikan dauden euskaldunak, milaka kilometrotara egon arren, aldi berean gauza bera ikusten aritzeak komunitatearen zentzua berrindartzen du. Horrela, komunikabide berriei esker diasporako euskal nortasunak beste dimentsio bat hartzen du, iraganetik orainerako jauzia egiten du, begirale hutsa izatetik parte hartu dezakeen errealitate baten subjektu bihurtuz (Amezaga, 2004).

Beraz, informazio eta komunikazio teknologia berriak funtsezkoak izan dira diasporako euskal nortasuna eraldatu eta gaurkotzeko orduan. Satelite bidezko telebistaren erabilera jatorrizko lurraldera egindako bidaia batekin alderatu daiteke. Kanpoan dauden euskaldunek Euskal Herrira gerturatzeko esperientzia digitala bizitzeko aukera eduki dute, eta horrek, espazio zein denboran zeharreko bidaia eskaini die. Amezagak bi jarrera bereizten ditu Latinoamerikako euskaldunek artean Canal Vascoren erabilerarekiko: jagotea eta eraikitzea. Lehenengok, aurretik definitutako euskaltasuna berrindartzen dute euskal telebista ikusiz eta jarrera kritikoagoa erakusten dute edukiekiko. Bigarrenek, aldiz, euskal nortasuna eraikitzen ari direnez, aurreiritzi malguagoak dituzte eta bertan ikusitakoarekin osatzen dute euskaltasunaren puzzlea. Argentinako euskaldunen kasuan, emigratio belaunaldi zaharragoen ondorengoak izanik, lotura ez da horren gertukoa eta definizio prozesuan dagoen nortasuna antzeman daiteke. Horren adibide, kirolez hitz egitean, venezuelarrek argiago erakusten dute “geure” euskal kirolez ari direla, argentinarrek kirol batzuk eta besteak horren argi bereizten ez dituzten bitartean. Gainera, argentinarrek euskararen ezagutza urriagoa eduki arren, euskarazko saiokiko atxikimendu handiagoa erakusten dute, Euskal Herria deskubritzen ari denaren jakin-minaren erakusgarri (Amezaga, 2004).

Horrela gauzak, esan daiteke satelite bidezko komunikazioak migratzaileek egiten duten komunikabideen kontsumoa nabarmen eraldatu duela. Zenbait gobernu beraien diasporako herritarrengan eragin eta herrialdearen irudi jakin bat mundura zabaltzen saiatu dira teknologia berriei etekina ateraz. Hala ere, migratzaileen jardunean eragitea geroz eta zailagoa da, teknologia berriek beraien ere aukera gehiago eta askatasuna ahalbidetzen baitizkiete. Migratzaileak beraien esperientzia eta identitate transnazonala garatzen ari dira mundu globalizatuan: “Migrant media add diversity and choice for migrants, but within an increasingly globalised media culture” (Chalaby, 2009: 12).

Nazioarteko euskal telebistari dagokionez, Canal Vascoren kasuan ikusten da Latinoamerikako euskaldunek telebistaren bidez Euskal Herriko eguneroko errealitatea jarraituz jatorrizko komunitatearekin atxikimendua sendotzen dutela. Euskal Herriaren inguruko estereotipo positibo berriak eraikiz eta negatiboak uxatuz, diasporako kideek beraien euskalduntasuna bi modutara sendotzen dute: norberaren buruaren aurrean

autobaiespena lortzen laguntzen die eta sozialki irudi ona duen talde bateko kide gisa agertzen dira besteen aurrean. Beraz, nazioarteko euskal telebistak funtzio garrantzitsua bete du urteetan zehar, izan ere, “munduan zehar sakabanatuta dauden «euskal enbaxadorei» berebiziko lehengaia eskuratzen baitie: lehen mailako informazioa eta analisia, alegia” (Amezaga, 2004: 188).

3.2.2.4. Internet eta sare sozialak euskal diasporan

1990eko hamarkadatik, diasporako euskal instituzioak ziberespazioan lekua hartzen joan dira eta beraien presentzia berrikuntza sozial eta teknologikoetara moldatzen saiatu dira. Diasporako asoziazioek Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) beraien agendan txertatzen lan egin dute, eta horrek, informazio eta jakintzara lehen ez bezalako sarbidea eman die. Horrela, teknologia berriak erabiltzeko hautua egin dute beraien helburu instituzionalen, plan estrategikoen eta ekintzen mesedetan. Azterketek erakutsi dute diasporako instituzioek moldagarritasun dinamikoa izan dutela web teknologia berriak erabiltzerako orduan eta baita sarean komunikazioa eta interakzioa sustatu dituztela (Oiarzabal, 2010). Euskal diasporako kideek Canal Vascorekin egiten duten erabilerarekin alderatuz honakoa dio Oiarzabalek:

When one considers the specific characteristics of the Internet and the web, their potentiality for enhancing or strengthening identity maintenance in the diaspora is higher than other media, such as Canal Vasco, where the viewer is a mere receptor or consumer of a culture produced or tailored not only for Basque viewers but for the general Latin American population. On the web, diaspora Basques are not only consumers of a predetermined culture, but also producers of culture (Oiarzabal, 2013: 101).

Oiarzabalen iritziz, *offline* eta *online* espazioak ezin dira bereizita ulertu. Diasporek, bizi duten distantzia geografiko eta denborazkoaren ondorioz, jatorri, identitate eta kultura komun bat partekatzen duten komunitate imajinatu gisa ikusten dute beraien burua. Euskal diasporako komunitateak bere identitatea mantendu eta birsortzeko aukera du interneten bidez, mugarik gabeko audientzia batengana iritsiz: “In this case, the Basque diaspora community is an online imagined community that is part of a wider, heterogeneous, imagined Basque community that encompasses both the online and non-online communities (Oiarzabal, 2013: 39-40)”.

1997an, euskal diasporan 61 elkarte zeuden mundu osoan eta bakarra zegoen online. 2005ean, 189 asoziazio zeuden 22 herrialdetan banatuta eta horietatik %52k zuen online presentzia 16 herrialdetan. 2009rako, diasporan 211 asoziazio zeuden 24 herrialdetan eta horietatik 135k (%64 inguruk) zuten presentzia ziberespazioan 20 herrialdetan (Oiarzabal, 2013).

Oiarzabalek eginiko ikerketaren arabera, 2005etik eboluzio garbi bat eman da euskal diasporan online plataformen erabileran. 2005 eta 2007 urteen artean, euskaldunen ikuspegi digitala web-orrialdeek osatzen zuten batik bat, eta 2007 eta 2009 urteen artean berriz, sare sozialek indarra hartu zuten (lehenbizi blogek- Fotologek eta Bloggerrek gehienbat- eta ondoren Myspacek eta Facebookek) web-orrialdeen kalterako. Euskal diaspora digitala paisaia berri bat sortzen ari da, baina hasierako espazioak guztiz alde batera utzi gabe. Horrela, Web 1.0 eta Web 2.0 espazioak konbinatuz espazio hibrido eta saretu bat osatuz doa euskal komunitate digitala (Oiarzabal, 2013).

Hala ere, kontuan hartu behar da arrakala digitala deitzen dena, euskal diasporako hainbat komunitatek sarbide mugatua baitute internet eta IKT-etara, teknologia berrien inpaktua asimetrikoa bihurtuz. 2009ko martxoan, diasporako instituzioen %36ak ez zeukan ziberespazioan presentziarik, eta bitartean, zenbait komunitatek handitu egiten zuten bere sareko jarduna online plataforma ezberdinetan aurrera eramanez (Oiarzabal, 2010).

Era berean, esan beharra dago Internetek zenbait instituzio berrien presentzia handietsi egiten duela. Erresuma Batuko edo Kanadako instituzio guztiek webguneak dituzten bitartean, Argentinako euskal etxe ugari ez dute presentziarik sarean. Horrela, Interneten bidez instituzio txikiak eta historia luzeko elkarte garrantzitsuak maila berdinean jartzen dira. Horrez gain, euskarari dagokionez, euskara euskal identitatearen zutabetzat kontsideratu arren, webguneetan euskararen presentzia urria da, zenbait esaldi, hitz eta epigrafeetara mugatuz bere erabilera (Oiarzabal, 2013).

Webguneei dagokienez, Oiarzabalek uste du euskal diasporako intelektualak informazio gaurkotua eta interakzioa eskaintzearen garrantziaz jabe diren arren,

praktikan huts egiten dutela online sarearen aukerak probesterakoan. Horrela, webguneak ez dira erregulartasunez eguneratzen, interakzioa gutxi sustatzen da eta audientzia global batera iristeko aukerei muzin egiten zaie, webmasterrek gertuko kideengana zuzentzen baitituzte edukiak gehienbat (Oiarzabal, 2013).

Oiarzabalek diasporako asoziazioen Facebook kontuen ikerketa bat ere burutu zuen. 2010ean datuak biltzeko online inkesta bat burutu zuen 75 instituzioren kontutako erabiltzaileen artean. Erabiltzaile gehienek aitortu zuten Facebookek bazuela eragina diasporako kideen artean kontaktuak egitean, informatuta egon eta identitatea mantentzerako orduan, eta batez ere kultura partekatzeke espazio moduan (Oiarzabal, 2012).



Irudia 7: Buenos Aireseko Laurak Bat euskal etxearen Facebook orrialdea.

2013ko ekainerako, 143 Facebook talde zeuden sortuta 19 herrialde ezberdinetan eta 2015ean 26 herrialdeko 200 asoziazioak zuten presentzia sare sozial horretan. Euskal diasporako kideek Facebooken egin duten erabileran ikusi da plataforma honek kapital soziala sortzeko eduki duen garrantzia. Sare sozialari buruzko iritzi positiboek erabiltzaileen arteko interakzioen balioa eta interes berdinak eta jatorri komuna partekatzen dituzten lagun berriak ezagutzearen garrantzia azpimarratzen dute. Horrela, beraien kapital soziala gertuko eremutik zabaldu egiten da, komunikazio horren inbertsio emozional eta afektiboa nabarmenduz. Euskal diasporako kideen artean zenbait emozio funtsezkoak bihurtzen dira komunitatearen parte sentitzerako orduan: bakardade edo isolamendu sententzia eta online interakzioak dakarren batasuna; interesa eta mirespenari lotuta datorren enpatia; eta azkenik, euskararen berezitasunak eragiten duen harrotasuna (Oiarzabal, 2019).

Bide beretik, Koldo Diaz Bizkarguenagak eta Raphael Tsavkko Garciak (2015), diasporako euskaldunen blog eta sare sozialak aztertzean, uste dute gizartea elkartzen den espazio berri bat sortzen ari dela. Espazio berri honek lokalizazio geografikoaren aldaketa dakar, izan ere, gazteek konektatzen diren lekuaren arabera osatzen dute beraien identitatea; espazioa eta denbora desegiten dituen berehalakotasunaz gainera. Horrela, *offline* eta *online* dimentsioek errealitate berri bat eraikitzen dute, herrialde digitalaren (“país digital”) lurraldea, hain zuzen ere.

Tsavkko Garciak (2018b) bere aldetik, Argentinako euskaldunek Internet militantzia politikorako nola erabiltzen duten aztertzen du, ezker abertzalearen inguruko taldeetan zentratuz. Horretarako, zenbait talde eta ekimenen jarraipena egiten du bere lanean, hala nola, *JO TA KE Rosario*, *Asociación Diaspora Vasca*, *Euskal Herriaren Lagunak*, *Red Independentistak*, etab. Talde guzti horiek EAJ-ri lotutako diskurtsoaren alternatiba sortzen saiatzen dira diasporan eta online espazioak propaganda eta zabalkunderako aukera eskaintzen dizkie. Talde gehienek gai garrantzitsuetarako aurrez aurrekoa nahigo duten arren, internet baliabide eraginkorra da ekintza politikorako. Eguneroko agenda politikoan baino (hauteskundeak), gai zabalagoetan (erabakitzeko eskubidean edo presoen auzian) presioa burutzeraz bideratzen dituzte beraien indarrak. Gainera, Tsavkko Garciak diasporan aurkitzen diren bestelako talde minorizatu batzuekin (kurduak, tamilak, etab.) alderatzen du euskaldunen kasua, zenbait antzekotasun azpimarratuz.

Orokorrean, Oiarzabalen ustez (2013) euskal diaspora digitala espazio estatiko eta entziklopedikoetatik mugitzen hasi da, bere presentzia dinamikoagoa eta parte-hartzaileagoa bihurtuz. Interesa eta errepresentazioa ardatz zuten komunitateetatik, erlazio eta interakzioetan oinarritutako komunitateetara mugitzen ari dira euskal diasporako espazio digitala. Informazioa erakutsia izate hutsetik, erabiltzaileek informazioa sortu eta modu eraikitzailean partekatzeko aukera duten espazioak sortzera pasa dira. Horrela, Internetek modu horizontal batean euskal diasporako komunitatea interkonektatuta egotea ahalbidetzen du: “The web is a form of media for cultural preservation and transmission for the twenty-first century just as the diaspora’s institutional newspapers, newsletters, or radio programs were in the nineteenth and twentieth centuries (Oiarzabal, 2013: 205)”.

3.3. Diaspora, emigrazioa eta komunikabideak

Diasporek estatu-nazioen mugetatik haratago doan komunitate zentzu bat erakusten dute. Identitate transnazional bat eratzen dute eta “gu” baten parte izatearen sentimenduak batzen ditu. Erantzukizun eta betebeharrak eskatzen ditu, norbere buruarekin eta taldearekin, arbasoekin eta ondorengoekin (Totoricagüena, 2005: 32).

Diaspora kontzeptua judutarrak Babiloniara erbesteratuak izan zireneko ideiarri lotuta dago oinarrian. Hau da, diasporaren ideia judutar tradizioetik edo biktima tradizioetik eratortzen da. Hala ere, azken hamarkadetan diaspora kontzeptua modu zabalagoan erabili izan da eta kategoria ezberdinak (deserriratuak, kanporatuak, errefuxiatu politikoak, atzerritarrak, immigranteak edo etnia edo arraza gutxiengoak) barnebiltzen ditu (Cohen, 1996).

Robin Cohen soziologoak, William Safranen lana oinarritzat hartuta, diaspora baten “ezaugarri komunak” diren bederatzi puntu garatzen ditu. Alabaina, diaspora batek ere ez ditu ezaugarri guzti horiek aldi berean erakusten eta denboran zehar moldatuz joaten dira. Diasporek fase ezberdinak bizitzen dituzte beraien migrazio-historian eta “denbora bat pasa behar da” migratu duen komunitate bat “egiaz diaspora bat dela” esan ahal izateko (Cohen, 1996: 516).

Horrela, immigrazio aldiak, herrialde hartzailean eduki duten integrazio maila eta jatorrizko lurraldearekin zein talde transnazionalerako beste kide batzuekin mantendu dituzten loturak baldintzaturik, diasporak geruza ezberdinez osatuta egoten dira:

This layering has resulted in the wide variations of connections and attachments that such worldwide communities have to each other. Retention of ancestral customs, language and religion, marriage patterns, and particularly the ease of communication between various parts of the transnational group help determine its characteristics (Karim, 2003: 4).

Migrazioaren fenomenoak “anitz eta konplexua” da teoria bakar batek azal dezan Joaquin Arango soziologoaren ustetan. Diasporaren teoriari buruzko ikergaiaren egoera duela hamarkada batzuekin alderatuta hobetu egin den arren, espero baino mugatua izaten jarraitzen du teoria multzo horrek migrazioaren ulermenari egin dion ekarpena:

“La profusión de formas y procesos que constantemente revela la investigación empírica y el dinamismo que manifiesta una realidad en continuo cambio, contrastan con las limitaciones de la teorización” (Arango, 2000: 45).

Ikuspuntu historiko eta global batetik Moyak dio migratzaileek argitaratu zituzten aldizkariak gehiegi aldatzen ez zen formula bat jarraitzen zutela leku guztietan. Estilo eta eduki antzerakoa erabiltzen zuten New Yorkeko judutarrek, Miamiko kubatarrek edo Buenos Aireseko italiarrek beraien argitalpenetan: jaiotzen iragarpenak, ezkontzak, pasatze errituak (lehen jaunartzeak, graduazioak, etab.), heriotza-oharrak, helduera eta irteerei eta immigranteen “arrakastei” buruzko berriak, sorlekuko argazkiak eta baita herrialde berriko asoziazioek antolatzen zituzten dantzaldi eta pikniken irudiak, edo idazle afizionatuen poema eta ipuin nostalgikoak (Moya, 2008:32).

Prentsaren fenomenoak izaera unibertsala izatearen arrazoiak emigranteak jaso zituzten herrialde ezberdinetan asoziazionismoa jazo izanaren berdinak izan ziren: “el principal estímulo para la actividad asociativa no derivaba del background cultural de los inmigrantes o de los hábitos cívicos de sus anfitriones sino que tenía un origen más universal: el proceso migratorio mismo (Moya, 2008:19). Identitate kolektiboak biziagotu egiten ziren bertako populazioarekin eta gainontzeko iritsi berriekin zuten talka egoeran. Horrez gain, Moyak uste du historiagileek ez dutela behar besteko atentziorik jartzen asoziazio txikietan, elkarte handi eta instituzionalizatueta jarriz soilik arreta, eta emigratu aurreko background edo testuinguruan behar beste ez sakontzea deitoratzen du, modu horretara historia erdia galtzen baita.

Egoera zailen aurrean emigranteek espazio eta baliabide berriak sortzeko erakutsi zuten eta erakusten duten gaitasunari lotuta Cohenek azpimarratutako ideia bat aipatu daiteke, euskaldunen kasuan ere guztiz baliozkoa izan daitekeena: “Therefore, though the word «Babylon» often connotes captivity and oppression, a reassessment of the Babylonian period of exile can reveal the development of a new creative energy in a challenging, pluralistic context outside the natal homeland” (Cohen, 1996: 509). Hala ere, ezin da esan XIX. mende bukaerako euskal immigrazioa “diaspora biktima” zenik. Europa mailan jazotzen ari zen “emigrazio masiboan” parte hartzeko hainbat faktore egon ziren euskal gizartean, Ameriketara bideratutako emigrazioa familian eta gizartean

errotutako ohitura izan zelarik, eta etorkizuna antolatzerako orduan aukera bat gehiago. Alabaina, 1936ko Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz gertatutako erbeste politikoa biktima tradizioaren barnean kontsideratu daiteke.

Esperientzia traumatiko horrek herrialde berrian egokitzeko modua baldintzatzen du eta baita etxe berrian identitate etnikoa berregiteko modua ere. Horrela, diasporako kulturak galera eta esperantzak markatutako bizipen-tentsio batek zehazten ditu: “Los pueblos cuyo sentido de la identidad se define sobre todo por historias colectivas de desplazamiento y pérdida violenta, no se pueden «curar» mediante la fusión con una nueva comunidad nacional” (Clifford, 1997: 307).

Azken hamarkadetan, ziberespazioaren aldian, Cohenen arabera diasporak gogoak eraikiak izan daitezke, artefaktu kultural edo imajinazio konpartitu bezala. Globalizazioak egoera paradoxikoa ekarri du berarekin, non identitatea eta kultura unibertsalak bihurtzen diren, zatitu eta biderkatu egiten diren aldi berean: “An identification with a diaspora serves to bridge the gap between the local and the global, even if the outcome is a cultural artefact rather than a political project” (Cohen, 1996: 516). Bere aldetik, Cliffordek (1997: 301) dio pertsonen, diruaren, salgaien eta informazioaren mugimendu etengabearen ondorioz “leku bananduak komunitatea bakarra” bihurtzen direla.

Bukatzeko, Moyak (2008: 41) adierazten du 1930 aurretik gertatutako migrazioaren fenomenoak ikertzen dutenen eta 1960 osteko garaia lantzen dutenen arteko elkarlan estuago baten beharra ikusten duela. Migrazio fluxu zaharrena historialariek lantzen duten bitartean, berriki gertatutakoa soziologo, antropologo eta politologoek ikertzen dute: “se ha dificultado la colaboración interdisciplinaria y se engendraron dos corpus académicos con vidas separadas”.

4. EMAITZAK

Atal honetan, 2.5. epigrafean azaldutako metodoen bitartez, hau da, eduki-analisiaren eta azterketa biografikoaren bitartez lortutako datuak azalduko dira.

4.1. *Laurak Bat* (1878-1891)

I. *Izena (bilakaera):*

Izena:

Lehenengo zenbakietan *Laurac-Bat* izango da, baina, 36. zenbakitik aurrera, 1880ko abenduaren 1ari dagokiona, grafia aldatuko du *Laurak-Bat* izena hobetsiz:

...pues los juegos florales de San Sebastian son los que nos han hecho ver el error en que involuntariamente incurriamos. Segun los escritos que nos ha proporcionado el señor Otaegui, vemos que no se debe usar la letra c en nuestro idioma, sino la k, ni tampoco la v sino siempre la b (...)
(*Laurak Bat*: “Miscelanea”, 1880/12/01, 36.zbk, 3.or).

Azpi-titulua:

Revista de la Sociedad vasco-española de Buenos Aires.

Son éstos los años en que el Laurak Bat es una Sociedad “Vasco-Española”, tal es el nombre aprobado por los asociados de entonces, un hecho cierto, real, que sin embargo no se lo recordará casi nunca después de 1939... (Ezkerro, 2004: 20).

Lehenengo hiru zenbakietan azpi-titulua “Revista de la Sociedad vasco-navarra de Buenos Aires” da, baina laugarren zenbakitik aurrera “vasco-navarra” aldatu egingo “vasco-española” izateko. Modu honetan, bazkideen iritziz euskaldunak eta nafarrak bereiztea ekiditen da eta probintzia eta nazioari erreferentzia egiten zaio errepikapenik egin gabe.

Goian jarritako aipuari jarraituz, 13. zenbakian azpi-tituluaren grafia aldatuko da v eta b letrak aldatuz: “Rebista de la Sociedad basco-española de Buenos Aires”. 57.

zenbakian berriz ere v letra jarriko da eta horrela mantenduko da lehen etaparen amaiera arte.

II. Egoera sozial orokorra:

1877ko martxoaren 13an, Buenos Aireseko Milan kafetegian biltzen ziren hamahiru euskaldunek (arabarrak, gipuzkoarrak, nafarrak eta gipuzkoarrak) “Laurak Bat” izen adierazgarriarekin elkarre bat sortzea erabaki zuten, lau lurralde historikoen batasuna aldarrikatuz. Data ez zuten ausaz aukeratu, izan ere, Alfontso XII erregeak Bigarren Guda Karlistari (1872-1876) amaiera emanez Somorrostron (Bizkaia) emandako hitzaldiaren lehen urteurrena zen martxoaren 13a.

Mikel Ezkerroren iritziz, Laurak Bat gertaera politiko baten ondorioz jaio zen. Instituzioaren sorrera, 1839an jada urratuak izan ziren, Foruak deuseztatu zituen 1876aren uztailak 21eko lege espainiarraren kontrako protesta zen:

La razón primigenia de la fundación del Laurak Bat de Buenos Aires fue: la de manifestar desde la «unidad étnica» de los cuatro territorios históricos del sur de los Pirineos, la «protesta» ante la «unidad constitucional» impuesta por la violencia armada, lo que significaba en la práctica la supresión «unilateral» del «Régimen Foral» que durante siglos había reglado las relaciones jurídicas pactadas en forma separada de Álava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya con la monarquía española (Ezkerro, 2004: 28).

Buenos Airesen instituzio foruzale bat sortzeak beste eskualde espainiar batzuetako elkarrekin protesta eragin zuen. Protesta horretan Santanderrekoak nabarmendu ziren eta “separatismo” terminoa ere erabili zuten, ordura arte soilik kubatar eta filipinar abertzaleei deitzeko erabiltzen zena. Hiriko *El Correo Español* agerkarian eskutitz bat idatzi zuten “grupo de vascongados” deituriko zenbaitek sinatuta, eta bertan, Uruguain bizi zen Iparragirreraren poesia bat irakurtzearen aurka egiten zuten, zeina Colon antzokian irakurtzekoa zen Hospital Español-en aldeko emankizun batean (Ezkerro, 2004).

Euskal etxe berria sortu eta urtebetera, elkartearen estatutuak onartu zituzten eta oinarri horiek, aldaketa txiki batzuk salbu, bere horretan jarraituko zuten hurrengo onartutako araudietan urte luzez (Cava Mesa, 1996):

- Buenos Aireseko euskaldun-nafarrak eta beraien semeak bilduko diren gune bat sortu.
- Argentinatik Euskal Herriarekiko maitasuna mantendu.
- Foruen abolizioa gaitzetsiko duen protesta antolatzea urtero.
- Ekintza kulturalak babestu.
- Emigrante euskaldun-espainolak lagundu.

Ezkerroren iritziz, Laurak Bat-en orientazio aldaketa bat antzematen da lehen araudiaren onarpenean, izan ere, sorreran egin zen aldarrikapen politiko nabarmenetik bestelako instituzio bat antolatzea pasako ziren, non benefizentzia, kultura eta aisialdia izango ziren oinarri eta foruen defentsa posizio moderatuago batetik egingo zen. Horrela, Buenos Aireseko euskal etxe eratu berriak, zertxobait lehenago osatutako Montevideokoaren oinarri antzerakoak hartuko zituen (Ezkerro, 2004).

Estrategia aldaketa hori Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian ere ematen ari zen, izan ere, hasieran zegoen Estatuaren kontrako konfrontaziozko jarrera aldatu egin zen. Bizkaian Fidel Sagarminagak gidatutako foruzaletasun gogorrari, batez ere Araban eta Gipuzkoan sustatzen zuten “errealista” edo “posibilista” deituriko jarrera toleranteagoak lekua hartu zion. Kontzertu Ekonomikoaren lorpena eta errekonozimendua bihurtu zen borrokaren helburu behinena.

Benefizentzia modu egokian egiteko instituzioaren zuzendariak posizio ekonomiko sendoa eta herrialde hartzailean onarpena izatea beharrezkoa zen. 1878 urterako Laurak Bat-eko bazkideak 112 izatetik 248 izatera pasa ziren eta Potosi 292 helbidean zabaldua zuten zentro soziala. Emigranteei zuzendutako laguntza humanitarioa lehen urteetatik eraginkorra izan zen. Egoera zaurgarrian zeuden euskaldunei Euskal Herrira bueltatzea laguntzen zieten eta itzulerarako gobernu argentinarrak hilabetean 3. klaseko bi txartel finantzatzea lortu zuen elkarteak. Horrez gain, bestelako laguntza humanitarioa ere burutu zuten, 1879an Kantauri itsasoko galerna zela eta kaltetutako

300 familiei laguntza bidaliz eta berdina eginez Esteponako (Malaga) galernan kaltetutakoekin. Kulturari dagokionez, “fiestas vascas” deiturikoak ospatzen hasi ziren eta bertan antzerki emanaldiak, dantzak edo La Euskarina elkarteko orfeoiaren kontzertuak egiten ziren. Cava Mesaren iritziz, ildo kultural hori jarraituz sortu zuten *Laurak Bat* aldizkaria. Argitalpen berriak aurretik aipatutako lanak eta ekitaldiak jasoko zituen kolektibitateko kideei helarazteko (Cava Mesa, 1996).

III. Argitalpenaren sorrera:

1878ko urtarrilean eman zen argitara lehenengoz Buenos Aireseko *Laurak Bat* eta lehen zenbakian “Salutacion” artikuluekin agurtzen zituen bazkideak:

No vengo á bañarme en el turbio pantano de las miserias políticas. (...) Tengo una mision mas elevada, mas pura y mas hermosa. Yo vengo á esparcirme, á disolverme en las dulces afecciones de vuestra hermandad (*Laurak Bat*: “Salutacion”, 1878/01, 1.zbk, 1.or).

Lehen zenbakian aldizkaria sortzeko asmoaz ere hitz egiten da, eta horrela, aldizkaria sortzearen ideia originala ez dela pertsona jakin batena azpimarratzen da, bazkideren bat ekimenean nabarmendu arren, izan ere, guztien buruan zegoen argitalpen bat sortzea helburu jakin batekin: “...que esparciera las nobles tendencias de la sociedad” (*Laurak Bat*, 1.zbk, 1.or). Horretarako, bazkide talde txiki bati egun gutxitan prest edukiko zuten araudia idazteko enkargua egin zion zuzendaritzak.

Aldizkariaren lehen zenbakia argitaratutakoan, bere sorrera ospatzeko festa bat egin zuten. Aldizkariaren lehen zenbakian festaren berri eman zen eta programa azaldu zen. Bigarren zenbakian, berriz, “bataio” festaren kronika labur bat egin zen, diskurtso, musika, jan eta edan ederrez ospatutako festa deskribatuz.

Aipatzekoa da aldizkariaren izena asoziazioak duen berdina dela. Lehen bi euskal etxeek, Montevideokoak eta Buenos Airesekoak, instituzioaren izen berdina jarriko diote argitalpenari: *Laurak Bat*. Aurrerago ere errepikatuko da jokabide hori, esaterako, 1912an Montevideon sortuko den *Euskal Erria* edo 1922an Rosarion argitaratutako *Zazpirak Bat* aipatu daitezke.

IV. Enpresa antolaketa:

Lehen zenbakian Araudia ere argitaratzen da eta bertan aldizkariaren funtzionamendurako oinarriak azaltzen dira. Araudian aldizkariaren izena eta helburu nagusia ezarri ondoren, honen antolakuntzan “Comisión Redactora” eta “Comisión Revisora” ezartzen zituen. Lehenengoaren betebeharrak izango ziren, besteak beste, aldizkarirako materiala jaso eta aurkeztea, iragarkiak jartzea eta aldizkariaren inprimatzea. Bigarrenaren betebeharrak ziren, berriz, igorritako materialaren balorazioa egitea, iragarkien tarifa ezartzea eta aldizkariaren distribuzioa egitea. Araudiak beste zenbait arau orokor ere ezartzen zituen, besteak beste, Laurak Bat-eko bazkide guztiek izango zutela aldizkarira kolaborazioak bidaltzeko eskubidea eta korrespondentzia idazkaritzara bidali beharko zela.

Horrez gain, lehen “Comisión Redactora” onartu zuen instituzioko “Junta Directiva”-k. Honakoek osatzen zuten batzordea: Juan Mayora (zuzendaria), Anselmo Gomendio (administratzailea), Juan S. Jaca, Antonio Lasarte, Juan Sagastume, Daniel Lizarralde eta Juan M. Elgarresta.

Hirugarren zenbakian aldizkariaren banaketa egiteko zituzten zailtasunak azaltzen dira. Kapitalean bizi ziren bazkide ugari instituzioan inskribatu zirenetik helbidea aldatuta zuten. Landa-eremuan banaketa are zailagoa zen, leku batzuetara iristeko sarea konplikatu baitzen. Posta eta agentzien bidez banaketa egiteko modu berri bat azaltzen dute, eta laguntza behar izanez gero, aldizkariaren korrespontsalen zerrenda bat ematen da. Ia berrogei korrespontsalen izena eta herria (Corrientes, Lomas de Zamora, Quilmes, Tandil, etab.) datoz zerrendatuta.

Aldizkaria bazkideentzat dohainik izan zen aldi guztian. Hilabetero argitaratzen hasi ziren eta hamabostero egitera pasa ziren 1880ko abenduaren 1ari dagokion 36. zenbakian. Horrela jarraitu zuten 1886ko ekainaren 30ari dagokion 165. zenbakira arte. Orduetik aurrera berriz ere hilabetekaria izatera pasako zen, 170-179. zenbakien artean hamabostero argitaratzen jarraitzeko ahalegina egin arren. 4 orrialdez osatuta egon zen aldi osoan, baina ohikoa zen 2 orrialdeko gehigarria argitaratzea, izan data seinalatua

zelako edo interesgarria zeritzoten materiala argitaratzeko aldizkaria luzatzea erabakitzen zutelako.

Honako helbideak izan zituen erredakzio eta administrazioak, instituzioaren idazkaritzari zegozkionak, eta instituzioaren mugimenduaren arabera aldatzen zirenak: Potosi 367, Alsina 367, Buen Orden 103, Chacabuco 73 eta Chacabuco 149. Inprinta ezberdinak ere izan zituen, eta zenbaki batzuetan soilik agertu arren adierazita (azken orrialdean) non inprimatzen zen, honakoak dira agertzen direnak: Imprenta Moreno, Peru 165; Imprenta de “El Mercurio”, Alsina 270 y 274; Imprenta del Mercurio, Alsina 272; Imprenta y Litografía La Argentina, Alsina 30/50; Imprenta del Laurak-Bat; Imprenta de Oswald y Martinez, Florido 136; Imprenta del “Mercurio”, San Martin 246; Imp. de La Nación Española, Alsina 431/Moreno 172 y 174; Imp. de El Correo Español, Piedras 126.

V. *Zuzendari eta kazetarien nortasuna:*

Zuzendariak:

Aldizkariaren lehen zuzendaria Juan Mayora izan zen. Mayorak instituzioko jarduna bildu zuen artikulu ezberdinetan eta hainbat poesia lan ere idatzi zituen zuzendari egon zen denboran. 1878ko urriari dagokion 10. zenbakian zuzendari aldaketa jakinarazten da, izan ere, Juan Mayorak hiritik kanpora irten beharra izan zuen bere farmazialari lana burutzera. 12. zenbakian Mayorak bere botika Pergaminos herrian jarri duenaren berri ematen da. Ordutik aurrera kolaborazio bakanen bat egingo du.

Daniel Lizarralde hartu zuen Mayoraren lekua eta horrela agertzen da agerkariaren portadan adierazita. Daniel Lizarralde Tolosan jaio zen 1853ko apirilaren 10ean, aita Ignacio Lizarralde (hau ere medikua) eta ama Concepcion Brid izan zituen:

Este nuestro comensal nació en Tolosa y se apellida Lizarralde. Vino de muchacho y se hizo médico. Tiene una infinidad de hijos y una reputación muy digna de doctor. Pero sin embargo de tantos inconvenientes, mi extraño amigo se dedica á la literatura y á la filosofía... (*La Baskonia*: “La vida nocturna”, 1909/12/30, 585.zbk, 6.or).

1873an iritsi zen Argentinara eta Laurak Bat instituzioaren hamahiruko sortzaileetako bat izan zen, eraketa-akta idatzi zuelarik. 1880 mediku-lizentzia eskuratu zuen eta ordutik mediku izan zen Tandilen, Adroguén eta Buenos Airesen, azken honetan ospitale espainoleko klinika medikoa izan zelarik. 1901ean “Len, Orain eta Gero” hitzaldia eman zuen Laurak Bat-en foruen indargabetzearen aurka, Argentinan euskaraz osorik emandako lehen hitzaldia. 1902 amaieratik aurrera *La Baskonia* aldizkariaren zuzendari ere arituko zen denbora batez (Altonaga, 2009).



Irudia 8: Daniel Lizarralde, Andrée Moch-ek marraztua.
Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia.

Lizarraldek hiru aldi behintzat egingo zituen *Laurak Bat*-en zuzendari gisa. Lehen aldia 1880ko urtarrilari dagokion 25. zenbakira arte izango da. Ale horretan jakinarazten da Lizarralde Alvear herrian finkatu dela, eta hori dela eta, zuzendari izateari utziko diola. 32. zenbakian jakinarazten da Lizarraldek mediku ikasketak amaitu dituela eta Tandil herrira mugituko dela bertan dituelako gertuko lagun ugari. Lehen aldi horretan, Lizarraldek Laurak Bat-en inguruan euskal kolektibitatea izaten ari den garapenaz iritziak (batzuetan editorial bezala) plazaratuko ditu, eta Mayoraren bidea jarraituz, poesia eta ipuinen bat idaztera ere animatuko da.

Daniel Lizarraldek zuzendari izateari uzten dion 25. zenbaki horretatik aurrera ez da lehen orrialdeko portadan zuzendariaren izena agertuko. Horrek zaildu egiten du zuzendarien jarraipena egitea, izan ere, denbora luzez ez da inor zuzendari denaren berririk egongo. Tarte horretan, Juan Sebastian Jaca eta Felix Ortiz San Pelayo izango dira nabarmenduko diren izenak. Jacak artikulu sakonak idatziko ditu emigrazioari edo euskaldunen jatorria eta izaerari buruz. Ortiz San Pelayok foruak, euskara edo gai filosofikoagoak izango ditu hizpide. Lehen orrialdean agertutako zenbait artikuluk

editorial itxura dute, baina ezin esan horrela direnik, ez baita urte horietan “Comisión Redactora”-ren antolaketaren inguruko informaziorik aurkitu aldizkarian. “I.A” bezala sinatzen duen kazetariaren zenbait artikuluk ere editorial itxura hartzen dute denbora batez (Ignacio Ajamus izan liteke, aurretik ere kolaborazioak eginak baitzituen), baina denbora gutxira negozioak direla eta aldizkaria utziko duela esaten da (108.zbk, 4.or).

1884ko martxoaren 15ari dagokion 112. zenbakian berriro ere aldizkariaren antolaketaren berri ematen da, “Comisión Redactora” osatzen dutenen izenak datoz: Daniel Lizarralde (zuzendaria), Anselmo Gomendio (administratzailea), Ramon Lizarralde, Juan Sagastume, Pablo Arriaran, Custodio Otaegui, Juan S. Jaca (Tandilen korrespontsala) eta Juan Mayora (Pergaminon korrespontsala).

Beraz, Lizarralde bigarren aldi baten zuzendari da eta hurrengo alean, 113.zenbakia, Tandiletik Buenos Airesera bueltatu dela eta mediku kontsulta bat zabaldu duela esango da. Hala ere, berriro ere ez da oso luzaz izango zuzendari. 143. zenbakian datorren batzarreko memorian Lizarralderen ukoaz eta aldizkariaren egitura sendotu beharraz hitz egiten da:

...No obstante, creemos que su comision redactora debe ser reforzada en adelante con los numerosos elementos que hay esparcidos entre los sócios de Laurak-Bat.

El Dr. D. Daniel Lizarralde que venia desempeñando ha tiempo el puesto de Director de esta *Revista* renunció y en atencion á su carácter indeclinable fue aceptada su renuncia agradeciéndose los buenos servicios prestados á esta seccion (*Laurak Bat*: “La Asamblea”, 1885/06/15, 143.zbk, 2.or).

Aldizkaria aurrera eramateko arazoek jarraitu egingo dute, izan ere, 163. zenbakian datorren memorian diote Anselmo Gomendio administratzaileak postua uzten duela bere lanarekin zuen bateraezintasunagatik. Horren aurrean, aldizkaria egoera “prekarioan” geratzen zenez, Laurak Bat instituzioko presidentek Lizarralde berriz ere zuzendari izendatzen zuen, honek onarpena eman aurretik.

Horrela, Lizarraldek hirugarren aldi bat hasiko du 1887aren ekainari dagokion 179. zenbakira arte. Ale horretan, Felix de Ortiz y San Pelayo dela zuzendari berria jakinaraziko da. Ortiz San Pelayo berak idatzitako artikuluan Lizarraldek zuzendari ez

jarraitzeko arrazoiak azaltzen ditu eta bere abilezia ezagatik aurretiazko barkamena eskatzen du:

Que es dolorosísimo para los que quieren bien á esta Revista, (Lizarralde) el que sus múltiples ocupaciones en la humanitaria profesion que tan dignamente ejerce, nos priven de ver sus brillantes páginas, producto de su clara inteligencia, fecunda imaginacion y profundo estudio. Si alguna satisfaccion nos queda en esta pena es, la causa que ha motivado su renuncia.

(...)

Tras estas tres brillantes figuras (Mayora, Lizarralde eta Jacaz ari da, azken hau zuzendari ez izan arren), aparece hoy una muy pequeña y deficiente á la cabeza de esta Revista, suplicando benevolancia para los pobres productos de su inculta inteligencia, que han de poblar estas columnas, á las que tan buena suerte cupo en otro tiempo (*Lurak Bat*: “A mis consocios”, 1887/06/01, 179.zbk, 1.or).

Felix Ortiz San Pelayo Azpeitian jaio zen 1856an eta 1879an iritsi zen Argentinara. Musikaria eta idazlea, *Lurak Bat*-eko sektore “tradizionalista”-ren, eta ondoren XX. mende hasieran, sektore “espainolista”-ren aurpegi ezagunena izan zen. Instituzioaren presidente izan zen bi alditan, 1912an eta 1916an, eta era berean, Asociación Patriótica Española-ren presidentea ere izan zen. Buenos Aireseko *El Diario Español* argitalpenean ere aritu zen eta zenbait liburu idatzi zituen, besteak beste, *Los Vascos en América* edo *Por mi fe y por mi patria* (Ezkerro, 2004).

Es toscó el hombre...

Su voz es bronca, de contrabajo...

Parece mentira que sea paisano de Loyola...

(...)

San Pelayo es un católico ferviente y sincero. Su actuación en el partido católico ha sido activísima, como lo es en todo aquello que pone su empeño. Actualmente es presidente de la Juventud Católica de la República. Ha defendido su fé con algunos folletos y numerosos artículos, en guerra abierta con los enciclopedistas y la revolución francesa, sus dos pesadillas mientras no escribe música (*La Baskonia*: “Arzai Mutilla. Los autores”, 1900/02/30, 231.zbk, 2-3.or).



Irudia 9: Felix Ortiz San Pelayo.
Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia.

201. zenbakian Ortiz San Pelayok zuzendari izatea uzteko asmoa duela esaten du, baina azkenean instituzioko kideen eskaeraz atzera egiten du bere erabakian. Erabaki hori 1890eko ekainari dagokion 214. zenbakian etorriko da. Honela azaltzen zuen bere lana Ortiz San Pelayok artikuluan baten:

Ocupado todo el santo día en la fastidiosa tarea de mi profesión, y dedicando las noches á hacer unos cuantos garabatos en el pentágono, no he llegado á comprender aun porque me han convertido en Director, Redactor, Noticiero, etc., etc., de esta modesta hoja; pues las condiciones que para ello poseo, nadie mejor que tú las sabe.

(...)


Imagínate, qué de apuros pasaré cuando veo acercarse fin de mes y no solo no he escrito nada, sino, lo que es peor, no sé de que escribir. Hay veces que de noche me pongo á pasear en casa mirando al techo y buscando un tema (*Laurak Bat*: “A mi hermano Proto María”, 1889/10/01, 207.zbk, 1.or).

Zuzendaritza aldaketa etengabeek jarraitzen dute azken bi urteetan. 219. zenbakian Juan Sebastian Jacak zuzendari izateari uzten diola jakinarazten da, beraz, suposatu daiteke Ortiz San Pelayoren ostean zenbait zenbakitan zuzendari gisa aritu zela. Horren ostean, Antonio Ariztik zenbait editorial sinatuko ditu. 224. zenbakian Ariztik zuzendaritza utzi izanagatik pena azaltzen da lehen orrialdean eta Florencio Valdivieso izango da zuzendari azken zenbakietan.

Kazetariak:

Kazetarien artean Juan Sebastian Jaca da nabarmendu beharrekoa egindako lan eskergagatik. Jaca Berastegin jaio zen eta 10 urte zituelarik joan zen Argentinara. Farmazialari graduatzea lortu eta lan horretan jardun zuen Tandilen. *Laurak Bat* euskal

etxearen sorreran parte hartu zuen eta bertako presidentea izan zen 1898-1900 tartean. Martin Errecaborde zuberotarrarekin batera, hegoaldeko eta iparraldeko euskaldunak instituzio bakarrean bilduko zituen lehen egitasmoaren sustatzaile nagusienetakoa izan zen, 1904an eratu zen Asociación Cultural y de Beneficencia Euskal Echea proiektuarena hain zuzen. *La Baskonia* aldizkarian ere idatzi zuen eta 1882an *El Eco de Tandil* agerkaria sortu zuen eta honen zuzendaria izan zen 41 urtez. *Euskaria. Historia política y social de las naciones a través de la filosofía* liburua ere idatzi zuen (Ezkerro, 2004).



Irudia 10: Juan Sebastian Jaca. *La Baskonia* (1042.zbk).
Iturria: Urazandi Digitala.

Aurretik aipatu bezala, zuzendari ere izan zen zenbaki gutxi batzuetan (214-219. zenbakien tartean), seguruenik zuzendari aldaketa etengabeek eraginda, “Comisión Redactora”-ko kideek aldizkariaren jarraipenari aterabide bat eman nahian. Ortiz San Pelayok zuzendari postua hartzean egindako agurrean, Mayora eta Lizarralde zuzendarien lana goraiatu ondoren, Jaca hartzen zuen aldizkariaren hirugarren zutabetzat:

Fáltame dedicar unas palabras á un nombre que es muy querido.

Si bien, no bajo el título de Director, ha estado al frente de esta Revista un jóven simpático, cuya fecunda imaginacion a dado pingües resultados para esta Sociedad, con la que tiene encarnado su nombre.

Juan S. Jaca por cuya salud y felicidad hago fervientes votos, ha sido, uno de los sócios que mas han trabajado por la Laurak-bat y muy particularmente por mediacion de esta Revista.

Lleno de modestia, jamás le preocupó la forma de la emission del pensamiento, pero henchido de cariño, por esta Sociedad á la que siempre mira como algo que le pertenece, ha dado ideas magnificas

á torrentes, muchas de las cuales son hoy hermosa realidad, y muchas otras que esperan el tiempo que las ha de colocar en igual terreno (*Laurak Bat*: “A mis consocios”, 1887/06/01, 179.zbk, 1.or).

Horrela, bere jarduna kazetari batena izan zela izan daiteke, zuzendariarena baino gehiago. *Laurak Bat* aldizkaria martxan jarri zenetik aipatzekoa da Jacak proiektuarekin erakusten duen konpromisoa, etengabe kolaborazioak eginez. Instituzioaren norabideaz gogoeta ugari egiten ditu artikuluetan, baita euskaldunen historia eta gaurkotasun politikoaz, eta aipatzekoa da baita ere, euskaldunek Ameriketara eginiko emigrazioa modu kritikoan baloratuz idatzitako artikulua.

Jaca eta aipatutako zuzendarien sinadurez gain, euskal kolektibitate amerikarrekoak izan daitezkeen sinadurak ez dira asko. Horien artean aipatu daitezke Hermenegildo Aramendiren eta Domingo Ordoñanaren artikulua bakanen batzuk, horiek normalean Montevideoko *Laurak Bat*-etik hartuta daudelarik.

Bestalde, Euskal Herritik kolaborazioak ohikoak ziren. Zenbaitetan artikulua horiek egileek eurek *Laurak Bat*-i bidaliak izaten ziren bertan argitaratzeko asmoz, baina gehienetan, aldizkariaren kudeatzaileek jatorrizko lurraldetik iritsitako aldizkarietatik hartzen zituzten gustuko idatziak. Dena dela, Buenos Aireseko euskal agerkariak itsasoz bestalde ere korrespontsalak zituen eta horren berri ematen zuen 1880ko otsailari dagokion 26. zenbakian “Corresponsales de la Revista *Laurac-Bat* en Europa” zerrenda argitaratuz: Antonio Peña y Goñi (Madrid); Juan Mañé y Flaquer (Barcelona); Ricardo Becerro de Bengoa (Palencia); Juan Delmas eta Antonio Trueba (Bilbo); Martin Garmendia (Tolosa); Nicolas Soraluze eta Jose de Manterola (Donostia); Justo Maria Zavala, Arturo Campion eta Luis Iñarra (Iruña).

Horiez gain, beste zenbait egile ezagunen idazlanak agertzen dira eta esan daiteke garaiko sinadura garrantzitsuenetakoak jasotzen direla aldizkarian: Fermin Herran, Hermilio Oloriz, Carlos Maria Perier, Klaudio Otaegi, Juan Benanzio Arakistain, Vicente Arana, Felipe Arrese Beitia, Pedro Egaña, Joan Iturralde Suit, Biktoriano Iraola, Alfredo Lafitte, Joaquin Jamar, Nicanor Zuricalday, Marcelino Soroa, Karmelo Etxegarai, Antonio Arzac, Antonio Peña y Goñi, Aristides Artiñano, Pio Maria Mortara, Ramon Artola, Francisco Grandmontagne, etab. .

Ezizen edo pseudonimoak ez dira horren ohikoak eta besteak beste honakoak aurki daitezke: Un Fuerista, Mendi Mutilla, Rebote, El Vasco, Un azpeitiarra, Aristius, Aitzinategorria, Zuria, Ulises, etab.

VI. *Edukiaren egituraketa:*

a) *Lehen orrialdea*

Laurak Bat aldizkariaren lehen orrialdean, portadan, aldizkarietan ohikoak diren elementuak agertzen dira. Horrela, titulua, azpi-titulua, edizio urtea, data, alearen zenbakia, prezioa, helbidea eta zuzendaria (esan bezala, azken hau hasierako zenbait zenbakitan soilik) lehen orrialdean zehaztuko dira.

Portada horren elementurik aipagarriena, goiburuan izango duen armarria izango da. Lehenengo zenbakietan erabiliko den armarria Espainiako armari monarkiko tradizionala izango da (Irudia 11). 1879ko uztailari dagokion 19. zenbakian kendu egingo dute eta zenbait denboraz ez da armarririk egongo portadan. 1882ko urriaren 29ari dagokion 79. zenbakian Pedro Soraluzeren bandera edo “estandarte euskaro” armarria aurkeztu zuten, eta ordutik aurrera, aldizkariaren goiburua bihurtuko zen aldizkaria argitaratzeari utzi arte (Irudia 12).




Irudia 11 eta 12: *Laurak Bat* portadan Espainiako armarria 1878/03, 3.zbk.
Irudiak 12: *Laurak Bat* portadan Pedro Soraluzeren armarria, 1882/12/31, 83.zbk.
Iturria: Urazandi Digitala.

Aldizkariaren titulu nagusia edo lehen artikulua hasi aurretik, zenbaitetan abisu moduko oharrak azaltzen dira. Normalean, ohar horiek instituzioaren jardunarekin lotura duten batzar deialdi, pertsona esanguratsu baten heriotza edo eskaera konkretuak egiteko ohar bereziak izaten dira. 94. zenbakiko lehen orrialdean, “Oficina Central” tituluarekin abisu bat jartzen hasiko dira eta ia argitalpenaren amaiera arte bertan mantenduko dute. Ohar edo iragarki moduko horretan Laurak Bat instituzioaren zerbitzuak eskaintzen zaizkie irakurleei: “...en cuanto datos, conocimientos y diligencias le sean solicitados y pueda verificar”.

Bestalde, zenbait zenbakitan (92. eta 118. aleen artean) aurkibide bat jarriko dute hasieran, “Sumario”, eta bertan, aldizkarian dauden artikuluen tituluak datoz zerrendatuta. Zenbaki gutxi batzuetan portada berezia argitaratzen dute. Adibidez, hori gertatzen da 16. eta 64. zenbakietan, instituzioaren sorreraren urteurrena dela oroitzuz.

Titulu nagusia: izaera
227 erantzun




Grafikoa 1: Titulu nagusiaren izaera (*Laurak Bat*).

Iturria: lanaren egileak egina.

Titulu nagusiaren izaerari dagokionez, gai sozialak lantzen dira batik bat lehen orrialdean (Grafikoa 1) eta instituzioaren garapenari lotutako artikulua izaten dira normalean. Euskal Herriko egoera politikoari buruzko idazlanek ere hartzen dute lehen orrialdea zenbaitetan eta baita ekitaldi kulturalari buruzkoek.

Titulu nagusiko edukia: generoa
227 erantzun



Grafikoa 2: Titulu nagusiaren generoa (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Titulu nagusiko edukiaren generoari dagokionez, iritzi artikulua da gehien erabiltzen den generoa (Grafikoa 2). Instituzioa hartzen ari den norabideaz hausnartzeko edo foruen galera salatzeke erabiltzen dira. Lehen orrialdeko albisteetan *Laurak Bat*-en berriki gertaturiko kontuez hitz egiten da.

b) *Aztertutako piezen estiloa*


Narrazio tradizional “subjektiboa” erabiltzen da batik bat eta artikuluetan gai jakin baten inguruko iritzi soila azaltzen dute egileek. Iritzi-artikulu horiek bi-hiru zutabe edo orrialde erdi baino gehiago hartzen dute normalean. Erreportajeetan gai jakin baten inguruan datuetan oinarrituta eta sakonago aritu arren, interpretazioa baino iritzi tonua erabiltzen da sarritan.

Albiste motz ugari bata bestearen ostean daude zenbait sailetan, ia oharrak diruditenak. Berrien laburpen gisakoak dira, batez ere Euskal Herrikoak direnean.

c) **Kazetaritza generoak**

Albisteak:

Albisteen kopurua (zenbaki bakoitzean)
227 erantzun



Grafikoa 3: Albisteen kopurua zenbaki bakoitzean (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Albisteei dagokienez (Grafikoa 3), instituzioaren bizitza islatzen duten albisteak jasotzen dira eta azken nobedadeen edo martxan jartzen diren ekinbideen jarraipena egiteko baliagarria da aldizkaria. Batzarretako Memoria ere argitaratzen da eta zenbaitetan zenbaki bat baino gehiago luzatzen da osorik helarazteko. Horrez gain, sarritan “Notas cambiadas” agertzen dira, hau da, instituzioak kide ezberdinekin elkartrukaturako mezuak; eskerrak emanez, doluminak, emandako diru-laguntzak, gestio ezberdinak, etab.

Aldizkariaren azken orrietan elkartearen diru kontuen berri ere ematen da. Instituzioa diruz lagundu duten izenen zerrenda eta kantitatea, edo bazkide ezberdinek egindako donazioak agertzen dira. Horrez gain, instituzioko kaxa ezberdinen (Sociedad Laurak-Bat, Plaza Euskara, Caja Protectora eta Banco Español) diru kontuak agertzen dira.

Euskal Herriko albisteeek ere garrantzi nabarmena dute aldizkarian eta itsasoz beste aldetik iritsitako argitalpenetako berri garrantzitsuenak agertzen dira:

La *Revista* transcribe fielmente toda novedad que registran los periódicos y Revistas literarias de las Provincias vascongadas que, la mayor parte por cange y otras por suscripcion, llegan diariamente á


su administracion y frecuentemente vemos dedicar á nuestra Sociedad frases halagüeñas y de grande simpatía (*Laurak Bat*: “La Asamblea”, 1885/06/15, 143.zbk, 2.or).

Horrela, “Ecos de Euskaria” sailean denetariko albisteak daude: lore jokoetan sarituak, herrietako berriak, apustuak, pilota partidak, Bilboko portuko kontuak, pertsona ezagunen heriotzak, erabaki politikoak, ferrokarrilaren eraikuntza, ekitaldi politiko eta kulturalak, askotariko esposizioak (merkataritza, kultura), ardo eta zerealen prezioak, etab.

Bestelakoen artean, diasporako kide nabarmenen edo Euskal Herriko pertsona esanguratsuen eskela edo nekrologiak argitaratzen dira, normalean lehen orrialdean.

Erreportajeak:

Erreportajeen kopurua (zenbaki bakoitzean)
227 erantzun



Grafikoa 4: Erreportajeen kopurua zenbaki bakoitzean (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Erreportajei dagokienez (Grafikoa 4), ohikoak dira pertsonai euskaldun esanguratsuen biografiak argitaratzea. Horrela honako pertsonen biografiak agertzen dira: Juan de Urbieta, Juan Sebastian Elkano, Juan de Garai, Julian Gayarre, Cura de Elorriaga edo Fernando Albizu, Catalina Erauso edo Aita Mari.

Euskal Herrian Ferrocarril Vasco-Navarro eraikitzen ari direlarik zenbait erreportaje argitaratuko dira eraikuntza berriaren nondik norakoez. Gainera, erreportajeen zenbait zatitan iritzia modu nabarmenean adieraztea ere ohikoa da. Esaterako, honela gertatzen da ferrokarrilari buruzko erreportaje baten:

Las primeras carreteras de España, al menos en cantidad y proporción, fueron las construidas en el país vascongado, con la plata, la inteligencia, y la fuerza del euskaro; la primera región de España en ferro-carriles será la nuestra y estos se construirán, sin duda alguna, con la inteligencia, con la plata y con el brazo del pueblo euskaro.

¡Feliz el pueblo que se anticipa á su siglo ó marcha cuando menos á la par de los mas adelantados! (*Laurak Bat*: “Ferro-carril Cantábrico”, 1882/07/15, 72.zbk, 3.or).


Euskaldunen jatorria eta ohiturak, euskararen egoera edo emigrazioaren gaia lantzen duten erreportajeak ere badaude. Baita Antoine Abbadie eta Manuel Iradierrek Afrikan eginiko esplorazioei buruzko erreportaje kuriosoak. Aldizkariak aurrera egin ahala pilotak gero eta zutabe gehiago betetzen ditu eta kronika edo emaitzak ematez gain, bere antzinakotasunari buruzko idazlanak ere plazaratzen dira:

Nadie puede poner en duda la antigüedad del juego de la pelota. Es uno de los cuatro que habla Homero en *La Odisea*. (...) El juego de la pelota ha pasado siempre por un ejercicio muy saludable. Plauto, Marcial y Ciceron hablan de él en este sentido (*Laurak Bat*: “El juego de la pelota”, 1885/08/31, 151.zbk, 2.or).

Konferentzia edo idazlan esanguratsuak ere argitaratzen dira pasarteka. Horren adibide dira euskarari buruzko “Memoria leída por D. Nicolás de Soraluze y Zubizarreta en el Ateneo de San Sebastián en Octubre de 1879” edo Aita Mortararen “Idiosincrasia y germanismo del idioma bascongado”.

Kronikak:

Kroniken kopurua (zenbaki bakoitzean)
227 erantzun



Grafikoa 5: Kroniken kopurua zenbaki bakoitzean (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Kronikei dagokienez (Grafikoa 5), 1879an lehen “fiestas vascas” ospatuko ziren Buenos Airesen eta 1881an lehenbizikoz Lore Jokuak egingo ziren hiriko teatroan. Teatroan ospatzen ziren hainbat ekitaldietako kronikak aurkitzen dira aldizkarian. Hainbat kontzerturen kontakizuna egiten da eta Euskarina instituzioko orkestraren ekitaldiak edo Ortiz San Pelayoren emanaldiak jasotzen dira. Horrez gain, Euskal Herriko aldizkarietatik ere hartuko dira hainbat kronika, eta horrela, ohikoak bihurtuko dira Julian Gayarre opera abeslariaren edo Pablo Sarasate biolin jotzailearen kontuak edo Donostiako inauteriei buruzko kronikak.

Plaza Euskara martxan jarri zutenean bertako ekitaldien kontakizuna egiten zuten, eta horretarako, “Crónica quincenal” tituluarekin argitaratu zituzten hainbat artikulua. Bertan egindako erromeriak kontatu ziren zenbaki batzuetan, baina kronika gehienak pilota partiduei buruzkoak izan ziren:

A las cuatro debía dar comienzo el partido y para esa hora, no quedaba en boletería un solo palco por vender; las gradas ponían a prueba sus buenas condiciones de resistencia, soportando el enorme peso de 1500 personas que se agitaban, impacientes, por presenciar la lucha que debía empeñarse entre los mejores jugadores de Buenos Aires, y podemos decir sin temor a equivocarnos de la República Argentina.

Lucha titánica en que debían desplegar prodigios de agilidad, llenando el ánimo de los espectadores de emociones siempre gratas, sin la probabilidad de las escenas sangrientas y desastrosas

que se ve obligado á presenciar el público de ciertos espectáculos, en que el hombre, demasiado confiado en su destreza, desafía insensatamente peligros inminentes de muerte.


Serian las cuatro y media, cuando los jugadores se presentaron en la plaza (*Laurak Bat*: “Crónica quincenal”, 1882/01/31, 85.zbk, 1.or).

Elkarrizketak:

Ez da elkarrizketarik aurkitu burututako eduki-analisan.

Iritzi-artikuluak:

Iritzi-artikuluak (zenbaki bakoitzean)
227 erantzun



Grafikoa 6: Iritzi-artikuluen kopurua zenbaki bakoitzean (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Iritzi-artikuluei dagokienez (Grafikoa 6), honakoak dira eztabaidatzen diren zenbait gai: Foruen gatazka, espainiar unitarismoaren kontra eta probintzien alde, euskaldunen izaera eta balorea, euskal etxeari buruzko gogoetak, atzerritarren instituzioak eta beraien funtzioa, euskaldunak Ameriketara emigratzearen zentzua, Argentinako egoera politikoa, euskara galtzearen arriskua, etab.

Los artículos históricos y ciertamente doctrinales sobre hechos relevantes y actitudes de los vascos abundan y hoy por hoy configuran una literatura cuyo análisis resulta interesante (Cava Mesa, 1996: 144).

Plazara Euskararen inguruan ere iritzi-artikulu ugari daude, izan ere, plaza instituzioaren barnean hartzen ari zen gehiegizko garrantziaz eztabaidatzen zen. Horren adibide, 1885eko apirilaren 15ari dagokion 138. zenbakiaren argitalpena astebete

atzeratzen dute, hau da, hilaren 22an argitaratzen dute, 19an jokaturako Txikito de Eibar eta Paysanduren arteko pilota partidu garrantzitsuaren berri emateko. Horrela, pilotaz gain bestelako aisialdi ekintza batzuk ere sustatu beharra aldarrikatzen zuten aldizkarian: "...lo que había sido «medio» económico se había convertido en un «fin» institucional, posponiendo o haciendo olvidar los fundamentos reales que habían dado origen al Laurak bat" (Ezkerro, 2004: 48).

Aldizkariaren zenbait urtetan ohikoak izan ziren Euskal Herriko beste aldizkari batzuetatik hartutako artikulua bere horretan argitaratzea. *Lau-buru* eta *La Union Vasco-Navarra* aldizkarietako artikuluetan politikari buruzko iritzi gogorak azaltzen dira:


Se nos reta á un duelo á muerte, se nos trata como á pais conquistado, se nos declara una guerra de raza: respondamos á la provocacion cual corresponde á los altivos y honrados hijos de esta noble tierra. Ha llegado el momento de deslindar los campos. Los buenos vascongados estaremos siempre á este lado del Ebro; los que no lo son, los que quieran vivir á costa del país, los que deseen estar en buenas relaciones con los enemigos de este pueblo; quítense el antifaz y vayan á ocupar el puesto que les corresponde allen de el Ebro.

Esto, si nó patriótico, será cuando menos noble; y así ellos no vivirán de la mentira y del engaño, como hasta ahora; y nosotros habremos estirpado la mala semilla que tanto perjudicaba nuestros campos (*Laurak Bat*: "La mala semilla", 1882/05/30, 69.zbk, 2.or).

Bestelako iritzi-artikuluen artean, liburu kritikaren bat ere aurkitu daiteke. Adibidez, Daniel Lizarraldekin Vicente Aranaren "Oro y Oropel" liburuaren kritika bat egiten du (28.zbk).

Iritzi-zutabeak:

Iritzi-zutabeak (zenbaki bakoitzean)
227 erantzun




Grafikoa 7: Iritzi-zutabeen kopurua zenbaki bakoitzean (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Iritzi-zutabeek dagokienez (Grafikoa 7), zenbaki batzuetan iritzi-zutabeak erabiltzen dira aldizkariak lantzen dituen gairen baten inguruko iruzkin edo iritzi laburren bat adierazi nahi denean. Iritzi-zutabe horiek ez dute toki finkorik, eta gaiaren arabera, aldizkariaren edozein sailetako zutabe baten argitaratzen dira.

Literatura artikulua (ipuinak, poesia, bertsoak):

Literatura artikulua: ipuinak, poesia, bertsoak (zenbaki bakoitzean)
227 erantzun



Grafikoa 8: Literatura artikuluen kopurua zenbaki bakoitzean (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Literatura artikuluei dagokienez (Grafikoa 8), Euskal Herrian ospatutako Lore Jokoetan saritutako edo aipamen berezia lortutako literatur lan ugari argitaratzen dira. Ohikoak dira Klaudio Otaegiren edo Felipe Arrese Beitiaren euskarazko poemak.

Antonio Trueba, Vicente Arana, Juan Iturralde Suit edo Juan E. Delmas dira agertzen diren ipuinen egileetako batzuk. Ortiz San Pelayok ere idazten ditu zenbait ipuin aldizkarirako.

Euskarazko humorezko antzerki pieza bat ere argitaratzen da pasarteka, Marcelino Soroaren "Anton Kaiku". Soroaren zenbait poesia ere badaude.

Argitaratzen diren beste literatur artikulua mota bat euskal giroko elezahar edo kondairak dira. Horien artean aipatu daitezke pasarteka argitara emandako, Juan Benazio Arakistainen *Tradiciones Vasco-Cántabras* (1866) liburuaren zenbait zati; Arturo Campionen "La visión de D. Carlos", "Dembora anciñakoen ondo-esanak" edo "El genio de Navarra" idazlanak; eta Vicente Aranaren *Los últimos iberos. Leyendas de Euskaria* (1882) liburuaren zenbait pasarte.

Bestelakoak (hitzaldiak, liburuetako pasarteak, etab.):

Aldizkaria argitaratzen den urteetan, zenbaki ugari erditik banatuta egongo dira eta beheko zatian idazlanak argitaratuko dira irakurleek horiekin liburuxka moduko bat osatu dezaten. Zenbaitetan zenbaki bateko orrialde guztiak erabiliko dira asmo horretarako, eta beste batzuetan, soilik bi orrialde.

61. zenbakian hasi eta 90. zenbakira arte, Julio Arreseren *El Fuero Vascongado* lana argitaratuko da. Hori bukatzean, Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* argitaratzen hasiko dira 173. zenbakian bukatu arte.

Azken urteetan beste zenbait idazlan ere argitaratuko ziren liburuxkak osatzeko: Ortiz San Pelayoren "Los orígenes de la sociedad Laurak Bat"; "Folleto: recurso colectivo de la Diputaciones vascongadas han dirigido al Gobierno español contra la Real orden última que sancionó el presupuesto extraordinario del Ayuntamiento de San

Sebastián”; eta azken bi zenbakietan Agosti Xahoren "Aitor. Leyenda Cántabra" argitaratzen hasi ziren.

d) *Sailak*

Sailek jarraikortasun bat edukiko dute aldizkaria argitaratuko den urte guztietan. Hala ere, sailen tituluak aldatuko egingo dira, edukiak antzerakoak izaten jarraitu arren. Horrez gain, sail guztiak ez dira zenbaki guztietan agertuko, hau da, editoreek argitaratzeko dituzten materialen arabera sail jakin batzuk jarriko dituzte. Honakoak dira sailek dituzten tituluak eta bertan argitaratzen den informazio mota:

- “Interior”, “Miscelanea”, “Suelos”, “Laurak-Bat” edo “Ecos Sociales” izeneko sailean instituzioaren inguruko berriak agertzen dira eta baita euskaldunen inguruko askotariko artikuluak.
- “Sección Oficial” sailean zuzendaritzak erabakitako erresoluzioen berri eta elkartrukatutako "nota" ugari argitaratzen dira.
- “Variedades” edo “Literatura” sailean sormen lanak daude.
- “Exterior” edo “Ecos de Euskaria” sailean Euskal Herrian gertatzen ari dena erakutsi nahian albiste ugari eta motzak agertzen dira.
- “Avisos” edo “Informaciones” sailean irakurleekin komunikazioa bilatzen da: jaso ez den korrespondentzia, familiakoek aurkitzen ez dituzten pertsonen inguruko informazio eskaera, lan eskaerak eta lan eskaintzak daude.
- “Anuncios” edo “Avisos” sailean iragarkiak argitaratzen dira.


e) *Argazkiak*

Argazki bakarra dago eta aldizkariaren azken zenbakian agertzen da. Juan B. Goñiren erretratua da eta bere biografia labur bati lagunduz argitaratu zuten. Zenbaki bakoitzean Laurak Bat instituzioari loturiko bazkide esanguratsuei omenaldia egiten hasteko asmoa zuten, baina argitalpena eten egin zen.

f) Ilustrazioak

Ez dago ilustraziorik argitaratuta aztertutako urteetan.

g) Publizitatea



Grafikoa 9: Publizitatea (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Publizitateari dagokionez, argitaratutako zenbaki guztietatik erdietan ez da iragarkirik egongo. Grafikoan ikus daiteke zein iragarki mota diren gehien azaltzen direnak: medikuak, dentistak, fabrika txikiak, saltokiak, etab. (Grafikoa 9). Esan behar da, iragarki gehienak erregulartasunez mantenduko direla eta ez dagoela aldaketa handirik iragarleetan.

Azken zenbakietan, egoera ekonomiko zaila dela eta, zuzendaritzak aldizkarian ordaindutako publizitatea jartzeko deialdia egiten du.

VII. Diskurtso ideologikoa:

Laurak Bat aldizkariaren joera ideologikoa ulertzeko lagungarria da Ezkerrok Buenos Aireseko euskal instituzioaren inguruan dioena:

Salvo en las últimas décadas la historia del Laurak Bat ha estado muy influenciada por la historia de Euskal Herria, bastante más que por la historia de Argentina que la ha afectado mucho más en lo económico que en lo meramente político (Ezkerro, 2004: 21).

Ameriketara emigratutako euskaldun askok bertan izan zuten lehenbizikoz hegoaldekoek eta iparraldekoek bat egiten zuten euskal identitate baten kontzientzia. “Euskaldun” kategoria etnikoa finkatuz joan zen herrialde hartzaileetan, eta horren erakusgarri, honela idazten zuten *Laurak Bat* aldizkarian, Jose Cola y Goitik Ameriketara zihoazen euskaldunen emigrazioa gaitzetsiz argitaratu zuen liburu ezagunari erantzunez:

Las muchas y repetidas pruebas de aprecio que nos prodigan en esta República, ha engendrado en nosotros un orgullo tal de pertenecer á las provincias vasco-navarras, que cuando alguien nos pregunta á qué nacion pertenecemos, contestamos *soy vasco*.

(...) ¡Sí, tierra argentina amamanta con dulce jugo un tierno retoño del venerable árbol que despiadadas manos lo troncharon! (*Laurak Bat*: “A la «Epoca””, 1883/03/31, 89.zbk, 1.or).

Hala ere, lehen euskal etxeak sortu zirenean, Montevideon, Buenos Airesen eta Habanan, hegoaldeko euskaldunak soilik bildu ziren eta Laurak Bat izenak erakusten zuten erreferentzia estatu espainiarra zela. Horrela, esan bezala, Buenos Aireseko *Laurak Bat* aldizkariak goiburuan Espainiako armari monarkiko tradizionala jarri zuen lehen aleetan (Alvarez Gila, 2019a). Euskalduntasuna aberri handiaren barruan kokatzen zen:

...que como nosotros aman al incomparable pais que puebla desde las márgenes del mar Cantábrico hasta la ribera del rio Garona, es decir el pais basco, es decir la familia euskara que bajo la bandera española y francesa, llora por las desgracias de su madre Euskaria (*Laurak Bat*: “Lo esperabamos”, 1883/07/30, 97.zbk, 1.or).

1882an Plaza Euskara inauguratu zutenean, bandera espainiar eta frantziarrarekin batera Pedro Soraluzeren bandera edo “estandarte euskaro” plazaratu zuten. Ikur berri hori segituan onartu zuten Buenos Aireseko kolektibitatean, eta horren erakusgarri, aldizkariaren goiburuan jarri zuten argitalpenaren bukaera arte.

1882ko urriaren 29ari dagokion 79. zenbakian, Plaza Euskararen inaugurazioaren aurretik editatu zen azken zenbakian, Soraluzeren bandera lehenbizikoz argitaratu zen

Ameriketean. Lehen orrialdean, “la Euskaria revive” titulu adierazgarriarekin aldizkariaren ikur berria izango zena aurkezten zen (Irudia 13). Ikur berriaren esanahia eta biltzen zituen elementuak azaltzen ziren, seguruenik *Euskal Erria* aldizkari donostiarrean aurretik agertutako artikuluei jarraituz. Plazan haizatuko zen banderaren egilea Carlota Aldazabal zela jakinarazten zen, Jose Aldazabal bazkidearen alaba, baina Argentinara ikur berriaren existentziaren eta diseinuaren informazioa nola heldu zen ez da agertzen (Alvarez Gila, 2019b).



Irudia 13: Pedro Soraluzeren bandera edo “estandarte euskaro”, *Laurak Bat* 1882/10/29, 79. zbk. Iturria: Urazandi Digitala.

Ameriketako lehen instituzioek Soraluzeren bandera ikurtzat hartu zutenean zenbait moldaketa egin zizkioten. Buenos Airesen kasuan aldaketak ez ziren askorik izan. Espainiari erreferentzia egiten zioten elementuak mantendu egin ziren, hala nola, errege moroen buruek osatzen zuten lauburua eta armariaren gaineko errege-koroa. Hirugarren elementu espainiarra, armariaren azpian dagoen xingola gorri eta horia, mantendu zen ala ez jakitea zailagoa da, irudiak zuri eta beltzean daude eta. Hala ere, itxura batean kolore horiek kendu egin ziren. Aldaketa garrantzitsuena armariak zuen leman eman zen, eta horrela, “Laurak Bat” esaldiaren ordez “Jaungoikoa eta Fuegoak. Euskal Erria” lema jarri zuten.

Portavoz de una sociedad que nació precisamente para protestar por la abolición de los Fueros, su restauración fue un tema recurrente, así como sus críticas a la política centralista y represora de Madrid. En tal sentido, son frecuentes sus protestas por la férrea censura y las continuas suspensiones de que eran objeto algunos medios fueristas de Euskal Herria (Irigoyen, 2008: 285).

Forzaletasunaren aldeko aldarriak ugariak dira aldizkarian. Esaterako, Ortiz San Pelayok artikulua ugaritan egingo du horien defentsa sutua: “Por el amor que nos debemos á nosotros mismos, debemos querer los fueros, lo mismo que por el que

debemos á nuestras familias y á las provincias” (*Laurak Bat*, 44.zbk, 1.or). Horrela, *La Paz* agerkari foruzale madrildarrak edo *Irurac Bat* agerkari liberal foruzale bilbotarrak jasandako jazarpenak salatuko dituzte. Nafarroako Euskarazko Elkargoa eta Euskalherria Elkartea ere sarritan goratuko dira.

Jose Manterolak sortutako, eta ondoren Antonio Arzakek jarraituko zion, *Euskal Erria* aldizkari euskaltzalea ere erreferentzia garrantzitsua zen aldizkariaren egileentzat. Bertako artikuluak sarritan hartzen zituzten eta aldizkariaren bazkide egiteko kanpaina bat ere sustatu zuten.

Laurak Bat barneari dagokionez, Ezkerrok instituzioaren barruan zeuden bi korronte bereizten ditu urte horietan: gehiengoa zen “social-recreativa deportiva” deiturikoa eta “kulturalista” gutxiengoa. Kulturalistek iparraldeko euskaldunak ere instituzioan onartzearen alde ekimenak egin zituzten, baina hasiera batean ez zuten lortu beraien asmoa gauzatzea (Ezkerro, 2004).

Euskaldun guztien identate komun hori eraikitzeke egin ziren aldarrikapenek kulturalaz gain helburu politikoa ere bazuten eztabaidatu izan da. Esaterako, Irujo eta Irigoyenek (2006) euskal-amerikar kolektibitateko zenbait kideren jardunean esparru politikora egindako pausua ikusten dute.

Javier Corcuera Atienzak bere *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904* liburuan zioen Buenos Aireseko *Laurak Bat* aldizkariko hainbat artikuluak foruzaletasun gogorra defendatzen zutela, eta hein batean, abertzaletasunari loturiko edukitzat ere jo zitezkeela. Auzi honen inguruan honakoa da Ezkerroren iritzia:

Por nuestra parte, después de haber leído la colección de la revista de la entidad que se publicó entre 1878 y 1891 y que se conserva en la biblioteca del *Laurak Bat*, no percibimos artículos que pueden merecer el calificativo que les da el Sr. Corcuera, “ciertos contenidos nacionalistas” y que sí en los artículos debidos concretamente a Juan Sebastián Jaca y Daniel Lizarralde (...) se reconocen claras influencias de Fidel Sagarminaga y los llamados euskalerriacos, como también son profueristas, pero desde otra visión política, los firmados por Félix Ortiz San Pelayo de extracción inicialmente carlista, posteriormente incorporado al integrismo de Ramón Nocedal y acérrimo combatiente en el *Laurak Bat* durante años de todo lo que significase nacionalismo vasco o como él lo llamaba “separatismo” (Ezkerro, 2004: 55-56).

Bestelako gaiei dagokienez, euskaldunak Rio de la Platara emigratzearen komenigarritasunaz hainbat artikulu idazten dira aldizkarian. Juan Sebastian Jaca izango da gaiaz gehien arduratuko dena eta bere artikuluetan hiru ideia nagusi bereizten ditu Torryk (Torry, 2015):

- Euskal Herrian Rio de la Platako errealitatea ez dute behar bezala ezagutzen.
- Argentinak aukera anitzak eskaintzen dizkio immigranteari baina ez du antolakuntza politiko eta administratibo egokirik.
- Iristen diren immigranteek edukiko dituzten zailtasunak eta aurrera egiteko aukera gorabeheratsuak ikusita, euskal kolektibitateak gertatuko dena aurrez iragarri eta antolatu beharra dauka iritsi berriari gizarteratzea errazteko.

Nafarroako gobernadoreak emigrazioaren kontra hainbat herrietara bidalitako zirkular baten harira eztabaida piztuko da. *Laurak Bat*-ek aurre egingo dio eta Argentinara doazenak askatasunean bizi direla defendatzen dute (51.zbk). Hala ere, Ortiz San Pelayok eztabaida horren harira idatzitako artikulu baten engantxadore edo emigrazio agente gehienek lana kritikatu du, zintzo jokatu dutenak oso gutxi direla aitortuz. Euskaldunek emigrazioa tentuz egin beharra aldarrikatu du: “Estos países son buenos para el hombre laborioso, la honradez halla apoyo, la virtud admiradores, pero de venir a venir hay una gran diferencia” (*Laurak Bat*, 51.zbk, 1.or).

Euskal Herrian Ameriketarako emigrazioaren aurkako erreakzio ugari egon ziren eta horien artean ezaguna izan zen Jose Cola y Goiti kazetari arabarrak 1883an argitara emandako *La emigración vasco-navarra* liburua. Tupper ministro txiletarrak (86.zbk) euskaldunen emigrazioaren aurka egin zuenean ere aldizkariak gogor erantzun zion:

...el periódico *Laurac Bat* de Buenos Aires denunció rotundamente estos intentos del gobierno chileno tachándolos de fraudulentos. Advertían que los vascos que emigrasen a Chile podrían esperar que serían sacrificados por los araucanos y que el gobierno permanecería impasible. Cuando las noticias contenidas en el mencionado libro de Cola denunciando la emigración al Río de la Plata, llegaron a Buenos Aires, el *Laurac Bat* sencillamente dio por sentado que era la emigración a Chile la que era objeto de la denuncia.

Los editores estaban de acuerdo con Cola sin haber visto el libro. Lo único que se puede suponer es que se disgustaría posteriormente al averiguar que su región constituía el blanco principal de las críticas de Cola (Douglass eta Bilbao, 1975: 209).

Emigrazioaren inguruko artikulak aldizkaria argitaratu zen urte guztietan agertu ziren, eta azken zenbakietan, zenbait emigranteren egoera tamalgarria salatuz Gobernu espainiarrari neurriren bat hartzea eskatu zitzaion behin baino gehiagotan:

Es tal cantidad de españoles que acuden á estas oficinas en demanda de pasages de reimpatriacion, que estamos seguros, que si el Gobierno Español mandara mensualmente un buque en busca de tanto desgraciado como pulula por estas regiones, conseguiría dos cosas buenas; sacarlos de la situacion en que se hallan y aumentar los industriosos braceros en la Península.

Queda el hecho apuntado (*Laurak Bat*: “Ecos sociales”, 1890/04/07, 213.zbk, 2.or).

Bestade, aipatzekoa da, genero ikuspegiari dagokionez, emakumeei erreferentzia egiterakoan erabiltzen diren moduak urte horietako pentsamoldearen adierazgarri direla: “El bello sexo, ausente otras veces á las sesiones musicales, era anoche el principal ornato del salon” (*Laurak Bat*, 161.zbk, 3.or).

VIII. *Euskara eta euskal kultura:*

Euskararen erabilera aldizkarian ondo laburbiltzen du Ezkerrok bere liburuan: “...la presencia del euskera se reduce a composiciones poéticas o la reproducción de refranes y sentencias populares” (Ezkerro, 2004: 193).

Grandmontagnek zioen Rio de la Platara iritsitako euskaldun gehienak euskaldun elebakarrak zirela. Uste zuen hizkuntzaren zailtasun horrek bultzatu zituela hiriak utzi eta panparen bakartasunera joatera. *Amerikanuak* liburuaren egileen ustetan ikuspuntu hori gehiegizkoa zen, izan ere, bertara joan ziren euskaldunak bi hizkuntza menperatzen zituztela frogatzeko ikusi besterik ez zegoen Montevideoko eta Buenos Aireseko *Laurak Bat* instituzioek argitaratutako aldizkariak gaztelaniaz zirela (Douglas eta Bilbao, 1975: 492).


Hala ere, azpimarratu behar da euskal emigranteen lehen elementu bateratzailea euskara izan zela. Gainera, kolektibo euskal-amerikarreko eliteek garrantzi berezia

ematen zioten euskarari euskal identitatearen eraikuntzan. Altonagak Daniel Lizarralde aldizkariko zuzendariak urte batzuk geroago, 1906an *La Baskonia* aldizkariko artikulu baten, euskararen inguruan egindako gogoetaz esandakoak interesgarriak dira:

Lizarralderen testuetan han-hemenka aurkitzen dira euskararen gaineko teorizazio baten printzak, hein batean pertsonalak izan zitezkeenak, orduko giro kolektibo bati zor ziotenaz gainera. Alde horretatik eta besteak beste, aipagarria da Daniel Lizarralde berak sinaturiko *Nuestro idioma* artikulua, zati bitan argitaratua. Bertan, behin eta berriro azpimarratzen du euskararen garrantzia eta zentralitatea herriaren identitate eta iraupenerako, baina, oraingo honetan soilik ideia bi ekarriko ditut. Artikuluaren une batean, Lizarralde *gure gurutzada erredentoreaz* mintzo da *–nuestra cruzada redentora-* eta, geroago, *erregenerazio-elementutzat* jotzen du euskara *–nuestro idioma, que es, á la vez, un poderoso elemento de regeneración de nuestra raza-*. Nik uste, horko izpiritu erregenerazionistan giltzarri bat dugu egiatan, orduko Argentinako euskaldun batzuen kolkoan egosten ari zena ulertzeko (...) (Altonaga, 2009: 39).

Euskararen aldeko jarrera hori nabarmena da *Laurak Bat*-en plazaratzen ziren artikuluetan. Esaterako, Arturo Campionek honela zioen hizkuntza eta nazionalitateei buruzko idazlan baten: “El euskara puede morir, mas no será su muerte *fatal* sino debida á la incuria de nuestra libre voluntad, embrujada por los ideales ultra-ibéricos. Así será mayor nuestra ignominia” (*Laurak Bat*, 156.zbk, 2.or). Euskararen aldeko diskurtso sutsu hori egin arren, euskararen erabilera urria da:

Euskara (artikuluak)
225 erantzun



Grafikoa 10: Euskarazko artikuluak zenbaki bakoitzean (*Laurak Bat*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Euskarazko artikuluak argitaratutako zenbakien laurden baten agertzen dira. Euskararen presentzia dagoen zenbakietan, euskarazko lanak ez dira asko izaten, 1-5

tartean hain zuzen ere (Grafikoa 10). Arturo Kanpion, Biktoriano Iraola edo Felipe Arrese Beitia dira horien egileak, besteak beste.

Euskal kulturari dagokionez, aldizkarian hasieratik azaltzen da Iparragirrerekiko miresmena. 3. zenbakian bere “Nere etorrera lur maitera” bertsoak argitaratzen dira eta 8. zenbakian Antonio Truebak eginiko “Gernikako Arbola”-ren bertso guztien gaztelaniazko bertsioa. 24. zenbakian Iparragirrek Ortiz San Pelayori eskainitako olerki bat dator “Nere adizkide maite, Felix Ortizi” tituluarekin. Iparragirreren heriotzean editoriala eskaintzen diote Urretxuko bardoari:

Bascongados todos; derramemos una lágrima sobre la tumba de ese insigne mártir de sus convicciones puras, de ese valiente trovador que por toda la heróica España, por la culta Francia, por la pintoresca Suiza, por la artística Italia y por casi toda la América, supo cantar acompañado por los melancólicos acordes de su guitarra, las glorias de sus montañas que tanto amó.

(...)

Ya no existe Iparraguirre, dicen todos, ya murió; pero se equivocan; que Iparraguirre morirá cuando muera el último hijo de Euskaria, cuando no quede ni una raíz del árbol símbolo de nuestras libertades, cuando no haya ni uno que hable esa lengua en la que prodigios supo hacer (*Laurak Bat*: “Don Jose M. Iparraguirre”, 1881/06/01, 48.zbk, 1.or).

Iparragirreri Urretxun egingo zitzaion estatua diruz laguntzeko deialdiak egin ziren aldizkarian. Berdina egingo zuten Antonio Okendo itsasgizonari Donostian egingo zitzaion estatuarekin. Era berean, Antonio Trueba idazleari opari bat egiteko hasitako diru-laguntza kanpainak oihartzun zabala eduki zuen aldizkarian. Trueba kanpaina burutzen ari ziren urte horretan hil egin zen eta batutakoa Albia Lorategian egin zitzaion estatuan laguntzeko erabili zen.

IX. Funtzioa eta erabilera komunikatiboa:

Laurak Bat instituzioa sorrerako lehen urteetatik benefizentziari lorturiko ekimenekin laguntza eskaintzen eta kultur jarduerak sustatzen hasi zen. Aldizkariak instituzioaren bizitzaren berri ematen zuen eta kolektibitateko kideak animatzen zituen parte hartzera: “Estas convocatorias denotan el interés de la sociedad por comunicarse e integrar a la colectividad vasco-argentina” (Cava Mesa, 1996: 144).

Aldizkariaren orrialdeak erabiltzen ziren etengabe bazkideak donazioak egitera animatzeko, horren bidez instituzioak egoera zailean zeuden euskaldunak aberrira bueltan bidaltzeko. Kantauri itsasoan galerna gertatu zenean, laguntza kanpainaren jarraipena egin zuen aldizkariak eta, izan dirua lortzeko edo izan euskal kultura sustatzeko, ospatzen ziren euskal festen deialdi eta kronikak egiten ziren, *Euskarina* koruaren kontzertuak, pilota partidak, dantzak eta askotariko ekintzen kontakizuna eginez:

Con la publicación de la *Revista Laurak Bat*, a partir de 1878 se inauguraba una política editorial, en materia de comunicación e información para y por el colectivo vasco de Buenos Aires.

La Revista enfocaba su orientación prioritariamente hacia temas culturales divulgativos, vida interna, informaciones cotidianas muy diversas y otros asuntos, todos ellos muy interesantes para la colonia vasca, pero quizá de orden menor desde el plano intelectual (Cava Mesa, 1996: 148).

Eduardo Torryk ere iritzi antzerakoa du eta, ondoren argitaratuko zen *La Baskonia* aldizkariarekin alderatzean, *Laurak Bat* beste egoera bati erantzuteko sortu zen arren funtzio garrantzitsua bete zuela uste du:

En cambio el órgano de difusión de la Sociedad tenía, va de suyo, otros fines y otra naturaleza, de ningún modo alcanzaría la dimensión de La Baskonia ni convocaría plumas tan relevantes, sin embargo sus páginas son de gran interés y no solo al marcar el transcurso de su institución madre brindando la información pertinente a los asociados, también reflejan el estado del grupo inmigrante vasco, sus aspiraciones, sus padecimientos, su opinión ante un medio distinto, en fin, la experiencia de la migración (Torry, 2015: 1).

Laurak Bat-ek ordezkaten duen prentsa instituzionala eta *La Baskonia*-k ordezkaten duen ekimen enpresarial pribatuko prentsa, ez ziren guztiz bereizita garatuko ziren agerkari motak izan. Bi agerkari motek bata bestearen ezaugarriak bereganatu zituzten, eta horrela, bi aldizkari moten arteko konbergentzia bat jazo zen. *Laurak Bat*-en gisako aldizkari instituzionalen helburu nagusia instituzioan barne informazioa eskaintzea izan arren, informazio jeneralistagoa ere jorratzen zuten. Jardunbide hori prentsa instituzionala garatu zen lehen urteetatik ikustea posible da, jardun jeneralistago horren adibide direlarik “Se desea saber paradero de” moduko abisu orokorrak (Alvarez Gila, 2019a).

Aldizkariak kolektibitatean eragiteko baliabideak ere baziren, izan ere, zenbait pertsonak sarbide pribilegiatu zuten komunikabideetara, eta horrek, beraien lidergo posizioa sendotu zuen, ideiak edo sinboloak masa sozialean hedatuz (Alvarez Gila, 2019b). Era berean, aldizkariak herrialde hartzailean funtzio garrantzitsua betetzen zuten, *Laurak Bat*-en kasuan instituzioa gizarte berrian kokatuz:

“La prensa es el cuarto poder de los Estados” ha dicho un eminente publicista. Apliquemos este dicho a nuestra Sociedad, y facilmente comprenderemos cuanta influencia puede tener este órgano en el desarrollo de nuestras instituciones.

Que ella prospere, que grande es su misión (*Laurak Bat*: “Memoria”, 1880/02, 26.zbk, 2.or).

X. *Aldizkariaren bilakaera:*

Laurak Bat-en lehen aldiko azken zenbakia 1891ko abenduan argitaratu zen, 230 zenbakira iritsita. Itxura guztien arabera egoera ekonomiko zailak bultzatuta geldituko zuten argitalpena. Azken zenbakietako editorial batek herrialdean eta instituzioan bizi zuten egoera ekonomiko zaila erakusten du:

La Sociedad *Laurak-Bat* de Buenos Aires, esta colectividad de vascongados que nació pobre y que merced al impulso y patriotismo de sus asociados ha conseguido ocupar un puesto distinguidísimo entre todas las sociedades extranjeras establecidas en este país hermano, vé de pronto oscurecerse su diáfano horizonte, ¡no en el orden moral que siempre se mantiene incólume y entusiasta cual corresponde á su raza! pero si en el económico, que pagando su tributo á la crisis que agobia al país, no ha podido sustraerse á la fuerza irresistible de las circunstancias (*Laurak Bat*: “Asunto serio”, 1891/06, 224.zbk, 1.or).

Hala ere, ez dirudi hasiera baten aldizkariaren arduradunek epe laburrean argitalpena eteteko asmoa zutenik, izan ere, azken alean kolaboratzaile berri baten berri ematen dute, instituzioko kide esanguratsuen erretratu eta biografiak argitaratzeko asmoa martxan jartzen dute eta Agosti Xahoren liburuxka argitaratzen hasi berri dira.

Azken zenbaki hori argitaratu ostean, hogeita hamar urte geroaro, 1921eko apirilean agertuko zen berriz. Portada koloretsua izango du orduan eta edukiak ere nabarmen aldatuko dira. Eduki sozialen ordean eduki politikoak nabarmenduko dira, instituzioak urte horietan zuten EAJ-ren abertzaletasunaren gertukotasunaren erakusgarri. Aldi

honetan 18 zenbaki ezagutzen dira, seguruenik 19 izango ziren arren. Izan ere, hirugarren aldia 20. zenbakiarekin hasten da 1930eko urrian. Aldi honetan izaera instituzionala berreskuratuko du eta eduki kulturalak nabarmenduko dira. 1931ko irailera arte iraungo du. Ordutik aurrera, zenbait ale solte argitaratuko ziren data berezietan; San Inazio, urteurrenak, hitzaldiak, etab (Irigoyen, 2008). Lehen aldi horretatik aurrera, beraz, *Laurak Bat*-en argitalpena gorabeheratsua izan zen:

Evidentemente, este devenir fluctuante nunca ha sido atribuible al desinterés, sino como sucede en la mayoría de los casos fueron los costos y gastos imprevistos de esta aventura editorial los causantes de la irregularidad de este cauce informativo, que fue vital para la sociedad Laurak Bat (Cava Mesa, 1996: 149).

4.2. *La Baskonia* (1893-1943)

I. *Izena (bilakaera):*

Izena:

La Vasconia izenarekin hasi zuen bere ibilbidea aldizkariak, baina 1903ko urtarrilaren 10eko zenbakian *La Baskonia* izatera pasa zen, euskal grafia aldarrikatuz gaztelaniakoaren aurretik. 1935eko abuztuan Laurak Bat elkarteak omenaldia egin zion *La Baskonia*-ri eta aldizkariaren orduko zuzendari Pedro Echeberriak honakoa adierazi zuen:

En 1903 fué Director de LA BASKONIA el Dr. Daniel Lizarralde (q.e.p.d.) y a él se debe el cambio ortográfico del título, adoptando la ortografía racional propia del euskera (*La Baskonia*: “Homenaje de Laurak-Bat a La Baskonia”, 1935/08/15, 1473.zbk, 4.or).



Irudia 14: *La Baskonia* aldizkariari omenaldia Laurak Bat elkarteak 1935ean.
Iturria: Jon Bilbao Basque Library, University of Nevada-Reno Library.

Ortografia berriarekin hasten diren zenbakian (334.zbk), aldaketa justifikatzen den artikuluan, Jose Rufo Uriarte zuzendariak Euskal Herrian bizi den kulturaren berpizkundearekin bat egiten du eta “flamenquismo”-aren injerentzia salatzen du. Hori bai, biolentzia baztertu eta borroka arrazoiazen bidez egitea defendatzen du. Zuzendaria jakitun da aldaketak kritikak eragingo dituela eta hasiera batean “biolentzia optikoa” eragin dezakeela ohartarazten du (Irigoyen Artexen, 2008).

Ortografia berria soilik euskarari aplikatuko diote, ez gaztelaniari, eta pertsonen izenek ere badaezpada errespetuagatik bere horretan jarraituko dutela adierazten dute. “Correo de Euskaria” sailean probintzien izenen ortografia ere aldatu egingo da.

Ortografia aldaketaren inguruko artikuluek segida edukiko dute hurrengo urteetan. Aldizkariak 25 urteko beteko dituenean, modu honetan azalduko dute gai honekiko duten jarrera:

Siguiendo la costumbre de los más eminentes euskarófilos, y persuadidos de lo razonable y lógica que resulta la supresión de la *v* y la *c* en toda voz euskara, sustituyéndolas por la *b* y *k*, cuya reforma como se demostró ampliamente en el número respectivo, no obedecía en absoluto a un capricho ni a una ofuscación tendenciosa, sino sencillamente a causas etimológicas; porque si basko es contracción de *baso-ko*, el de la selva, es bien natural la razón de no escribir *vasco*, ni *vasko*, con *v* sino con *b*, como lo hacen en la actualidad todos los euskarófilos. En una palabra, la eliminación por innecesarias de la *v* y la *c* de la ortografía baskongada, es cosa sancionada desde hace muchos años (*La Baskonia*: “Bodas de plata”, 1918/10/10, 901.zbk, 5.or).

Erabaki ortografiko honen inguruan eztabaidak ere agertuko dira aldizkarian. Adibidez, 1927an *Eskualduna* aldizkariak *La Baskonia*-ren erabaki ortografikoak kritikatu idatzitako artikulua bat dela eta, zenbait zenbakitan luzatuko den eztabaida edukiko dute “basko” hitzaren erabileraz. 1928an, Uriartek gutuna bidaliko dio Real Academia Española, honek basko, Baskonia eta baskongado hitzak *b* eta *k* hizkiekin onartu ditzan. Akademiaren erantzuna jasoko du, baina honek ez du gogobetetzen eta beraien argudiorik eza salatzen du.

Azpi-titulua:

Revista Ilustrada Euskaro-Americana. Historia, Literatura y Arte.

II. Egoera sozial orokorra:

Jose Rufo Uriarte bermeotarraren inprentan egiten ziren tertuliek aldizkariaren sorrera iragarri zuten. Bertan parte hartzen zuten kideek Laurak Bat elkartean euskaldunen batasun etnokulturala eta foruen eskubideen defentsa aldarrikatzen zuten. 1891. urtean *Laurak Bat* aldizkariak argitaratzeari utzi zion eta Buenos Aireseko euskal komunitatean hutsune kultural nabarmena zegoen, geroz eta ekitaldi kultural gutxiago antolatzen zirelarik (Ezkerro, 2004).

1893ko abuztuaren amaieran, Gamazada herri altxamenduaren testuinguruan Donostian jazotako istiluek aldizkariaren agerpena bultzatuko zuten. Bulebarreko kioskoan manifestatzaileek Iparragirreraren “Gernikako Arbola” jotzea eskatu zioten musika bandari. Alkateak erreperertoriotik kanpo zeuden abestiak jotzeko debekua ezarria zeukan, eta horren aurrean, manifestariak kantuz erantzun zuten. Foruen eta Errepublikaren aldeko aldarrien artean, manifestazio bat abiatu zen Sagasta gobernuburua aurkitzen zen Londres hotelera. Bertan, manifestariak hotelera sartzen saiatu ziren, baina guardia zibilak gogor oldartu zitzaizkien tiroka, hiru hildako, hamarnaka zauritu eta atxilotuak eraginez:

Aquel hecho sangriento, causó tan enorme indignación, que sus ecos trascendieron rápidamente aquende los mares, exacerbando los ánimos, decidiendo a los entonces jóvenes José R. de Uriarte y Francisco Grandmontagne de Otaegui, a dar a la publicidad un periódico que ejerciera de portavoz de la colectividad baskongada y llegase con el tiempo a ser un elemento de cultura y factor de unión de la familia euskara de ambas vertientes del Pirineo (*La Baskonia*: “Bodas de plata”, 1918/10/10, 901.zbk, 4.or).

III. Argitalpenaren sorrera:

Horrela, 1893ko urriaren 10ean bere ibilbidea hasiko zuen Ameriketako euskal prentsan erreferente bihurtuko zen aldizkariak, Jose Rufo Uriarte eta Francisco Grandmontagneren eskutik: “...la colectividad vasca de Buenos Aires se muestra nuevamente alborozada con la salida del primer número de la revista decenal ilustrada *La Vasconia*” (Astigarraga, 1981: 20).

Aldizkariaren lehen zenbakian Argentinako prentsa agurtzen zuten (“Á la prensa de la República”) eta beraien helburuak azaltzen zizkieten irakurleei (“Nuestro propósito”):

La Vasconia nace a la publicidad dedicada a la noble raza éuskara y su descendencia en el continente americano; sus esfuerzos serán siempre tendientes a seguir mereciendo como hasta aquí, la estimación que a nuestra laboriosa colonia profesa la República Argentina, nuestra segunda patria (*La Baskonia*: “Á la prensa de la República”, 1893/10/10, 1.zbk, 2.or).

Lehen artikuluko horietan jakitera ematen da aurretik aldizkariaren egileek zirkular bat bidali zirela lagun eta instituzioei, aldizkariaren argitalpena, programa eta helburuak jakinarazi asmoz. Zirkular horrek jasotako harrera beroa eskertzen dute. Lehen zenbakiaren portadak Bruno Maurizio Zabalen, Montevideo hiriararen sortzailearen, grabatua zekarren.


Aldizkariaren hastapenak ez ziren errazak, “pasando innumerables sinsabores económicos”, eta aldizkariak aurrera egin ahal izateko funtsezkoa izan zen Uriarteren inprenta: “...pues de haber carecido de ella, hubiera corrido fatalmente la suerte de muchas publicaciones que se extinguen prematuramente” (*La Baskonia*, 901.zbk, 5.or). Aurrerago (1228.zbk), Augusto J. Coelho Banco Español del Río de la Platako bankariaren heriotza jazotzean, oroituko dute nola aldizkariaren sorreran bankariarekin bildu ziren laguntza ekonomikoa eskatzeko eta honek onartu egin zien eskakizuna. Laguntza horri esker argitaratu zuten aldizkaria asmoa zuten eperako eta inprimategi propioarekin hasia ahalbidetu zien.

Lehen urteurrenera iristean, aldizkaria izaten ari zen oihartzunaz pozik eta harrিতuta azaltzen ziren, izan ere, *La Baskonia* Argentinan, Uruguain, Perun, Txilen, Bolivian, Paraguain, Brasilen, Mexikon eta Kuban banatzen zen. Horrez gain, inprenta propioa edukitzeak zekartzan abantailez mintzo ziren, eta fotografia, fotograbatu eta litografia tailerrak muntatu berri zituzten Moracho artistaren gidaritzapean. Inguruko barnealdeko herrietara eginiko bisitatik ere gogobetarik iritsi ziren aldizkariaren administratzailea eta Grandmontagne: “Vienen gratamente impresionados del interés y cariño con que se recibe nuestro decenario en todos los pueblos que han recorrido, así como de las consideraciones de que han sido objeto por parte de la prensa de campaña y de cuantas personas han visitado” (*La Baskonia*, 41.zbk, 9.or).

Are gehiago, bigarren urteko azken zenbakian aldizkariaren edizio europarra egiteko aukera ere aipatzen dute:

Nuestro decenario empieza á ser una obra interesante de recopilación. Así se considera en Europa y con especialidad en las Provincias Vascongadas, desde donde nos llegan elogios desmedidos, y al mismo tiempo proposiciones para hacer una edición europea de La Vasconia bajo la influencia y protección de las cuatro Diputaciones provinciales, que consideran nuestra obra como la más interesante de cuantas sobre el país vascongado se han iniciado hasta la fecha (*La Baskonia*: “La Vasconia”, 1895/09/30, 72.zbk, 10.or) .

Hirugarren urteurreneko zenbakian, aldizkariaren egoitzaren argazkia dator, ordurako Mexico 524 helbidetik Avenida de Mayo 781era mugituta (Irudia 15). Hala ere, artikuluan hasieratik ohartarazten da ez pentsatzeko eraikin guzti hori beraiena denik: “El oficio – este perro oficio de la pluma – no dá para tanto. ¡Qué ha de dar, señor, qué ha de dar!... Pero, en fin, se vive, y lo que parecerá aún más extraño, se vive contentos; porque, para espíritu de conformidad, los periodistas” (*La Baskonia*, 109.zbk, 11.or).



Irudia 15: *La Baskonia* aldizkariaren egoitza Avenida de Mayo-ko eraikinaren beheko aldean.

La Baskonia, 1896/10/10, 109.zbk.

Iturria: Urazandi Digitala.

Horren ondoren, artikulak aldizkariko bi zuzendarien lehen urteetako lanaren kontakizun irrigarri bezain interesgarria egiten du, Grandmontagne orduan bizitoki zuen “conventillo”-an kokatuz eta Uriarte bere editore jardunean:

¿Que si ha prosperado LA VASCONIA? Figúrense ustedes que empezó de esta manera: uno la escribía en un patio, lleno de chiquillos, algunas gallinas, dos perros y hasta un corderito, que tenía atada una cuerda al cuello, y de la cual tiraba el muchacho más revoltoso que ha nacido de madre; entre el cordero y el chiquillo, el uno tira por aquí, el otro tira por allá, rodeaban la cuerda á las piernas del *escribidor*, que tenía por mesa una batea, eso cuando la dejaba una vieja que en todo el santo día no cesaba de lavar manteles, servilletas y hasta pañales, porque en la familia aquella del patio había mucha gente menuda. Mientras tanto, el otro fundador extractaba noticias, escribía sobre los sucesos de última hora, seleccionaba artículos, corregía correspondencias, bregaba con dibujantes y grabadores, componía y compaginaba el periódico. Luégo, entre los dos daban con el pié á la máquina, como dos señores afiladores; doblaban la revista, ponían las fajas; y á eso de las tres de la mañana, después de terminar estas tareas *literario-changadoriles*, se metían los paquetes entre los raidos sobretodos y llevaban al Correo la expedición, generalmente riéndose de sí mismos y de algún otro. No faltó más que ir á casa de cada suscriptor y decirle: “Mire usted, hemos hecho este periódico, desde escribirlo hasta dejarle impreso, doblado, etc., y ahora venimos á leérselo á usted, para que no se moleste” (*La Baskonia*: “Tercer aniversario de «La Vasconia»”, 1896/10/10, 109.zbk, 11-12.orr).



Irudia 16: 1896ko Urteberria ospatzen. Jose Rufo Uriarte, D. Beguiristain, Joaquin Peñas, J.Enrique Roland, Florencio Constantino, Francisco Grandmontagne eta Claudio Otaegui.

La Baskonia, 1933/10/10, 1428.zbk.

Iturria: Urazandi Digitala.

IV. *Enpresa antolaketa:*

Euskal etxeei lotutako aldizkariak sortu ondoren, ekimen enpresarial pribatuko prentsa agerkarien sorrera eman zen:

Tras el fracaso, por muy diversos motivos, de los boletines propios de los centros vascos, en la última década del siglo XIX serían periodistas independientes, es decir, no ligados estatutaria ni financieramente a ningún centro vasco existente, quienes tomarían a su cargo la edición de prensa especializada en la colectividad vasca (Alvarez Gila, 2019b: 195).

Estatu Batuetan iparraldeko euskaldunen eskutik euskara hutsez idatzitako *Escualdun Gazeta* (1885) eta *California-ko Eskual Herria* (1893) astekariak izan ziren lehenengotarikoak. *La Baskonia* azken honen urte berdinean sortuko zen eta elkar irakurtzen zutela aditzera ematen da bere orrialdeetan. Horrela, 1898ko abenduan Kaliforniako aldizkariaren zuzendari Jean Pierre Goytinori eskainitako biografian honakoa diote aldizkariak: “Hay en sus columnas un tono de intimidad cariñosa y dulce que encanta; es como la sencilla carta del hogar solariego que lleva á los emigrados la grata nueva ó el triste acontecimiento ocurridos en el terruño (*La Baskonia*, 187.zbk, 2.or)”.

Argentinan *Eskual Herria* (1898), *Haritza* (1899)⁶ eta *La Euskaria* (1906) prentsa ekimenak ere sortuko ziren. Alvarez Gilaren (2019a) ustez, aldizkari mota hauek hiru esparru jorratzen zituzten batik bat: Euskal Herriko albisteak, herrialde hartzaileko aktualitatea eta artikulua literario-kulturalak. Hala ere, autore honen ustez, prentsa instituzionalarekin alderatuz gero, tipologia ez ziren kategoriatu eta guztiz bereziak.

La Baskonia aldizkariak Bolivar 580 helbidean izan zuen bere lehen egoitza. Hasi eta denbora gutxira Mexico 524 kalera mugitu zituen erredakzio eta administrazioa. Bigarren urterako Avenida de Mayo 781 helbidean zeuden eta bertan egongo ziren, 1903an Victoria 1088 kalera joan ziren arte. 1907an Belgrano 1389-ra pasa zuten egoitza, aurreko jabearekin arazoak izan ondoren eta honi diruzalekeria leporatzen ziotelarik. Hogeita hamar urte geroago, 1937ko ekainean, Belgranotik lekualdatu behar

⁶ *La Baskonia*: “«Haitza»”, 1899/07/20, 209.zbk, 10.or. Aldizkariaren agerpena iragartzen da.

izana salatzen dute, hiriko alkateak kalea zabaltzea erabaki duelako. Mariano de Vedia y Mitre alkatearentzat hitz gogorak dituzte eta bere abizenaren euskal jatorria deitoratzen dute. Las Casas 3837 helbidera mugituko dituzte tailerrak, eta administrazioa Avenida de Mayo 1370 kalean ezarriko dute. 1939ko maiatzean berriro mugitu dira, oraingoa Carlos Calvo 653 kalera, eta bertan egongo dira aldizkaria argitaratzeari utzi arte.



Irudiak 17 eta 18: *La Baskonia* aldizkariaren fatxada eta tailerrak Belgrano 1389 helbidean.
Iturria: Jon Bilbao Basque Library, University of Nevada-Reno Library.

Aldizkariak honako prezioak zituen lehen urtean:

Buenos Aires:

Un trimestre.....2,00 \$m/n

Un semestre.....3,50 “ “

Un año.....6,50 “ “

Provincias:

Un trimestre.....2,40 \$m/n

Un semestre.....4,50 “ “

Un año.....8,50 “ “

Repúblicas sud-americanas:

Trimestre.....1,20 oro

Semestre.....2,20 “

Año.....4,- “

Prezioak mantendu egingo ziren hainbat urtez, eta 1918ko urrian argitaratutako 902. zenbakian prezio berriak azaldu ziren, igoera txiki batekin:

Capital federal (por año).....8,00 \$m/n
Provincias (por año).....9. “ “
R. Oriental y otras (por año)...4,50 oro

1932ko uztailean (1396.zbk) zailtasun ekonomikoek eraginda diseinua aldatuko dutela jakinarazten da. Hala ere, prezioak ez dira igoko eta zentzuzkoena hori dela esaten da editorialean. Munduan bizi den egoera ekonomiko zaila normaldu bitartean, aldizkariaren aurkezpeneko dotoretasuna apalduko dutela jakinarazten da, bazkideen poltsikoak kaltetu beharrean.

La Baskonia-k harpidetzak kobratzeko zailtasunak edukiko ditu eta bere orrialdeetan etengabe eskatuko da ordainketak egunean jartzeko. Horrela, aurretik aipatutako diseinu aldaketa burutzean, 1398.zenbakian⁷, esango dute mila harpide inguruk ez dutela oraindik beraien kuota ordaindu: “...en *La Baskonia* el pedido del pago de las suscripciones a sus lectores era crónico y no se entiende bien si era por la falta de voluntad para pagar o el mal sistema de cobro” (Cruset, 2015: 120).

Horrez gain, Correos zerbitzuarekin ere arazoak salatuko ditu *La Baskonia*-k. Aldizkariaren banaketan kexak ugariak izango dira, eta horietako batean, ironia nabarmenarekin zuzentzen zaie herrialdeko postariei:

Quejas – Son innumerables las que recibimos de nuestros suscriptores de fuera de la capital. Si por una parte nos halaga que el honorable gremio de carteros tenga en tan alta estima nuestra modesta publicación hasta el punto de quedarse con ella, por otra nos duele no podernos comunicar con nuestros suscriptores que son los que pagan.

Por eso nos dirigimos al señor Director General de Correos ofreciéndole remitir gratuitamente LA BASKONIA á todos los carteros que la soliciten por su mediación, haciendo especial mención de los de Bahía Blanca (*La Baskonia*: “Notas Locales”, 1910/03/20, 593.zbk, 12.orr).

⁷ Urazandi Digitalan ez da aurkitzen zenbaki hau eta Jon Bilbao Basque Libraryn kontsultatu ahal izan da.

1923ko abenduaren 30eko editorialean onartzen dute harpidetzen bidez jasotzen duten diruaren bidez ez dituztela aldizkariaren edizioaren gastuak berdintzen: “pero ese resultado material nada absolutamente nos preocupa; lo que anhelamos es que nuestra revista se reciba en todos los hogares baskos” (*La Baskonia*, 1089.zbk, 2.or). 1931an Jose Rufo Uriarte Euskal Herrira joango denean, aldizkariak zabal jasoko du zuzendariaren bidaia. Barkuan partitzen denean, aldizkariak bere zuzendariaren lana eta ibilbidea goratzen ditu. Aldizkarian egin den inbertsio ekonomikoaren inguruan, onartzen da 1910eko *Los baskos en el Centenario* liburuan lau mila peso inguru inbertitu zirela; 1916ko *Los baskos en la Nación Argentina* liburuan berrogeita bost mila peso; urtero banatzen diren almanaken 28 ediziotan laurogeita lau mila peso; eta bukatzeko, *La Baskonia* aldizkariaren 38 urteko ibilbidearen edizioan lau milioi peso baino gehiagoko inbertsioa azpimarratzen da:

Estas no son cifras fantásticas; todos pueden calcularlas, verlas y comprobarlas. Y el cómo ha podido llegarse a este resultado tampoco es un misterio. Una vida de sacrificio, dedicando íntegramente a esta labor, además de las suscripciones, todos los ingresos de publicidad, todos los beneficios obtenidos en los talleres tipográficos en trabajos comerciales (*La Baskonia*: “Partió para Europa nuestro Director”, 1931/06/20, 1358.zbk, 4.or).

V. *Zuzendari eta kazetarien nortasuna:*

Zuzendariak:

- Jose Rufo Uriarte (Bermeo, 1867 – Buenos Aires, 1932).

Jose Rufo Uriarte kazetari eta editorea 1867ko abuztuaren 27an jaio zen Bermeon, aita herriko Faustino Uriarte eta ama Busturiako Paula Inchausti izan zituelarik. Argentinara 1889 inguruan iritsi zen amarekin batera. Emigratu aurretik Uriarteren zazpi anaia hil ziren, eta ama eta semea ziren familiako kide bakarrak. Bien arteko loturaren erakusgarri dira Paula Inchausti 1916an hiltzean *La Baskonia*-n agertuko diren hitzak:

Esta noble y bondadosa señora, dechado de virtudes, ha llevado una vida ejemplar consagrada al cariño de su único hijo, el Sr. José R. de Uriarte, á quien idolatraba; el que, sin otro afecto mayor, reconcentraba sus afanes por rodear de todo el bienestar deseable á su amada madre. ¡Pareja

envidiable y hogar feliz tronchado inesperadamente por las injustas leyes de la naturaleza ó el irónico destino!!

LA BASKONIA está de duelo. (...)

(*La Baskonia*: “Paula Inchausti de Uriarte”, 1916/06/30, 819.zbk, 9.or).

Uriartek euskara etxetik jaso zuen eta Buenos Airesen euskaraz aritzen zen erredakziora bisitan joandako edo kalean aurkitutako euskal hiztunekin. Gaztaroko ikasketak Bilboko Instituto Vizcaínon egin zituen, eta horrek ahalbidetu zion, idazketa egokia garatzea eta formazio humanistiko nabarmena edukitzea (de Dios Altuna, 2012b).

Bere inprimategia zabaldu aurretik, Uriartek beste zenbait negoziotan parte hartu zuen, baina hasiera horretan *La Vasconia* deituko zen tipografia zerbitzua izango zen bere lehen negozio propioa. Inprimategian idazle ezagunen liburuak argitaratuko ziren lehen urteetatik, tartean Leopoldo Lugones, Ruben Dario edo Francisco Grandmontagne idazleenak, eta horrez gain, helburu komertziala zuten askotariko enkarguak egiten ziren: “A esta actividad laboral de Uriarte se sumaba su vocación por el periodismo” (de Dios Altuna, 2012b).

1893an Francisco Grandmontagnerekin batera abiatutako *La Baskonia* aldizkaria izango zen bere editore eta kazetari ibilbidean proiektu garrantzitsuena. Hala ere, beste zenbait lan nabarmen ere burutuko zituen.

Aldizkariarekin batera harpideei almanakak banatzen zitzaizkien urtero: “Un porcentaje creciente disperso de la comunidad esperaba ese almanaque anual que llegaba hasta el último rincón de los campos pampeanos” (Irianni, 2020: 7). Argitalpen mota hauek modan zeuden urte horietan eta Uriartek arte grafikoetan zuen esperientzia baliatu zuen hauek editatzeko. Almanakak kalitate tekniko eta sorkuntza handiz editatu zituen, kolore, diseinu eta irudien kalitatean nabarmenduz. Propaganda komertziala eta euskaldunen inguruko askotariko gaiak lantzen ziren berauetan. *La Baskonia*-ren almanakak balio sinboliko eta afektibo garrantzitsua izan zuten orduko euskaldunen artean, bertako tapen ilustrazioak etxe edo komertzioak apaintzeko ere erabiltzen zirelarik (de Dios Altuna, 2012b).

1910ean Uriartek *Los baskos en el Centenario* liburua argitaratu zuen Centenario Argentino ospakizunarekin bat eginez, idazle ezagunen kolaborazioak bilduz eta arrakasta editoriala erdietsiz:

Los Baskos en el Centenario se erige, en consonancia con la fecha celebrada (...), como un acontecimiento/resumen de la presencia vasca en el país, como un documento que oficializa y ratifica un nexo convivencial entre una colectividad que ya no representa su vínculo a una nueva tierra en términos de mera estancia, por lo contrario, atestigua decididamente su plena inserción en la vida argentina señalando aquellos valores y caracteres de su repertorio cultural identitario que considera actuantes y vitales en el progreso del país (Torry, 2010: 3).

1916an *Los baskos en la Nación Argentina* emango zen argitara, 1919an berrargitaratuko zena. Ia 700 orrialdeko lanean Euskal Herriko historia eta geografia jasotzen zen, euskaldunen ekarpenak argazki eta koadernaketa landuarekin jasoz. Kasu honetan ere, prentsa argentinarrak harrera beroa egin zion argitalpenari: “Modestias falsas aparte, pocas veces ha tenido una obra, éxito moral más unánime y más grande, tanto entre propios como entre extraños” (*La Baskonia*, 837.zbk, 2.or). Uriartek bere lan nekaezinarekin jarraituz, 1930ean *¿Quiénes son los baskos?* liburua argitaratuko zuen, dibulgazio euskaltzalea egiten zuen 192 orrialdeko lan heldua osatuz:

Los temas de los trabajos mencionados ponen de relieve no sólo el compromiso de Uriarte con la divulgación de la cultura vasca en la Argentina y en América, sino su identificación con el país que lo acogió y en el que depositó su particular vocación y mirada de periodista y editor acrecentada con décadas de vida en esta tierra. Testigo de los profundos cambios políticos e ideológicos producidos entre finales del siglo XIX y las primeras décadas del XX, el mensaje de divulgación de José Rufo de Uriarte respondía a necesidades comprensibles de identificación y diferenciación cultural en un país que contaba con un importante caudal inmigratorio de diversos orígenes (de Dios Altua eta Alvarez Gila, 2010: 350).

1908an Andrea Moch margolari frantziarra Buenos Airesera iritsi zen, gobernu argentinarrak mendeurrenaren omenezko monumentua egiteko bultzatutako lehiaketari erantzunez. Uriarte eta Moch bide publiko eta pribatuak gurutzatu egin ziren eta orduetik aurrera bidelagun izan ziren: “En su momento, la colectividad vasca se conmocionó porque J. Uriarte y A. Moch optaran por una unión libre en lugar del matrimonio” (de Dios Altuna eta Alvarez Gila, 2010: 353).



Irudia 19: Jose Rufo Uriarte Andrea Mochek margotua.
 Irudia 20: Uriarte eta Moch, Florentzio Basalduaren hiru alabekin batera.
 Iturria: Jon Bilbao Basque Library, University of Nevada-Reno Library.

Uriartek gaixorik eman zituen bere bizitzako azken urteak. Miokarditis kronikoa nozitzen zuen eta horrek bere lantokitik urrundu zuen, kazetari lanbidearekin etxetik jarraitu zuen arren. 1931eko ekainean, Euskal Herrira partitu zen, bere osasunak behar zuen deskantsua hartzeko helburuarekin, eta baita, urte luzez kanpoan egon ondoren bere lur maitatura bueltatzeko nahiarekin. Bidaia osoan zehar zenbait kronika bidaliko ditu *Beti Bat* ezizenarekin. Emigrante askori gertatu bezala, bueltatzean bere jaioterria arrotza suertatuko zaio eta kanpotarra sentituko bere etxea izan zenean:

Al salir a la calle, al siguiente día, y encontrarme en la llamada del Correo, una de las más clásicas, sufrí una enorme decepción, pues no era lo que la fantasía de la ausencia me había forjado: una calle comparable a la Florida de Buenos Aires en vistosidad y elegancia, con grandes negocios, brillantemente iluminados. Recorrí otros lugares, y claro, por obra de los años y las transformaciones, no encontré al Bilbao que guardaba en mi imaginación. Tampoco veía una cara conocida entre la multitud incesante de transeúntes. No conocía a nadie en mi propio país, al que pasé describiendo y ensalzando toda mi vida. Confieso que me sentí paria. ¡Triste destino de los que nos ausentamos del terruño nativo, para ser lejos de él eternamente extranjeros! (*La Baskonia*: “Recuerdos de viaje. La primera persona que saludé en Bilbao”, 1932/03/20, 1385.zbk, 5.or).

Dena den, Uriartek gogo biziz deskribatuko ditu bisitatzen dituen tokiak, Bilbotik, Donostiatik, Gernikatik edo Bermeotik idatzitako kronika ederrak utziz. Bere lanarekiko euskaldunek duten begirunearen testigu ere izango da eta *La Baskonia*-ko zuzendaria hunkitu egingo da aldizkariaren lana balioetsiz jasoko dituen esker oneko hitzekin. Lau hilabeteren ostean Argentinara bueltatuko da. Itzulerako bidaiari osasun arazoak

edukiko ditu eta Buenos Airesera iristean ohean eman beharko ditu zenbait egun. Uriartek ez du hobera egingo eta 1932ko azaroaren 27an hil egingo zen:

Cada vez con más frecuentes intermitencias y más prolongadas ausencias, nos afligía no encontrarlo en su despacho, pero aun cuando ausente, creíamos verlo ocupando su sitio, porque en torno nuestro sentíamos vibrar su alentador entusiasmo, su preocupación constante, única, LA BASKONIA, la hija muy amada, por cuya vida ha dado la suya.

(...)

Quédese para otros tiempos más dignos de la humanidad el apreciarla.

(*La Baskonia*: “Silencio”, 1932/11320, 1410.zbk, 4.or)

Hortik hilabete batzuetara, Andrea Moch ere Europara itzuliko zen hogeita bost urtez kanpoan egon ondoren. Uriarteri bere omenaldia egiteko desioari jarraituz, Bermeoraino iritsi zen, bera ere osasunez makal ibili arren. Kazetariaren jaioterrira berak zizelkatutako brontzezko plaka bat eraman zuen eta eskola munizipalean ezarri zuten (Irudia 21) : “Obra cultural baska realizada en América durante cuarenta años por Jose R. de Uriarte. Bermeo 1867 – Buenos Aires 1932”.



Irudia 21: Andrea Mochek Uriarteren omenez Bermeon ezarritako plaka.
Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia.

- Francisco Grandmontagne (Barbadillo de Herreros, 1866 – Donostia, 1936).

Francisco Grandmontagne Otaegui kazetari eta idazlea Barbadillo de Herreros (Burgos) herrian jaio zen 1866an. Gurasoak euskaldunak zituen; Javier Grandmontagne aita Banka herrikoa zen eta Benita Otaegui ama Zegamakoa. 1866 urte aldera gurasoak Burgos inguruan kokatu ziren, bere aitaren errementari ofiziorako toki aproposa baitzen. Bere amaren heriotza goiztiarrak (1869), hiru urteko Francisco eta bere anaia Juan Bautista gerora bere amaordekoa izango den inude baten zaintza pean utziko zituen.

Grandmontagnek Barbadillo de Herreros herriko eskolan jasoko zituen letren inguruko lehen ezagupenak, baina berarengan eragin nabarmena izango zuten Hondarribian bere osaba Klaudio Otaegirekin eginiko egonaldiek. Klaudio Otaegi eskola maisu eta euskal idazle jantzia izan zen, Luis Luziano Bonaparteren laguntzailea. 1886an Grandmontagne aitaren heriotza jazoko zen eta bi anaiek Hondarribira egingo zuten. Bertan, Francisco Grandmontagnek Argentinarako emigratzeko erabakia hartu zuen eta 1887ko azaroan ontziratu zen herrialde berrira bidean:

Alegría por doquier. Y pañuelos coloridos que se agitan. En medio del alboroto, oprime su entraña la triste conciencia de su orfandad. No ha de llevar en su memoria una despedida con lágrimas y besos maternos y prudentes consejos paternos. Aunque le emocionaría separarse de su tío Claudio y de su hermano. Acaso también de algunos amigos o, por qué no, de cierta neska... (Ares, 2004: 40).

Argentinan litekeena da bere lehen urratsak Hondarribiko ezagunek, eta batez ere bere osaba Klaudiok, emandako aurkezpen gutunen bidez egitea. Azken honek senideak zituen Argentinan eta bertako hainbat euskaldunekin ere bazuen erlazioa gutun bidez. Esan izan da Grandmontagnek bere gurasoak, anaia eta osabaz gain ez zituela bereziki harreman onak eduki familiarekin. Herrialde berrian ere itxura batean harreman hori ez zen oso gertukoa izan. Bertako lanetara moldatzeko zekartzan itxura mehar eta izaera zakarrak ez zuten horretan lagunduko (Ares, 2004).

Horrela, bi urte emango ditu panpa inguruan mugitzen eta era guztietako lanak egiten. Grandmontagnek aitortu zuenez honako lanetan jardun zuen: alpapa segalari, gautxo, estazioko peoi, igeltsero, urtzaile, napoliar nekazari pobre batzuen morroi, arto ereile, “pulperia” ostatu batean saltzaile, etab. Lan guzti horietatik azkena izango da oroitzapen on gehien ekarriko dizkiona. Hala ere, zeregin horietako askoren benetakotasuna zalantzan jarri beharra dago, are gehiago, eta berak idatzi zuenez, “manecillas débiles, anémicas, flautistas, vergüenza de la raza humana”, garai horretan zuen egoera fisiko makala eta meharra kontuan hartuta. Ez zuen sustrairik bota eta denbora laburrez egon zen toki bakoitzean:

Él no pudo o no quiso engranar en esa realidad de transformación económica y social de la Argentina, que brindaba oportunidades a todos y, particularmente, a los pioneros de buena y mala ley, que de todo hubo.

(...)

Finalmente, lo que estaba larvado en su espíritu apresuró su desarrollo en las llanuras pampeanas. En el país más austral de América el halló el norte definitivo de su destino (Ares, 2004: 63-64).



Irudia 22: Francisco Grandmontagne.
Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia.

Bere lehen kazetaritza-artikuluak *Laurak Bat* aldizkarian argitaratu zituen 1891n. Instituzioaren baitan eztabaidak eta banaketak ematen ari ziren, eta Grandmontagnek bere artikuluetan egoera kritikatu eta batasunerako deia egiten zuen. Urte horietan Jose Rufo Uriarte ere *Laurak Bat* elkartean mugitzen zen eta bertan ezagutu ziren aldizkari berrian bazkide bilakatuko ziren bi kideak. Biek ala biek instituzioaren barne bizitzan parte hartzen zuten. Urte batzuk aurrerago, Grandmontagnek bertan emandako hitzaldi baten kronikak honela deskribatzen zuen kazetari gaztea:

Nuestro compañero de tareas, Francisco Grandmontagne, nos dió una disertación sobre el estoicismo vasco, y por debajo de la mesa sobre el cual disertaba, diónos otro sobre su inquietud nerviosa y su falta de estoicismo muscular, que seguramente no se parece á la quietud estoica de los *fakires*. Apesar de la seriedad del tema aquel movimiento la tornó casi festiva, causando una discreta hilaridad en las muchachas, las cuales pudieron deducir que si el disertante promete poco como filósofo, en cambio podrá distinguirse como elemento inquieto (*La Baskonia*: “Velada del *Laurak-Bat*”, 1899/11/30, 222.zbk, 9.or).

Grandmontagne *La Baskonia* aldizkarian aritu zen urteetan, kazetaritza lan zinez azpimarragarria burutu zuen. Kazetariak “Luis Jaizquizbel” pseudonimoa erabiliko zuen bere artikuluak sinatzeko, baita bere abizena edo horien inzialak ere. Izengoitia osatzerako orduan, bere seme-alabei esandakoaren arabera, Luis izena bere osabaren

lagun Luis Luziano Bonaparteren omenez hartu zuen eta Jaizkibelek Hondarribiko mendiaren oroitzapena zuen oinarrian (Ares, 2004).

Aldizkariaren lehen urteetan, Grandmontagnek ia hiru biografia idatzi zituen hilero, baita kontakizun eta ipuinak ere, eta zenbaitetan bi artikulua zenbaki bakoitzean, izengoiti ezberdinak erabiliz. Berrehun biografiatik gora idatzi zituen, batez ere euskal historiari lotutako pertsonaia esanguratsuen edo euskal jatorria zuten amerikar arrakastatsuen bizitzak jasoz:

“Sus notas exaltaban el virtuosismo, el esfuerzo, la inteligencia y la perseverancia de los vascos. El pensamiento y la conciencia de la comunidad euskara, se mantuvo a través del tiempo mediante sus escritos transmisores de estos mensajes, logros intelectuales, poderío económico y triunfos de diverso orden” (de Dios Altuna, 2022).

Grandmontagnek lehen urte horietan zenbait nobela ere idatzi zituen: *Teodoro Foronda – Evoluciones de la sociedad argentina* (1897), *La Maldonada* (1898) eta *Vivos, Tilingos y Locos Lindos* (1901). Bere liburuetan kutsu autobiografikoa nabari da, panpako ibileretan eta immigrazioaren testuinguruan oinarrituta. Liburu horien pasarteak *La Baskonia*-n ere agertuko ziren:

Frecuentemente se ha afirmado que el periodismo anuló en él al novelista y que, de haber continuado en ese género literario hubiera dado otras obras de valor (...)

La agotadora tarea de escribir numerosas cuartillas para el diario, posiblemente le restó el tiempo y además el ocio necesario para abocarse a redactar obras de envergadura, conformándose ante esa circunstancia forzosa, con derivar su talento creador hacia el ensayo, un tipo de literatura híbrido, fragmentario e informal que no le exigía esfuerzos de gran aliento (Ares, 2004: 258).

Hala ere, Grandmontagne eta Uriarteren arteko harremanean arrakalak sortuko ziren eta aldizkariaren bi bazkideak urruntzen joango ziren: “Voluntariamente y en la mejor armonía ha dejado la codirección...” (289.zbk, 2.or). Alabaina, banaketa ez zen izan esan bezain gozoa, Grandmontagnek orduan Miguel Unamunori idatzitako gutunetan agerian geratzen denez. Gutun horiek urte asko geroago ezagutuko ziren, eta bertan, Uriarte gogor kritikatzeko du bazkide ohiak. Eztabaidaren oinarrian Unamunok Bilboko Lore Jokoetan eman zuen hitzaldi ezagunaren, non euskarari hileta duina ematearen alde agertu zen, inguruan zituzten iritzi ezberdinak egon ziren. Grandmontagnek aldizkaria

uzteko iragarpena egiten zuen zenbaki berdinean aurrerago, Juan Sebastian Jacak kritika zorrotza egiten zien Unamunok esandakoei “Unamuno y Euskaria” artikuluan. Bi bazkideek Kubako Gerraren inguruan zituzten desadostasunak (Ares, 2004) eta euskal abertzaletasunarekiko ikuspegi kontrajarriek (de Dios Altuna eta Alvarez Gila, 2010) areagotu egin zuten banaketa. Horrela, 1901eko urriaren 10ean Grandmontagnek *La Baskonia* aldizkaria utziko zuen: “Sin duda Grandmontagne y Uriarte en 1901 son fiel reflejo de las disensiones en lo ideológico y político que repercutieron entre la comunidad vasco-argentina” (Cava Mesa, 1996: 151)..

Aldizkaria utzi eta denbora gutxira, 1903an, Grandmontagnek Argentina utziko zuen. Donostian errotuko zen eta bertan osatuko zuen bere familia. Aldizkari ezberdinetan kolaboratzen jarraitu zuen, eta 1906tik aurrera, *La Prensa* egunkari argentinarraren korrespontsala izan zen hogeita hamar urtez, 1936an ekainaren 1ean hil zen arte.

- Daniel Lizarralde (Tolosa, 1853 – Buenos Aires, 1923).

Uriarte eta Grandmontagneren banaketa gauzatu eta urtebetera, Daniel Lizarralde sartuko zen zuzendaritzan. 1902ko abenduaren 20ko zenbakiko editorialean Lizarralde zuzendaritzako kide berria izatera pasako dela jakinarazten da. Hurrengo zenbakian, “Mi programa” artikuluan, zuzendari berriak bere asmoak eta konpromisoa adierazten ditu: “La cooperación es el áncora de salvación de las sociedades” (*La Baskonia*, 333.zbk, 2.or).

Zenbait autorek, Ezkerrok (2004), Altonagak (2009) eta de Dios Altuna eta Alvarez Gilak (2010), zalantzak eduki dituzte Lizarralde zuzendaritzan egon zen denbora tarte zehazterako orduan. Aldi motz bat izan zen ala 1923an Lizarralderen heriotza gertatu arte luzatu ote zen aldia ez da argi geratu. *La Baskonia* aldizkarian bere heriotza dela eta agertutako nekrologikoak soilik kolaboratzaile bezala aurkeztuko du Lizarralde (1072.zbk). Bestalde, 1908eko martxoan ospatutako argazki lehiaketa batean, Lizarralde epaimahaian egongo da eta aldizkaritik kanpo dauden kideen artean kokatuko zaio (521.zbk).

Aldizkariaren 25. urteurrena ospatzeko argitaratu zuten zenbaki bereziko “Bodas de Plata” artikuluan, aldizkariaren ordura arteko erreposoa egiten dute. Bertan zehaztutakoak erakusten du Daniel Lizarralde denbora tarte labur batez soilik egon zela aldizkariaren zuzendaritzan:

El 30 de Diciembre de 1902, respondiendo a un proyecto de evolución, entró a formar parte de la dirección el ilustrado Dr. Daniel Lizarralde; pero a los pocos meses se retiró por no llevarse a cabo el plan enunciado (*La Baskonia*: “Bodas de plata”, 1918/10/10, 901.zbk, 5.or).

- Pedro de Echeverria (Tolosa, 1876 – Buenos Aires, 1953).

Jose Rufo Uriarteren heriotzaz geroztik Pedro de Echeverria izango zen aldizkariaren zuzendaria azken zenbakira arte. “Eizmendi” izengoitia erabiliz 1904an hasi zen *La Baskonia*-n kolaboratzen. Euskal Herritik hainbat kronika bidali zituen argazkiekin.

1905ko urtarrilean (406.zbk, 13.or) administrazioan aldaketak jazoko dira, Hipolito G. de Andoin-ek urte askoren buruan bere postua uzten du eta Pedro de Echeverriak jarraituko du zeregin horretan, korrespondentzia berari bidaltzeko eskatuz. 1910 hasieran Echeverriak sinatutako zenbait editorial agertuko dira. 1923an ere (1082.zbk) aldizkariko administratzailea dela adierazten da, honi egindako ebakuntza bat dela eta.

Uriarte hiltzean, hainbat kidek Sozietate Anonimo bat eratu zuten, S.A. La Baskonia, eta Pedro de Echeverria izendatu zuten aldizkariaren zuzendari (Irigoyen Artetxe, 2008). 1935eko abuztuan Laurak Bat elkarteak *La Baskonia*-ri eskainitako omenaldian, Ramon Landajo elkarteko presidenteak, Jose Rufo Uriarteren ibilbidea goraiatu eta honakoa esan zuen zuzendari berriaren inguruan:

Puede decirse que por darla vida, dió la suya.

Y el amigo inseparable en sus campañas y en las grandes amarguras que fueron constantes compañeras en su vida de escritor y periodista, fué usted, señor Echeverría.

(*La Baskonia*: “Homenaje de Laurak-Bat a La Baskonia”, 1935/08/15, 1473.zbk, 3.or).

1937ko abuztuan (1521.zbk) Carlos G. Menica y Goñi zuzendari berria dela jakinaraziko da. Hala ere, Menicak denbora labur batez soilik ordezkaturiko du Echeverria eta bere lana eskertuko diote: “...debemos dejar constancia de nuestro

agradecimiento por la serenidad, elevación y acierto que ha demostrado mientras con toda gentileza nos ha reemplazado” (*La Baskonia*, 1529.zbk, 2.or). Horrela, Echeverria izango da zuzendaria aldizkaria bere ibilbidearen bukaerara iritsi arte.



Irudia 23: Pedro de Echeverria.

Irudia 24: Echeverriaren logela *La Baskonia*-n.

Iturria: Jon Bilbao Basque Library, University of Nevada-Reno Library.

Kazetariak:

La Baskonia-n garaiko euskal idazle eta ikertzaile intelektual garrantzitsuenen artikuluak argitaratu ziren. Euskal Herriko pentsalari, historialari, hizkuntzalari, nobelagile, poeta edo kazetari ugarien artikuluak euskal kultura hedatu zuten diasporan. Honakoak dira aldizkarian agertzen ziren zenbait sinadura, beste askoren artean: Arturo Kanpion, Fermin Herran, Ricardo Becerro Bengoa, Juan Cancio Mena, Hermilio Oloriz, Francisca Sarasate, Juan Iturralde Suit, Vicente Arana, Francisco Lopez Alen “Mendizmendi”, Adrian Loyarte, Pablo Zamarripa ta Uraga, Karmelo eta Bonifazio Etxegarai, Telesforo Aranzadi, Jose Maria Salaberria, Alfredo Laffitte, Gregorio Mujika, Engracio Aranzadi “Kizkitza”, Resurreccion Maria Azkue, Ramon Berraondo “Martin de Anguiozar”, Angel Maria Castell, Miguel Ancil, Eugenio Gabilondo “Calei Cale”, Antonio Peña y Goñi, Fernando de la Quadra Salcedo, Miguel Unamuno, Fernando Irigarai “Larreko”, Biktoriano Iraola, Ramon Artola, Marcelino Soroa, Felipe Arrese eta Beitia, Emeterio Arrese edo Cayetano Sanchez Irure.

Horietako gehienek artikuluak pentsatzekoa da Euskal Herriatik jasotako argitalpenetatik hartzen zituztela. Zenbaitetan artikuluaren jatorrizko aldizkaria zein den

zehazten da, baina gehienetan egilearen sinadura soilik dator. Dena den, badaude aldizkarirako beren-beregi idatzitako artikulak ere. Horren erakusgarri, zenbait artikulutan “para *La Baskonia*” idatzitako kolaborazioak direla zehazten da edo korrespontsalak direla baieztatzen da.

Argentinako euskal komunitateko kide esanguratsuenek ere presentzia nabarmena zuten aldizkarian, horien artean Juan Sebastian Jaca (“Ferron de Ollaz”), Daniel Lizarralde (“Baron de Euskaria”), Florentzio Basaldua, Tomas Otaegui, Evaristo Bozas Urrutia, Juan Jose Garcia Velloso, Faustino Diez Gaviño edo Ulpiano Castet y Lejarcegui.

VI. *Edukiaren egituraketa:*

a) *Lehen orrialdea*



Irudia 25: *La Baskonia* aldizkariaren goiburua.
Iturria: Urazandi Digitala.

La Baskonia-ren lehen urteetan, portadan euskal pertsonaia ezagunen erretratuak argitaratuko dira. Aldizkariaren lehen orrialdeetan datozen biografiak osatuz, portadan euskaldunen historian, artean, erlijioan edo ekonomian gailendu diren pertsona horiek grabatuak etorriko dira.

Aldizkariak aurrera egin ahala, portadan margolanak ere jarriko dira, batez ere euskal jendea eta paisaiak irudikatzen dituztenak. Baserritar giroan oinarritutako margolanak ohikoak dira, baita baserritarren izaera garbia erakutsi nahian, beraien aurpegi eta janzkerak gertutik erretratatuak dituztenak.


Denborarekin argazkiak gero eta ohikoagoak bihurtuko dira portadan. Egileen artean nabarmendu behar dira Enrique Guinea eta Indalecio Ojangurenak bidalitako argazkiak. Euskal Herriko paisaiak, herrietako eta hirietako txokoak, gizarte tradizionalari lotutako eszenak, baserriak eta eraikin historikoak, folklore ospakizunak, etab. jasoko dira aldizkariaren lehen orrialdean.

Bestelakoan artean, 1914an hasita, denbora tarte batez, Biktoriano Iraola margolariaren umorezko ilustrazioak argitaratuko dira portadan testu laburrekin lagunduta, bineta modukoak osatuz. Horrez gain, uztailaren 21aren efemeridea oroitzeko alegoriak ere egongo dira portadan.



Irudia 26: *La Baskonia*, 1906/09/10, 466.zbk, “Iturriko izketak”.
 Irudia 27: *La Baskonia*, 1917/01/30, 840.zbk., “Caminando” (E. Guinea).
 Iturria: Urazandi Digitala.

Titulu nagusia: izaera
 1.666 erantzun




Grafikoa 11: Titulu nagusiaren izaera (*La Baskonia*).
 Iturria: lanaren egileak egina.

Titulu nagusiaren izaerari dagokionez, gai kulturekin batera gai politikoak dira nagusi, gai sozialen presentzia ere azpimarragarria delarik (Grafikoa 11). Deigarria da *La Baskonia* aldizkaria kulturala izanik, politika hizpide duten artikuluek horrenbesteko pisua edukitzea lehen orrialdean. Horrek erakusten du politikak ere leku nabarmena eduki zuela aldizkarian, are gehiago aldizkariaren ibilbidean aurrera egin ahala, eta Euskal Herriko gertakizun politikoek modu argian baldintzatu zutela aldizkariaren jarduna. Bestalde, titulu nagusian askotariko gaiak lantzeak, erakusten du *La Baskonia*-k ikuspegi zabala zuela eta euskaldunen historiarekin bezainbat gaurkotasunarekin arduratuta zegoela aldizkaria.

Titulu nagusiko edukia: generoa

1.666 erantzun




Grafikoa 12: Titulu nagusiaren generoa (*La Baskonia*).

Iturria: lanaren egileak egina.

Titulu nagusiko edukiaren generoari dagokionez, iritzi-generoak izango dira nagusi, erreportajeak ere sarritan txertatuz, eta bestelako generoak ere erabiliko direlarik (Grafikoa 12). Aldizkariak diasporako euskal kolektibitatean eragiteko eta eztabaidarako espazio gisa zuen garrantziaren erakusgarri, iritzi-generoek gaurkotasun gaiei buruzko hausnarketak bultzatuko dituzte eta aldizkariaren printzipioak sustatzeko erabiliko dira. Kronikak eta albistek ere erabiliko dira titulu nagusian, Euskal Herriko ospakizun edo gertakarien berri emateko batik bat.

Editoriala
1.666 erantzun



Grafikoa 13: Editoriala (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Editorialei dagokienez, aztertu diren zenbakien ia erdietan editoriala identifikatu da aldizkariaren lehen orrialdean (Grafikoa, 13). Editorial ia guztiak sinatu gabe daude, gutxi batzuetan “La Dirección” gisa sinatu bazen ere. Urtero urriko lehen zenbakian, editoriala argitaratuko da aldizkariaren urteurrena dela. Aldizkariak beste urte batez jarraitzeko lagundu dietenei eskerrak emango zaizkie eta irakurleengan ilusio berria barreiatzeko saiakera egingo da, sarritan nazioarteko gertakizunek lagunduko ez duten arren. Urte berriaren hasierarekin ere editoriala agertuko da, zenbaitetan urteak eman duenaren errebasoa eginez. Foruen abolizioari lotutako uztailarik 21a (1876) eta urriaren 25 (1839) datetan ere, editorialak argitaratuko dira foruen eskubideen defentsa eginez. Era berean, neurri txikiagoan bada ere, Argentinaren independentziari lotutako maiatzak 25 (1810) eta uztailak 9 (1816) efemerideak ere oroituko dira, herrialde hartzailearekiko duten errespetua adieraziz. Lehen orrialdean “Notas” bezala argitaratzen diren zutabe laburrak ere editorialtzat hartu dira, gertaerekiko aldizkariak duten ikuspegia modu laburrean azaltzen baita. Orokorrean, *La Baskonia*-k editoriala plazaratuko du gaurkotasan gai baten inguruan aldizkariaren ildo editoriala zehaztu behar dutenean, hau da, nazioarteko, Euskal Herriko edo Argentinako gertakizun baten aurrean aldizkariaren jarrera adierazi behar dutenean.

b) *Aztertutako piezen estiloa*

Garaiko kazetaritza modernoaren pausoak jarraituz eta kazetaritzak gizartean zuen funtzio eta betebeharren jakitun, idazkera zainduagoa antzeman daiteke *La Baskonia*-n.

Literatura askean edo propaganda zuzenean geratu gabe, artikulua orekatu eta landuagoak egiteko saiakera ikusten da aldizkarian.

Erreportajeak ondo dokumentatuta daude eta, iritzi edo usteen gainetik, datuetan oinarritzen dira baieztapenak. Hala ere, Iritzia ematea ez da baztertzen, lan sakon hauen helburua euskalduntasunaren zabalkundea egitea baita. Horretarako, interpretaziotik haratago joan eta jarrera edo ideia batzuk sustatzeko ahalegina egiten da testuetan.

Iritzi-artikulu eta zutabeak argi bereizten dira, aldizkariaren jarrera finkatzeko edo egile baten iritzia plazaratzeko erabiliz. Euskal Herriari buruzko albiste laburrei dagokienez, “Correo de Euskaria” sailean, ez da ohikoa iritzia ematea eta informazio soilean geratzen dira berriak. Ordea, diasporako euskaldunei buruzko albisteetan, “Notas Locales” sailean, gertatu denaren balorazioa egitea eta irakurleei zuzentzea ohikoa da. *La Baskonia*-k irakurleekin elkar eragina bilatzen zuen argitaratzen zen ingurunean, aldizkaria mugitzen zen gertuko komunitatearen erakusgarri.


c) *Kazetaritza generoak*

La Baskonia aldizkarian lantzen diren eduki eta informazio motei dagokienez, argigarria da agerkariak 25 urte betetzean argitaratu zuen editorialean datorren deskribapena:

Y contienen los veinticinco tomos, cuantos asuntos se relacionan con el país basko, bajo distintos aspectos: retratos y biografías de personalidades que se han destacado en las ciencias y las artes, en la industria, el comercio y demás actividades; multitud de vistas de pueblos acompañadas de sus descripciones, serios trabajos sobre el baskuenze, Fueros y costumbres, monografías, música baskongada, agricultura, ganadería, etc. Y en todos los números dá a conocer en amplia sección noticiosa, lo acaecido cada diez días en Alaba, Gipuzkoa, Bizcaya, Nabarra, Laburdi, Benabarre y Zuberoa (*La Baskonia*: “Bodas de plata”, 1918/10/10, 901.zbk, 7.or).

Albisteak:

Albisteen kopurua (zenbaki bakoitzean)
1.665 erantzun



Grafikoa 14: Albisteen kopurua zenbaki bakoitzean (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Albisteei dagokienez, grafikoak argi erakusten du albiste kopuru handia dagoela aldizkariaren zenbaki bakoitzean (Grafikoa 14). Albiste horietako gehienak “Notas Locales” eta “Correo de Euskaria” sailetan banatzen dira. Ikusi da lehen orrialdean ere zenbaitetan albistea izaten dela titulu nagusia eta aldizkarian zehar tartekatutako albiste solteak aurkitzea ere posible da.

“Notas Locales” sailean, Argentinako, eta orokorrean Ameriketako, euskal kolektibitateari eragiten dien albisteak aurkitzen dira. Horrela, bertan aurkituko dira diasporako kideei eragiten dien askotariko berriak: euskal elkarten (Laurak Bat, Centro Vasco Francés, Centro Navarro, Euskal Echea edo Uruguaiako Euskal Erria) jarduerak, negozio berriak edo horien izen aldaketak, komunitateko kideen joan eta etorri bidaiak, portura iritsitako euskal bidaiariak, ezkontzak, heriotzak (eskelak zenbaitetan argazkiekin daude), aldizkari eta liburu berrien argitalpenak, eguraldi iragarpenak, pilota partiduen emaitzak, etab.


“Correo de Euskaria” sailean albiste motz eta ugariak egongo dira, probintziaka banatuta. 214. zenbakian albisteei titular laburrak jartzen hasiko dira eta pixkanaka albiste guztiek titular labur bat edukiko dute, esaterako: incendio, fiestas, vendimia, movimiento carlista, los socialistas bilbaínos, cátedra en Oñate, fallecimiento, etab. Albiste horiek idazteko Euskal Herritik iritsitako aldizkariak zituzten iturritzat. Horrela,

zenbait zenbakitan saila argitaratu ezina adieraziko dute, aldizkariak itsasoz bestaldetik ez direlako iritsi.

Erreportajeak:

Erreportajeen kopurua (zenbaki bakoitzean)

1.666 erantzun



Grafikoa 15: Erreportajeen kopurua zenbaki bakoitzean (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Erreportajei dagokienez, genero erabilienetarikoa izango da eta kasik zenbaki guztietan egongo dira (Grafikoa 15). Era berean, aldizkarian espazio gehien hartzen duen generoa izango da. Kopuru aldetik zenbaki bakoitzean erreportaje asko egon ez arren, lan mardulak izango dira eta hainbat orrialde hartuko dituzte. Arnasa luzeko lanak ohikoak dira aldizkarian eta zenbait erreportaje zenbaki bat baino gehiagotan ere luzatzen dira.

Erreportajeak aldizkariaren haspenetatik erabiliko dira, eta horren erakusgarri dira, lehen urteetako hasierako orrialdeetan Francisco Grandmontagneren eskutik argitaratzen diren biografiak. Euskal gaiei buruzko lan sakonak ere ohikoak izango dira, eta horrela, historiari, geografiari, hizkuntzari edo ohiturei buruzko erreportaje landuak aurkitzea posible da aldizkariaren orrialdeetan.


Euskal Herriko herriei buruzko erreportajeak aldizkariaren ibilbide osoan argitaratuko dira eta sarritan argazki ederrekin osatuko dira testuak. Euskal baserria ere aztergai izango da egile ezberdinen partetik eta euskal kulturaren funtsezko zutabetzat hartuko da. Euskal industria eta ekonomiari buruzko azterketak egongo dira, eta aldi

berean, euskal emigranteek herrialde berrian sortutako negozio eta estantzia arrakastatsuen berri emango da.

Euskal dantzen jatorria eta esanahia modu zabalean azalduko da. Pilotari buruzko lanak ere ugariak izango dira, historian egon diren pilotari ezagunen biografiak bilduz eta kirol honi lotutako pasarte gogoangarriak kontatuz. Euskal kulturari lotuta, antzerki lanen inguruko erreportajeak ere ohikoak izango dira, obraren nondik norakoak azalduz, egilearen ibilbidea kontatuz eta antzerkiko argazkiekin lagunduz testua.

Kronikak:

Kroniken kopurua (zenbaki bakoitzean)
1.666 erantzun



Grafikoa 16: Kroniken kopurua zenbaki bakoitzean (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Kronikei dagokienez, hauen erabilera urriagoa izango da beste genero batzuekin aldetuz gero, baina aldizkarian modu erregularrean agertuko dira (Grafikoa 16). Aldizkaria euskal kolektibitate argentinarean jazozen ziren ekitaldien eta Euskal Herriko azken gertakizunen berri ematen saiatzen zenez, kroniken bidez irakurleari horietan bizitako giroa helarazten saiatzen zen. Orokorrean, kronikek balio literario handia dute.

“Notas Locales” sailean sarritan agertuko dira kronikak, kolektibitatean ospatzen diren festa edo kontzertuen kontakizuna eginez. Kronika ugariaren artean, Plaza Euskarán Asociación Patriótica Españolak eginiko festa (110.zbk), Pello Mari Otaño eta Felix Ortiz San Pelayoren “Artzai-Mutilla” obraren estreinaldia (230.zbk), Felix Garci-Arceluzek Constantino tenorearen kontzertuaz eginiko kronika (242.zbk) edo Laurak

Baten Gernikako Arbolari egindako bedekazioa (449.zbk) aipatu daitezke. Kolektibitatean ospatzen ziren festa eta banketeen kronikek orrialde osoa hartzen zuten zenbaitetan eta ospakizuneko argazkiekin laguntzen ziren.

Euskal Herriko hainbat txokotatik ere kronikak bidaliko dituzte kolaboratzaile ezberdinek. Beste batzuen artean, Pedro de Echeverria, Francisco Azpirik, Santiago Aranazek, Fernando de Zabalak edo Jose Rufo Uriartek bidaliko dituzte bidaia kronikak. Aldizkariaren korrespontsalek inguruko herrietara edo Uruguaira eginiko biretatik ere iritsiko dira kronikak, Juan de Egia eta Emeterio Quintanaren eskutik adibidez. Euskal hirietan jazotako gertakizun garrantzitsuenak laburbilduz ere bidaliko dituzte kronikak korrespontsalek, esaterako, “Vida donostiarra” izenburuarekin Alfredo Laffittek.

Eusko Ikaskuntzak eta bestelako entitateek antolaturiko ospakizunen kontakizuna ere egingo da, egun osoko egitarauaren jarraipena eginez. Hitzaldi ugariaren kronikak egiten dira, hizlariak esandakoa modu zeharkakoan azalduz. Hitzaldiaren edukian oinarritzen dira kontakizunak eta ez dute apenas giroaren deskribapenik edo balorazio pertsonalik egiten.


Bestelako kroniken artean, mendi ibilaldien kronikak ugariak eta ohikoak izango dira, euskal txokoak ezagutarazteko asmoarekin. Festetako kronikak ere sarritan argitaratuko dira, San Fermin festei buruzkoak nabarmentzen direlarik. Gerra kronika gutxi batzuk ere aurkitzea posible da.

Elkarrizketak:

Elkarrizketei dagokienez, aldizkaria argitaratuko den urte guztietan elkarrizketa bakan batzuk soilik argitaratuko dira. Horien artean hauek dira nabarmenenak: Daniel Lizarralderi, sudurreko ebakuntzei buruz (366.zbk); Florentzio Basalduari, Calcutan egingo duen egonaldiaren inguruan (573.zbk); Sota y Aznar nabigazio enpresari ordezkari bati (1171.zbk); Juan Pedro Passicoti, Euskal Herriko bidaiatik itzultzen denean (1234.zbk); eta azkenik, Ixaka Lopez Mendizabali Gerra Zibilak eragindako erbesteratzearen inguruan (1557.zbk).

Iritzi-artikuluak:

Iritzi-artikuluak (zenbaki bakoitzean)
1.666 erantzun




Grafikoa 17: Iritzi-artikuluen kopurua zenbaki bakoitzean (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Iritzi-artikuluak dagokienez, aztertutako aldizkariaren ia bi herenetan aurkitu daitezke genero honetako artikuluak, zenbaki bakoitzean dagoen kopurua handia ez izan arren (Grafikoa 17). Gainera, ikusi da iritzi-artikuluak ohikoak direla lehen orrialdeko titulu nagusian, beraz, irakurleengana iristeko genero eraginkorra zela baieztatu daiteke. Horrela, *La Baskonia* aldizkariaren helburu behinena euskal kulturaren eraikuntza eta hedapena egite baten ere, iritzi-artikuluak modu jarraituan erabiltzeak erakusten du irakurleengan eragin zuzena edukitzea ere bilatzen zela.

Iritzi-artikuluetan, Euskal Herriko eta Espainiako politikari buruzko iritziak (foruak, abertzaletasuna, autonomia, Errepublika, Estatutua, etab.), nazioarteko gertakizun lazgarriek (Lehen Mundu Gerra, ekonomia krisia, etab) eragindako ezinegona, Argentinako euskal kolektibitatean jazotzen diren eztabaidak, euskal kultura eta bere ezagutza zabaltzeko beharra, euskararen garrantzia eta galtzearen arriskua, ohitura eta kirol moda berrien egokitasun eza, etab. izango dira testuetan azalduko diren gaiak.

Iritzi-zutabeak:

Iritzi-zutabeak (zenbaki bakoitzean)
1.666 erantzun




Grafikoa 18: Iritzi-zutabeen kopurua zenbaki bakoitzean (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Iritzi-zutabeei dagokienez, aztertutako aldizkariaren herena baino gehiagotan aurkitu daitezke genero honetako artikulua, zenbait zenbakitan 6-10 iritzi-zutabe aurkitzea ere posible delarik (Grafikoa 18). Bi iritzi-generoen erabilera ohikoak erakusten du aldizkariak irakurleengan eragina izateko zuen asmoa eta inguruan ematen ziren eztabaidetan parte hartze aktiboa izateko zuen prestutasuna.

Zutabeak editorialetan erabiliko dira gehien, aldizkariaren urteurrenak, urteberri egunak eta foruen abolizioa oroitzeko datak finkoak direlarik. Horrez gain, editoriala “Notas” moduan argitaratzen denean, zutabe bat baino gehiago eskaintzen dira. Neurri batean horrek azaltzen du zenbait zenbakitan zutabe kopuru handia zenbatu izana. Iritzi-zutabeak gaurkotasun gaien inguruan aldizkariaren jarrera finkatu eta irakurleei ezagutarazteko erabiliko dira.

Literatura artikulua (ipuinak, poesia, bertsoak):

Literatura artikulua: ipuinak, poesia, bertsoak (zenbaki bakoitzean)
1.666 erantzun



Grafikoa 19: Literatura artikuluen kopurua zenbaki bakoitzean (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egin.

Literatura artikuluei dagokienez, aztertutako zenbaki portzentaje altu batean aurkituko dira, zenbaki gutxi batzuetan 6-10 literatur lan ere egongo direlarik (Grafikoa 19). Hala ere, erreportajeekin alderatuz gero, aldizkarietan hartuko duten espazioa nabarmen urriagoa izango da eta askotan artikulua solteak izango dira.

Euskarazko artikulua batik bat poemak edo literatur pieza direla esatea zuzena da, baina literatur artikulua gehienak euskaraz direla esatea ez da zuzena. Euskarazko poemak ugariagoak dira gaztelaniazkoak baino, baina prosazko literatur pieza gehienak gaztelaniaz daude.




Irudia 28: Jose Rufo Uriarte, Pello Mari Otaño, Florentzio Basalduaren hiru alaba eta Felix Garcia-Arceluz (1907).

Iturria: Jon Bilbao Basque Library, University of Nevada-Reno Library.

“Sección Amena” edo “Kontuak” sailetan poemak eta umorezko testu literarioak aurkitzen dira, baina literatur lan gehienak aldizkarian barreiatuta daude toki finko gabe. Euskaldunen iruditeria osatzeko beharrezko generoa izango da. Horrez gain, nabarmendu behar da zenbaitetan kronika eta literatura bereiztea ez dela erraza. Horrela, garaiko nobelagile, poeta edo bertsolari entzutetsuenen lanak irakurri ahal dira *La Baskonia*-n: Antonio Arzak, Biktoriano Iraola, Marcelino Soroa, Felix Garci-Arceluz, Cayetano Sanchez Irure, Manuel Munoa, Miguel Unamuno, Emiliano de Arriaga, Juan Arzadun, Francisco Grandmontagne, Pio Baroja, Emeterio Arrese, Pello Mari Otaño, Pepe Artola, Jose Maria Salaberria, Jose Maria Donosty, Felipe Arrese eta Beitia etab.

d) *Sailak*



Grafikoa 20: Sailen gaiak (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Sailei dagokienez, diasporako berriak eta Euskal Herriko berriak lantzen dituzten sailak dira izango dira nabarmen presentzia handiena edukiko dutenak, kulturari buruzko sailak ere aztertutako zenbakien ehuneko handi baten egongo direlarik. Euskal historia, geografia eta folklorea hizpide duten sailak kopuru txikiago baten azalduko dira eta nazioarteko gaiak jorratzen dituzten sailak gutxitan erabiliko dira aldizkarian (Grafikoa 6).


Diasporako berriei dagokienez, “Notas Locales” saila aldizkaria argitaratzen hasi zen lehen urtetik egongo da eta azken urtera arte mantenduko da, izenburuan aldaketarik eduki gabe; “Baskitos” edo “De Ceba Baska” sailak ere talde honetan sartu dira. Euskal Herriko berriei dagokionez, “Correo de Euskaria” saila ere aldizkariaren ibilbide osoan finkoa izango da; hala ere, hasierako zenbakietan “Notas de Euskaria” izenburua edukiko du eta azken urteetan “Correo de Baskonia” izatera pasako da. Kulturari buruzko sailei dagokienez, modu malguan egin da sailkapena eta bertan sartu dira, besteak beste, honako sailak: “Sección Amena”, “Porrusalda”, “Miscelánea”, “Kontuak”, “Siluetas”, Pueblos Baskos”, “Variedades” edo “Teatro y Cine”. Euskal historia, geografia eta folklorea hizpide duten honako sailak aipatu daitezke: “Sección Americana”, “Sección Histórico-Geográfico de Guipuzcoa”, “Vascos en América” edo “Heráldica Baska”. Nazioarteko gaiak, berriz, “De Todo el Mundo” eta “Crónica Mundial” sailetan landu dira. Bukatzeko, bestelako sailen artean “Sección Comercial” eta “Agricultura y Ganadería” azpimarratu behar dira.

“Notas Locales” eta “Correo de Euskaria” sailak kasik zenbaki guztietan finkoak izango dira, baina gainontzeko sailak ez dira zenbaki guztietan agertuko. Zenbaki bakoitzean argitaratzea erabakitzen den materialaren arabera, editoreek sail jakin batzuk erabiliko dituzte.

e) *Argazkiak*

Argazkiak (gaiak)

1.571 erantzun



Grafikoa 21: Argazkien gaiak (*La Baskonia*).

Iturria: lanaren egileak egina.


Argazkiei dagokienez, aztertutako zenbakietan kulturari lotutako argazkiak izan dira nagusi, euskal gizarte landatarraren irudia eta diasporako komunitatearen bizitza jasotzen dutenak ere zenbakien erdietan agertu direlarik. Euskal gizarte hiritarra jasotzen dituzten irudiak eta politikaren ingurukoak gutxiago izan dira (Grafikoa 21). Aldizkariak bere ibilbide hasieratik eman zion garrantzia bere orrialdeetan irudiak agertzeari, eta hasiera batean, ilustrazioak gehiago erabili baziren ere, joera hori aldatuz joan zen urteek aurrera egin ahala: “Las fotografías comenzaron a reemplazar la reproducción de obras de arte, tanto de pintura como de escultura y pareciera que las nuevas modas impusieron en ella estos cambios notorios” (de Dios Altuna, 2009).

Kulturari buruzko argazkiei dagokionez, zentzu zabalean ulertu da kultura, eta talde honetan sartu dira Euskal Herriko paisaiak, herrien panoramikak edo txokoak, arkitekturari lotutako eraikin historikoak edo elizak, pertsonaia esanguratsuen erretratuak, dantza eta kirol ospakizunak, etab. Diasporako komunitateari dagokien argazkietan, talde honetan sartu dira, kolektibitateko elkarte ezberdinetan ospatzen ziren ekitaldi eta festetako argazkiez gain, euskal immigranteen jardun ekonomikoari lotutako irudiak, hala nola, industria eta estantziak, nekazaritza eta abeltzaintzari loturako erakusketak, makinaria, animalia arraza ezberdinen irudiak, etab.

Argazkilarien artean aipatu daitezke Mauricio Macoartu, Ixaka Lopez Mendizabal, Enrique Guinea edo Indalecio Ojanguren (Irudia 30). Azken hau izango da aldizkarian gehien nabarmenduko dena. *La Baskonia*-n bere lehen argazkiak 1913-1914 inguruan argitaratuko ditu, baina 1920tik aurrera bihurtuko da zinez aldizkariaren “korrespontsal grafikoa”. Bere argazkiak normalean testu laburrekin lagunduta argitaratu dira, guztira *La Baskonia*-n argitaratutako 668 argazki zenbatuz. Euskal gizartearen isla ziren “momentu justuak” harrapatzen asmatu zuen Ojangurenek (de Dios Altuna, 2012). Baserritar giroa, mendi ibilaldiak, herri kirolak, haur eta gazteak, etab. erretratatu zituen argazkilariak, eta tarteka, bere autorretratuak ere egin zituen, mendiko gain ezberdinetan pausatuz:

La observación de las fotografías de Ojanguren, permite acceder al conocimiento de una Euskadi rural de aquellos años, su gente, costumbres, su vida sencilla y digna y captar el mensaje que ellas transmiten por si mismas y que el ojo avizor de su autor registró con maestría y pasión. (...)


constituyen aportes históricos y antropológicos de singular valor para su estudio (de Dios Altuna, 2012: 651).



Irudia 29: *La Baskonia*, 1904/07/10, 388.zbk, “En un chacolí de Bilbao”.
 Irudia 30: *La Baskonia*, 1927/08/10, 1219.zbk., “Homenaje al «Fotógrafo Aguila»”.
 Iturria: Urazandi Digitala.

f) Ilustrazioak

Marrazkiak/ilustrazioak (gaiak)
 1.557 erantzun




Grafikoa 22: Marrazki/ilustrazioen gaiak (*La Baskonia*).
 Iturria: lanaren egileak egina.

Ilustrazioei dagokienez, kulturari lotutako lanak izango dira aldizkarian gailenduko direnak, euskal gizarte landatarrari, politikari edo diasporako komunitateari lotutakoek ere lekua edukiko dutelarik (Grafikoa 22). Kulturari buruzko ilustrazioei dagokionez,

kasu honetan ere zentzu zabalean ulertu dira, eta esaterako, ilustrazio apaingarriak talde honen barruan sailkatu dira.

Ilustrazio eta margolan horietako asko anonimoak izango dira, baina garaiko margolari garrantzitsuenen lanak ere argitaratuko dira aldizkarian, horien artean: Arrue anaiak, Valentin eta Ramon Zubiaurre, Ignacio Zuloaga, Cabanas Oteiza edo Maurizio Kaperotxipi.



Irudia 31: *La Baskonia*, 1924/03/20, 1097.zbk, “Romería en Arrankundiaga” (J.Arrue).
Iturria: Urazandi Digitala.

Bestalde, aipatu behar da Andrea Moch aldizkariaren “korrespontsal artistikoa” bihurtuko zela (Irudia 33). Horrela, aldizkarian bere hainbat margolan argitaratzeaz gain, arte lan ezberdinen komentario literarioak eta erakusketen kronikak idatziko ditu.

Aparte de las cualidades enunciadas, destácase en esta gentil artista, dentro de su excesiva modestia, una voluntad de hierro y un carácter enérgico para arrostrar honestamente todas las preocupaciones sociales que despierta su sexo, cuando como en su caso, se vé obligada á peregrinar por el mundo. Los afanes por su carrera la hacen mirar adelante, sin vacilaciones, y con toda valentía sigue los impulsos de sus nobles anhelos por encontrar los bellos poemas de la naturaleza, para trasladarlos al lienzo con las ilusiones y entusiasmos que sienten los artistas de verdad.

(*La Baskonia*: “Cuadros baskos. La exposición del Laurak-Bat”, 1909/05/20, 564.zbk, 5.or).



Irudia 32: *La Baskonia*, 1910/11/10, 616.zbk, “De vuelta de la fuente”.
 Irudia 33: *La Baskonia*, 1923/01/10, 1054.zbk., “Andrea Moch”.
 Iturria: Urazandi Digitala.

Ilustrazio apaingarriak dagokienez, aldizkariaren kasik zenbaki guztietan egongo dira orrialde ezberdinen barreiatuta:

Respecto de la presentación de la revista, se observa la irrupción del *art nouveau*, también llamado estilo “floral” que se plasmó principalmente en el diseño de la tapa y en la diagramación interior, en títulos y textos. Fotografías, notas o poesías, fueron profusamente ilustradas con flores, guardas, guirnaldas de gusto refinado, inspiradas en formas de la naturaleza y otros detalles que definieron este estilo (de Dios Altuna, 2007).




Irudiak 34 eta 35: *La Baskonia* aldizkarian erabilitako ilustrazio apaingarriak.
 Iturria: Urazandi Digitala.

Oscar Alvarez Gilaren iritziz, berriz, Gernikako arbolari lotuta sinbologiak presentzia nabarmena edukiko du aldizkariaren diseinu eta irudietan: “...el uso del árbol de Guernica se mantuvo como “imagen de marca” de la revista –lo que se evidencia en la utilización sistemática de las hojas de roble como elemento decorativo de las diferentes secciones” (Alvarez Gila, 2019b, 197).

Bineta eta karikaturei dagokionez, Biktoriano Iraolaren lanak nabarmendu behar dira. Horrez gain, sinatu gabeko umorezko binetak sarritan agertuko dira irakurleari entretenimendua eskaintzeko.

g) Publizitatea



Grafikoa 23: Publizitate mota (*La Baskonia*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Publizitateari dagokionez, Urazandi Digitala webgunean digitalizatuta dagoen materialarekin azterketa burututa, *La Baskonia* aldizkariaren zenbaki gehienetan ez dago publizitaterik. Iragarkiak dauden zenbakietan, honakoak dira gehien azaltzen diren iragarki motak: fabrika txikiak, saltokiak, abokatuak, notarioak, medikuak, dentistak, etab (Grafikoa 23).

Hala ere, kontuan hartu behar da *La Baskonia* aldizkariaren urteko zenbaki guztiekin bilduma koadernatzen zenean, iragarkiak kanpoan uzten zirela: “Al final de cada número se ubicaba una tanda de avisos publicitarios, la cual se excluía en los tomos encuadernados” (Ares, 2004: 83). Horrela, Urazandin digitalizatutako zenbaki gehienek ez dute publizitaterik, eta ordena jakin gabe, zenbait zenbaki soltetan agertzen da publizitatea. Beraz, iturri honetan azterketa eginda, ezin da *La Baskonia*-n agertzen den publizitateari buruzko datu adierazgarriak osatu.

VII. Diskurtso ideologikoa:

Buenos Aireseko lehen euskal etxearen Laurak Bat izenak, erakusten zuen erreferentzia estatu espainiarra zutela eta euskalduntasuna Espainia edo aberri handiaren barnean kokatzen zutela. *La Baskonia* aldizkarian hasieratik argitaratuko diren artikuluetan ere argi geratzen da Espainiarekiko duten lotura: “No son por cierto los vascongados los más tardíos en acudir á los llamados del patriotismo. Amantes de la patria común, como puedan serlo el resto de los hijos de España, siéntense hondamente conmovidos por las desgracias que la afectan” (*La Baskonia*, 4.zbk, 5.or).

1895an Florentzio Basaldia aldizkariko kolaboratzaile eta euskal komunitateko kide ezagunak, La Platako *La Mañana* egunkarian artikulua idatzi zuen Kubaren independentziaren alde eginez. Artikulu horrek kritika ugari eragin zituen Argentinako espainiar komunitatean eta *El Correo Español* agerkariko zuzendariarekin duelua egitear ere egon zen Basaldia (Ezkerro, 2004). *La Baskonia*-tik bere kolaboratzailearen iritziekin zerikusirik ez zutela argitu behar izan zuten: “Comprenderán también nuestros cariñosos lectores, que no puede recaer sobre nosotros cargo de ninguna especie, por cualquier acto que un colaborador accidental cometa fuera de esta revista, hablando, escribiendo, etc. Así, clarito” (*La Baskonia*, 66.zbk, 9.or).

Gainera, aldizkaria Kubako Independentzia Gerran (1895-1898) espainiarren alde lerratu zen nabarmen, eta jarrera hori defendatu zuen hainbat artikulutan edo ondorengo poeman:

Nor eta noek dirá
Amerikako gizonak
Cubantzat egis, garbis,
Libertadea naiduanak?
(...)
Iberia da ama ta
Ama bier da maitatu-
¡Semeak ama ill naidu?
Justiziak sema urkatu!

(*La Baskonia*: “Cuba”, 1895/04/10, 55.zbk, 6.or)

Era berean, aldizkari kulturalak bere hastapenetatik hegoaldeko eta iparraldeko euskaldunen batasuna aldarrikatzen du. Horrela, bigarren urtea hastearekin batera, “Notas Locales” sailean Euskal Herriko iparraldeari buruzko albisteak txertatuko dituzte. Erabakia justifikatzeko honakoa diote: “Todos somos una misma familia, con el mismo origen, igual historia é idénticas tradiciones; por lo tanto natural es que atendamos á tan justo pedido, procurando en la medida de nuestras débiles fuerzas, la unidad de aspiraciones de todos los vascongados” (*La Baskonia*, 42.zbk, 9.or). Gainera, berri horiek euskaraz idatzita egongo dira aldizkariaren ibilbide ia osoan.

La Baskonia-k mugarik gabeko euskaldunen batasunaren aldarrikapenarekin bat egingo du. 1899an Bahía Blanca Laurak Bat elkartearen sortuko denean, ekimena gogoz txalotuko dute, baina izenaren hautaketarekin penatuko dira: “Hubiera sido preferible hasta para la mayor prosperidad de la naciente sociedad, cualquiera de estos títulos: Denak bat, Zazpiak Bat, Alkartasuna, Euskal Erria, Euskalduna, Sociedad Vascongada, etc. De todos modos, aurrerá mutillak” (*La Baskonia*, 200.zbk, 9.or).

XX. mende hasierarekin, “Zazpiak Bat” ideia eta sinbologia zabaltzen joan ziren Ameriketako euskal kolektibitatean eta prentsa izan zen zabalkunde horren adierazgarri nagusienetakoa: “...se multiplicaría en las páginas de esta prensa étnica vasca el uso, tanto de la representación visual del Zazpiak Bat, como la utilización del propio lema, que fue haciéndose un hueco en la prosa periodística vasca del exterior” (Alvarez Gila, 2019b: 294). Horren adibide, *La Baskonia* aldizkariak 1903ko martxoaren 30eko zenbakian, Zazpiak Baten armaria jarri zuen “Correo de Euskaria” sailaren goiburua bezala:



Irudia 36: *La Baskonia* aldizkariaren “Correo de Euskaria” sailaren goiburua.
Iturria: Urazandi Digitala.

La Baskonia-k bere ibilbide osoan aldarrikatu zuen politikarik ez zuela egiten, “no hacemos política” (632.zbk, 2.or) edo “carece de matíz político” (215.zbk, 8.or), eta alderdi eta korrante politiko orotatik at zeudela azpimarratzen zuten, “de todos los «ismos» y de todos los «istas»” (1428.zbk, 4.or). Guztiaren gainetik euskaldunen aldeko lana jartzen zuten: “No creemos necesarias las izquierdas ni las derechas, porque esas fracciones son políticas y no meramente patrióticas” (*La Baskonia*, 943.zbk,13.or).

“Ideológicamente comenzó defendiendo el fuerismo a ultranza (...) En general, su línea editorial fue evolucionando hacia un difuso nacionalismo” (Cruset, 2015: 126). 1876ko uztailaren 21 eguna urtero oroituko dute editorialean, euskal foruen abolizioa gogor salatuz eta euskaldunen berezko lege eta eskubideen beharra aldarrikatuz. Foruek gizartean duten onarpen eta errespetuaren erakusgarri, Canovas del Castillok, foruen abolizioa sustatu zuen berak, esandako esaldia behin baino gehiagotan errepikatuko da: “Las libertades de los baskongados, como todas las que engendra y crea la historia, aprovechan á los que las disfrutan y á nadie dañan, como no se tomen por daño la justa envidia que en otros excitan” (*La Baskonia*, 641.zbk, 2.or). Era berean, 1839ko urriaren 25eko legearen urteurrena ere oroituko da, modu apalagoan bada ere, eta bi data horiek, aldizkariaren jarrera foruzale sutsua erakusteko erabiliko dira. Urteurren horietako editorialetan erabiltzen den diskurtsoaren erakusgarri da autonomiaz eta foruez hitz egiten duen hurrengo testua:


...al hablar de autonomía, pretendemos la abolición de la ley del 25 de octubre de 1839, y de las leyes, decretos y disposiciones subsiguientes emanados del poder central en virtud de aquella (...).

...no se trata de regalías odiosas; trátase sencillamente de derechos, no otorgados, sino ingénitos en un pueblo de origen, lengua, legislación e independencia propias, que pacta equilateralmente con otros para constituir la unidad de España, conservando empero cada uno de los contratantes de su personalidad y su constitución propias,

España y Baskonia, pues, son y serán siempre dos pueblos distintos que se unen, pero no se funden.

Y decimos que serán siempre, porque el favor se retira, la merced cesa, pero el derecho ingénito no prescribe, pues es patrimonio del alma, y el alma es de la raza.

(*La Baskonia*: “Los grandes problemas baskos”, 1919/01/30, 912.zbk, 4.or).



Irudia 37: *La Baskonia* aldizkaria, 1253.zbk, 1928ko uztailearen 20a, “Fechas nefastas”.
Iturria: Urazandi Digitala.

Sabino Arana 1898ean Bizkaian diputatu hautatzen dutenean, *La Baskonia*-k honi buruzko artikulua biografiko bat argitaratuko du Grandmontagnek sinatuta. Bertan, politikari berriaren inguruko baloraziorik egingo ez dutela esaten da eta aldizkariaren jarrera herriak hartzen duena, “nosotros seremos lo que sea el pueblo”, izango dela diote. Hala ere, Arana atsegina dutela aitortzen dute, “nos es profundamente simpático”, arraza maite duelako, berau ondo ezagutzen duelako eta bere printzipioak azaltzeko duen modu irmo eta talentudunagatik: “En fin, ya veremos dentro de poco cómo se defiende el flamante diputado, cuyas ideas van á provocar no pocos conflictos” (*La Baskonia*, 180.zbk, 3.or).

Urteek aurrera egin ahala, *La Baskonia*-k euskal abertzaletasunaren ideiekiko duen gertutasuna gero eta nabariagoa izango da:

Uriarte, desde una evolución propia partiendo del difuso vasquismo que le impregnaba en sus tempranos escritos, y un conocimiento directo de la evolución política en el propio País Vasco, acabaría integrándose en la órbita ideológica del partido fundado por Sabino Arana, si bien desde unos planteamientos no siempre ortodoxos, pero sí lo suficientemente firmes como para distanciarle de su antiguo colega (de Dios Altuna eta Alvarez Gila, 2010: 344).

Grandmontagnek defendatzen zituen “hispanismo militante” planteamenduetatik urrunduz joan zen aldizkaria, *La Baskonia*-ra ortografia aldaketa edo Daniel Lizarralde zuzendaritzan sartzea horren erakusgarri direlarik (Alvarez Gila, 2019b). Hurrengo urteetan euskal abertzaletasuna eta Sabino Aranaren ideiak defendatzen dituzten artikulu eta esaldiak aurkitzea posible da, adibidez: “...en todas partes hemos de ver elevarse (...) como ideal vinculador de una raza inmortal el lema de *Jaungoikoa eta Lege zarra*” (*La Baskonia*, 491.zbk, 2.or) edo, uztailaren 21aren urteurrena oroitzeko editorialean, “La aparición del partido nacionalista en el escenario político ha influido con su tenaz y recalcitrante prédica a reavivar el fuego de la raza (*La Baskonia*, 857.zbk, 2.or).

La Baskonia aldizkarian hasieratik agertuko dira beste nazionalitate batzuei buruzko erreferentzia eta alderaketak. Gehienetan gertakari jakinei lotutako komentario urriak izango dira, baina Irlandari buruzko erreferentziak ugariagoak dira. Hala ere, 1916an Irlandan Pazko Matxinada jazoko denean, *La Baskonia*-k ez du inongo albiste edo artikulurik argitaratuko gertakizunen inguruan. Albiste gabezia hori ez zen ezagutza ezaren ondorio, izan ere, Irlandako gertaerek oihartzun zabala eduki zuten Argentinako beste hainbat komunikabidetan. Bi arrazoi egon daitezke ausentzia hori azaltzeko: batetik, aldizkariak Ingalaterrarekiko zuen iritzia, gatazka politikoak konpontzeko zuen modu egokia goretsiz eta euskaldunentzat aliatu posibletzat ikusiz; bestetik, indarkeria ez zen bide zuzena helburu politikoak lortzeko aldizkariaren ustez, eta euskal auzia foruen aldarrikapena negoziatuz konpontzea defendatzen zuten. Gainera, kontuan hartu behar da euskal abertzaletasunaren mugimenduak urte horietan Euskal Herrian zituen zatiketak, Comución Nacionalista Vasca moderatuen eta Aberri independentisten artekoak, eta irlandarren auzian nahasteak, sektore baten edo bestearen alde lerratzeo arriskua zekarren. Aitzitik, *Irrintzi*-k nabarmen egingo du matxinadaren alde, eta irlandarren bide hori defendatzearekin batera, Euskal Herriko politikan ere posizioa hartzen du, hau da, “aberrianoen” aldera lerratzen da (Cruset, 2015).

Aldizkaria kritiko azalduko da Laurak Bat elkartearen jardunarekin. *La Baskonia*-k elkarte aisialdirako erabiltzea, hau da, bertan festak, kontzertuak edo pilota partidak ospatzeko erabiltzea ez du begi txarrez ikusten, “no queremos decir que los centros baskos sean unos monasterios” (460.zbk, 2.or). Alabaina, horrek elkartearen oinarrizko

jardunaren osagarria izan behar du aldizkariaren ustez. Laurak Batek izaera foruzalea izatea aldarrikatzen da, euskaldunen historia eta ohiturak ezagutarazteko hitzaldiak antolatu eta zabalkunde lana burutu beharra:

Si la sociedad tuviese su carácter definido, se evitarían muchas de las cuestiones que se debaten ahora. Si ha de respetarse el espíritu que informó á los fundadores, imprímasele un carácter fuerista, en cuyo caso sólo podrían pertenecer á ella los que tuvieran sentimientos forales. Si quiere dársele un sello de raza, deben tener cabida en ella todos los baskos de ambas vertientes del pirineo del Pirineo y sus descendientes, y si predomina el criterio de convertirla en sociedad recreativa, que baile y se divierta todo el que esté dispuesto, en cuyo caso lo mismo podría llamarse “Laurak Bat” que “Tango-toki” (*La Baskonia*: “Laurak-Bat”, 1916/11/30, 834.zbk, 9.or).

Horri lotuta, *La Baskonia*-k zenbait ohituraren kontra gogor egingo du. Inauteriak ospatuko diren aldiro, Buenos Airesen egongo den kontrolik gabeko giroa irmo salatuko da: “¡Se fué el Carnaval! Por fin estamos libres de los días que se consagran á la barbarie. Ya es hora que se supriman esas fiestas, que sólo tienen la triste propiedad de recordar épocas brutales” (*La Baskonia*, 735.zbk, 16.or).

Euskaldunek atzeritik datozen modak bereganatzearekin, euskal dantzak, kirolak eta ohiturak galzorian jartzeaz behin eta berriz ohartaraziko dute. Dantza moda berriak ez dituzte begi onez ikusten, “esas feas y desvergonzadas parejas que bailan las polkas intimas” (215.zbk, 6.or), eta kirolari dagokionez, futbola, boxeo edo errugbia gogor kritikatu dira, zezenketekin batera. Kirola hartzen ari den dimentsioari ez diote normala iritziko, eta hainbat artikulua plazaratuko dituzte gizarteak bizi duen kirol sukarraren kontra egiten:

Poseemos los baskos el más airoso y completo sport: el juego a la pelota; sin embargo ha entrado en Euskalerría una furia futbolésca tal, que llega a lo inconcebible (...)

...se están divinizando ejercicios que se reducen a dar patadas o trompadas. Prueba evidente, el reciente desembarco del campeón de box en el puerto de Buenos Aires, al que concurrió una multitud no menor de 20.000 personas, recibimiento de proporciones jamás conocidas, que no se le hubiera brindado al mismo Aristóteles.


Queremos creer, que el delirio deportista del actual sea pasajero y que detrás vengan juventudes, nos referimos a las nuestras, recias de cuerpo y vigorosas de espíritu, que borren las huellas de la brutalidad pasada, con sus manifestaciones culturales que eduquen y enaltezcan a los pueblos.

(*La Baskonia*: “Notas. Fiebre deportista”, 1922/07/10, 1036.zbk, 4-5.orr).

Emakumeei dagokienez, *La Baskonia* iturri ezin hobea da Argentinako euskal kolektibitateak emakumeekiko zuen ikuspegia ezagutzeko. Gizonek zuzendu eta eginiko aldizkaria zen, eta gizonen generokoak kontsideratzen ziren informazio, formazio eta eztabaidetara zuzenduta zegoen. Emakumeei eskainitako artikulua urriak dira, baita familiari buruzkoak ere, eta emakumeen presentzia apenas nabari da orrialdeetan (Cruset, 2015).

La Baskonia-n argitaratu ziren biografia ia guztiak gizonaenak izan ziren. Emakumea protagonista zuen bakanetako batean, Katalina Erauso edo “Moja Alferesa”-ri zegokionean, eskaintzen den ikuspegia adierazgarria da:

En este texto, el autor sostenía que la mujer era responsable, por no decir culpable, de su situación de sujeción al varón por no reunir las cualidades de valor excepcionales, y masculinas, que sí tuvo la Monja Alferéz. En cualquier caso, desde el punto de vista historiográfico no podemos juzgar este ni otros textos sin tener en cuenta el momento histórico en que fue escrito. Lo que nos interesa sobre todo es verlo como un reflejo de la mentalidad predominante entonces entre los vascos que escribían en *La Baskonia* (Cruset, 2015: 155-156).



Irudia 38: *La Baskonia* aldizkaria, 2.zbk, 1893ko urriaren 20a, Katalina Erauso.
Iturria: Urazandi Digitala.

Emakumeei erreferentzia egiten zaien bestelako artikuluen artean, Emilia Pardo Bazanek sinatutako artikulua batean (53.zbk, 3.or), euskal emakumeek politikan duten berotasuna eta maitasunean duten hoztasuna nabarmentzen ditu. Artikulu horrek erantzuna jasoko du bi zenbaki beranduago, Casimira D. de Barbierrek Mar de Platatik sinatuta (55.zbk, 3.or), eta euskal emakumea soilik familiari zor zaiola erantzungo dio,

ez duela ez ardura politikorik ez denbora-pasa filosofikorik. Euskal emakumearen gaitasun eta baloreak aztertzen zenbait artikulua argitaratuko dira, eta horien artean, Jose Maria Salaberria idazle ezagunaren honakoa adierazgarria da:

Sin duda que por el mundo hay mujeres más bellas, de rasgos más salientes, de ojos más apasionados: pero la mujer donostiarra tiene un aire especial é inconfundible, un aire de *feminismo* muy suave, muy gracioso. Delante de algunas mujeres de los otros países, siente uno como el peligro del vértigo ó como el temor de lo extremadamente violento, exclusivo y trágico; mientras que estas mujeres de San Sebastián alejan toda idea de tragedia, y en su mirada dulce y franca se adivina el anuncio de la maternidad, una como promesa de amor honrado, consecuente...

Lo que digo de la mujer donostiarra se puede hacer extensivo á la mujer baskongada en general.
(*La Baskonia*: “Las mujeres”, 1908/11/20, 545.zbk, 2.or).

La Baskonia-k Argentinako euskaldunek argitaratzen zituzten zenbait aldizkarirekin eztabaidak ere izango ditu. 1910eko azaroan *La Euskaria* aldizkariari egotziko diote Jose Maria Salaberriak *Los Baskos en el Centenario* (1910) libururako idatzitako artikulua bat baimen gabe argitaratzea. *La Euskaria*-k emandako erantzunaren aurrean, *La Baskonia* irrimo agertuko da, “no tiene remedio, ya no se cura” (*La Baskonia*, 618.zbk, 12.or).

Nemesio Olariaga *Irrintzi* (1903) aldizkaria argitaratzen hasi baino lehenago jada, *La Baskonia*-k miresmen hitzak izango ditu honentzat. Aldizkarian argitaratutako “El regionalismo” artikulua hizpide hartuta, Olariagaren euskalduntasuna goratzen da eta bere hurrei euskara irakasteko duen ardura azpimarratzen da (236.zbk, 9or). *Irrintzi* argitaratzean ere hitz onak edukiko ditu honentzat, Olariagak aldizkaria editatu, idatzi eta bidaltzen egiten duen lana nabarmenduz: “En estos tiempos de brutal egoísmo no conocemos muchos casos idénticos” (*La Baskonia*, 493.zbk, 13.or). Hala ere, 1913an gogor egingo du aldizkari abertzalearen kontra, honek *La Baskonia* eta Uriarte kritikatu argitaratutako artikulua bati erantzunez: “El camino que se ha trazado *Irrintzi* no puede ser más funesto, ni contraproducente. Desista de él” (*La Baskonia*, 695.zbk, 3.or).

Nación Vasca (1924) aldizkaria argitaratzen hasiko direnean ere ongietorria emango diote agerkari berriari: “En los bárbaros tiempos que corremos es raro ver que haya jóvenes briosos y entusiastas que sientan arder en sus pechos la llama fervorosa que

emana del amor al solar de la raza” (*La Baskonia*, 1241.zbk, 11.or). Honek bigarren urteurrena beteko duenean agurtu egingo dute aldizkari berria eta beraien ezberdintasunean ulertzeko gogoaz azaltzen dute. Artikulu horretan (1170.zbk, 13.or) *La Baskonia*-k “eboluzio” bat eskatzen dio aldizkari politikoari eta honek ez ditu ondo hartuko esan horiek. *Nación Vasca*-tik “No es posible, señor Uriarte” artikulu tinkoarekin erantzungo diote bere agurrari. Hala ere, *Nación Vasca*-k bost urte beteko dituenean, *La Baskonia*-k berriz ere agurtuko du, aldizkariarentzat hitz onak edukiz, eta ez da nabari aurretik edukitako eztabaidaren zantzurik.

La Baskonia-aren azken urteetan, Espainiako Gerra Zibilak eragindako erbesteratzearen testuinguruan, *Euzko Deya* agerkaria argitaratuko zuen erbestean aurkitzen zen Eusko Jaurlaritzak. Agerkari berriak agurrari orduan Pedro de Echeverriak zuzentzen zuen aldizkari kulturalak emandako erantzuna garaian bizi zen tentsio giroaren erakusgarri da:

Cumplido este deber de cortesía, “amigos de Platón, pero más amigos de la verdad”, debemos manifestar la inoportunidad de esta publicación que no es “la voz de los vascos en América” sino la voz del gobierno de Euzkadi, que viene aquí a fomentar la discordia entre los baskos y... tente pluma que estamos saludando.

(*La Baskonia*: “Euzko-Deya”, 1939/07/10, 1566.zbk, 9.or).

Espainiako Gerra Zibilaren (1936-1939) aurrean bi bandoetako batekin ere ez duela bat egiten azpimarratzen du *La Baskonia*-k. Aldizkariaren irakurle bakoitzak bere hautua eginga izango duela esaten dute. Guztiaren gaineratik, Franco ala Prieto izan gudaren irabazle, euskaldunen historia eta legeak errespetatu behar dituztela aldarrikatzen du aldizkariak:

La guerra entre hermanos debe terminar inmediatamente en el País Basko; y sin vacilar, unidos en estrecho y fuerte abrazo, proclamar que sea quien fuere el final de la guerra, los baskos son ante todo baskos que quieren la Paz y los Fueros.

(*La Baskonia*: “Paz y Fueros”, 1936/12/10, 1504.zbk, 2.or)

VIII. *Euskara eta euskal kultura:*


Bergareche-ren (2009) iritziz, *La Baskonia* aldizkariak beti eduki zuen euskara sustatzeko helburua. Horretarako, hiztegiak, poemak, kantuak edo euskararen gaineko azterketak argitaratu ziren, irakurleei euskara ikasi edo mantentzeko materialak eskainiz. Buenos Airesen euskara mantentzeko hainbat saiakera eta ekimen burutu ziren, horien artean, Laurak Bat elkartean Pello Maria Otaño irakasle izan zuen euskara katedra edo Euskal Echean hurrei eskainitako euskarazko heziketa. Testuinguru horretan, *La Baskonia* baliabide garrantzitsua izan zen euskara mantentzeko ahaleginetan. Euskal kolektibitate argentinarrean euskal identitatea mantentzeko hautua egin zuten, Argentinaren nazio proiektuan integratzen ziren aldi berean. Horrela, aldizkariak bi dimentsio horiek zaintzeko esfortzua egin zuen:

Privilegiaron el castellano, lo usaron como puente, como herramienta de común unión y apertura para homogeneizarse en el nuevo escenario. Aunque preservaron también el euskera, su lengua original, que lo daban a publicidad periódicamente para que fuese leído y escuchado por el público en general (Bergareche, 2009: 50).

Aldizkarian euskarak euskaldunen izaeraren osaeran duen garrantzia etengabe azpimarratuko da. Daniel Lizarralde are urrunago doa eta euskarak euskaldunen fisiologian ere eragina duela baieztatzen du: “En aquellas regiones donde se ha perdido el euskara, no se *piensa* en basko, no se *siente* en basko (con raras y muy honrosas excepciones) y hasta se ha modificado el tipo físico de sus habitantes” (*La Baskonia*, 456.zbk, 2.or).

Euskararen aldeko jarrera sutsua izango da, eta horren adibide, bi idazle esanguratsuren eskutik zenbaki berdinean euskarari buruz argitaratutako honako bi artikuluak dira: alde batetik, Juan Ignazio Urangak erabilera eza salatzen du: “Ez da aski esatia ni euskalduna naiz, eta beragatik deadar egiten det *Gora Euskadi*, ez, euskaldun guztiyak lenengo jakin bear degun gauza da, gure aurrekuen izkuntz, eder, berdín gabeko euskara” (*La Baskonia*, 524.zbk, 6.or); bestetik, Arturo Kanpionek hizkuntzaren botereaz hausnartzen du: “La lengua, es la exteriorización del alma étnica, y al alma no llegan las cadenas de los conquistadores ni la cuchilla del tirano” (*La Baskonia*, 524.zbk, 8.or).

Euskara (artikuluak)
1.667 erantzun



Grafikoa 24: Euskarazko artikuluak zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*).
Iturria: lanaren egileak egina.

Euskararen presentzia duina izango da *La Baskonia*-n eta zenbaki guztien kasik hiru laurdenetan euskarazko artikulu bat aurkitzea posible da. Hala ere, zenbaki bakoitzean euskarak duen presentzia ez da handia izango, hau da, gehienetan artikulu solteak izango dira euskaraz idatzita daudenak (Grafikoa 24). Artikulu solte horiek poemak dira batik bat, Euskal Herriko idazle ezagunen poemak gehienbat eta diasporako komunitatetik bidalitako zenbait kolaborazio ere bai. Hein txikiago batean euskarazko literatur piezak egongo dira, horiek ere bestelako euskal argitalpenetatik jasotakoak gehienetan. Euskaraz idatzitako iritzi-artikuluak ere argitaratuko dira, eta horietan normalean, euskararen garrantziaz ohartarazteko diskurtsoa gailenduko da. Euskarari buruzko ikerketak, adibidez Pablo Pedro Astarloaren lanak, eta Euskal Herrian hizkuntzaren inguruan hartzen diren erabaki politikoak gertutik jarraitzen dira. “Correo de Euskaria” sailean Ipar Euskal Herriari buruzko albisteak euskaraz argitaratuko dira urte luzez. Hein handi batean, albiste horien presentzia eta kopuruari esker zenbatu dira ehuneko duin batean 6-10 albiste zenbakiko.

Jose Maria Iparragirreri buruzko kontuak ere ohikoak izango dira aldizkarian. 1897ko abenduan, bere emazte Angela Kerexeta eta seme bat *La Baskonia*-ren erredakzioa bisitatu dutela jakinarazten da (151.zbk). Pasarte horren kronika gogoangarria egingo du Grandmontagnek (159-160.zbk), familiaren pobrezia egoera dela eta Diputazioek pentsio bat jartzea litekeena dela azalduz, eta Iparragirreren Ameriketako pasadizoak bere emaztearen ahotik kontatuz. Aurrerago, 1918an, Emeterio

Quintanak sinatutako “Notas de viaje” kroniketan Mercedesera egingo du bidaia. Bertan, Angela Kerexeta ohean gaixorik “Gernikako arbola” abesten deskribatuko du, honen ahizpa Mari Cruzek ere abesten zituelarik koinatuaren zortzikoak eta alabaren argazkia eta bidaia ere agertzen direlarik (882.zbk). 1921eko uztailean hil egingo da Kerexeta eta aldizkarian bere eskela argazkiarekin argitaratuko da (1002.zbk). Heriotza gertatu eta hilabetera, Quintanak berriz bidaliko du Mercedesetik kronika. Oraingoan, Angelaren heriotzaz hitz egiten du eta Mari Cruz ahizpari bisita egiten dio. Mari Cruzek Iparragirren zenbait bertso ezezagun dakizki buruz eta Quintanak horiek idatziz jasotzea eskatu dio familiako kide bati, euskal instituzioek hori egiteko interesik azaldu ez izana deitoratuz (1005.zbk). Bestalde, 1916an Ruben Darioren heriotza iragartzean (805.zbk), poetak bere lehen urteetan “La guitarra de Iparraguirre” poema idatzi omen zuela oroitzen da, poema hori argitaratu ez eta galdu egin zela azalduz.

IX. Funtzioa eta erabilera komunikatiboa:

Kazetaritzak eta prentsa agerkariak gizartean duten garrantziaz, eta liburuarekiko ekarri duten aurrerapenaz behin baino gehiagotan idatziko da *La Baskonia*-n. Honen ustez, euskaldunen historia edo euskal pertsonaia esanguratsuen biografiak ezagutarazteko hainbat bolumen beharko lirerateke, horiek eskuratzea guztien esku ez dagoelarik. Aldizkariak mota guztietako artikulak argitaratzeko aukera eskaintzen dute, eskuratzeko errazak dira eta egunean jartzen ditu irakurleak (4.zbk, 4.or). Kazetaritzak azken urteetan edukitako garapena azpimarratzen da: “El periódico es hoy un poderoso factor instructivo. Millones y millones de personas hay que jamás han leído un libro, pero en las páginas de la prensa han adquirido una cultura general y enciclopédica que exige la vida moderna” (*La Baskonia*, 649.zbk, 2.or). Horrez gain, editorial batean Euskal Herrian “Escuela de Periodismo” bat sortzearen beharraz hitz egiten dute, prentsak gizartean duen zeregin garrantzitsua azalduz, eta horretarako, euskal kazetariak beharrezkoak direla azpimarratuz (466.zbk, 2.or).

Bergareche-ren (2009) iritziz, *La Baskonia*-ren kasuan, memoriatik historiografiara pasatzeko intentzioa eduki zuten aldizkariaren egileek. Honen ustez, historia eta tradizioa imajinario kolektiboaren ondasuna izatea bilatu zuten, horrela, denbora zehar

iraun zezan. *La Baskonia*-k ere asmo hori aditzera ematen du, eta horrela dio zortzigarren urteurreneko editorialean, aldizkariak jarraitzen dituen helburuez:

...no nos daremos por satisfechos hasta conseguir los propósitos que al nacer abrigaron nuestra mente, esto es, hacer de La Vasconia no solo un álbum donde el vascongado alejado de sus lares se deleitara en su lectura sinó un libro de verdadera consulta histórica como literaria ya que la importancia de la colectividad así lo requería (*La Baskonia*: “Nuestro cumpleaños”, 1900/10/10, 253.zbk, 2.or).

Aldizkarian argi adieraziko dute beraien helburua euskal kulturaren zabalkundea egitea dela: “La intensa labor de La Baskonia ha estado siempre basada en el propósito cultural” (*La Baskonia*, 1333.zbk, 4.or). Kulturaren garrantzia nabarmentzen dute bizitzako edozein esparrutako arazoei aurre egiterako orduan, eta baita, norberaren herria eta arraza maitatzerakoan ere.

La Baskonia-k mota guztietako baliabideak erabili zituen diasporako euskaldunen artean memoria eta identitatea lantzeko: pieza literarioak, deskribapen geografiko, kultural eta historikoak, irudiak, margolanak, argazkiak, etab. Guzti honen bidez, euskal oinordekoek modu bisual eta narratibo baten bidez jaso ahal izan zuten tradiziotik zetorrena. Gainera, aldizkariak identitatea gordetzen lagundu zuen aldi berean, herrialde berrira zabaltzeko leihoa izan zen:

...*La Vasconia* se editó con el fin de difundir la unidad etno cultural, preservar, perpetuar la memoria y resignificar la identidad, a la vez que permitió integrarse a la comunidad receptora sin perder sus valores culturales (...) por eso tuvo el doble carácter de euskaro americano (Bergareche, 2009: 49).

Aldizkaria euskal kolektibitate argentinarrean agertzearekin batera, bertako jardun kulturalari anbizio handiko bultzada eman zitzaion. Kolektibitateko kideentzat esperimentazio literarioa burutzeko maila altuko esparrua izan zen: “...sus lectores fueros generalmente vascos “cultivados” y sobre todo relacionados con los importantes centros vasco-argentinos que dispusieron regularmente de ejemplares en las respectivas bibliotecas o sedes sociales” (Cava Mesa, 1996: 149).

Hala ere, *La Baskonia* ez zen Buenos Aires hirira mugatu, barnealdeko herrietara ere hedatu zen. Bertako ostatu eta saltokietan biltzen zirentzat, ahoz iristen ziren berriez

gain, aldizkarietan zetorrena zen hizketagai: “...*La Baskonia* circulaba hasta que perdía varias páginas o se mojaba con vino en comercios y campos, multiplicando el número de lectores hasta cifras inimaginables” (Irianni, 2020: 15).

Ameriketako euskal prentsari buruz idazten lehengotarikoa izan zen Andoni de Astigarragak idatzi bezala: “Su colección es, no solo un pedazo de la historia de los vascos en América, sino de Euzkadi misma” (Astigarraga, 1981: 20).

X. *Aldizkariaren bilakaera:*

Esta revista, a la cual Uriarte dedicó su vida, fue el alma de los vascos en la Argentina. Se leía en las grandes ciudades, en las estancias y en pueblos de campo. Traía noticias de Vasconia que emocionaban a sus lectores, y estudios, muy serios, sobre temas históricos y filológicos euskéricos que dejaban boquiabiertos a los lectores argentinos que nada sabían de los misterios euskaldunes (Gandia, 1990 apud de Dios Altuna de Martina eta Álvarez Gila, 2010, p.347).

50 urtez jarraian argitaratu ondoren, *La Baskonia* bere ibilbidearen bukaerara iritsiko zen: “...dejó de publicarse el 15 de noviembre de 1943, muerto ya su director-fundador y luego que *Euzko Deya* se había afianzado como vocero de la colectividad” (Astigarraga, 1981). Cava Mesak (1996) ere bat egingo du ideia horrekin, hau da, *La Baskonia* aldizkariaren desagertzea eta *Euzko Deya* aldizkariaren agerpenak erlazioa eduki zutela.

La Baskonia urte luzez Argentinako euskal kolektibitatearen ahotsa eta erreferentea izan zen eta arrasto nabarmena utzi zuen: “No es improbable que el medio siglo que reinó *La Baskonia*, haya eclipsado –frenado– decenas de proyectos editoriales imposibilitados de competir con los almanaques que reunían temas diversos y convocaban a todos los sectores sociales” (Irianni, 2020: 9).

Aldizkariak 50 urte betetzean ez da zenbaki berezirik argitaratuko. Horren data seinalatuan aldizkariak ez du ospakizun berezirik egingo. Aldizkariaren jarduna etengo denaren zantzurik antzematen ez den arren, editorialean honela hitz egiten da munduak bizi duen egoeraz:

Los tiempos han cambiado. Estamos presenciando cómo los horrores de la guerra, increíbles hace 50 años por su cobardía, magnitud y crueldad, se van extendiendo hasta abarcar todo el mundo, que parece condenado a un total exterminio (*La Baskonia*: “Nuestro aniversario”, 1942/10/10, 1644.zbk, 2.or).

4.3. *Irrintzi* (1903-1923)

I. *Izena (bilakaera):*

Izena:

Irrintzi izena bere horretan mantenduko da zenbaki guztietan. Mexikoko *Euzkotarra*-k erabiliko duen “r”, hau da, *Euzkotaía*, ez du erabiliko.

Azpi-titulua:

“Dana Euskalerrigaitik eta Euskalerrientzako”.

1913ko martxoan aldatu egingo zen “Jaun Goikua eta Legue Zarra. ¡Viva Euzkadi Libre!” izateko.

II. *Egoera sozial orokorra:*

1890-1900 hamarkadaren hasieran, hilabeteko atzerapenaz Buenos Airesera iristen ziren aldizkari espainiarretan Sabino Aranaren izena sarritan agertzen zen eta beti kritika gogorrek jasotzeko izaten zen. Hala ere, espainiar kolektibitatearen gehiengoa ez zen itsasoz bestaldeko politikaz gehiegi arduratzen, Kubako gerra (1894-1898) salbuespena izanik.

Laurak Bat euskal etxean edo *La Vasconia* aldizkariko erredakzioan euskal eta espainiar aldizkariak jasotzen zituzten eta zenbait kidek interes handiz jarraitzen zuten jatorrizko lurraldean gertatzen ari zena. Laurak Bat euskal hiriburutako eta baita Madrileko hainbat aldizkaritara harpidetuta zegoen, bertako liburutegian irakurgai zeudelarik, eta *La Vasconia*-ren erredakzioan ere aldizkari ezberdinak jasotzen zituzten, Jose R. Uriarteren tailerlean egiten ziren tertuliako kideek irakurtzeko. Horrela, aldizkariak berebiziko garrantzia eduki zuten diasporako kideen euskaltzaletasuna sustatu eta beraien ideologia abertzalearen garapenean: “el hecho de recibir, por ejemplo, la revista de la Asociación Euskara de Navarra hasta 1883, facilitó que

laurakbatenses (en su mayoría navarros) se considerasen discípulos de don Arturo Campión” (Ezkerro, 2004: 66).

1893 eta 1895 urteen artean *Bizkaitarra* ere, Sabino Aranaren eskutik sortutako euskaldunen lehen aldizkari abertzalea, iritsiko zen itsasoz haraindi. Buenos Airesen irakurle finak zituen, hala nola, Juan Ibarra, Jose Maria Larrea, Florentzio Basaldua edo Nemesio Olariaga. Era berean, Aranaren *El Partido Carlista y los Fueros Vasko-Nabarro*s lana ere euskal kolektibitatean sartu zen.

Sabino Arana Goiriren ideien etorrerarekin euskal abertzaletasunaren jarraitzaileak ugaritzen ari ziren Ameriketara ere. 1898an Arana Goiri Bizkaiko diputatu aukeratu zutenean Buenos Aireseko euskal komunitatean abertzaletasunaren eragin are nabarmenagoa gertatu zen, espainiar prentsak “bizkaitarras” edo “separatistas” deitzen zituen ideiak barneratzen hasiak baitzeuden. Ordura arte, ikurtzat ziren Fidel Sagarminaga eta bere foruzaletasun gogorrak, eta hein txikiagoan, Arturo Campionen pentsamendu kultural eta historizistak leku utzi zioten pixkana Arana “Maisua”-ren ideia berriei.

Mikel Ezkerroren esanetan Argentinako euskaldunen kasurako ere balio du Manu Egileor politikari jeltzaleak Euskal Herriari buruz esandakoak, zeinaren ustez euskaldunen historian “mugarria” izan zen Sabino Arana (Ezkerro, 2004: 68).

III. Argitalpenaren sorrera:

Otra fecha, inolvidable sin duda, el 1º de diciembre de 1903. Una semana apenas que en Sukarrieta ha fallecido Sabino de Arana, y en Buenos Aires, uno de sus entusiastas seguidores, el abertzale andoaindarra y ex presidente del “Argentinako Euzko-Buru-Batzarra”, Nemesio de Olariaga, ponía en circulación el primer ejemplar del “IRRINTZI”. Jaungoikoa eta Lege-Zarra. ¡Viva Euzkadi Libre! un periódico de 4 hojas (Astigarraga, 1981: 20).

Andoni Astigarragak honela kontatzen zuen *Irrintzi* aldizkariaren sorrera diasporako euskal prentsari buruz egindako lehen lantzat hartu daitekeen “Prensa vasca en América” (1981) artikuluan. Gerora, *Irrintzi*-ren sorrera data horretan jazo zela adierazi dute beste hainbat egilek, besteak beste, Mikel Ezkerrok (2004), Juan Mari Irustak

(2008) edo Magdalena Mignaburuk (2013). Horrela, horien arabera Arana Goiri hil zen egunetik, 1903ko azaroaren 25a, astebete pasatakoan eman zen argitara lehenbizikoz agerkari abertzalea.

Irigoyen Artetxe (2008), berriz, beste iritzi batekoa da eta *Irrintzi*-ren sorrera 1902an kokatzen du. Honen ustez, ezagutzen den aldizkariaren alerik zaharrena III. urteko 26. zenbakia denez, 1905eko ekainaren 15ekoa, ondorioztatu daiteke lehen zenbakia 1902an argitaratu zela.

Ikerketa honetan behatu ahal izan da *La Baskonia* aldizkariaren 367. zenbakian, 1903ko abenduaren 10ari dagokionean, honako albistea datorrela:

Ha visitado nuestra redacción el primer número de esta publicación de caracter fuerista, de la que es director nuestro estimado amigo don Nemesio Olariaga.

Agradable sorpresa nos ha causado la presencia de este nuevo colega que se presenta con muchos bríos á secundar la campaña fuerista y de propaganda euskara que venimos sosteniendo desde hace doce años.

Subimos mentalmente á la cumbre de Aitzgorri, y desde allí retribuimos su saludo al *Irrintzi*, con un *ujujú* vibrante y sincero (*La Baskonia*: “Irrintzi”, 1903/12/10, 367.zbk, 18.or).

Beraz, kontuan hartuta lehen zenbakiari erreferentzia egiten diola (“primer número”) eta aldizkari berria dela esaten dela (“nuevo colega”), baieztatu daiteke *Irrintzi* 1903ko abenduan argitaratu zela lehenengoz.

Daten zehaztasuna gorabehera, ukaezina da *Irrintzi* hasieratik bide-urratzailea izan zela eta, Ezkerrok laburbildu bezala, aldizkaria agertzearekin batera “euskal abertzaletasunaren historia hasten da Argentinan” (Ezkerro, 2004: 75)⁸.

IV. *Enpresa antolaketa:*

Hilean behin ateratzen zen, hilaren 15ean, eta 8 orrialdez osatuta egon ziren ale ia guztiak, zenbait edizio berezi salbu. Azaroan Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena oroitzen zen eta hilabete horretan 25ean argitaratzen zen. 1909an Aita Ebanjelista

⁸ “Cuando el primero de diciembre de 1903 don Nemesio de Olariaga publica desde Maipú un periódico de cuatro hojas, *Irrintzi*, puede decirse que *comienza la historia del nacionalismo vasco en Argentina*.” Azpimarra eta testuko itzulpena lan honen egilearenak dira.

Iberokoaren heriotzaren ostean, iraileko hainbat zenbaki ere *Ami Vasko* lanaren egileari eskaini zitzaizkion. Zenbaki berezi horietan ohikoa zen 10-12 orrialde edukitzea aldizkariak eta bi pertsonaien biografiak eta beraien idatziak argitaratzen ziren.

Aldizkaria dohainik banatzen zen eta horrela berresten da ale guztietan (esaldia aldika aldatu arren) azken orrian datorren oharrean: “Esta publicación no acepta donativos ni suscripciones. Se envía de forma gratuita a todas las personas que lo soliciten.”

Bere edizio eta banaketa Nemesio Olariagak ordaindu zuen hogeitaz urtez. Argentinako euskal komunitateaz gain korreoz ere bidaltzen ziren. Horietako asko, Filipinetatik pasata, Espainiar zentsura ekiditeko, Euskal Herrira bidaltzen ziren (Irujo Olo, 1959: 23). Gobernu espainiarraren zentsura behin eta berriz salatzen da aldizkarian eta hori ekiditeko gomendioak ere ematen dira:

Prevenimos á nuestros compatriotas que al dominio español debe enviarse cubierto en sobre cerrado con las estampillas correspondientes de franqueo de cartas.

Hacemos esta prevención porque nos consta que algunos paquetes que hemos expedido á los centros baskos de Euskadi no han sido entregados, cuya irregularidad una vez comprobado de qué parte procede, presentaremos nuestra más enérgica protesta ante las autoridades competentes (*Irrintzi*: “Ruego”, 1906/06/15, 38.zbk, 8.or).

Juan Mari Irustaren esanetan bere lagun Sebastian Amorrortuk inprenta negozio bat zabaldu zuela aprobetxatuz hasi zen argitaratzen *Irrintzi* Olariaga (Irusta, 2008: 81). Hala ere, aldizkaria sortu zenean Amorrortu oraindik Argentinara emigratu gabe zegoen. Alvarez Gilak baieztatzen duenez, Olariagak inprimategi horretan argitaratu zituen berak sustatutako argitalpenak Amorrortuk 1915ean bere negozioa zabaldu zuenean:

Para ello contó con dos bases: su propio enriquecimiento –poseía una gran hacienda en Maipú de cuyos réditos se costeaba la edición y distribución de la revista-; y la imprenta que abriría Sebastián de Amorrortu en Buenos Aires. Este impresor, amigo personal de Sabino Arana y tesorero del Euzkeldun Batzokija de Bilbao, había emigrado en 1910 con su familia a Argentina, donde cinco años más tarde crearía su propia empresa, “Sebastian de Amorrortu e hijos, S.A.”, que pronto se convirtió en un centro de edición de obras abertzales dirigidas al público vasco-americano. Allí, por ejemplo, se

hicieron las reimpresiones del *Ami Vasco* de Evangelista de Ibero, o de la *Inocencia de un patriota* de Daniel Irujo (Alvarez Gila, 2004).

Lehen zenbakietan inprimategi baten izena eta helbidea agertzen da: Imp. A. Monkes, Lima 456. Administrazioari zuzentzeko helbide ezberdinak ere agertzen dira urteetan zehar eta honakoak dira: Calle Moreno 1041, Maipu F.C.S., Calle Chile 1041, Calle Charcas 1893 eta Juncal 1482.

V. *Zuzendari eta kazetarien nortasuna:*

Zuzendaria:

Nemesio Olariaga (Andoain, 1864 - 1933).




Irudia 39: Nemesio Olariaga. Irusta (2008).

Nemesio Olariaga Etxaide Andoaineko kale nagusiko “Arotzanea Txiki” etxean jaio zen 1864an eta zortzi anai-arrebetan seigarrena izan zen. Aitak zapatagintza artisau-empresa bat zeukan eta 15-20 pertsonak lan egiten zuten bertan. Hala ere, modernizazio industrialak eragin negatiboa eduki zuen modu tradizionalan lan egiten zutenengan eta zapata tailerrak behera egin zuen.

Olariagaren aita gazterik hil zen, andrea eta zazpi seme-alaba egoera ez oso onean utzirik, ordurako Francisco anai zaharrena Argentinara joana baitzen bost urte lehenago. Francisco karlistentzat armak garraiatzen aritua zen eta guardia zibilekin enkontru bat eduki ostean herritik alde egitea erabaki zuen (Irusta, 2008: 69-73).

Bigarren Karlistaldia amaitzean, 1876ko uztailaren 21eko legeak foruak deuseztatu eta zazpi urteko derrigorrezko zerbitzu militarra ezarri zuen. Horrek eta beste hainbat faktorek eraginda emigrazio masiboaren garaia zen Euskal Herrian. Nemesio Olariagak hamabost urte zituelarik Argentinara egin zuen, bere anaia Franciscok bidaia ordainduta, eta Maipu herrian (Buenos Aireseko probintzian) ezarri zen.

Bertan, merkataritzan lan egin zuen “Euskalduna” izeneko denda bat zabaldua eta bi sukurtsal ere zabaldu zituen bazkide euskaldun batekin batera. Horrez gain, nekazaritza eta abeltzaintzan ere jardun zuen.



Irudia 40: “Buena Vista. Olariaga Hermanos y Cia. *La Baskonia*, 1897/02/10, 123.zbk. Urazandi Digitala.

Urte horietan Argentinako populazioa bikoiztu egin zen 1,8 milioitatik 4 milioitara pasatuz. Handitze hori batik bat landa guneeetan eman zen eta lurren balioak ere nabarmen egin zuen gora. Kontuan hartu behar da Buenos Airesen industrializazioa berantiarra izan zela eta ekimen arrakastatsuak nekazaritza eta abeltzaintza komertzializatuek ekarritakoak izan zirela. Jardun horretako irabazi altuek oligarkia landatar baten agerpena ekarri zuten.

Olariagak bere negozioetan ere erakutsi zuen jatorrizko lurraldearekiko maitasuna. Behi eta ardiak ibiltzen ziren hazienda lursail handi bati “Euskadi” izena jarri zion eta zazpi zatitan banatuta, bakoitzari zazpi probintzietako baten izena eman zien. 1921ean, Hipolito Irigoyen Argentinako presidentek Banco de la Nación Argentina-ko presidente izendatu zuen.

Argentinara ideia abertzaleak XX. mende hasieran iritsi ziren hainbat immigranteren eskutik. Tartean, Nemesio Olariaga, Policarpo Barrena edo Sebastian Amorrortu.

Olariagaren abertzaletasuna etxetik hasi zen. Alberta Rodriguez argentinarrarekin ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen. Bietan zaharrena, Julia alaba, euskal abertzaletasuna besarkatu zuen lehen emakume argentinarra izan zen. *Irrintzi* aldizkarian kolaboratuko zuen eta ondoren baita *Nacion Vasca*-n ere. Euskal Echean parte hartzen ere lehenengotariko emakumea izan zen eta benefizentzian lan ugari egin zuen bere seme-alabekin batera.

Nemesio Olariaga aitzindaria izan zen Argentinan Sabino Aranaren ideiak jarraitzen. Bera izan zen Amerikan ikurrina lau haizeetara jarri zuen lehena. Goizero bere landako estantzia guztietan eta baita Buenos Airesen zituen lokaletan ikurrina ateratzen zuen bandera argentinarrarekin batera: “Mi padre hacía izar todas las mañanas en sus estancias las dos Banderas: la Argentina y la Vasca” (Ezkerro, 2004: 75). Hori guztia 1897 inguruan gertatzen ari zen.

XX. mendeko lehen urteetan Asociación Cultural y de Beneficencia Euskal Echea elkartearen sortze prozesuaren partaide eta mezenasetako bat izan zen. Elkarte hori Buenos Aireseko hiru euskal instituzioen, Centro Vasco Frances, Centro Navarro eta Sociedad Vasco-Española Laurak Bat-en, kolaborazioaz sortu zen eta euskaldun guztien batasunerako urrats garrantzitsua izan zen, espainiar eta frantses euskaldunen arteko bereizketa deuseztatzen baitzuen.

1903an *Irrintzi* sortu eta berak ordaindu zituen aldizkariaren edizio eta banaketa hogeitaz.

1904 urtean, Olariagak Pello Mari Otañoren *Alkar* liburua editatu zuen, bere poesia eta bertso onenen antologia zen liburua. Hitzaurrean esaten da liburuaren gastuak lagun talde batek bere gain hartu zituela, baina benetan “lagun” horien atzean Olariaga zegoen, bera egin baitzen orduan ere liburuaren gastuen kargu (Irusta, 2008: 83).

Urte berean, 1904ean, Maipun eta Buenos Aires hirian bere jabetzakoa ziren lokaletan “Euskaldun Batzokiya” zabaldu zuten. Aurrerago, Euzko Gastedija eta Gu-Gera taldeak ere sortuko ziren bere babesarekin eta azken honetan koru bat eta ezpatadantzari talde bat egongo ziren.

Olariagak Aita Ebanjelista Iberokoarekin gutunak idazten zituen, Angel Zabala “Kondaño”-ren bitartekaritzari esker, eta 1907an honen *Ami Vasco* berrargitaratu zuen, *Muera la mentira y Viva la verdad* tituluarekin. 1912an Sabino Aranaren *El Partido Carlista y los Fueros Vasko-Nabarro*s lana berrargitaratu zuen, *Los Carlistas y los Fueros de Euzkadi* izenburuarekin. Hurrengo urtean, berriz, *Inocencia de un patriota* argitaratu zuen; Daniel Irujo abokatuak Sabino Aranaren alde eginiko alegatu juridikoa, honi Estatu Batuetako Roosevelt presidenteari Kubako independentziaz zorientzen bidalitako telegramagatik egin zioten epaiketa zela eta. Gainera, azken lan hau primizia bat izan zen, Euskal Herrian ez baitzegoen argitaratuta orduan. Liburuaren originalak Aita Pio Orikain fraide kaputxinoaren abituan sartu ziren Argentinara. Lan hauek poltsiko-liburuak ziren eta dohainik banatzen zitzaien eskatzen zuten guztiei. Argentinan, beste herrialde amerikar batzuetan eta Euskal Herrian milaka ale banatu ziren.

Lan guzti horiek Argentina eta agian baita Ameriketako lehen euskal abertzalea bihurtuko zuten Nemesio Olariaga (Ezkerro, 2004: 91). Horrela 1920an Argentinako lehen Eusko Buru Batzar eratu berriko presidentea izendatu zuten.

Olariagak ez zuen Andoain ahaztu eta 1907an San Martin parrokiarako organoa ordaindu zuen, 25.000 pezeta jarrita. Ezin izan zuen bere herria berriz zapaldu atxilotua izateko beldurrarekin. Iparraldera zenbait bidaia egin zituen eta bertan bere ama eta anai-arrebekin elkartzen zen, horiek muga zeharkatuta (Irusta, 2008: 85-87).

Olariaga kazetari, propagandista eta abertzale amorratua izan zen eta arrasto nabarmena utzi zuen Argentinako euskal komunitatean. Andres Irujok *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* aldizkarian idatzitakoak ondo islatzen du Olariagaren nortasuna eta bere lanaren balioa:

Pero con ser este solo hecho, su labor de periodista, motivo justificado para estar aquí en esta galería de vascos ilustres de esta tierra, junto a los presidentes de esta casa, hay todavía otro aspecto que debemos destacar. Don Nemesio nos enseñó a manejar la propaganda y por ellos hoy seguimos los pasos marcados por él.

(...)

Don Nemesio vivió para la causa vasca. Su ejemplo es digno de meditación. Por eso merece no solamente el lugar que le hemos asignado en esta casa sino uno mucho mayor. Posiblemente algún día se llegue a realizar un examen de sus ideas, vertidas en “Irrintzi” y en sus cartas inéditas cruzadas con los hombres más ilustres de Euzkadi en su época. Ellas constituyen su alma viviente que debe influir entre los vascos de hoy y de futuras generaciones, como influyó sobremanera en la que convivió con él (Irujo Olo, 1959: 23-24).

Kazetariak:

Honakoak dira gehien nabarmentzen diren sinadurak: Ehekua, Un nacionalista, Berriz Arte, El Tala, Akullu eta Julia.

Beste ezizen edo pseudonimo askoren artean honakoak aurki daitezke: Bat, Bi, Bostok, Beti Gu, Aurrera, Chanton de Arratia, Garbiya, Zazpiak Bat, Chomin, Betikua, Arkaitza, Maitagarri, Lartaun, Eguiya, Ikurpen, Lepo-Zabal, Laumaiki, Maishuba, Gogorra, Napartarista, Abraham de Zañartu, Atara, Koldobika, Euskotar-Bai, Oliyo, Zuria, Un Donostiarra, Andoaintarra, Aitzgogor, Neuk, K. y Q., Martin de Anguiozar, Burniya, Ziziriku, Atorrasagasti, Egi-Zale, Izanedoezizan, Paysandu, Atxondo, Giz-Ona, etab.

Irrintzi-n, oso ohikoa izan ez arren, autore ezagunen sinadurak ere aurki daitezke, hala nola, Angel Zabala “Kondaño”, Gregorio Mujika, Arturo Kanpion edo Engracio Aranzadi “Kizkitza”.

Aipatzekoa da baita ere, “tar” erabiliz garaiko ortografia aranista erabiltzen dela. Adibidez, Azkarate tar Joshe edo Ariaga tar Kepa.

VI. *Edukiaren egituraketa:*

a) *Lehen orrialdea*

Ezagutzen diren lehen aleetan *Irrintzi* izenburua beltzez dator eta inongo apaingarri gabe. “Dana Euskalerrigaitik eta Euskalerrarentzako” azpi-titulua bere azpian dator. Ondoren, “Nuestro programa” izenarekin paragrafo luze baten esaldi zerrenda bat dator eta eskaera ezberdinak egiten dira euskaldunentzat eskubide eta hobekuntzak eskatuz: hala nola, lege zaharren berreskurapena, euskara hizkuntza ofiziala bilakatzea “Euskadia”-n, kargu publiko oro euskalduna izatea edo alderdi politiko euskaldun baten sustapena. Urtea, data, alearen zenbakia, zuzendariaren izena eta helbidearen datuak agertzen dira eta horren ostean artikulua hasten dira.

1905eko urriko alean *Irrintzi* titulua zuriz dator ilustrazio batekin lagunduta (Irudia 41). Ezkerrean, gizon bat ageri da imintzio serio eta borrokalaria duena. Baserritar jantzita dago (txapela, gerrikoa eta abarkekin) eta atzean beste gizon batzuk daude oihuka edo zerbait esan nahian. Zazpi dira guztira, zazpi euskal lurraldeak ordezkaturik. Zuhaitz baten adarrek gidatzen dute irudia eta eskuinean zazpi emakume daude. Emakumeek euskal probintzien izenak dituzten zinta moduko batzuk mugitzen ari dira eskuarekin. Gizona mugitzera doala dirudi, esku batean lantza bat bandera batekin duelarik eta beste eskuan koroa bat. Bandera ikurrina dela baieztatu daiteke, erdian Gernikako arbola duelarik. Ilustrazioa ez dago koloretan, eta gainera, ez dirudi ikurrinaren errepresentazio zuzena denik (atzealdeko kolorea guztiz argia da, gorriak berdea eta zuria baino ilunagoa behar duenean, eta gurutzearen beso horizontala falta da). Hala ere, itxura guztien arabera ikurrina bat jartzea zen Nemesio Olariaga zuzendariaren asmoa, eta horrela, ale honetako irudi hau izango da Amerikan ezagutzen den ikurrinaren lehen errepresentazioa (Alvarez Gila, 2019b: 283-285).

“Nuestro programa” zatia mantendu egingo da, baina iraileko aletik aldaketa txiki eta ez nolanhikoa egiten du. Azken esaldia “Predicaremos la concordia de todos los vascos, uniéndolos en un solo ideal, la libertad de Euskadia, la reconquista de sus Fueros”. Bertan, “...la libertad de Euskadi” soilik geratuko da eta foruen aipamena kendu egiten da. Aldizkarian foruen aipamena "Nuestro Programa"tik zergatik kendu

duen azaltzen da. Irakurle ugari aldizkarira idatzi zuten foruen benetako interpretazioa ulertzen ez zutelako eta zuzendaritzak aipamena kentzea erabaki zuen aldizkariaren helburuak hobeto uler zitezen, bi hitzetan laburbildu zitezkeenak beraien esanetan: “Euzkadi, Euzkaldunentzat” (*Irrintzi*, 29.zbk, 7.or).



Irudia 41: *Irrintzi*, 1905/10/15, 30.zbk. Urazandi Digitala.

1908ko lehen aletik aurrera berriz aldatuko da titulua osatzen duen ilustrazioa (Irudia 42):

Un anciano, indumentado a la antigua, explica á un grupo de niños que simboliza la nueva generación las tradiciones euskaras, y señala al fondo el título de ¡Gora Euskadi! que aparece en la aureola de un sol naciente que surge del fondo de las montañas.

Es una idea muy expresiva que el artista ha sabido interpretarla con fidelidad (*La Baskonia: "Irrintzi"*, 1908/01/30, 516.zbk, 13.or).


Gainontzean, hasierako zatiak berdin jarraitzen du, “Nuestro programa” eta aldizkariko datuak emanaz artikulua hasi aurretik.



Irudia 42: *Irrintzi*, 1908/03/15, 59.zbk. Urazandi Digitala.

1913ko martxoan tituluak hasierako itxura hartuko du eta inongo apaingarririk gabe etorriko da beltzez. Hala ere, azpi-tituluak aldatu egingo da eta honakoak etorriko dira bata bestearen azpian: “Jaun Goikua eta Legue Zarra eta ¡Viva Euzkadi libre!”. “Nuestro Programa” zatia ere kendu egingo da portada berrian. Lehen orrialdearen goiko zatia horrela mantenduko da aldizkariaren bukaera arte. Lehen orrialdean bi edo hiru albiste labur ere agertuko dira orain zenbaitetan eta ez lehen zegoen bezala beti artikulua luze baten hasiera soilik. Beste gauza aipagarri bat, Sabino Aranaren edo Aita Ebanjelista Iberokoaren heriotzen urteurrenetan beraien irudi handi batek hartuko du portada osoa.

Titulu nagusia: izaera
133 erantzun




Grafikoa 25: Titulu nagusiaren izaera (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Titulu nagusiaren izaerari dagokionez, gai politikoak nagusi direla erakusten du grafikoak (Grafikoa 25). *Irrintzi*-ren nolaketasuna eta helburuak kontuan hartuta normaltzat hartu daiteke euskal abertzaletasunari lotutako gaiek hartzea lehen orrialdea.

Gainera, titulu nagusia soziala denean ere (Laurak Bat instituzioari lotutakoak, esaterako), kutsu politiko nabarmena duela esan daiteke.

Titulu nagusiko edukia: generoa

133 erantzun



Grafikoa 26: Titulu nagusiaren generoa (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Titulu nagusiko edukiaren generoari dagokionez (Grafikoa 26), iritzi artikulua batek hartzen du sarritan lehen orrialde osoa eta, propaganda politikoa eginez, irakurleak konbentzitzea da helburu nagusia. Urteak aurrera egin ahala, zutabeak ere erabiltzen dira lehen orrialdean, iritziak laburrago eta asko garatu gabe zehatz esateko. Albistek ere azaltzen dira titulu nagusitzat, Euskal Herrian abertzaleen atxiloketen berri emanez edo Argentinan antolatzen ari ziren alderdi eta ekimen politikoei buruz informatzeko.

Editorialei dagokienez, gutxitan kontsideratu daitezke editorialtzat lehen orrialdetako artikulua, izan ere, sinadurak zenbaitik zenbakira aldatzen dira eta ez dago jarraikortasunik. Zuzendaritzak sinatutako artikulua bakan batzuk editorialtzat har daitezke. Zenbait zenbakitan, urteurreneko berezietan edo momentuko gai garrantzitsu baten inguruan hitz egiten denean, Nemesio Olariagak sinatzen ditu artikulua eta orduan esan daiteke editorial itxura dutela. Honela idazten zuen Olariagak Sabino Aranaz bere heriotzaren urteurrena oroitzuz editorial batean:

Bilbao fué como Jerusalem para Jesús, el pueblo designado para su aparición y allí se dirigió con la palma de la paz en una mano y la muerte segura en la otra, á predicar la nueva era del pueblo Basko (*Irrintzi*: “El redentor de Euzkadi”, 1906/11/25, 43.zbk, 1.or).

b) Aztertutako piezen estiloa

Erreportaje eta iritzi-artikulu baten arteko estilo batean daude egituratuta artikulu gehienak. Erreportajeetan gertaera baten inguruko gaia sakonago lantzen denean ere kazetariak ez du iritzia ematea baztertzen. Era berean, iritzi-artikuluak oso luzeak dira batzuetan eta gertakari historiko eta politikoen azalpenak tartekatzen dituzte.


Erabiltzen den hizkuntza objektibitatek urrun dago eta narrazio tradizional “subjektiboa” erabiltzen dela esan daiteke. Iritzi soila diren diskurtso politikoak ere badaude eta helburu politikoak jarraituz jendea limurtzea izaten dute helburu. Ondorengo lerroetan agertuko dira idazketa mota hori azalerazten dituzten adibideak.

Testuak ordenatzeko azpтитuluen erabilera ohikoagoa bihurtzen da aldizkariaren azken urteetan, batez ere iritzi artikulu eta erreportaje luzeetan.

c) Kazetaritza generoak

Albisteak:

Albisteen kopurua (zenbaki bakoitzean)
133 erantzun



Grafikoa 27: Albisteen kopurua zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.


Albisteei dagokienez, presentzia urria dute. Aztertutako zenbakien erdian baino gehiagotan albisteren bat aurkitu da, baina albiste solteak soilik izan ohi dira. Aztertutako zenbakien portzentaje handi batean ez dago albiste bat ere ez (Grafikoa 27).

Argentinako euskal kolektibitatearen inguruko berriak edo Euskal Herriko egoera politikoari buruz berriak izan ohi dira. Azken horien artean, abertzaleen atxiloteta eta espetxeratzeen berri ematen da sarritan. Kartzelaratuen izenak eta egoerak azaltzen dira, tartean Luis Arana, Engrazio Aranzadi “Kizkitza” edo Luis Eleizalde bezalako izenak agertzen direlarik. Aldizkariak euskaldun amerikarrei diru-laguntzak eskatzen dizkie egoera horiei aurre egiteko.

Bestelako albisteen artean, aldizkari eta egunkari berrien agerpenak jakinarazten dira (*Aberri*, *Euskal Esnalea*, *Euzkadi*, etb.) eta baita liburu berrien argitalpenak: Ixaka Lopez Mendizabalen euskara-gaztelania hiztegia, Angel Zabala “Kondaño”-ren *Historia de Vizcaya*, Juan Sebastian Jacaren *Euskaria* edo Florentzio Basalduaren *Raza Roja* liburua.

Erreportajeak:

Erreportajeen kopurua (zenbaki bakoitzean)
133 erantzun



Grafikoa 28: Erreportajeen kopurua zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Erreportajei dagokienez, albisteak baino ehuneko txikiagoan egon arren (Grafikoa 28), aldizkarian leku gehiago hartzen dutela esan daiteke. 2 orrialde inguruko luzera izan dezakete zenbaitetan eta gai jakin baten inguruan zabalago hitz egiteko erabiltzen dira, iritziaren aurretik informazioa eta datuak gailentzen direlarik. Hala ere, egilea interpretaziotik haratago joaten da eta iritzia ematen du lantzen ari den gaiaren inguruan.

Erreportajeen artean aipatu daitezke “Ecos Nacionalistas” sailean, eta baita sailetik kanpo ere, munduan zehar dauden abertzaletasun eta independentzia mugimenduei buruzko idatziak (Irlanda, Polonia, India, etab.). Izan ere, *Irrintzi*-k garrantzia handia ematen zion beste herrialde batzuetan jazotzen ari ziren mugimenduei. Erreportaje baten zenbait herrialdeetako egoera azaldu aurretik honela zioten:


Allá donde existe una raza oprimida, una raza á la que se impide manifestarse según demanda su espíritu propio, su alma, aparece el Nacionalismo, que es en último término la acción de la naturaleza, rebelándose contra los que pretenden ahogarla (*Irrintzi*: “El Nacionalismo en el mundo”, 1910/04/15, 84.zbk, 3.or).

Zenbait urtetan abertzaletasunak urte osoan eginiko lanaren balantze moduko bat ere egiten da. Azpigituluekin banatuta, abertzaleek esparru ezberdinetan (euskaran, kulturaren, ospakizunetan, hauteskundeetan, biltzarretan , etab.) urtean zehar eginikoaren balorazio orokor bat burutzen da.

“A la vista del Krak” eta “Intendente de partido o pueblo de campaña” izeneko serietan Argentinari ekonomiar buruz eta politika lokalari buruz datozen idazlanak ere erreportajetzat kontsideratu dira.

Kronikak:

Kroniken kopurua (zenbaki bakoitzean)
133 erantzun



Grafikoa 29: Kroniken kopurua zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Kronikei dagokienez, aldizkarian askorik erabiltzen ez den generoa izan arren (Grafikoa 29), zenbait gauza interesgarri aurkitu daitezke. Nemesio Olariagaren alaba Juliak zenbait bidaia kronika bidaltzen ditu Euskal Herritik “Impresiones de viaje” izenburuarekin argitaratzen direnak. Julia alabaren ezkontzaren berri emango da aldizkarian eta ospakizunaren kronika ere burutuko da (155.zbk). Era berean, aurrerago Nemesio Olariaga semea ere ezkonduko da eta ezkontza horren kronika ere azalduko da (202.zbk).

Euskal Echea instituzioan ospatzen diren zenbait ekitaldiren kronikak irakurtzea ere posible da. Beste zenbait zenbakitan “Vida Deportiva” izeneko sailean futbol partiduen kronikak argitaratzen dira, gehienetan Irrintzi izeneko futbol talde baten partiduenak direlarik. Aipatzeko beste kronika bat, *Euzkadi* aldizkaritik hartuta dagoen Lehen Mundu Gerrako korrespontsal baten kronika da. Korrespontsal hori Manuel Aznar Zubigaray da, “Imanol” ezizenarekin sinatzen duena eta honela ematen dionak hasiera kontakizunari: “Desde uno de los risueños valles de Laburdi me llegan, con demasiada frecuencia, noticias apenadoras” (*Irrintzi*, 167.zbk, 1.or).

Elkarrizketak:


Elkarrizketei dagokienez, lehen zenbakietan posible da elkarrizketatzat hartu daitekeen lan bat edo beste aurkitzea. Esaterako, 28. zenbakian “Andoain, entrevista de nuestro reportero con una personalidad política de mucha actuación en los asuntos locales” lana dator “Corresponsal viajero”-k sinatuta, non Andoaindik euskara eta Larramendiri buruzko elkarrizketa bat dagoen. 33. Zenbakian, egile berdinak sinatuta eta “Correspondencia de Hernani” tituluarekin, Hernaniko apaiz bati politikaz eginiko elkarrizketa dator. Kuriositate moduan, apaizak kazetaria agurtu eta *Irrintzi*-koa dela ohartzean ez dio baimenik ematen argitaratzeko, baina hala ere argitaratu egingo duela esaten dio kazetariak. Apaizaren hitzek *Irrintzi* Euskal Herrian irakurtzen zela ematen dute aditzera.

Hala ere, kasu bakan horiez gain, aldizkarian datozen elkarrizketa gehienak ez dira benetako elkarrizketak. Hau da, elkarrizketa asmatuak edo alegiazkoak dira, non bi edo pertsona gehiagoren elkarrizketak irakasgaiak edo lezioak emateko erabiltzen diren.

Esaterako, abertzalea ez den pertsona batekin ustezko elkarrizketa bat agertzen da eta elkarrizketaren bidez abertzale izateko konbentzitzen zaio. Horrela, elkarrizketa horiek elkarrizketa baino iritzi-artikuluak direla esan daiteke.

Iritzi-artikuluak:

Iritzi-artikuluak (zenbaki bakoitzean)
133 erantzun



Grafikoa 30: Iritzi-artikuluen kopurua zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Iritzi-artikuluei dagokienez, gehien erabiltzen den kazetaritza generoa da (Grafikoa 30). Euskal abertzaletasuna, euskal eta espainiar politika eta Argentinako euskal kolektibitateari lotutakoak dira normalean artikuluak eta horiek betetzen dituzte *Irrintzi*-ren orrialde ugari. Aldizkarira bidalitako gutunak ere ohikoak dira.

Iritzi-artikuluak luze samarrak dira askotan eta 3-5 artikuluko inguru daudenean kasik aldizkariaren orrialde guztiak betetzen dituzte zenbaki bat baino gehiagotan. Adibidez, 50. zenbakian lehen orrialdean datorren “Ciudadanía baskongada” artikuluak hiru orrialde eta erdi ditu. Honekin esan nahi dena da, grafikoan ikusten den bezala, zenbaki gehienetan 1-5 iritzi-artikulu egon arren, presentzia handia dutela iritzi-artikuluek zenbaki gehienetan.

Titularrak adierazgarriak dira eta horietako zenbaiten bidez aldizkariaren tonua ulertu daiteke: “Baskos a luchar”; “Hagase la luz”; “Basko a secas”; “Bezi bedi Euskadi”; “La lucha por la vida de un pueblo”; “Somos patriotas”; “Despertar de Euzkadi”; “Baskos a formar”. Honela diote artikuluko baten:


La lucha es inherente á la vida, quien no lucha para defender su modo de vivir, su hogar y su patria, es un ser degenerado, que no merece ni patria ni hogar honrado por que para este desgraciado la vida es un fenómeno desconocido e inútil (...) (*Irrintzi*: “La lucha”, 1905/07/15, 27.zbk, 6.or).

Irrintzi-ren helburuei jarraitzeko iritzi-artikuluak baliabide erabilienak ziren, izan ere, euskal abertzaletasunaren hedapena lortzeko argi ikusten zuten bidea: “La lucha y la propaganda será la que nos traiga la salvación de Euzkadi” (*Irrintzi*, 99.zbk, 4.or).

Erabilitako hizkuntza zuzena eta gogorra da askotan, kritika zorrotzak egiten dira aurkari dituzten pertsona, korrante politiko edo instituzioen kontra. Mespretxuzko hitzak ere ohikoak dira: “¡Viejos maketizados, á la olla!” edo “¡Majaderos! Qué bien os cuadra este nombre”.

Iritzi-zutabeak:

Iritzi-zutabeak (zenbaki bakoitzean)
133 erantzun




Grafikoa 31: Iritzi-zutabeen kopurua zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Iritzi-zutabeei dagokienez, iritzi-artikulei buruz esandako berdina esan daiteke erabilitako gaiei, titularrei, tonuari, helburuei eta hizkuntzari buruz. Aldizkariaren lehen urteetan zutabeak ez dira horren ohikoak eta iritzi-artikulu luzeak daude batik bat. Horren erakusgarri, grafikoan ikusten den bezala, zenbakien %21,8an ez dago zutabe bat ere ez. Hala ere, aldizkariaren azken urteetan iritzi-zutabeak oso erabiliak dira eta zenbaki bakoitzean ugari argitaratzen dira. Horrela, zenbakien %15ean 6-10 zutabe tartean daude eta, are gehiago, zenbait zenbakitan 11-15 iritzi-zutabe ere badaude (Grafikoa 31).

Literatura artikulua (ipuinak, poesia, bertsoak):

Literatura artikulua: ipuinak, poesia, bertsoak (zenbaki bakoitzean)
133 erantzun



Grafikoa 32: Literatura artikuluen kopurua zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Literatura artikuluei dagokienez, poesia eta bertsoak aurkitu daitezke (apenas dago ipuinik), euskaraz eta gaztelaniaz, zenbakien laurden inguru batean (Grafikoa 32). Honakoak dira kontatzen eta kantatzen diren gai batzuk: euskaraz hitz egin beharraz, euskaldun guztien batasunaz, Euskal Herri maiteari, euskal leku zaharrei, Sabino Aranaren omenez, etab:

Batek esaten badu

Euskalduna dala

Madril darrak korrika

Dijuaz bereala

Laister ukatze ezpadu

Egiya esandula

Katian jotzendute

Zakur bat bezela

(...)

Euskeraz itzitia

¿Zuk ola naidezu?

¡Geyegi eskatzia

Ori da pekatu!

Guk izan nai badegu

Len izangiñanak

Biardegu lenbizi

Bildu alkargana

(*Irrintzi*: “Migel Bizkalaza-ri donkituak”, 1906/03/15, 35.zbk, 7-8.orr).

Bestelakoak (hitzaldiak, liburuetako pasarteak, etab.):

Bestelakoei dagokienez, lehen urteetako zenbakietan posible da artikulua hasieretan lema edo goiburu moduko batzuk irakurtzea, artikuluei sarrera ematen dienak. Aldizkariaren urte gehienetan ez dira goiburu horiek erabiliko. Hala ere, azken urteetan artikuluen tartean berriz jarriko dira esaldi edo ideia laburrak, batzuetan sinadura gabe eta beste batzuetan pertsonaia ezagunen esaldiak izango direlarik.

Aipatzekoa da baita ere zenbait hitzaldi ere argitaratzen direla. 26. zenbakian hasi eta zenbait zenbakitan Jose Arrandiaga “Joala”ren kontzertu ekonomikoei buruzko hitzaldia argitaratuko da, eta aurrerago, 166-168. zenbakietan, Francisco Cambok Bilbon katalanismoari buruz eta Donostian estatu espainiarrak abertzaletasunaren aurrean duen jarrerari buruz egindako bi hitzaldi argitaratuko ditu aldizkariak.

d) *Sailak*

Aldizkariak bere ibilbide osoan ez ditu sailak formalki nabarmentzen. Hala ere, badaude zenbait izenburu gai konkrituak lantzerakoan errepikatuko direnak.

1908ean hasita, lehen orrialdean “Los presos” edo “Nuestros presos” titulua dator eta bertan Euskal Herriko kartzela ezberdinetan preso dauden abertzaleen egoerak azaltzen dira. Horiei diru-laguntza emateko deia ere egiten da.

Aldizkakotasun zehatzik gabe “Euskal Echea” eta “Laurak Bat” atalak ere agertuko dira instituzio horien inguruan mugitzen dena irakurleari helarazteko asmoarekin. Berdina gertatuko da “Ecos Nacionalistas” atalarekin, eta bertan, atzerriko herrialde ezberdinetan askapena bilatzen duten mugimendu abertzaleek duten egoera azaltzen da: Irlanda, Finlandia, Korea, Polonia, India, Hungria edo Serbia, besteak beste. Bestalde, “Impresiones de Euzkadi” edo “Impresiones de viaje”-k euskal lurraldean aurkitzen

diren kolaboratzaileen pasarte eta idatziak bilduko ditu. Gutxiago, baina agertuko den beste atal bat, “Vida Deportiva” izango da, non futbol eta pilota kontuak azalduko diren.

Bestalde, “A la vista del Krak. ¡Qué Barbaridad!” eta “Intendente de partido ó pueblo de campaña” denbora batez eta etengabe errepikatzen diren serie moduko batzuk dira, sail bezala ere hartu daitezkeenak. Lehenengoan, Argentinako egoera ekonomikoaz modu kritikoan aritzen da “Berriz Arte” egilea, eta bigarrenean, herrietako politikaz eta kargu munizipalek lana ondo burutzeko dituzten betebeharez idazten du “El Tala”-k.

Azken orrialdean, “Notas” edo “Mis Notas” datoz. “Egi Saminak” izenburuarekin albiste laburrak eta iritzi eta kritika askotarikoak agertuko dira. Ondoren, antzerako tonu eta estiloan “Irrintzikeriak” izenarekin emango zaio jarraipena iritzi labur eta zorrotzei.

“Bibliografia”-n argitalpen edo aldizkari ezberdinen inguruko iruzkinak egingo dira. 1907an hasi eta hainbat zenbakitan “Denuncia” agertuko da, aldizkaria Bilbon behar bezala iristen ez dela salatuz eta neurriak hartzeko eskatuz Correos-eko zuzendariari.

Azken orrialdearekin jarraituz, 1905eko irailean hasi eta 1913ko martxora arte apustu deigarri bat egiten zaio irakurleari. Euskaldunak eta espainolak arraza berdinekoak direla erakusten duenari 50.000 pesoko saria ordainduko zaio, eta aurrerago, 100.000 pesora igoko da saria.

“Prensa nacionalista”-ren bidez, zein aldizkari dauden informatu eta horietan bazkide egitera animatzen da (*Euzkadi, Napartarra, Arabarra, Bizkaitarra, Gipuzkoarra, Aberri, Euskal-Esnalea*, etb.).

Azken orrialderekin amaituz, Aita Ebanjelista Iberokoarekin *Muera la mentira y Viva la verdad*, Sabino Aranaren *Los Carlistas y los Fueros de Euzkadi* eta Daniel Irujoren *Inocencia de un patriota* liburuxkak eskaintzen dira eskatzen duenari dohainik bidaltzeko.

e) *Argazkiak*

Argazkiak oso gutxi erabiltzen dira eta ia guztiak Sabino Aranarenak dira, egun ezagunak direnak. Arana Larrinagako kartzelan idazmahaiaren ondoan eserita dagoen argazkia edo bera lehen planoan (bere emazte Nikolasa Atxikallenderekin agertzen den argazki bat moztuta) erabiltzen dira “maisua”-ri gorazarre egiteko.

Besteren artean, aipatzekoa da mutil gazte bat besaulki batean eserita eta *Irrintzi* aldizkaria irakurtzen agertzen den irudia (Irudia 43).



Irudia 43: *Irrintzi*, 1910/10/15, 89.zbk. Urazandi Digitala.

f) *Ilustrazioak*

Ilustrazioak gehiago erabiltzen dira eta argazkiak bezalaxe Aranaren heriotzaren urteurreneko aleetan, azaroan, agertzen dira batik bat. Aranaren erretratu bat, koroa batez inguraturik eta ikurrina atzean duela, da gehien errepikatzen dena (Irudia 44).

1906an urriko eta azaroko aleek azken orrian ilustrazio bana dakarte. Lehenengoan, lore handi bat kimuekin marrazten da eta atzean Gernikako Batzarretxea izan daitekeena dago, goian Aranaren omenezko hitzak daudelarik. Bigarrean, adar handi bat hostoekin marrazten da eta “Zazpiak Bat” dago idatzita. Aipatzekoa da baita ere 1912 azaroko alean bi ilustrazio eder daudela. Batean Luis eta Sabino Arana Gernikako

Batzarretxearen aurrean hizketan ari dira (Irudia 45). Bigarreanean, Sabino hitzaldi bat ematen ari da leku berean publiko zabal baten aurrean.



Irudia 44: *Irrintzi*, 1916/11/25, 161.zbk. Urazandi Digitala.
 Irudia 45: *Irrintzi*, 1912/11/15, 115.zbk. Urazandi Digitala.

Muera la mentira y viva la verdad liburua irudi batekin ezagutzera ematen da hainbat zenbakitako azken orrian eta bertan gizon baten ilustrazioa dago, eskuan argi bat duela, liburuak gauza berdina egingo duela aditzera emanez (Irudia 46). Aldizkariaren azken urteetan liburuaren egile Ebanjelista Iberokoaren erretratua ere behin eta berriz agertzen da irailako zenbakiekin, bere heriotzaren urtemuga izanik (Irudia 47).



Irudia 46: *Muera la mentira y Viva la verdad* liburuxka eskaintzeko ilustrazioa. Urazandi Digitala.
 Irudia 47: Ebanjelista Iberokoaren erretratua; *Irrintzi*, 1916/09/15, 159.zbk. Urazandi Digitala.

Beste zenbait ilustrazioaren artean, emakume bat ikurrina handi bat alboan duela ere bi aldiz errepikatzen den irudi esanguratsua da. Kuriositate moduan, 1909ko

urtarrileko alean Serbian dagoen “Liga de la Muerte” ejertzitoari buruzko artikuluan hiru ilustrazio daude, eta emakume zahar bat armaz apuntatzen, emakume bat arma erabiltzen ikasten eta bi gazte tirokatzeko prest erakusten dituzte.

Ilustrazio satirikoak ere erabiltzen dira zenbaitetan. Esaterako, 51.zenbakian “Lo que dicen *nuestros paisanos*” izenburuarekin, espainiar tipikoaren zenbait karikatura daude eta, beraien hizkera imitatuz, umorezko testu laburrak jartzen dira (Irudia 48). 86.zenbakian, berriz, asto baten irudia dator eta Unamunori erreferentzia eginez honako azpititulua dakar: “Ultimo retrato del Rector de la Universidad de Salamanca” (Irudia 49).



Irudia 48: *Irrintzi*, 1907/07/15, 51.zbk. Urazandi Digitala.

Irudia 49: *Irrintzi*, 1910/06/15, 86.zbk. Urazandi Digitala.

Azken bi ilustrazioen gainean ikus daitekeenez, apaingarriak ere erabiltzen dira. Artikulutik artikulura dauden tartekak edo espazio ezberdinak apaintzeko erabiltzen dira dekorazio horiek. Hala ere, esan behar da ale askotan ez direla erabiltzen.

g) *Publizitatea*

Esan bezala aldizkaria dohainik banatzen zitzairen eskatzen zuten guztiei eta ez zuten donazio eta publizitaterik onartzen. Aldizkari guztietako azken orri amaieran adierazten dute hori. Urteetan zehar esaldi ezberdinak erabiltzen dira. Horietan garbien eta letra handiz honela idatzi zuten zenbait urtetan: “No se aceptan suscripciones ni avisos”.

VII. Diskurtso ideologikoa:

Irrintzi-ren ustez euskaldunek ezin zuten era berean espainiar edo frantziar izan, hau da, abertzaletasun bikoitza ez zuten onartzen. Beraien ustez “basko a secas” izan beharra zegoen:

El tal te afirmará ser basko, muy basko y en esto tiene razón y dice que es fuerista, que ama más que tú los Fueros, pero también dice que es español y *ama y honra a la madre patria España* en cuyo regazo quiere vivir y morir. ¿Has visto contradicción semejante en los días de tu vida? Si es una cosa cómo vá á ser la otra? (...) Es como si amara su suegra en vez de amar su propia madre y diera á aquélla el título que sólo ésta merece. (...) ¿Qué dirías de un ruso que afirmara ser inglés a la vez? (*Irrintzi*: “Basko a secas”, 1906/03/15, 35.zbk, 2-3.orr).

"Moldes amplios" terminoa erabiltzen dute behin baino gehiagotan, euskal abertzaletasunean iparraldeko euskaldunen gaiak eta erlijioaren derrigortasunak sortutako eztabaiden inguruan.

Euskaldunek euskaldunak ez diren instituzioetan parte hartzeari gaizki irizten diote eta horrela adieraziko dute hainbat artikulua izenburu honekin argitaratuz: "Los baskos en las sociedades extranjeras hacen una figura horrible". Era berean, oso kritiko azaltzen dira Laurak Bat euskal etxea hartzen ari den norabidearekin. Bertako estatutu eta araudiek espiritu erradikala izatea defendatzen dute eta ez dute ulertzen nola Espainiaren kontra protesta egiteko instituzio baten, estatu horretako ministroa ohorezko bazkide izan daitekeen:

Se llaman sociedades de Baskos, porque así se les ocurrió á los fundadores, pero ninguno que no supiera que esos centros son de los descendientes de Euskadi, y observaran mudos durante el tiempo que estimaran conveniente, concurriendo día y noche á sus salones saldría persuadido que aquello no es basko ni nada que se parezca á los hijos de Aitor (*Irrintzi*: “Nota”, 1905/10/15, 30.zbk, 7.or).

Aitzitik, Euskal Echea instituzioarentzako oso hitz onak izango ditu beti. Bertan hezkuntzaren alde eginiko lana goratzen da, eta Laurak Bat ez bezala, euskaldun guztientzat (hegoaldeko zein iparraldeko) egina dagoelako laudatuko du.

1906an, Jose Mari Larrea Laurak Bat instituzioaren buruan jartzean *Irrintzi*-k ospatu egiten du aukeraketa eta “Denok Bat” bihurtu beharra aldarrikatzen du (38.zbk). Aldiz, 1912an, Felix Ortiz San Pelayo presidente hautatzen dutenean eta instituzioan espainiar bandera haizatzen duenean kritika gogorak egingo dira (110.zbk). 1921ean, Miguel de Pamplona apaizak ikurrinaren bedeinkazioa egiten duenean Laurak Baten, oso harrera ona izango du *Irrintzi*-n (217.zbk).

Esan bezala, Nemesio Olariagak jarrera gogorra agertu zuen Laurak Bat euskal etxean ortodoxia abertzalea defendatuz. Horregatik, instituzio horretan parte-hartze urria eduki zuen, ez baitzuen bat egiten Felix Ortiz San Pelayo buru zuen “vascongado español” deituriko sektoreak hartutako erabakiekin (Ezkerro, 2004: 185):

En el año 1910 decía Olariaga de esta institución que era un “barullo”.

(...)

Tres años más tarde se refería a ella (1913) como “un cáncer que paulatinamente va contribuyendo a la muerte del espíritu basko, la inacción, la inmovilidad, es síntoma fatal de la muerte”. En contrapartida, en su obra, Ortiz y San Pelayo (97) se refirió a *Irrintzi* como “ese papelucho indecoroso, de cuyo cometido, aparentemente, sólo se hace responsable un pobre señor que hace tiempo anda mal de la cabeza” (Irigoyen, 2008: 301).

Hori gutxi balitz, Ortiz San Pelayok “chalado” (Ezkerro, 2004: 78) bezala izendatu zuen Olariaga eta *Irrintzi* agerkaria “panfleto” (Cava Mesa, 1996: 153) hitzarekin ere deskribatu zuen. Aldizkarian ugariak dira Ortiz San Pelayori eginiko kritikak eta bere abertzaletasun bikoitza ulergaitza iruditzen zaie: “¿No le parece Don Félix, que es una barbaridad, que estando como está hoy nuestra patria, nos metamos á redimir pueblos extraños?” (*Irrintzi*, 56.zbk, 4.or).

Unamunori kritikak ere etengabeak izango dira *Irrintzi*-n: “...cargue pues Sr. Unamuno las responsabilidades que le corresponden ya que no ha querido ser lo que debe ser; un basko” (*Irrintzi*, 51.zbk, 2.or). Antonio Maura edo Alfontso XIII ere zenbaki askotan egongo dira jopuntuan eta hurrengo titularra ere aski adierazgarria da: “Don Pio Baroja. Otro farolero” (*Irrintzi*, 90.zbk, 4.or).

Espainiarren arraza eta jarrera konkistatzailearen aurka azaltzen da aldizkaria. Armak hartuta konkista burutu zutenen kontra, baina gurutzea eskutan mundua zeharkatu

zutenen alde egiten da. Ameriketako independentzia mugimenduak goratzen ditu eta maiatzeko hainbat zenbakitan argentinaren Maiatzeko Iraultza oroitzuz hainbat idatzi berezi argitaratzen ditu: Argentinako independentzia adierazpena, Argentinako ereserkia, argentinar konstituzioa, Belgranoren gutuna San Martini, etab. Kuba eta Filipinetako independentziak laudatuko dira eta Jose Rizal eta Pancho Villa bezalako iraultzaileak goratuko dira. Jesus Sarriaren “La insurrección de Cuba” hitzaldia ere argitaratuko da (190-191.zbk).

Marokoko gerran Espainiaren partetik euskaldunek parte ez hartzea defendatuko dute eta berdin egingo dute Lehen Mundu Gerran Frantziaren alde borroka egin behar duten euskaldunekin. Gerra Handiaren ostean abertzaletasunek eta nazio txikiek edukiko duten garrantzia azpimarratzen dute.

Euskal Herriko politikari dagokionez, Argentinan ere oihartzuna eduki zuen 1921ean jazotako Comución Nacionalista Vasca moderatuen eta Aberri independentisten arteko zatiketak. Olariaga “aberrianoen” aldera lerratuko zen, eta horrela, gutun bidezko erlazioa mantentzen zuen Luis Arana edo Angel Zabala “Kondaño” kideek hartutako bideari jarraituko zion (Ezkerro, 2004: 84). Hala ere, esan behar da ezagutzen den *Irrintzi*-ren azken zenbakian batasunaren aldeko dei argia egiten dela.

En cuanto a lo que se piensa en América entre los vascos nacionalistas con respecto a las luchas intestinas de nuestro partido, no hay dos opiniones de que la Maketania desaparece por ley de gravitación, de su propia obra que recogerá lo que ha sembrado, odio y desprecio y que nuestras divisiones son inatendibles, que no existen, porque dos frentes de ejércitos que pelean y pelean bien contra nuestro único frente enemigo, no son enemigos, son amigos, a los que hay que cuidarles en todos estos casos, son a los chismosos o los extranjeros metidos a nacionalistas con cola en el extranjero, a los escritores que pasen la línea de una crítica prudente, una crítica alta, mesurada, y de orden, llamando a atención cuando se cree que se sigue o piensa seguir un mal camino, lo mismo por uno, que por muchos, la prensa debe llamar la atención, pero sin herir a las personas, sin faltar al derecho de gentes, y esto se consigue manteniendo un lenguaje decente y sobre todo respetando a los viejos luchadores, con la veneración que deben hacer, la gente joven que viene (*Irrintzi*: “Aberrianos, Euzkadianos y Barakaldeses”, 1923/02/15, 237.zbk, 3.or).

Liberalen eta karlisten kontrako kritikak ohikoak dira. Liberalek ez dute “libertatea” edo askatasuna defendatzen inolaz eta karlistei espainiarrak sentitzea eta diotenaren kontrara foruak ez defendatzea egozten diote. Honela diote karlismoaz umorez:

Después de todo esto no se nos ocurre hacer más que estas preguntas:

-¿El partido carlista es fuerista?

-Sí

-¿Y por qué es fuerista?

-Pues porque trabaja para avivar entre los baskos el amor hacia las cosas de fuera. Por eso, porque es amante de lo de fuera se llama fuerista el carlismo basko.

Comprendido.

(*Irrintzi*: “El carlismo y el teatro basko”, 1911/06/15, 98.zbk, 7.or).

Sozialismoa (azken zenbakietan Prietoren izena agertzen da sarritan) edo Liga de Acción Monarquica (la "Piña") ere gogor gaitzesten dituzte. Euskal abertzaleei “separatista” deitzeari gogor erantzuten diote: “¡Pero acaso los baskos nacionalistas somos separatistas! ¿No hemos dicho una y mil veces, que lo que aspira el nacionalismo basko, es la unidad de Euskadi, que no viva separada...” (*Irrintzi*, 203.zbk, 2.or).

Era berean, *Irrintzi*-k euskaldunek zezenketak eta “agarrado” bezalako espainiar ohiturak bereganatzearen arriskuaz ohartarazten du: “...ese inmoral, asqueroso y exótico baile *agarrado*. Probado hasta la saciedad que él es el origen de toda clase de vicios...” (*Irrintzi*, 96.zbk, 2.or). Hain zuen ere, bizioek dakartzaten kalteak behin eta berriz gogorarazten dira aldizkarian. Alkoholismoa eta jokoa dira gehienbat aipatzen direnak. Esaterako, honela idazten dute euskaraz gizonen mozkeriaz ironia puntu bat erabiliz:

Sagardotegin, ardotegin, edo aguarditegin batian, zerriya bezala moskortuta, usayata lerdia dariotela, dituzten chanpon guztiak, jokuan galdutzen ezpaldinbadabiltza gure denborontako gizon jaunak, dabiltza neskatzetik, zezen-plazetan edo chimu dantzetan, ergel kirten batzuk bezela, esanez, “*bestela nola demontre bizkogerá*” (*Irrintzi*: “Gaurko aitak”, 1907/06/15, 50.zbk, 6.or).

Espainiar prentsan euskaldunei buruz esandakoei emandako erantzunak argitaratzen dira sarritan, *El Diario Español* edo *ABC* agerkariak direlarik kritikatzeko direnetako

horietako bi. Bestalde, *La Baskonia* aldizkarian abertzaletasunak behar duen tokia ez izatea deitoratzen dute:

...nadie tanto como nosotros ha lamentado y ha discutido con la popular revista, la ausencia de tacto patriótico en sus escritos.

Muchísimos y valiosos trabajos que ha publicado en sus columnas, se ha malogrado por falta de una orientación definida en la ruta de campaña redentorista (*Irrintzi*: “La Baskonia y Los Baskos en la Nación Argentina”, 1916/12/15, 162.zbk, 1.or).


Generoari dagokionez, “sexo fuerte” eta “sexo débil” adierak erabiltzen dira. Esaterako, “...mucho más intenso y vivo en ellas que en el sexo fuerte...” (40.zbk, 3.or) edo “El respeto y la consideración á la mujer, fundados en la debilidad de su sexo...” (69.zbk, 5.or).

VIII. *Euskara eta euskal kultura:*

Euskarazko lehen artikulua 1905eko abenduan dator “Euskaldun Izkribitzalliak” izenburuarekin. Euskaraz ez irakurtzearen errua euskaraz ez idaztea dela dio autoreak:

Esnatu zaitezte euskaldun izkribitzalliak, esnatu zaitezte, zuen eskuetan dago euskeraren biziya, asi zaitezte zuen jakintza euskeraz banatzen, denak gure indarraren neurrian lagunduko dizuegu (*Irrintzi*: “Euskaldun Izkribitzalliak”, 1905/12/15, 32.zbk, 6.or).

Euskara (artikuluak)
133 erantzun



Grafikoa 33 Euskarazko artikulua zenbaki bakoitzean (*Irrintzi*). Lanaren egileak egina.

Aldizkariak euskararen aldeko jarrera sutua erakusten du. Horrela, apaizek eta politikariek euskaraz ikasi beharra aldarrikatzen dute, euskara hezkuntzan txertatzearen garrantziaz hitz egiten dute edo Laurak Baten euskarazko katedrako klaseetara inor ez joatea kritikatzeko dute. Hala ere, euskararen erabilera urria da gaztelaniarekin alderatuz eta, grafikoan ikus daitezkeenez, aztertutako zenbakietako laurden baten baino gutxiagotan dago euskarazko idazlanen bat (Grafikoa 33).

Lehen zenbakietan “Aitzgogor” bezala sinatzen duen egilearen euskarazko artikulu batzuk aurkitu daitezke. Zenbait bertso Manuel Enbeitak sinatuta daude. Euskararen erabilera aldizkariaren lehen urteetan ugariagoa dela esan daiteke. Esan behar da, azken urteetan katalanezko zenbait artikulu aurkitzea posible dela, Joan Sauret i Garciak sinatutakoak nabarmentzen direlarik.

IX. Funtzioa eta erabilera komunikatiboa:

“*Irrintzi* fue, en los inicios del siglo XX, un verdadero detonante en el Laurak Bat” (Ezkerro, 2004: 76). Ezkerroren hitzek erakusten dute argitalpen abertzalearen agerpenak Buenos Aireseko euskal kolektibitatean edukitako eragina. Euskal abertzaletasunak Ameriketara lehen urratsak emateko ezinbesteko bozgorailua izan zen eta argitarara eman zen hogeitau urteetan, Astigarragak esan bezala: “...fue un verdadero grito de patriotismo jeltzale” (Astigarraga, 1981: 20).

X. Aldizkariaren bilakaera:

Argitaratzen hasi zenetik hilero atera zen eten nabarmenik egin gabe. Ezagutzen den azken alea 1923ko otsailean argitaratutako 237 zenbakia izan arren, Ezkerrok Laurak Bat euskal etxeari buruzko bere liburuan esaten du 246 zenbaki argitaratu zituela guztira eta 1923ko azaroan desagertu zela (Ezkerro, 2004: 68).

5. CONCLUSIONS

We summarise below the contribution of the conclusions based on the hypotheses (H) and objectives (OB), and in view of the results obtained from the analysis carried out in the fieldwork.

1.- The Basque press met the needs of the diaspora communities

During the late nineteenth and early twentieth centuries the media publications set up by the Basque community in Argentina played a major role in the community's own development. The large number of publications and the variety amongst them show that the Basque community had a critical mass, and the publications were geared towards satisfying its various interests (social, cultural, political, leisure, economic, sports, etc.) (H1).

Looking outwards, the press was a means for making the unique culture of the Basque people better known, and for improving the image it had in the host country. The Basques, in contact with other ethnic communities in the diaspora, contributed to the flourishing of the ethnic press with the aim of maintaining Basque character and identity. By reinforcing Basque identity and combining it with characteristics of the diaspora, these magazines provided the Basques there with the raw materials to repurpose themselves (H3).

The three magazines provided exceptional records about the social and political environment of the Basques in Argentina. When carrying out the content analysis of these periodicals, the context in which they were created must be taken into account. So researchers must know about the Basque collectives in the diaspora in order to analyse its press; that knowledge will allow them to properly situate the various projects and stakeholders.

2.- Periodicals of different types and with varied characteristics were founded in connection with the development of the Basque communities in the diaspora

The magazines were founded because the Basque communities were compact. In the Basque American diaspora – which was becoming significant by the end of the nineteenth century – the press was an effective resource for the communication systems of the communities, both internally and externally. These periodicals made it possible to reinforce relations between members of each community, and bring cohesion to them (H2).

Most of the magazines set up in the years after 1877 were linked to Basque Centres. However, in some places the Basque press was founded before such institutions were established, for instance in California and Chile. At the Laurak Bat Centre in Argentina, the initial publishing of the official magazine coincided with the opening of the association. The *Laurak Bat* magazine (1878) was written in order to publicize the activities taking place at the Basque Centre and encourage members to take part in the activities it ran. The magazine was also a platform for debate, and it tried to influence the Basque community.

Shortly afterwards, various private press projects were set up, and they, too, had a noticeable influence on the Basques overseas. The Basque language weeklies *Escualdun Gazeta* (1885) and *California-ko Eskual Herria* (1893), published by Basques from the north in California, were precursors. However, the cultural and intellectual magazine *La Baskonia* (1893), founded in Buenos Aires, was to be the most significant privately-owned magazine. Its editorial quality, distribution to and acceptance among readers confirm that it was a milestone in Basque-American journalism.

With the arrival in the Americas of new ideas about Basque patriotism, the press became a resource for spreading that message and attracting new members to the cause. *Irrintzi* (1903) was an effective resource when Basque patriotism first appeared in Argentina and throughout the Americas. It is an example of how the press was able to spread ideas within the community's critical mass. It was a precursor and example for the patriotic political magazines that were going to be founded later on, among them

¡Aurrera! in Chile and *Euzkotarra* in Mexico – both set up in 1907. The magazines reflect the difficulties Basque patriotism encountered when taking its first steps in the Americas, and the tensions between Basque people there (H4).

3.- Categories and points of interest in the magazines analysed by content analysis show their own characteristics

3.1.- Context for the publication of the magazines (OB1)

Motivation for founding the magazines stemmed from various events which took place in the Basque Country. *Laurak Bat* magazine – founded alongside a Basque Centre – was first published when the Fueros (charters of Basque rights and obligations) were repealed in 1876 at the end of the Carlist Wars. The incidents that took place in Donostia-San Sebastian – in the context of the Gamazada popular uprising – at the end of August 1893, led to the foundation of *La Baskonia* magazine. The *Irrintzi* magazine was first published shortly after the death of Sabino Arana in early December, 1903. Therefore, although they were three different types of periodical, they all had their origins in political events in the Basque Country.

The three magazines were also founded to meet a need in the Basque diaspora collective at the time. The *Laurak Bat* magazine was the first Basque publication in Argentina, and it should be seen in the context of the beginnings of the Basque press in the Americas. When *La Baskonia* was set up, the *Laurak Bat* magazine had closed down two years earlier, and there was a cultural vacuum in the Basque community. *Irrintzi*, on the other hand, was founded to provide the mouthpiece needed by the new ideas about Basque patriotism.

3.2.- Magazines as media companies (OB2)

The situation was not easy for journalistic initiatives as it was difficult for magazines to be financially viable. The *Laurak Bat* magazine had continual financial problems, and they were to lead to its closure. *Irrintzi* was in a different situation because Nemesio Olariaga was wealthy, his main motivation was to publish political propaganda, and he

used the money he made in business to that end. It should be remembered that both *Laurak Bat* and *Irrintzi* were distributed free of charge.

La Baskonia magazine was a private initiative, following a more modern, professional business model. However, its editorials often stated that its objective was not to accumulate wealth, but to provide information about anything in connection with the Basques and to promote Basque cultural activity. They stated that if their objective had been to make themselves rich, they would not have carried on publishing the magazine, and would have spent their time on something more profitable. *La Baskonia* repeatedly asked its subscribers to keep up with their payments. However, one editorial did admit that the magazine was not viable through the money received in subscriptions alone. Advertisements were also needed to finance the magazine, as was business in connection with the printing press. It should be stressed that José Rufo Uriarte gave his time and what money he had to the magazine.

There were difficulties with regard to the magazine's distribution. *Laurak Bat* and *La Baskonia* complained that some of the subscribers' addresses were wrong, and, in general, they found the postal service unsatisfactory. *Irrintzi* faced different types of difficulties, and protested about Spanish government censorship and the seizure of magazine issues on more than one occasion. In addition to the regular magazine issues, all three publications often brought out supplements, usually in connection with particular dates or special events.

3.3. *The quality of the work produced by journalists and writers (OB3)*

It is clear that there was solid management behind the *La Baskonia* and *Irrintzi* magazines. José Rufo Uriarte and Nemesio Olariaga were their respective editors and worked for many years in their different ways to carry on publishing them, proof of which was the continuity and regularity of the magazines. When Francisco Grandmontagne left the management team of *La Baskonia* in 1901 due to ideological differences, the magazine changed direction. However, Uriarte built a solid foundation over forty years, and ran the magazine with a firm hand until his death in 1932. Under

the management of Pedro de Echeverria over the final years the same direction was followed, albeit in a more modest way.

In the case of *Laurak Bat*, on the other hand, many editors came and went, many of them feeling obliged to take the job on, and that led to many fluctuations in the magazine.

The magazines published, amongst other material, articles by the major Basque writers and intellectual researchers of the time: Arturo Kanpion, Fermin Herran, Karmelo and Bonifazio Etxegarai, Telesforo Aranzadi, Jose Maria Salaberria, Alfredo Laffitte, Gregorio Mujika, Engracio 'Kizkitza' Aranzadi, Ramon 'Martin de Anguiozar' Berraondo, etc. It is believed that most of the articles were taken from publications in the Basque Country. Sometimes the original periodicals in which the articles appeared are acknowledged, but in most cases only the writer is mentioned. However, there are also articles which were written specifically for the diaspora press. Proof of this – for instance in *La Baskonia* – is the mention that some pieces had been written "for *La Baskonia*", or that the writers were correspondents of the magazine.

The most significant members of the Basque immigrant community in Argentina – Juan Sebastián Jaca and Daniel Lizarralde, for example – also featured frequently in the magazines. The magazines provided a platform for discussing current issues –for instance the political situation in the Basque Country, and events taking place in the Basque-American community– and the most prominent stakeholders in the diaspora wrote columns in order to share their opinions.

3.4. Content structure in the periodicals (OB4)

With regard to the titles of the magazines, it is worth noting that *Laurak Bat* and *La Baskonia* made changes in an attempt to adapt to Basque spelling. The magazine which José Rufo Uriarte edited ran a debate on the topic over many years, and there were many articles on whether to use the spelling "vasco" or "basko". Uriarte favoured the second option, and he was one of the few people to use the spelling "basko" within the

Basque context: Basque patriotic magazines – *Nación Vasca*, for example, and *Patria Vasca* – did not use it, nor did Euskaltzaindia (The Academy of the Basque Language).

The features on the cover of a magazine are a sample of its characteristics. The use of the traditional Spanish royal coat of arms at the top of *Laurak Bat* in the early days was significant. It was later replaced by Pedro Soraluze's 'Basque flag' coat of arms. On the first page of *La Baskonia* there were various illustrations and photographs. Significant Basque personalities were featured there, along with landscapes from the Basque Country and scenes connected with traditional society, all of which showed how much the magazine wanted to promote cultural topics. *Irrintzi* used striking illustrations in order to present Basque patriotic themes from its first page onwards.

In the main headline social subjects predominate in the institutional magazine whereas political subjects predominate in the political magazine. In *La Baskonia*, the cultural and intellectual magazine, on the other hand, although cultural issues took an important position, political and social issues were also widely covered, which is an indication of its broad approach. However, the genre most featured as the main item in all three publications was the opinion article, which demonstrates the importance of the periodicals as a platform for debate, and also their influence on members of the Basque communities.

Assessing the style of the pieces from a current journalistic point of view is a challenging task. The language used is far from objective, and most articles include the journalists' personal opinions. The narrative style was traditional and subjective, and journalists did not rule out giving their own opinions when writing in-depth features. It was also common to refer to the readers in texts, and to try to involve them.

The genres used in these publications were not strict. However, the results obtained in our research allow us to highlight the following points. With regard to journalistic genres, there were numerous news items in *Laurak Bat* and *La Baskonia*. In addition to individual pieces of news that appeared throughout the magazines, they both had specific sections for diaspora news and news from the Basque Country. In these sections there were many short news items, and regular sections featured in the

magazines. In contrast, there were few news items in *Irrintzi*. Reports were featured prominently in all three magazines. This genre was used to make known the biographies of well-known Basque personalities, and those written by Francisco Grandmontagne stand out; to describe episodes in Basque history and Basque customs; to deal with economic issues, to explain the situation of other nations, etc. Despite a reduced use of descriptive texts, they were made use of to publicize the festivals and celebrations held by the Argentine Basque community; to explain significant dates in the Basque Country; to report on pilota matches; and travel chronicles sent by collaborators from different places were also published. Interviews were the least used genre. Opinion articles and columns, on the other hand, were featured highly in all three publications. Opinions on Basque and Spanish politics (charters of Basque rights and obligations, patriotism, etc.), reflections about the Argentine Basque Centres, the need to defend the Basque character and the Basque race, the importance of the Basque language and the danger of it becoming extinct, etc. These themes were continually mentioned in opinion pieces. Verses and poems in Basque frequently featured in literary articles. Stories, excerpts from novels, legends and plays were also published. Speeches and brochures were also published in instalments.

There were sections in *Laurak Bat* and *La Baskonia* with similar content. These sections featured throughout the publication of the magazines, although their titles were changed from time to time. However, not all sections appeared in all issues, some of them were included depending on the materials the editors wished to publish.

With regard to photographs, in *Laurak Bat* there was a single one in the last issue. In *Irrintzi* little use was made of them, and almost all of them were of Sabino Arana. In *La Baskonia*, on the other hand, many different photographs were published in all the issues. From its first issue onwards the arts magazine considered pictures to be important, and it published quality photographs. Thanks to graphic reporters such as Indalecio Ojanguren, pictures of the Basque Country and of everyday scenes reached the homes of the Basques in the Americas. The pages of the magazine also showed pictures of the events held by the diaspora community and the participants in them.

There were no illustrations in *Laurak Bat*. *Irrintzi* was also to feature pictures of Sabino Arana and other symbols related to Basque patriotism. Satirical and ornamental illustrations were also published in the political magazine. In *La Baskonia* works by major Basque artists such as the Arrue brothers were reproduced, and there was a firm commitment to Basque art. Caricatures and comics were often published, Biktoriano Iraola's humorous vignettes being a case in point. Ornamental illustrations were also given ample space, with ornamental images in almost every issue accompanying the texts.

Irrintzi did not publish any advertisements, and it reminded readers of that fact in each issue. Advertising did feature in half of the issues of *Laurak Bat*, most of them being for doctors, dentists, small factories, shops, etc. This type of advertising was also published in *La Baskonia*. However, when collections of all the issues from each year were bound, the pages on which advertisements had appeared were excluded, so most of the digitized issues in Urazandi include no advertising. As a result, it is not possible to gather meaningful data on advertising as far as this magazine is concerned.

3.5. The perspectives and ideological leanings of the magazines (OB5)

The magazines in the diaspora were more conditioned by events happening in the Basque Country than by those in Argentina. That meant that much of the content was written with their sights on the Basque Country. However, international events –such as the effects of World War I and the influence of industrialization on society– did affect the periodicals. The magazines addressed these issues mainly from the Basques' point of view. The suffering of the Basques from the north (Continental Basque Country) as a result of going to war was underlined. With regard to industrialization, the magazines believed that Basque identity as associated with traditional Basque society (customs, clothing, dances, sports, music, language, landscapes, etc.) was at risk.

The name of the first Basque Centres in the Americas –'Laurak Bat', meaning 'The Four are One'– was a reference to the Spanish state, and the association's magazine featured the Spanish royal coat of arms on its masthead, seeing Basqueness as part of a wider homeland. The bond with Spain can also be seen during *La Baskonia*'s early

years, when enthusiastically supporting the Spanish during the Cuban War of Independence (1895-1898). By contrast, *Irrintzi* believed that Basques could not be Spanish or French as well. They did not accept dual patriotism, i.e. Basque patriotism plus a different one.

Likewise, this Basque patriotic magazine called for the unity of the Basques from the south (Peninsular Basque Country) and the north (Continental Basque Country), and always spoke in favour of the association Euskal Echea, which was open to all Basques. *La Baskonia* went on to support that demand, and tried to reach the Basques from the north (the Continental Basque Country) through the magazine. Its news about the Basque Country included a section about the northern (Continental) Basque Country, and the news items in it were written in Basque. There has been disagreement about whether *Laurak Bat*'s calls for a process to build a common identity for all Basques (both from the Peninsular Basque Country and from the Continental Basque Country) had a political objective as well as a cultural one, and some have seen that as proto-Basque patriotism.

Both *Laurak Bat* and *La Baskonia* continually defended the Basque Fueros (Charters of Basque Rights and Obligations). For example, Uriarte's magazine commemorated July 21st in its editorial every year, defending the rights of the Basques and their General Assemblies. Although *La Baskonia* repeatedly stated that it was not aligned to any political party, over the years its proximity to Basque patriotic ideas became evident. *Irrintzi* strongly defended Arana's patriotic ideas and harshly criticised other political leanings.

Although in different ways, *La Baskonia* and *Irrintzi* were critical of the activities of the *Laurak Bat* association. The Basque patriotic magazine believed that rupture with Spanish institutions had to be complete, while the cultural magazine spoke in favour of using the association not only for leisure purposes, but also for defending the Fueros and promoting Basque culture. As an example of this, these two magazines did not look kindly on the Basques adapting foreign customs such as bullfighting, dancing cheek-to-cheek, boxing and football.

3.6. *The Basque language in the magazines (OB6)*

In all three periodicals defence of the Basque language was passionate, and numerous articles to highlight the language's relevance and richness were published. Studies of Basque and the political decisions taken in the Basque Country about the language were closely followed. However, in general the use of Basque in the magazines was thin on the ground. Regarding the use of Basque in the publications being examined, it is clear that the language was undergoing a kind of initiation phase in the Basque press.

In many issues Basque was only used in literary works. Literary works in Basque included texts by Felipe Arrese-Beitia, Klaudio Otaegi, Marcelino Soroa, Emeterio Arrese, Cayetano Sánchez-Irure, Ramón, Pepe and Rosario Artola, Biktoriano Iraola and Pello Mari Otaño.

3.7. *The target readership of the magazines and the objectives pursued (OB7)*

The function and communicative use of each periodical was determined by the type of publication each one was. *Laurak Bat* publicized the activity of the association, it represented both internally and externally, while promoting the involvement of and debate among the members of the association. *La Baskonia's* core mission was to promote Basque culture, and, to do so, the magazine covered history, geography, literature and so on, and it was keen to complete a reference album to be consulted. *Irrintzi* sought to shake up the Basque community and was loyal to its objective of spreading Basque patriotism as widely as possible.

3.8. *The development of the magazines (OB8)*

In the same way as when publications are opened, it is necessary to observe the context and the presence of other initiatives in order to understand their closure. For instance, the year after *Irrintzi* stopped being published, 1924, the magazine *Nación Vasca* was set up by the Acción Nacionalista Vasca political party. At *La Baskonia* after the death of its editor José Rufo Uriarte in 1932, the team led by Pedro de Echeverria

tried to continue publishing the magazine in a dignified manner and as a homage to Uriarte's project. However, during the last years of its publication the periodical became a less-used reference point. It should also be borne in mind that by the time *La Baskonia* ceased publication, in 1943, *Euzko Deya* – which had begun publishing in 1939 – was already beginning to occupy the former's position in the Basque community. Political events in the Basque Country called for new responses, and the Basque press in the diaspora had to adapt in order to connect with its readership.

Final reflections

In the decades following the period being examined in this thesis, various journalistic initiatives were set up by the Argentine Basques. In one of the sections of this PhD, in which use is made of the end-of-course project for the University Specialization in the Basque Diaspora qualification, we examine the history of Basque press initiatives in the diaspora in Argentina, starting with the first ones at the end of the 19th century, and continuing through to the digital environment of recent decades. Based on that, we are in a position to offer some reflections on the journalistic initiatives of the period.

During the years of the Franco dictatorship, Basque patriotism reached the new continent, and the Americas offered a location where things which were impossible in the Basque Country in the post-war period could be undertaken. Basque patriots in Argentina engaged in propaganda, editorial and informative work throughout the Franco era, and various press projects were continually underway.

The content of the publications reflects a tough, extreme period, and that led to them to become highly politicized. Most of the magazines had political objectives and, despite being combined with other aims, the political context significantly determined the journalists' work. The articles and writings in the periodicals bore accurate witness to those years, and became a historical document about the period of exile.

The arrival of new technologies directly influenced the migrants' media. The globalized context radically changed the way information is created and consumed. Transnationalism means crossing the borders of nation-states, and that opens up the possibility for migrants to build their culture and identity beyond borders.

Satellite television takes the Basque Country to the homes of Basques overseas, and the digital experience offer them the possibility of traveling to their native country. Basque international television connects the diaspora with the present day, and it is easier to construct Basque identity using today's references. This allows the diaspora community to get closer to its country of origin, and reshapes its sense of community. Television offers Basques abroad raw materials and enables them to be Basques in the

diaspora; it also makes it easier for them to identify themselves as Basques to other people.

The Internet has made communication between the diaspora and the Basque Country faster and more efficient. This has made it possible to significantly improve contact between families and also institutional collaboration. The Internet offers Basques in the diaspora a virtual space in which to be Basques. In this new area they have an opportunity to be in touch with the other members closest to them and, at the same time, this window is open to everyone. Different institutions and groups have seen the need to take their place in this new space in order, amongst other things, to attract the young people who are the future of their communities. Any Basque in the diaspora can create Basque content on the social networks, and new affinity groups are constantly emerging. Interaction and immediate participation between Basques from all over the world is encouraged, and virtual communities are formed. It remains to be seen what the balance between physical and virtual communication will be like in the future.

The history of Basque journalism is still to be completed, and conducting research on the Basque press in the diaspora in the Americas helps fill a gap. The written press is not a mere source of information. It is crucial for the Basque community's communication system. We hope that the work carried out here will lead to further research into the Basque diaspora and the history of Basque journalism.

ONDORIOAK

Jarraian ondorioen ekarpena laburbiltzen dugu hipotesi (H) eta helburuetan (HE) oinarrituta, eta aldizkarien azterketaren bidez lortutako emaitzak baliatuta.

1.- Euskal prentsak diasporako komunitateen beharrak erantzun zituen

XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran Argentinako euskal kolektibitatean sortu ziren prentsa argitalpenek funtzio garrantzitsua izan zuten honen garapenean. Argitalpen kopuru handiak eta tipologia ezberdinek erakusten dute, bazegoela masa kritiko bat euskal kolektibitatean eta argitalpenak beraien interes ezberdinak (sozialak, kulturalak, politikoak, aisialdikoak, ekonomikoak, kirolekoak, etab.) asetzera bideratu zirela (H1).

Kanpora begira, euskaldunen berezitasun kulturala plazaratzeko eta gizarte hartzailearekiko eraiki beharreko irudia hobetzeko baliabidea izan zen prentsa. Euskaldunek, diasporako beste komunitate etniko batzuekin kontaktuan egonik, prentsa etnikoaren loratzean parte hartu zuten euskal nortasuna, identitatea, mantentzeko asmoarekin. Euskal identitatea sendotu eta diasporako elementuekin uztartuz, aldizkariak berau birsortzeko lehengaiak eskaini zizkien bertako euskaldunei (H3).

Hiru aldizkariak Argentinako euskaldunen artean bizi zen giro sozial eta politikoaren testigantza ezin hobea utzi zuten etorkizunerako. Aldizkariak eduki-analisia burutzean beharrezkoa da aldizkari horiek sortu ziren testuingurua ezagutzea. Beraz, diasporako euskal kolektibitateen historiaren ezagutza beharrezkoa da prentsaren azterketa egiteko, horrek ahalbidetuko baitu egitasmo eta aktore ezberdinak modu egokian kokatzea.

2.- Aldizkari mota edo tipologia ezberdinak diasporako euskal kolektibitateen garapenari lotuta sortu ziren

Euskal komunitateak trinkoak zirelako sortu ziren aldizkariak. XIX. mende bukaerarako esanguratsua bihurtzen ari zen euskal diaspora amerikarrean, prentsa baliabide eraginkorra izan zen komunitateen komunikazio sisteman, barnera zein

kanpora begira. Aldizkariak ahalbide zuten kolektibitateko kideen artean harremanak areagotzea eta kohesioa sendotzea (H2).

1877. urtetik aurrera sortutako aldizkari gehienak euskal etxeei lotuta iritsi ziren lehen urteetan. Hala ere, zenbait tokitan euskal prentsaren agerpena instituzioak sortu aurretik gauzatu zen, esaterako Kalifornian edo Txilen. Argentinako Laurak Bat elkartearen kasuan, elkartea sortzearekin batera argitaratu zen aldizkari instituzionala. *Laurak Bat* (1878) aldizkaria euskal etxean burutzen ziren ekintzen berri emateko eta bazkideak bertako jardunean inplikatzeko helburuarekin idatzi zuten. Era berean, eztabaidarako eta euskal kolektibitatean eragina izaten saiatzeko espazioa izan zen aldizkaria.

Denbora gutxira ekimen pribatuko kazetaritza proiektu ezberdinak sortuko ziren, eta hauek ere, eragin nabarmena eduki zuten itsasoz bestaldeko euskaldunengan. Kalifornian iparraldeko euskaldunen eskutik euskara hutsez idatzitako *Escualdun Gazeta* (1885) eta *California-ko Eskual Herria* (1893) astekariak izan ziren aitzindari. Hala ere, Buenos Airesen sortutako *La Baskonia* (1893) aldizkari kultural-intelektuala izango da ekimen pribatuen artean aldizkari garrantzitsuenak. Denboran izan zuen iraupena, erdietsi zuen kalitate editoriala eta irakurleen artean lortu zuen onarpena eta zabalkundea kontuan hartuta, Ameriketako euskal kazetaritzan mugarririk izan zela baieztatu daiteke.

Ameriketara euskal abertzaletasunaren ideia berriak iristearekin batera, prentsa mezua zabaltzeko eta kide berriak abertzaletasunera erakartzeko baliabidea bihurtu zen. *Irrintzi* (1903) baliabide eraginkorra izan zen euskal abertzaletasunak Argentinan eta Ameriketara lehen urratsak ematerako orduan. Kolektibitateko masa kritikoan prentsak ideien hedapenean izan zuen funtzioaren erakusgarri da. Aurrerago sortuko ziren aldizkari politiko abertzaleen aurrekariak eta eredu izan zen, horien artean 1907an sortutako Txileko *¡Aurrera!* eta Mexikoko *Euzkotarra* aipatu daitezkeelarik. Aldizkarietako orrietan jasota geratu dira abertzaletasunak Ameriketara lehen urratsak egiterakoan izan zituen zailtasunak eta bertako euskaldunen artean egon ziren tentsioak (H4).

3.- Aldizkarietan eduki-analisiaren bidez aztertutako kategoria edo interesguneek ezaugarri propioak erakusten dituzte

3.1.- Aldizkariak argitaratutako testuingurua (HE1)

Aldizkarien sorrera Euskal Herriko gertakizun ezberdinek eragin zuten. *Laurak Bat* aldizkariaren kasuan, euskal etxeari lotuta agertu zenez, 1876an jazotako Gerra Karlisten amaierak eta Foruen deuseztatzeak bultzatu zuten aldizkariaren agerpena. *La Baskonia*-ren kasuan, 1893ko abuztuaren amaieran Gamazada herri altxamenduaren testuinguruan Donostian egondako istiluak izan ziren aldizkariaren sorrera hauspotu zutenak. *Irrintzi* aldizkaria Sabino Aranaren heriotza gertatu eta gutxira argitaratuko zen, 1903ko abendu hasieran. Horrela, hiru aldizkari mota ezberdin izan arren, esan daiteke hiru aldizkarien sorreraren oinarrian Euskal Herriko gertaera politikoak daudela.

Halaber, hiru aldizkariak euskal diasporako kolektibitatean hutsune bat betetzeko sortu ziren bakoitza bere momentuan. *Laurak Bat* aldizkaria Argentinako lehen euskal argitalpena izan zen eta Ameriketako euskal prentsak izan zituen hastapenei lotu behar zaio bere agerpena. *La Baskonia* sortu zenean, bi urte ziren *Laurak Bat* aldizkaria desagertu zela eta euskal komunitatean hutsune kulturala nabaria zen. *Irrintzi*, berriz, euskal abertzaletasunaren ideia berriek behar zuten bozgorailua izateko sortu zen.

3.2.- Aldizkariak kazeta enpresa gisa (HE2)

Kazetaritza ekimenak aurrera eramateko baldintzak ez ziren errazak, izan ere, ekonomikoki aldizkariak bideragarriak izatea lan nekeza zen. *Laurak Bat* aldizkariak arazo ekonomikoak izan zituen etengabe eta bere desagertzea ere arrazoi horrengatik gertatu zen. *Irrintzi*-ren kasua ezberdina zen, Nemesio Olariaga pertsona diruduna izanik, propaganda politikoa egitea zen bere asmo behinena, eta horretarako, bere negozioetan lortutako dirua erabili zuen. Kontuan hartu behar da *Laurak Bat* eta *Irrintzi* dohainik banatzen zirela.

La Baskonia aldizkaria enpresa ekimen pribatua izanik, negozio eredu modernoagoa eta profesionalagoa zen. Hala ere, aldizkariaren editorialetan sarritan errepikatuko da

beraien helburua ez dela aberastea, euskaldunekin zerikusia duen guztiaren aldeko zabalkundea egin eta euskal kulturgintza lantzea baizik. Beraien esanetan aberasteko helburua edukiko balute, ez ziren aldizkaria aurrera eramaten tematuko eta errentagarriagoa zen beste zerbaitetan jardungo zuten. *La Baskonia*-k behin eta berriz eskatzen du harpidetzak ordaintzea eta egunean jartzea. Hala ere, editorial batean onartzen da harpidetzen bitartez jasotzen den diruarekin soilik aldizkaria ez dela bideragarria. Horrela, aldizkaria finantzatzeko beharrezkoak ziren iragarkiak eta baita inprimategiaren inguruan mugitzen zen negozioa. Horrez gain, Jose Rufo Uriartek bere bizitza eta zuen dirua aldizkariari eskaini ziola nabarmendu behar da.

Aldizkarien banaketan arazoak izan zituzten. *Laurak Bat* eta *La Baskonia*-k zailtasunak adieraziko dituzte, harpidedunen helbideak ez daudelako ondo zenbaitetan, eta orokorrean, Correos zerbitzuarekin kexu azalduko dira. *Irrintzi*-ren zailtasunak bestelakoak izan ziren, izan ere, gobernu espainiarraren zentsura eta aldizkariaren zenbakien bahiketa behin baino gehiagotan salatuko dute. Aldizkariak osatuta zeuden ohiko orrialdeez gain, hiru aldizkariak sarritan orrialde gehigarriak argitaratu zituzten, normalean data edo gertakizun berezi bati lotutako zenbakiak izan zirelarik horiek.

3.3. Kazetari eta idazleek burututako kazetaritza jardunaren nolakotasuna (HE3)

La Baskonia eta *Irrintzi* aldizkarien atzean lidergo sendo bat antzeman daiteke. Jose Rufo Uriarte eta Nemesio Olariaga zuzendariak urte luzez aritu ziren, modu ezberdinean bada ere, aldizkariaren proiektua aurrera eramateko lanetan, eta horren erakusgarri, aldizkarien iraunkortasuna eta erregulartasuna izan ziren. *La Baskonia*-ren kasuan, 1901ean Francisco Grandmontagnek zuzendaritza ezberdintasun ideologikoei eraginda utzi zuenean, haustura bat eman zen aldizkariaren norabidean. Hala ere, Uriartek oinarri sendoa eraiki zuen berrogei urtez eta irmotasunez gidatu zuen aldizkaria 1932an bere heriotza gertatu arte. Azken urteetan, Pedro de Echeverriaren eskutik, bide horri jarraipena eman zitzaion modu apalagoan izan bazen ere.

Laurak Bat-en kasuan, aldiz, zuzendari aldaketak etengabeak izango ziren, zuzendariak behin baino gehiagotan lana konpromiso hartuko zutelarik, eta horren ondorioz, gorabehera ugari izango zituen instituzioaren agerkariak.

Aldizkarietan garaiko euskal idazle eta ikertzaile intelektualen garrantzitsuenen artikuluak argitaratu ziren, beste askoren artean: Arturo Kanpion, Fermin Herran, Karmelo eta Bonifazio Etxegarai, Telesforo Aranzadi, Jose Maria Salaberria, Alfredo Laffitte, Gregorio Mujika, Engracio Aranzadi “Kizkitza” edo Ramon Berraondo “Martin de Anguiozar”. Horietako gehienek artikuluak pentsatzekoa da Euskal Herritik jasotako argitalpenetatik hartzen zituztela. Zenbaitetan artikuluaren jatorrizko aldizkaria zein den zehazten da, baina gehienetan egilearen sinadura soilik dator. Dena den, badaude diasporako prentsarako beren-beregi idatzitako artikuluak ere. Horren erakusgarri, *La Baskonia* aldizkarian esaterako, zenbait artikulutan “para *La Baskonia*” idatzitako kolaborazioak direla zehazten da edo korrespontsalak direla baieztatzen da.

Argentinako euskal emigranteen arteko kide esanguratsuenek ere presentzia nabarmena zuten aldizkarietan, horren adibide garbiak direlarik Juan Sebastian Jaca edo Daniel Lizarralde. Aldizkariak aktualitatean zeuden gaiak eztabaidan jartzeko espazioak ziren, izan Euskal Herriko egoera politikoari buruz edo Ameriketako euskal komunitatean jazotzen ari zenari buruz, eta diasporako aktore nabarmenenek beraien iritziak plazaratzeko erabiltzen zituzten bertako zutabeak.

3.4. Aldizkariaren edukiaren egituraketa (HE4)

Aldizkariaren izenburuari dagokionez, aipatzekoa da *Laurak Bat* eta *La Baskonia* aldizkariak aldaketak burutu zituztela euskal grafiara egokitzeko ahaleginetan. Gainera, Jose Rufo Uriartek zuzendutako aldizkariak urte luzez mantenduko du gai honekiko eztabaida eta “vasco” edo “basko” erabiltzearen inguruko artikuluak ohikoak izango dira. Uriartek bigarrenaren alde egingo du eta euskal munduan “basko” adiera erabiliko duen gutxitakoa izango da, izan ere, ez aldizkari abertzaleek (*Nación Vasca* edo *Patria Vasca*, kasu) ezta Euskaltzaindiak ere ez dute adiera hori erabiliko.

Lehen orrialdean agertzen diren elementuak aldizkariaren izaeraren erakusgarri dira. *Laurak Bat* aldizkarian esanguratsua izango da hasieran Espainiako armari monarkiko tradizionala erabiltzea goiburuan, eta ondoren, Pedro Sorluzeren bandera edo “estandarte euskaro” armarrria jartzea horren orde. *La Baskonia*-ren lehen orrialdean

askotariko ilustrazio eta argazkiak agertuko dira; euskal pertsonai esanguratsuak, Euskal Herriko paisaiak, gizarte tradizionalari lotutako eszenak, etab., aldizkariak kultura sustatzeari eman nahi zion garrantziaren erakusgarri. *Irrintzi*-k ilustrazio indartsuak erabiltzen ditu izenburuaren lagun, lehen orrialdetik elementu abertzaleak bistaratzeko asmoz.

Titulu nagusian gai sozialak jasotzen dira gehien aldizkari instituzionalean eta gai politikoak dira nagusi aldizkari politikoan. Aldizkari kultural-intelektualean berriz, hots, *La Baskonia*-n, titulu nagusian gai kulturek leku nabarmena duten arren, gai politiko eta sozialak ere maila antzerakoan landuko dira, aldizkariak zuen ikuspegi zabalaren adierazgarri. Bestalde, hiru aldizkarietan titulu nagusian gehien erabiliko den generoa iritzi-artikulua izango da, aldizkariak euskal kolektibitateetako kideengan eragiteko eta eztabaidarako espazio gisa zuten garrantzia erakutsiz.

Aztertutako piezen estiloa gaur egungo kazetaritza ikuspegitik baloratzea lan nekeza da. Erabiltzen den hizkera objektibitateetik urrun dago eta artikulua gehienetan kazetariaren iritzi pertsonala tartekatzen da. Narrazio tradizional subjektiboa erabiltzen dela esan daiteke eta erreportaje sakonetan ere kazetariak ez du iritzia ematea baztertzeko. Testuetan irakurleei erreferentzia egitea eta beraien inplikazioa bilatzea ere ohikoa da.

Aldizkarietan erabiltzen diren generoak ez dira zurrinak. Hala ere, azterketan ateratako emaitzetatik honako puntuak azpimarratu daitezke. Kazetaritza generoei dagokienez, albisteen presentzia nabarmena izango da *Laurak Bat* eta *La Baskonia* aldizkarietan. Aldizkarian zehar agertzen diren albiste solteez gain, diasporako berriei eta Euskal Herriko berriei zuzendutako sail jakinak edukiko dituzte biek. Sail horietan, albiste motz ugari daude eta sail finkoak izango dira aldizkariaren ibilbidean. Aitzitik, albisteek presentzia urria dute *Irrintzi*-n. Erreportajeek leku nabarmena hartzen dute hiru aldizkarietan. Genero erabilia izango da euskal pertsonai ezagunen biografiak ezagutzera emateko (Francisco Grandmontagnek idatzitakoak aipatu behar direlarik), euskal historiako pasarteak edo ohituren jatorria lantzeko, gai ekonomikoak jorratzeko, beste nazio batzuen egoera azaltzeko, etab. Kronikak gutxiago erabili arren, baliagarriak izango dira Argentinako euskal komunitatean egindako festa edo ospakizunen berri

emateko, Euskal Herriko egun garrantzitsuen kontakizunak egiteko, pilota partiden norgehiagokak kontatzeko edo hainbat txokotatik kolaboratzaileek bidalitako bidaia kronikak jasotzeko. Elkarrizketa gutxien erabiliko den generoa izango da. Iritzi-artikulu eta iritzi-zutabeek, berriz, garrantzi handia edukiko dute hiru aldizkarietan. Euskal Herriko eta Espainiako politikari buruzko iritziak (foruak, abertzaletasuna, etab.), Argentinako euskal etxeen inguruko gogoetak, euskaldunen izaera eta arraza defendatzeko beharra, euskararen garrantzia eta galtzearen arriskua, etab. izango dira iritziak ematean errepikatuko diren gaiak. Literatur artikuluetan ohikoak izango dira euskarazko bertso eta poemak. Halaber, ipuinek, nobela zatiek, kondairek edo antzerki piezek ere lekua izango dute. Zatika banatuta hitzaldiak eta liburuxkak ere argitaratuko dira.

Laurak Bat eta *La Baskonia* aldizkarietan antzerako edukiak dituzten sailak errepikatuko dira. Sail horiek jarraikortasuna edukiko dute aldizkarien ibilbide osoan, hauen tituluak zenbaitetan aldatu egingo diren arren. Horrez gain, sail guztiak ez dira zenbaki guztietan agertuko, hau da, editoreek argitaratzeko dituzten materialen arabera sail jakin batzuk jarriko dituzte.

Argazkiei dagokionez, *Laurak Bat* aldizkarian bakarra agertzen da azken zenbakian. *Irrintzi*-n gutxi erabiliko dira eta ia guztiak Sabino Aranaren argazkiak izango dira. *La Baskonia*-n, aldiz, argazkiak ohikoak eta askotarikoak izango dira zenbaki guztietan. Aldizkari kulturalak garrantzi handia eskaini zion irudiari hasieratik eta kalitatezko argazkiak argitaratu zituen. Indalecio Ojanguren bezalako korrespontsal grafikoei esker, Euskal Herriko txokoak eta egunerokotasuneko eszenak Ameriketako euskaldunen etxeetara iritsi ziren. Aldi berean, aldizkariaren orrietan diasporako komunitatearen ekitaldiak eta horietan parte hartzen zuten kideak irudien bidez erakutsi ziren.

Ilustrazioei dagokinez, *Laurak Bat*-en ez dago ilustraziorik. *Irrintzi*-n kasu honetan ere Aranaren irudiak nabarmenduko dira, eta horrekin batera, euskal abertzaletasunari lotutako bestelako sinboloak agertuko dira. Bestalde, ilustrazio satirikoak eta irudi apaingarriak ere erabiliko dira agerkari abertzalean. *La Baskonia*-n euskal artista garrantzitsuenen (Arrue anaiak, adibidez) margolanak erreproduzituko dira eta euskal artea sustatzeko apustu irmoa egingo da. Karikatuta eta binetak sarritan agertuko dira,

horien artean Victoriano Iraolaren umorezko binetak nabarmentzen direlarik. Ilustrazio dekoratiboek ere toki zabala hartuko dute, ia zenbaki guztietan egongo direlarik irudi apaingarriak testuen lagun.

Publizitateari dagokionez, *Irrintzi*-k ez zuen iragarkirik onartzen eta horixe gogorarazten du zenbaki guztietan abisu baten bidez. *Laurak Bat* aldizkarian argitaratutako zenbakien erdietan egongo da publizitatea eta iragarki mota hauek azalduko dira gehien: medikuak, dentistak, fabrika txikiak, saltokiak, etab. *La Baskonia* aldizkarian ere iragarki mota horiek agertuko dira gehien. Hala ere, aldizkari honen urte osoko zenbakien bilduma koadernatzen zenean, iragarkiak azaltzen ziren orrialdeak kanpoan uzten ziren, beraz, Urazandin digitalizatuta dauden zenbaki gehienek ez dute publizitatetik. Hori dela eta, aldizkari honi dagokionez, ezin da iragarkien erabileraren datu adierazgarriak osatu.

3.5. Aldizkarien gertaerekiko ikuspegia eta joera ideologikoak (HE5)

Diasporako aldizkarien jarduna Euskal Herriko gertakizunek baldintzatu zuten nabarmen Argentinakoek baino gehiago. Hau da, aldizkariko edukien zati handi bat Euskal Herriari begira idatzi ziren. Hala ere, ezin da ukatu nazioarteko jazoerek zuten eragina, hala nola, Lehen Mundu Gerraren ondorioak edo industrializazioa gizarte antolaketan eragiten ari zen aldaketak. Dena den, aldizkariak euskaldunen ikuspuntutik lantzen zituzten batez ere gai hauek. Horrela, iparraldeko euskaldunak gerrara joateak eragindako samina azpimarratuko da. Industrializazioari dagokionez, berriz, euskal gizarte tradizionalari lotutako euskal identitatea (ohiturak, janzkerak, dantzak, kirola, musika, hizkuntza, paisaiak, etab.) arriskuan ikusten zuten aldizkariak.

Ameriketako lehen euskal etheen *Laurak Bat* izenak erakusten zuen erreferentzia estatu espainiarra zutela, eta horrela, instituzioaren aldizkariak goiburuan Espainiako armari monarkiko tradizionala jarri zuen lehen zenbakietan, euskalduntasuna aberri handiaren barruan ulertuz. *La Baskonia*-ren kasuaren ere posible da Espainiaren atxikimendu hori ikustea hasierako urteetan, esaterako, Kubako Independentzia Gerran (1895-1898) espainiarren alde hartutako jarrera sutsua da horren erakusgarri. Aldiz,

Irrintzi-ren ustez euskaldunek ezin zuten era berean espainiar edo frantziar izan, hau da, abertzaletasun bikoitza, euskalduna eta bestelakoa, ez zuten onartzen.

Era berean, aldizkari abertzaleak hegoaldeko eta iparraldeko euskaldunen batasuna aldarrikatzen du eta Euskal Echea instituzioarentzat hitz oso onak izango ditu beti, euskaldun guztientzat zabaldua dagoelako. *La Baskonia*-k ere bat egingo du aldarrikapen horrekin eta aldizkariaren bidez iparraldeko euskaldunengana iristen saiatuko da. Euskal Herriko berriei buruzko sailean atal bat iparraldeari buruzko albisteei eskainiko die, eta gainera, albiste horiek euskaraz idatzita egongo dira. *Laurak Bat*-en kasuan, euskaldun guztien identitate komuna (hegoalde eta iparraldekoena) eraikitzekeo prozesuan egin ziren aldarrikapenek, kulturalaz gain helburu politikoa ere izan ote zuten eztabaidatu izan da, zenbaitek aurretiazko euskal abertzaletasun bat ikusiz bertan.

Laurak Bat eta *La Baskonia* aldizkarietan foruen bidezko agintearen defentsa etengabea izango da. Horren erakusgarri, Uriarteren aldizkariak urtero oroituko du uztailaren 21 eguna bere editorialean, euskaldunen berezko eskubide eta Batzar Nagusien defentsa eginez. *La Baskonia*-k inongo alderdi politikorekin bat egiten ez duela behin eta berriz aldarrikatu arren, urteek aurrera egin ahala euskal abertzaletasunaren ideiekiko gertutasuna nabari da aldizkarian. *Irrintzi* bere aldetik tinko mantenduko da Aranaren ideia abertzaleak defendatuz eta bestelako joera politikoei kritika zorrotzak eginez.

Modu ezberdinean bada ere, *La Baskonia* eta *Irrintzi* aldizkariak kritiko azaltzen dira *Laurak Bat* elkartearen jardunarekin. Aldizkari abertzalearen ustez erakundeak Espainiarekin izan beharreko haustura erabatekoa izan behar da, eta aldizkari kulturalak, berriz, elkartea aisialdirako izateaz gain, foruen defentsa egiteko eta euskal kultura bultzatzeko erabili beharra aldarrikatzen du. Horri lotuta, bi aldizkariak ez dute begi onez ikusiko euskaldunek zezenketak, “agarrado” dantza, boxeo edo futbola bezalako ohitura arrotzak bereganatzea.

3.6. *Euskararen pisua aldizkarietan (HE6)*

Hiru aldizkarietan euskararen aldeko jarrera sutsua izango da, artikulatu ugari eskainiz hizkuntzaren garrantzia eta aberastasuna azpimarratzeari. Euskarari buruzko ikerketak eta Euskal Herrian hizkuntzaren inguruan hartzen diren erabaki politikoak gertutik jarraitzen dira. Hala ere, orokorrean euskararen erabilera urria izango da aldizkarietan. Aztertutako aldizkarietan euskarak zuen erabilera behatuz, euskal prentsan euskara hastapen fase moduko batean zegoela esan daiteke.

Zenbaki ugarian euskara literatur lanetan soilik erabiliko da. Euskarazko literatur lanetan, beste batzuen artean, Felipe Arrese Beitia, Klaudio Otaegi, Marcelino Soroa, Emeterio Arrese, Cayetano Sanchez Irure, Ramon, Pepe eta Rosario Artola, Biktoriano Iraola edo Pello Mari Otaño aipatu daitezke.

3.7. *Aldizkariak zuzentzen ziren publiko mota eta jarraitzen zuten helburua (HE7)*

Aldizkari bakoitzaren funtzioa eta erabilera komunikatiboa honen tipologiak baldintzatuko zuen. *Laurak Bat* aldizkariak instituzioaren bizitzaren berri emango zuen, barnera zein kanpora begira, eta aldi berean, elkarteko kideen inplikazioa eta eztabaida bultzatuko zituen. *La Baskonia* aldizkariak euskal kultura sustatzea zuen oinarrian, eta horretarako, aldizkariaren bilduma euskaldunen historia, geografia, literatura, etab. jasoko zituen kontsulta liburua bihurtu nahi zuen. *Irrintzi* aldizkariak euskal kolektibitatea astintzea bilatu zuen eta euskal abertzaletasuna lau haizeetara zabaltzeko helburua jarraitu zuen.

3.8. *Aldizkarien bilakaera (HE8)*

Aldizkarien sorrerarekin gertatzen den modu berean, aldizkarien amaiera ulertzeko ere beharrezkoa da testuingurua eta bestelako ekimenen presentzia behatzea. Horrela, *Irrintzi* argitaratzeari utzi eta hurrengo urtean, 1924an, Acción Nacionalista Vascaren eskutik *Nación Vasca* aldizkaria sortuko zuten euskal abertzaletasunari lotuta. *La Baskonia*-ren kasuan, 1932an Jose Rufo Uriarte zuzendaria hil zenetik, Pedro de Echeverriak gidatutako taldeak aldizkaria duintasunez argitaratzen jarraitzeko ahalegina

egin zuen, Uriarteren omenez proiektuari jarraipena emateko. Hala ere, azken urteetan aldizkariak zuen erreferentzialtasuna apaldu egingo zen. Gainera, kontuan hartu behar da, 1943an *La Baskonia* argitaratzeari utzi ziotenean, *Euzko Deya* aldizkaria euskal kolektibitatean lekua hartzen ari zela 1939an argitaratzen hasi zenetik. Euskal Herriko gertaera politikoek erantzun berriak eskatzen zituzten eta euskal diasporako prentsa horietara moldatu beharrean zegoen irakurleengana iristeko.

Azken gogoeta

Tesi honetan aztertu den garaiaren hurrengo hamarkadetan ere hainbat kazetaritza ekimen sortuko ziren Argentinako euskaldunen artean. Doktoretza lan honetako atal batean, Euskal Diaspora Unibertsitate Espezializazioan titulua eskuratzeko egindako amaierako lana baliatuz, Argentinako euskal diasporan XIX. mende amaieran sortutako lehen prentsa ekimenetatik hasi eta azken hamarkadetako ingurumen digitaleraino egiten den ibilbidearen erreposoa egin da. Horretan oinarrituta, zenbait hausnarketa burutu daitezke denbora tarte horretako kazetaritza ekimenei buruz.

Diktadura frankistaren urteetan euskal abertzaletasuna kontinente berrian lekukotuko zen eta Ameriketara Euskal Herriaren gerraren ostean ezinezkoak ziren gauzak egin ahal izateko espazioa aurkitu zuten. Argentinan euskal abertzaleek eginiko lan propagandistiko, editoriala eta dibulgatzailea frankismo garai osoan burutu zen eta etengabea izan zen kazetaritza proiektu ezberdinen gauzatzea.

Argitalpenetako edukiak garai gogor eta muturreko baten isla dira, eta horrela, edukien politizazio nabarmena eman zen. Aldizkari gehienek helburu politikoak eduki zituzten, eta bestelako asmoak jarraitu arren, testuinguru politikoak baldintzatu zuen nabarmen kazetarien lana. Urte horien testigantza ezin hobea utzi zuten aldizkarietako artikulak eta idatziek, erbesteko garaiaren dokumentu historiko bihurtuz.

Teknologia berrien iritsierak eragin zuzena eduki zuen migratzaileen komunikabideengan. Informazioa sortu eta kontsumitzeko modua erabat aldatu zuen testuinguru globalizatuak. Transnazionalismoak estatu-nazioen mugak gainditzen direla esan nahi du, eta migratzaileei mugez gaindi beraien kultura eta identitatea eraikitzeke aukera zabaltzen die.

Satelite bidezko telebistak itsasoz bestaldeko euskaldunen etxeetara eramaten du Euskal Herria eta esperientzia digitalaren bidez beraien sorterrira bidaiatzeko aukera eskaintzen die. Nazioarteko euskal telebistaren bidez diaspora gaur egunarekin konektatuta dago eta euskal identitatea egungo erreferentziekin eraikitzea errazagoa da. Diasporako komunitatea sorterritik gertuago egotea ahalbidetzen du, komunitate

zentzua berrindartuz. Diasporan euskaldun izateko lehengaia eskaintzen die telebistak kanpoko euskaldunei, eta era berean, besteen aurrean euskaldun agertzeko aukerak indartzen dira.

Internetek diaspora eta Euskal Herriaren arteko komunikazioa azkarragoa eta eraginkorragoa izatea ahalbidetu du. Horrela, familien arteko kontaktua eta instituzioen arteko elkarlana hobetu ahal izan da nabarmen. Internetek diasporako euskaldunei euskaldun gisa agertzeko plaza birtuala eskaini die. Espazio berri horretan gertuko kideengana iristeko aukera dute, eta aldi berean, mundu osoari zabaldutako leihoa da. Instituzio eta talde ezberdinek espazio berri horretan lekua hartu beharra ikusi dute, besteak beste, kolektibitateen etorkizuna izango diren gazteak erakarri ahal izateko. Sare sozialetan diasporako edozein euskaldun izan daiteke euskal edukien sortzaile eta etengabe sortzen dira afinitate talde berriak. Berehalako elkar eragina eta parte hartzea sustatzen da munduko osoko euskaldunen artean eta komunitate birtualak sortzen dira. Ikusi beharko da etorkizunean nolakoa izango den komunikazio fisikoaren eta birtualaren arteko balantza.

Euskal kazetaritzaren historia osatzeko dago oraindik eta Ameriketako diasporako euskal prentsari buruzko ikerketak burutzea hutsune bat betetzea da. Prentsa idatzia ez da informazio iturri soilia. Euskal komunitatearen komunikazio sisteman duen garrantzia funtsezkoa da. Horrela, egindako lana euskal diasporari eta euskal kazetaritzaren historiari buruzko bestelako ikerketentzat baliagarria izatea espero da.

6. BIBLIOGRAFIA

AGIRREAZKUENAGA, Joseba. (1986). Bergarako itunaren ondoren Bilbon argitaratu ziren hiru aldizkariren berri: El Vascongado, El Vizcaíno Originario eta El Amigo de Vizcaya (1840-1843). In TUÑÓN DE LARA, Manuel eta GARITAONAINDIA, Carmelo (ed.), *La prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos* (493-510.orr). Bilbo, EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba. (1987). *Vizcaya en el siglo XIX: las finanzas públicas de un estado emergente*. Bilbo, EHU-ko argitalpen zerbitzua.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba. (1990). Prentsa euskaraz: 1936eko gudaldia eta lehen euskal Gobernuaren garaia. In TUÑÓN DE LARA, Manuel, GARITAONANDIA, Carmelo, de la GRANJA, Jose Luis eta de PABLO, Santiago. (1990). *Comunicación, Cultura y Política durante la II República y la Guerra Civil* (Vol.1, 125-150.orr). EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba. (2017). Egunaren sorrera (1937), euskaldunon kontakizunean: ezina egina. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 56.zbk, 4-19.orr.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba. (2019). Empoderando vidas y naciones resilientes desde el giro biográfico-local. *Cercles. Revista d'Història Cultural*, 22.zbk, 13-50.orr.

ALTONAGA, Kepa. (2009). Daniel Lizarralde medikuaren *Moskorrak* (1899) eta Florentzio Basalduaren Euskal Herri berria. *Euskalingua*, Bilbo, 15.zbk, 32-52.orr.

ALTONAGA, Kepa. (2017). *Patagoniara Hazparnen barrena*. Pamiela.

ALVAREZ GILA, Oscar eta TAPIZ FERNANDEZ, Jose Maria. (1996). Prensa nacionalista vasca y emigración a América (1900-1936). *Anuario de estudios americanos*, 53.bol, 1.zbk., 233-260.orr.

ALVAREZ GILA, Oscar. (2000). Los inicios del nacionalismo vasco en América. El Centro Zazpirak Bat de Rosario (Argentina). *Sancho el Sabio*, 12. zbk, 153-178.orr.

ALVAREZ GILA, Oscar. (2004). Las nuevas Euskal Herrias americanas: Los vascos y las emigraciones ultramarinas (1825-1950). In AGIRREAZKUENAGA, Joseba (ed.), *Historia de Euskal Herria. Historia general de los vascos* (319-392.orr). Bilbo, Lur Argitaletxea, 4.bol.

ALVAREZ GILA, Oscar. (2014). ¿Una historiografía sobre un vacío? Dos décadas de estudios sobre el asociacionismo emigrante vasco. In BLANCO, Juan Andres eta DACOSTA, Arsenio (ed.), *El asociacionismo de la emigración española en el exterior: significación y vinculaciones* (295-308.orr). Madril, Silex.

ALVAREZ GILA, Oscar. (2016). De una emigración regional a una colectividad nacional. Imagen y procesos en la construcción identitaria de la diáspora vasca en el Río de la Plata. *Rivista dell' Istituto di Storia dell' Europa Mediterranea*, 17/1.zbk, 67-70.orr.

ALVAREZ GILA, Oscar. (2019a). Entre la información y la creación de identidad: origen y desarrollo de la prensa de la emigración vasca en América, 1877-1936. *Revista Internacional de Historia de la Comunicación*, 12.zbk, 16-40.orr.

ALVAREZ GILA, Oscar. (2019b). *Antes de la ikurriña. Banderas, símbolos e identidad vasca en América (1880-1935)*. Madril, Silex Ediciones.

AMEZAGA, Josu. (2004). *Satelite bidezko nortasunak. Latinoamerikan Canal Vasco ikusten*. Donostia, Utriusque Vasconiae.

AMEZAGA, Josu. (2006). New uses for old needs in the diaspora. Watching Basque television in Latin America. *The Journal of International Communication*, 12.bol, 2.zbk, 52-69.orr.

AMEZAGA, Josu. (2007). Geolinguistic regions and diasporas in the age of satellite television. *International Communication Gazette*, 69 (3), 239-261.orr.

AMEZAGA IRIBARREN, Arantzazu. (2000). Andres Irujo Olo. El documentalista vasco del exilio. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel (ed.). *Setenta años después. Euskal erbestearen kultura* (259-284.orr). II. liburukia, Donostia, Saturrarán Editoriala.

AMEZAGA IRIBARREN, Arantzazu. (2000). Pello Mari Irujo Olo. El periodista vasco del exilio. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel (ed.), *Setenta años después. Euskal erbestearen kultura* (285-310.orr). II. liburukia, Donostia, Saturrarán Editoriala.

AMEZAGA, Elias. (2000). Diáspora del 36: nómina de prensa y periodistas vascos en ultramar. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel (ed.), *Setenta años después. Euskal erbestearen kultura* (281-314). I. liburukia, Donostia, Saturrarán Editoriala.

ANASAGASTI, Iñaki eta SAN SEBASTIAN, Koldo. (1988). Relación de prensa nacionalista y del Gobierno Vasco en América (1903-1978). *Boletín Bibliográfico de Estudios Vascos*, bol.1, 3.zbk, 43-58.orr.

APAOLAZA, Urko. (2009). Ameriketara joandako emigranteen irudia Euskal Herriko prentsan (1876-1936). *Kondaira*, 9.zbk, 1-22.orr.

ARANGO, Joaquin. (2000). Enfoques conceptuales y teóricos para explicar la migración. *Revista Internacional de Ciencias Sociales*, 165.zbk, 33-47.orr.

ARBELBIDE, Xipri. (2001). Californiako Eskual Herria. In LARRONDE, Jean-Claude (ed.), *Eugène Goyheneche Omenaldia- Hommage* (17-51.orr). Donostia, Eusko Ikaskuntza.

ARBELBIDE, Xipri. (2003). *Jean Pierre Goytino eta Californiako Eskual Herria*. Bilbao Bizkaia Kutxa eta Euskaltzaindia.

ARBELBIDE, Xipri. (2003). *Jean Pierre Goytino (1860-1920)*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, Bidegileak Bilduma.

ARBELBIDE, Xipri. (2006). Jean Pierre Goytino, Los Angelesetako notarioa. *Jado. Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, 9.zbk, 117-125.orr.

ARES, Pedro. (2004). *Grandmontagne. El escritor vascoespañol que se inició en la Pampa a fines del siglo XIX*. Buenos Aires, Editorial Mainz.

ARIZNABARRETA, Larraitz. (2015). *Martin Ugalde: cartografías de un discurso*. Buenos Aires, Editorial Ekin.

ARRIETA, Leyre. (2015). *La historia de Radio Euskadi (Guerra, Resistencia, Exilio, Democracia)*. Buenos Aires, Editorial Ekin.

ARZAMENDI, Arantxa. (2009). Catálogo de publicaciones periódicas donostiarras: 1800-1936. *Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria*, 35, 131-163.orr.

ASTIGARRAGA, Andoni. (1981). Prensa vasca en América. *Euzkadi*, 226.zbk, 20-23.orr.

AUBERT, Paul. (1986). El acontecimiento. In TUÑÓN DE LARA, Manuel eta GARITAONAINDIA, Carmelo (ed.), *La prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos* (47-71.orr). Bilbo, EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

AZCONA PASTOR, Jose Manuel. (1992). *Los paraísos posibles. Historia de la emigración vasca a Argentina y Uruguay en el siglo XIX*. Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.

AZCONA PASTOR, Jose Manuel. (2011). *El ámbito historiográfico y metodológico de la emigración vasca y navarra hacia América*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

BAILY, Samuel. (1978). The role of the two newspapers in the assimilation of Italians in Bs. As and Sao Paulo, 1893-1913. *International Migration Review*, bol.12, 3.zbk, 321-340.orr.

BERGARECHE, Macarena. (2009). El ser vasco en un país lejano. Identidad e integración. La Vasconia (1893-1914). *Temas de historia argentina y americana*, 15.zbk, 15-51.orr.

BIETER GARMENDIA, John eta Mark. (2005). *Un legado que perdura: La historia de los vascos en Idaho*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Urazandi Bilduma.

BLANCO RODRIGUEZ, Juan Andres. (2008). Aspectos del asociacionismo en la emigración española a América. In BLANCO RODRIGUEZ, Juan Andres (ed.), *El asociacionismo en la emigración española a América* (9-30.orr). Salamanca, Uned Zamora.

CALZINI, Gianfranco. (2021). La prensa étnica vasca y su apoyo a la expansión del nacionalismo aranista: un análisis del activismo político, las estrategias propagandísticas y la configuración discursiva del periódico *Irrintzi* (1903-1910). *XI Jornadas de Historia Moderna y Contemporánea*. Universidad Nacional de Sur.

CAVA MESA, Begoña. (1996). El asociacionismo vasco en Argentina. Política cultural. In ESCOBEDO MANSILLA, Ronald, de ZABALLA BEASCOECHEA, Ana eta ALVAREZ GILA, Oscar (ed.), *Emigración y redes sociales de los vascos en América* (137-169.orr). Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.

CHALABY, Jean K. (2005a). From internationalization to transnationalization. *Global Media and Communication*, 1 (1), 28-33.orr.

CHALABY, Jean K. (2005b). Deconstructing the transnational: a typology of cross-border television channels in Europe. *New Media & Society*, 7.bol, 2.zbk, 155-175.orr.

CHALABY, Jean K. (2009). Diversity within homogeneity: Migrant television in a transnational media order. Migration, Languages and Television Seminar-en aurkeztua, CCPR, Glasgow, 2009ko urtarrila.

CHECA GODOY, Antonio. (1993). *Historia de la prensa en Iberoamérica*. Sevilla, Ediciones Alfar.

CHUECA, Josu. (2008). El asociacionismo vasco en América. Itsasoz bestaldera. Al otro lado del mar. In BLANCO RODRIGUEZ, Juan Andres (ed.), *El asociacionismo en la emigración española a América* (113-128.orr). Salamanca, Uned Zamora.

CLIFFORD, James. (1997). Las Diásporas. In CLIFFORD, James (ed.), *Itinerarios culturales* (299-339.orr). Barcelona, Gedissa.

COHEN, Robin. (1996). Diasporas and the Nation-State: from Victims to Challengers. *International affairs (Royal Institute of International Affairs 1944-)*, bol.72, 3.zbk, 507-520.orr.

COLA GOITI, Jose. (1883). *La emigración vasco-navarra*. Gasteiz.

CRUSET, Maria Eugenia. (2015). *Nacionalismo y diásporas. Los casos vasco e irlandés en Argentina (1862-1922)*. La Plata, Ediciones Lauburu.

DE CRISTOFORIS, Nadia Andrea. (2020). La Guerra Civil española y su impacto en la prensa vasca de América: el caso del periódico *Euzko Deya* de Buenos Aires. *Cuadernos de Historia de España*, 87.zbk, 97-119.orr.

DE DIOS ALTUNA de MARTINA, Ángeles. (2005-06-16). Arturo Campión y sus colaboraciones en la revista eúskaro-argentina *La Baskonia* (1893-1925). *Euskosare*. [Arturo Campión y sus colaboraciones en la revista eúskaro-argentina La Baskonia \(1893-1925\) — EuskoSare \(archive.org\)](#)

DE DIOS ALTUNA de MARTINA, Ángeles. (2007-03-16). El arte y la construcción de una identidad vasca. *La Baskonia* (1893-1920). *Euskonews*. <https://www.euskonews.eus/zbk/386/el-arte-y-la-construccion-de-una-identidad-vasca-la-baskonia-1893-1920-iii/ar-0386015001C/>

DE DIOS ALTUNA de MARTINA, Ángeles. (2009-02-13). El arte y la construcción de una identidad vasca. El caso de la revista *La Baskonia* (1921-1943). *Euskonews*. <https://www.euskonews.eus/zbk/473/el-arte-y-la-construccion-de-una-identidad-vasca-el-caso-de-la-revista-8220la-baskonia-8221-1921-1943-i-ii/ar-0473015001C/>

DE DIOS ALTUNA de MARTINA. (2011). *Andrea Moch. Andanzas de una artista*. Buenos Aires, Dunken.

DE DIOS ALTUNA de MARTINA. (2012). Indalecio Ojanguren fotógrafo: su obra en la revista éuskaro-argentina *La Baskonia* (1913-1935). *Vasconia*, 38.zbk, 645-688.orr.

DE DIOS ALTUNA de MARTINA. (2012b). Jose Rufo Uriarte, periodista, editor y escritor. *Euskonews*, 642, 643 eta 644. zbk. <https://www.euskonews.eus/0642zbk/kosmo64201es.html>

DE DIOS ALTUNA de MARTINA, Ángeles. (2022). Revista La Baskonia. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/revista-la-baskonia/ar-11878/>

DE DIOS ALTUNA de MARTINA eta ALVAREZ GILA, Oscar. (2010). Jose R. de Uriarte y la revista *La Baskonia*: una visión atípica de la colectividad vasca de Argentina de entre siglos. In GARCIA SEBASTIANI, Marcela (ed.), *Patriotas entre naciones. Élités inmigrantes españolas en Argentina (1870-1940)* (339-359.orr). Madrid, Editorial Complutense.

DE PABLO, Santiago; MEES, Ludger. (2005). *El Péndulo patriótico Historia del Partido Nacionalista Vasco (1895-2005)*. Barcelona, Crítica.

DIAZ BIZKARGUENAGA, Koldo eta TSAVKKO GARCIA, Raphael. (2015). Transnacionalismo vasco e internet: Análisis del uso de blogs y Facebook en la diáspora. *Revista Científica Guillermo de Ockham*, 13.bol, 2.zbk, 55-63.orr.

DIAZ NOCI, Javier. (1992). *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.

DIAZ NOCI, Javier. (1994). *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*. Donostia, Eusko Ikaskuntza.

DIAZ NOCI, Javier. (1994). Gerra aurreko euskal kazetaritza eta hizkuntz-ereduak. *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, 28.bol, 3.zbk, 791-836.orr.

DIAZ NOCI, Javier. (2001). Historia del periodismo en lengua vasca de los Estados Unidos: dos semanarios de Los Ángeles en el siglo XIX. *Zer: Komunikazio ikasketen aldizkaria*, 10. zbk.

DIAZ NOCI, Javier. (2012). Historia del periodismo vasco (1600-2010). *Mediatika*, 13.zbk, 1-261.orr.

DIAZ NOCI, Javier eta MESO AYERDI, Koldobika. (2016). Manuel Aznar Zubigarayren kazetari-lana: *Euzkadi (1913-1918)*. *Mediateka*, 15.zbk, 141-173.orr.

DIAZ NOCI, Javier. (2018). Prosopografía y *career research* en la historia del periodismo (y una propuesta de aplicación). *Revista Internacional de Historia de la Comunicación*, 11.zbk, 84-101.orr.

DOUGLASS, William eta BILBAO, Jon. (1975). *Amerikanuak. Basques in the new world*. Reno, University of Nevada press.

DOUGLASS, William A. eta TOTORICAGUENA, Gloria. (1999). Identidades complementarias. La sociabilidad y la identidad vascas en la Argentina entre el pasado y el presente. In FERNANDEZ, Alejandro E. eta José C. MOYA (ed.), *La inmigración española en la Argentina* (257-271.orr). Buenos Aires, Editorial Biblos.

DOUGLASS, William A. (2003). *Global Vasconia: Essays on the Basque Diaspora*. Reno, Center for Basque Studies, University of Nevada.

CAMUS ETCHECOPAR, Argitxu. (2014). Instituciones étnicas vascas de la diáspora e identidad: el caso vasco. *Actas del XVII Congreso Internacional de AHILA (Asociación de Historiadores Latinoamericanistas)* (156-162.orr). Freie Universität Berlin.

Eusko Jaurlaritz. (2007). *Urazandi Digitala*. In: <https://urazandi.euskaletxeak.eus/>

Eusko Jaurlaritz. (2019). *Urazandi Digitala*. In: <https://urazandidigital.euskaletxeak.eus/>

EZKERRO, Mikel. (2004). *Historia del Laurak Bat de Buenos Aires*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

EZKERRO, Mikel. (2009). Tierra Vasca. Un hito en el periodismo político del exilio vasco en Argentina. *Euskonews*. <http://www.euskonews.eus/zbk/504/tierra-vasca-un-hito-en-el-periodismo-politico-del-exilio-vasco-en-argentina/ar-0504001003C/>

GARABEDIAN, Marcelo. (2017). Los estudios sobre los periódicos de los inmigrantes en la historiografía argentina. La prensa española. In GARABEDIAN, Marcelo (ed.), *La prensa periódica española en América Latina. Voces, prácticas y diálogos para la identidad española en la diáspora* (11-32.orr). Buenos Aires, Editorial Leviatán.

GARCIA SEBASTIANI, Marcela Alejandra. (2020). Nacionalismos e identidad nacional entre los españoles en Argentina (1860-1975). In GARCIA SEBASTIANI,

Marcela Alejandra eta NUÑEZ SEIXAS, Xose M. (ed). *Hacer patria lejos de casa. Nacionalismo español, migración y exilio en Europa y América (1870-2010)* (41-71.orr). Universidad de Zaragoza.

GARITAONAINDIA, Carmelo. (1986). Reflexiones acerca de la Historia de la Prensa y de otros medios de comunicación social. In TUÑÓN DE LARA, Manuel eta GARITAONAINDIA, Carmelo (ed.), *La prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos* (33-45.orr). Bilbo, EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

GARITAONANDIA, Carmelo. (1990). Euskal prentsa 1936ko uztailaren 18an aurretik. *Jakin*, 58.zbk, 35-85.orr.

GARRITZ RUIZ, Amaya eta SANCHIZ RUIZ, Javier. (2003). *Euskal Etxea de la Ciudad de México*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

GÓMEZ MOMPART, Josep Lluís eta MARÍN OTTO, Enric. (1986). Elements per a una caracterització de l'inici de la premsa diària de masses. In TUÑÓN DE LARA, Manuel eta GARITAONAINDIA, Carmelo (ed.), *La prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos* (83-97.orr). Bilbo, EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

GONZALEZ NEIRA, Ana. (2010). *Prensa del exilio republicano 1936-1977*. Santiago de Compostela, Andavira Editora.

GONZALEZ NEIRA, Ana. (2014). La identidad vasca en las publicaciones del exilio en Chile: *Batasuna, Euzkadi y Euzko Etxea*. In ACILLONA, Mercedes (ed.), *Exilio e identidad*. Donostia, Hamaika Bide Elkartea.

GONZALEZ NEIRA, Ana. (2016). La prensa del exilio vasco en México: Una heterodoxa voz en la diáspora. In ARIZNABARRETA, Larraitz (ed.), *Espacios de la heterodoxia del exilio*. Donostia, Hamaika Bide Elkartea.

HERMOSO, Ana eta RODRIGUEZ, Pilar. (1994). El periodismo del exilio vasco. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel eta SAN MIGUEL, Maria Luisa (ed.), *La Cultura del exilio vasco II. Prensa-periodismo, hemerografía, editoriales, traducción, educación-universidad* (43-70.orr). Donostia, Hamaika Bide Elkarte.

IRIANNI, Marcelino. (2020). Vascos y prensa en la pampa húmeda. Escenarios y necesidades (1850/1950). *Questión. Revista Especializada en Periodismo y Comunicación*, 1.bol, 65.zbk.

IRIGOYEN ARTETXE, Alberto. (2003). *Centro Euskaro de Montevideo o la dialéctica del ser*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

IRIGOYEN ARTETXE, Alberto. (2008). Exilio y hemerografía vasca anterior a la Guerra Civil. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel (ed.), *El exilio; debate para la historia y la cultura* (281-332.orr). Editorial Saturraran.

IRIGOYEN ARTETXE, Alberto. (2010). Publicaciones periódicas vascas en Uruguay (1876-1939). In ALVAREZ GILA, Oscar (ed.), *Organización, Identidad e Imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos XVI-XXI)* (207-224.orr). EHU-ko argitalpen zerbitzua.

IRIGOYEN ARTETXE, Alberto. (2014). *La Asociación Vasco Navarra de Beneficiencia de la Habana y otras entidades vasco-cubanas*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

IRUJO AMETZAGA, Xabier eta IRIGOYEN ARTETXE, Alberto. (2006). *La hora vasca del Uruguay. Génesis y desarrollo del nacionalismo en Uruguay (1825-1960)*. Montevideo, Institución de Cofraternidad Vasca de Euskal Erria.

IRUJO AMETZAGA, Xabier eta IRIGOYEN ARTETXE, Alberto. (2007). *La sociedad de confraternidad vasca "Euskal Erria" de Montevideo (Uruguay)*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

IRUJO OLLO, Andres. (1959). Don Nemesio de Olariaga (1864-1933). *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, 36.zbk, 23-24.orr.

IRUSTA ORBEGOZO, Juan Mari. (2008). Biografía de Nemesio Olariaga. *Leyçaur: revista de estudios históricos de Andoain*, 10.zbk, 63-108.orr.

IZTUETA, Paulo. (2019). *Publicaciones periódicas del exilio vasco durante el franquismo (1936-1975)*. Donostia, Utriusque Vasconiae.

KARIM, Karim H. (2003). Mapping diasporic mediascapes. In KARIM, Karim H. (ed.), *The Media of Diaspora* (1-18.orr). Routledge.

KRIPPENDORFF, Klaus. (1990). *Metodología de análisis de contenido: Teoría y práctica*. Ediciones Paidós.

KRIPPENDORFF, Klaus., eta BOCK, Mary Angela. (2009). *The content analysis reader*. Los Angeles, Sage.

LEFEBVRE, Théodore. (1933). *Les modes de vie dans les Pyrénées atlantiques orientales*. Paris, Librairie Armand Colin.

LHANDE, Pierre. (1910). *L'émigration basque*. Paris, Nouvelle Libairie Nationale.

LLORDEN, Moises. (2008). El asociacionismo de los inmigrantes españoles en América, proceso formativo y manifestaciones más notables. In BLANCO RODRIGUEZ, Juan Andres (ed.), *El asociacionismo en la emigración española a América* (51-90.orr). Salamanca, Uned Zamora.

MADARIAGA, Ainara, SAENZ DE VITERI, Iraia eta FARIÑA, Carlos. (2008). *Tres tesis en el entorno de Euzko Etxea*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

MEHATS, Claude. (2002). Articles en basque parus en 1843 dans le *Patriote Français* de Montevideo. *Lapurdum*, 7.zbk, 247-257.orr.

MEHATS, Claude. (2005). *Organisation et aspects de l'émigration des Basques de France en Amérique: 1832- 1976*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritz.

MEHATS, Claude. (2012). Eskual Herria: journal des basques français du Río de la Plata. *Vasconia*, 38.zbk, 447-478.orr.

MIGNABURU, Magdalena. (2013). Origen y antecedentes del EAJ-PNV en la República Argentina. *Hermes: pentsamendu eta historia aldizkaria*, 44. zbk, 54-63.orr.

MIGNABURU, Magdalena eta LEGARRETA, Josu. (2022). *Euskal-Etxea. Proyecto educativo de emigrantes vascos*. Bilbo, Ikeder.

MOTA ZURDO, David. (2018). La lucha por la libertad. El gobierno vasco en el exilio y sus colectividades a través de las ediciones americanas de *Euzko Deya* (1939-1953). *Revista Internacional de Historia de la Comunicación*, 11. zbk, 102-125.orr.

MOYA, Jose C. (2004). *Primos y Extranjeros. La inmigración española en Buenos Aires, 1850-1930*. Buenos Aires, Emecé Argentina.

MOYA, Jose. (2008). Los inmigrantes y sus asociaciones: una perspectiva histórica y global. *Apuntes de investigación del CECYP*, 13.zbk, 11-50.orr.

MUÑOZ MUÑOZ, Edurne. (2004). Tellagorri vs. Olivares Larrondo. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel eta SAN MIGUEL, Maria Luisa (ed.), *Los hijos del exilio vasco: arraigo o desarraigo* (585-599.orr). Donostia, Saturrarán Editoriala.

MUXIKA, Joxe Mari. (2002) Euskaraz idatzitako aldizkariaren errolda: 1960-1999. *Mediateka*, 9.zbk, 9-110.orr.

NEIRA VILAS, Xose. (1985). *A prensa galega en Cuba*. Edición do Castro.

NÚÑEZ SEIXAS, Xosé M. (2014). *Las patrias ausentes. Estudios sobre historia y memoria de las migraciones ibéricas (1830-1960)*. Gijón, Genuvee Ediciones.

OIARZABAL, Pedro J. (2010). The Online Social Networks of the Basque Diaspora: Fast Forwarded, 2005-2009. In ECHEVERRIA, Javier, ALONSO, Andoni eta OIARZABAL, Pedro J. (ed.), *Knowledge Communities* (211-241.orr). Reno, Center for Basque Studies.

OIARZABAL, Pedro J. (2012). Diaspora Basques and Online Social Networks: An Analysis of Users of Basque Institutional Diaspora Groups on Facebook. *Journal of Ethnic and Migration Studies*, 28.bol, 9.zbk, 1469-1485.orr.

OIARZABAL, Pedro J. (2013). *The Basque Diaspora Webscape. Identity, Nation, and Homeland, 1990s-2010s*. Reno, Center for Basque Studies.

OIARZABAL, Pedro J. (2019). (Re)loading identity and affective capital online: The case of Diaspora Basques on Facebook. In SMETS, Kevin, LEURS, Koen, GEORGIU, Myria, WITTEBORN, Saskia eta GAJJALA, Radhika (ed.), *The Sage Handbook of Media and Migration* (246-257.orr). Londres, Sage Publications.

PARK, Robert. (1922). *The immigrant press and its control*. Nueva York eta Londres, Haper & Brothers Publishers.

PEÑA, Vicente. (1998). *Repertorio da prensa galega da emigración*. Arquivo da Emigración Galega.

PUENTE BRUNKE, Jose de la. (2004). La cofradía de Aránzazu de los vascos de Lima. In ALVAREZ GILA, Oscar eta ARRIETA, Idoia (ed.), *Las huellas de Aránzazu en América* (103-113.orr). Donostia, Eusko Ikaskuntza.

PUJADAS, Joan J. (2000). El método biográfico y los géneros de la memoria. *Revista de antropología social*, 9.zbk, 127-158.orr.

RAMOS, Jon Ander. (2010). Los inicios de la prensa vasca en Cuba. *Laurac Bat de La Habana (1886-1895)*. In ALVAREZ GILA, Oscar (ed.), *Organización, Identidad e Imagen de las colectividades vascas de la emigración (siglos XVI-XXI)* (195-206.orr). EHU-ko argitalpen zerbitzua.

RAMOS, Jon Ander. (2011). Faustino Díez Gaviño e a primeira empresa xornalística en Cuba. *Estudos Migratorios: revista galega de análise das migracións*, 4.bol, 1-2.zbk, 85-104.orr.

RAMOS, Jon Ander. (2017). Una aproximación a la prensa periódica en la diáspora vascoamericana (siglos XIX-XX). In GARABEDIAN, Marcelo (ed.), *La prensa periódica española en América Latina: voces, prácticas y diálogos para la identidad española en la diáspora* (80-100.orr). Buenos Aires, Editorial Leviatán.

ROCK, David. (1989). *Argentina 1516-1987: Desde la colonización española hasta Raúl Alfonsín*. Alianza América, 1989.

RUBIO POBES, Coro. (2016). Centinelas de la patria. Regionalismo vasco y nacionalización española en el siglo XIX. *Historia Contemporánea*, 53, 393-425.orr.

RUIZ DE GAUNA, Adolfo. (1991). *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*. Donostia, Eusko Ikaskuntza.

SAIZ VALDIVIELSO, Alfonso C. (1977). *Triunfo y tragedia del periodismo vasco (1900-1939)*. Madrid, Editora Nacional.

SAN MIGUEL, Maria Luisa. (2006). Historia y filosofía de una revista del exilio: *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*. In AZNAR SOLER, Manuel (ed.), *Escritores, editoriales y revistas del exilio republicano de 1939* (1049-1056.orr). Sevilla, Renacimiento.

SAN MIGUEL, Maria Luisa. (2008). Sebastián de Amorrortu: testigo del primer exilio del nacionalismo vasco. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel (ed.), *El exilio; debate para la historia y la cultura* (393-407.orr). Donostia, Editorial Saturrarán.

SAN SEBASTIAN, Koldo. (1989). Prensa Vasca en América (1): Venezuela. *Muga*, 70.zbk, 62-71.orr.

SAN SEBASTIAN, Koldo. (1989). Prensa Vasca en América (1): México. *Muga*, 71.zbk, 38-43.orr.

SAN SEBASTIAN, Koldo (2014). *El exilio vasco en América*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

SAN SEBASTIAN, Koldo eta AGUIRRE, Anna M. (2018). *Newyorktarrak: origen de la comunidad vasca de Nueva York, 1880-1955*. Gasteiz, Urazandi Bilduma.

TAPIZ FERNANDEZ, Jose Maria. (2002). La actividad política de los emigrantes: el caso vasco (1903-1936). In ALVAREZ GILA, Oscar eta ANGULO MORALES, Alberto (ed.), *Las migraciones vascas en perspectiva histórica (siglos XVI-XX)* (179-189.orr). Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.

TENNEY, Alvan A. (2009). The scientific analysis of the press. In KRIPPENDORFF, Klaus., eta BOCK, Mary Angela (ed.), *The content analysis reader* (16-20.orr). Los Angeles, Sage.

TIELVE GARCIA, Natalia eta PRIETO FERNANDEZ DEL VISO, Jose Manuel. (2021). *La prensa de la emigración española en América: Visiones y revisiones*. Trea.

TORREGROSA CARMONA, Juan Francisco. (2015). Un siglo de prensa vasca en América. In AZCONA PASTOR, Jose Manuel (ed.), *Identidad y estructura de la emigración vasca y navarra hacia Iberoamérica, siglos XVI-XXI. Redes sociales y desarrollo socioeconómico* (362-382.orr). Madril, Thomson Reuters Aranzadi.

TORRY, Eduardo. (2010). En el Bicentenario argentino recordando “Los Baskos en el Centenario” de *La Baskonia. Gurengandik, Revista académica del Centro de Estudios Arturo Campión*, Buenos Aires, 6.zbk.

TORRY, Eduardo. (2015). Inmigración vasca en Buenos Aires. Según la publicación *Laurak Bat (1878-1891). Gurengandik, Revista académica del Centro de Estudios Arturo Campión*, Buenos Aires, 11.zbk.

TOTORICAGÜENA, Gloria. (2003). *Diaspora Vasca Comparada*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

TOTORICAGÜENA, Gloria. (2005). *Basque Diaspora: Migration and Transnational Identity*. Reno, Center for Basque Studies.

TSAVKKO GARCIA, Raphael. (2018a). *The Basque digital diaspora: left-wing abertzale solidarity groups in Argentina*. Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.

TSAVKKO GARCIA, Raphael. (2018b). Diasporas and the role of social media on militant/political activities: The Basque diaspora in Argentina in the spotlight. *Crossings: Journal of Migration and Culture*, 9.bol, 1.zbk, 77-90.orr.

TUÑÓN DE LARA, Manuel. (1986). Presentación. In TUÑÓN DE LARA, Manuel eta GARITAONANDIA, Carmelo (ed.), *La prensa de los siglos XIX y XX. Metodología, ideología e información. Aspectos económicos y tecnológicos* (13-17.orr). EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

TUÑÓN DE LARA, Manuel eta GARITAONANDIA, Carmelo. (1986). *La prensa de los siglos XIX y XX: metodología, ideología e información: aspectos económicos y tecnológicos*. EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

TUÑÓN DE LARA, Manuel, GARITAONANDIA, Carmelo, de la GRANJA, Jose Luis eta de PABLO, Santiago. (1990). *Comunicación, Cultura y Política durante la II República y la Guerra Civil*. EHU-ko Argitalpen Zerbitzua.

URRUTIA LEON, Manuel. (2010). Unamuno y la revista ilustrada *La Baskonia*. *Cuadernos de la Cátedra Miguel de Unamuno*, 48.zbk, 1, 177-205.orr.

WEBER, Max. (2009). Towards a sociology of the press. An early proposal for contents analysis. In KRIPPENDORFF, Klaus., eta BOCK, Mary Angela (ed.), *The content analysis reader* (9-11.orr). Los Angeles, Sage.

ZABALA, José Ramón. (1994). Aproximación a la hemerografía del exilio vasco: 1936-1960. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel eta SAN MIGUEL, Maria Luisa (ed.), *La Cultura del exilio vasco II. Prensa-periodismo, emerografía, editoriales, traducción, educación-universidad* (71-128.orr). Donostia, Hamaika Bide Elkartea.

ZABALA, Jose Ramon. (2000). Isidoro de Fagoaga. La soledad del humanista. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel (ed.), *Setenta años después. Euskal erbestearen kultura* (91-114.orr). II. liburukia, Donostia, Saturrarán Editoriala.

ZABALA, Jose Ramon. (2004). Los hermanos Estornes Lasa: cimientos para una nueva cultura vasca. In ASCUNCE ARRIETA, Jose Angel eta SAN MIGUEL, Maria Luisa (ed.), *Los hijos del exilio vasco: arraigo o desarraigo*. Donostia, Saturrarán Editoriala, 381-399.orr.

ZABALA, Jose Ramon. (2012). La revista *Gernika* en Buenos Aires. *Gurengandik, Revista académica del Centro de Estudios Arturo Campión*, Buenos Aires, 8.zbk.

ZABALA, Jose Ramon. (2015). La revista *Euskaltzaleak*, isla del euskara en Argentina. *Gurengandik, Revista académica del Centro de Estudios Arturo Campión*, Buenos Aires, 11.zbk.

ZABALA, Jose Ramon. (2016). Opinar no es saber. Una revista en defensa de la cultura vasca. *Gurengandik, Revista académica del Centro de Estudios Arturo Campión*, Buenos Aires, 12.zbk.

ZABALA, Jose Ramon. (2016b). Contra el silencio impuesto: las publicaciones en lengua vasca del exilio de 1936. In GONZALEZ-ALLENDE, Iker (ed.), *El exilio vasco. Estudios en homenaje al profesor José Angel Ascunce Arrieta* (99-116.orr). Deustuko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

ZABALTZA, Xabier. (2011). *Agosti Xaho. Aitzindari bakartia (1811-1858)*. Eusko Jaurlaritza, Bidegileak Bilduma.

ZELAIA, Kepa. (2021a). La prensa de la emigración vasca en América (1876-1936): promotores, objetivos y realidades. In TIELVE GARCIA, Natalia eta PRIETO FERNANDEZ DEL VISO, Jose Manuel (ed.), *La prensa de la emigración española en América: Visiones y revisiones* (71-85.orr). Trea.

ZELAIA, Kepa. (2021b). La llegada del nacionalismo vasco a México y su órgano de expresión: *Euzkotarra* (1907-1909). In SOTO-QUIROS, Ronald eta TAUZIN-CASTELLANOS, Isabelle (ed.), *Migraciones, viajes, y transferencias culturales: Huellas de movilidades entre México, Centroamérica, Francia y España (1821-2021)* (169-187.orr). Editorial de la Sede del Pacífico, Universidad de Costa Rica.

ZELAIA, Kepa. (2021c). Diasporako euskal prentsa politikoaren sorrera Argentinan: *Irrintzi* (1902-1903). *Boletín del programa de estudios vasco-americanos*, 31-32-33.zbk, 3-42.orr.

ZELAIA, Kepa. (2021d). La prensa vasca de la diáspora en Argentina anterior a la Guerra Civil: *Laurak Bat* (1878-1891), *La Baskonia* (1893-1943) e *Irrintzi* (1902-1923). V Jornadas Internacionales de América Latina y el Caribe (IEALC). Buenos Aires.

ERANSKINAK

Ikerketa honetan, hiru aldizkarien eduki-analisia burutzean, aldizkarien zenbaki bakoitzeko fitxa (2.5.1.1. puntua) bat bete da informazio biltzeko asmoz. Ondorengo estekan eduki-analisan jaso diren datuak behatu ahal dira:

<https://labur.eus/eranskinakTesiaKepaZelaia>